

EUSKARAREN LEKUKOAK BILDUMA - ZUZENDARIA:
Joseba Lakarra, *euskaltzain osoa*.

Azken tituluak

19. *Refranes y Sentencias* (1596)
Ikerketak eta edizioa
Joseba Lakarrak prestatuturiko edizioa · 1997
20. *Idazlan guztiak*
FRAI BARTOLOME SANTA TERESA
Julen Urkiza eta Luis Baraiazarrak
prestatuturiko lana · 2000
21. *Aita Juan Mateo Zabalaren Sermoiak (II)*
JUAN MATEO ZABALA
Luis Villasantek prestatuturiko lana · 2000
22. *Gueroa guero*
PEDRO ANTONIO AÑIBARRO
Blanca Urgellek paraturiko edizio kritikoa · 2001
23. *Eusqueraren berri onac*
AITA AGUSTIN KARDABERAZ
Patxi Altuna eta Esther Zulaikak
paraturiko edizio kritikoa · 2004
24. *Birjinia, edo donceil christaba*
Ikerketak eta edizioa
Jose Antonio Mujika prestatuturiko lana · 2010
25. *Egiategiaren filosofo huskaldunaren ekheia*
Bigarren liburua
Txomin Peillenek prestatuturiko lana · 2010
26. *Kadet eta bettiriño*
edo Yesu Christo eguiatzco Yainco Guizonaren bizia eta heriua
laur evanyelista eguiatzcuen eta sainduien arabera.
Manuel Padillak prestatuturiko ikerketa eta edizio kritikoa · 2011

Euskararen Lekukoak Bildumaren gainerako tituluak in:
www.euskaltzaindia.net/iker_jagon/bildumak/lekukoak

EUSKARAREN LEKUKOAK BILDUMA

Mendez-mende, edozein euskalki eta edozein literatura motatan euskara landu duten autore eta hizlariekin eta arrazoi batengatik edo bestegatik estudiatuak izatea merezi duten testuekin liburu bilduma bat osatu nahi du Euskaltzaindiak. Euskararen lekuko horiek gaurko eta etorkizuneko ikasle, irakasle, idazle, euskaltzale, euskalari eta abarren eskuetan modu egoki eta artatuan jarri nahi genituzke
Bilduma honi esker.


laguntzailea:



el.
26

MANUEL PADILLAK prestatuturiko ikerketa eta edizio kritikoa

KADET ETA BETTIRIÑO



MANUEL PADILLA MOYANO (Kordoba, 1976).

Goi mailako ikasketak egin ditu Kordoba eta Sibiliako kontserbatorioetan, Piano, Solfeo, Musikaren Pedagogia eta Musikologiako espezialitateetan goi irakasle tituluak eskuraturik (1984-1999). Kordobako Dantza Kontserbatorioan Ballet Klasikoko pianojole aritu ondoren, 2000. urtean bigarren hezkuntzako oposizioak irabazi zituen.

2005etik Euskal Herrian bizi da. Geroztik Euskal Filologiako estudioak egin ditu Gasteizen eta Baionan (2005-2009), karrera bukaerako sari berezia lortuz, eta ondoren Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologiako Masterra bete du, Hizkuntzalaritza Diakroniko eta Dialektologiako adarretan. Master horren tesiaren moldaketa bat da, hain zuzen, liburu hau.

Irakaskuntzan hamar urte emanik, egun Eusko Jaurlaritzaren ikertzaile bekaduna da, Ekialdeko euskal testu zaharren gaineko proiektu batean diharduela.

Manuel PADILLA

KADET ETA BETTIRIÑO

edo

Yesu Christo egiazco Yainco Guizonaren bizia eta heriua
laur evanyelista egiazcuen eta sainduien arabera

Manuel PADILLA

KADET ETA BETTIRIÑO

edo

*Yesu Christo eguiazco Yainco Guizonaren bizia eta heriua
laur evanyelista eguiazcuen eta sainduien arabera.*

XVIII. mendeko eskuizkribu anonimo baten
edizio kritikoa eta azterketa.

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2011

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:
www.euskaltzaindia.net/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:
www.euskaltzaindia.net/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:
www.euskaltzaindia.net/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:
www.euskaltzaindia.net/azkue

- © MANUEL PADILLA (Azterketa eta edizioa)
- © JOSEBA LAKARRA (Hitzaurrea)
- © EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde zuzeneko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S.L.
Aurreinprimatzea: Ikur, S.A.
Inprimatzea: Baster, S.L.L.

ISBN: 978-84-95438-71-3
Lege-gordailua: BI-983-2011

Aurkibidea

Joseba Lakarra: BI HITZix

AITZINSOLASAxiii

I. AZTERKETA

1. SARRERA

1.1. Datazio irizpideak	1
1.1.1. Hizkuntzaz landako argudioak	1
1.1.2. Hizkuntzaren barneko argudioak	2
1.2. Izkribuaren herexa	2
1.2.1. Transmisioa	2
1.2.2. <i>Orotatiko Euskal Hiztegia</i> , zeharka	3
1.2.3. Testua nola izenda	3
1.3. Testuaren izaera didaktikoa	5
1.3.1. Solasaldi baten molde pean	5
1.3.2. Sinonimiaren erabilera pedagogikoa	7
1.3.3. Aipuen iruzkinak	8
1.4. Euskarazko eskolatzea XVIII. mendean	8
1.4.1. Oinarrizko instrukzioa: <i>ororen eskolak</i>	8
1.4.2. Irakaskintza jasoagoa: seminarioak	10
1.5. Eliza eta irakaskintza Iraultza aitizineko Hazparnen	12
1.5.1. Iraultza aitizineko Eliza Hazparnen	12
1.5.2. Misionestak	12
1.5.3. Erretreta Etxea	13
1.5.4. Hazparneko eliza gizonak	15
1.6. Larramendiren kultur proiektuaren itzala Iparraldean	17
1.7. Kronologia	21

2. HIZKUNTZAREN AZTERKETA

2.0. Atarikoak	23
2.1. Grafiak eta hotsak	24
2.1.1. Bokalak	25
2.1.2. Kontsonanteak	26
2.1.3. Diakritikoak	32
2.2. Fonologia	32
2.2.1. Bokalak	32
2.2.2. Kontsonanteak	37

2.3. Izen morfologia	40
2.3.1. Deklinabidea	40
2.3.2. Izenordainak	45
2.3.3. Erakusleak	49
2.3.4. Posesiboak	53
2.4. Aditz morfologia	54
2.4.1. Forma jokatugabeak	54
2.4.2. Forma jokatuak	58
2.4.3. Alokutibotasuna	69
2.5. Sintaxia	74
2.5.1. Genitiboa adiera destinatiboz	74
2.5.2. Objektu zuzena genitiboan	75
2.5.3. Destinatibo markaren hedakuntza	75
2.5.4. X-rekin Y = X eta Y	76
2.5.5. Egitura konparatiboak	77
2.5.6. Artikulu zehazturik gabeko superlatiboa	80
2.5.7. Erlatibozko egitura zenbait	81
2.5.8. Linschmann-Aresti legea	83
2.5.9. Adlatibo + laguntzaile	85
2.5.10. Konpletiboa ezezko aginteran	86
2.5.11. <i>-a</i> galdera morfema	86
2.5.12. Zenbait aditzen jokadura eta errejimen zaharraz	88
2.5.13. Perpausen hedadura	89
2.6. Lexikoa	91
2.6.1. Maileguak, neologismoak eta <i>hapax legomena</i>	91
2.6.2. <i>Hiztegi Hirukoitzaren</i> eragina	92
2.6.3. Eratorpena	97
2.7. Ondorioak	102
3. BIBLIOGRAFIA	105
4. ERANSKINAK	
I. Izkribuaren azterketa fisikoa	111
II. Adizkitegia	119
III. Hiztegia	131
IV. Onomastikon	207
II. EDIZIOA	
1. Edizio irizpideak	212
2. <i>Kadet eta Bettiriño</i> . Edizio kritikoa	215

Bi hitz

Manu Padillak hain egoki azterturik eta atondurik dakarkigun *Kadet eta Betiriño* hau hark UPV/EHU-n arestian (*bikain, aho batez*) igarotako Master tesi bermoldatua duzue. Padillak hasi berri duen bere doktoregorako urrats burokratiko gisa hartu beharrean, eskuartean duzun harribitxia gehitu dio euskal corpusari, eta ez nolnahi gehitu ere, noski: ez testu baldar eta zikina, argitaratzaileak ozta ozta ulertu eta jaramon handirik gabe ekarria, aberriaren alde baino egun bateko filologotza hartu duenaren grazigabeko jolas bailitzan; bai, aldiz, txukun eta artatsu, testuaren zertzelada larri eta nimiñoak zainduaz, bereziki —baina ez bakarrik— hizkuntzarenak, gure garai bateko literaturaren kide berri bati zor zaion duintasunez plazaraturik.

Kadet eta Betiriño alde askotarik dugu Euskararen Lekukoak bilduma honetarako modukoa: forma hutsari banagokio eta edukina eta estetika adituagoei utzia, dela genero eta garaiak —Frantziako Iraultza aurreko elkarrizketa luzexka eta pedagogikoa, sinonimoen eta aipuen erabilera nabarmenarekin—, dela bertan erabiltako hizkuntzak ere, hortara ginderamatzan. Agian antzekorik (berdinik ez) Oñatin, Zuberoan edo Nafarroan izan den arren —direnak edo liratekeenak ere behar baino ezkutuago, hori bai—, ezer gutxi da *Kadet eta Betiriño*-ren tankera-kerorik irakurlearen zein ikertzailearen irispidean. Hori, dirudienez, enparatuak baino hiru edo bospasei dozena urte lehenago, XVIII. mendearen erditsuan edo.

Bilduma honetan bertan lotzen zaizkion mende bereko eta Iparraldeko *Birjinia* eta *Filosofo hüskaldunaren ekheia*-ren adibideetan legez, ez da aipatugabe uztekoa Laramendiren 1745eko hiztegiaren erabilera neurritzkoa —goi mailako filosofia ez zen helburu— eta, bestalde, beharrezko berritasunentzat maileguak hartzeko lotsarik eza ere: dakigunez, jesuitaren *Hirukoitzak*—ez ahantz aurreko gramatika eta apologia!— mende eta Erdiko literatura euskaraz izandako saio garrantzitsuenetan bazuen nola-baiteko balioa Hegoaldean. Ez hori guztia bakarrik, jakina, eta Padillak erakutsi digunez, are lehenago beharbada Hazparnen Loiolan edo Hernanin baino ere.

Manu Padillaren lehen lan hau aski garbi mintzo da egileak testu atzenduekiko duen irrikaz; orobat, zein diren bere jardunari jarri dizkion betebeharrak eta zertzeladez. Ezinbestean, bada, zilegi dugu harengandik opari berririk itzarotea euskara idatziaren bilakabideaz dugun ikuspegia aberatsago eginaz. Bitartean, irakurle, har eta dasta *Kadet eta Betiriño*.

Joseba Lakarra

*A mis padres,
José Antonio y Soledad,
por su bondad infinita*

Esker ematea:

Eskerrak bihurtu nahi dizkiet honako lagun hauei: Aurelia Arkotxa, Gidor Bilbao, Iñaki Camino, Irantzu Epelde, Ricardo Gómez, Imanol Lekue, Céline Mounole, Koro Segurola, Blanca Urgell, Xarles Videgain eta, modu berezian, Joseba Andoni Lakarra eta Beñat Oyharçabal. Lan hau haien aholku, ohar eta zuzenketen zordun da, dituzkeen akatsak, ahulguneak eta gabeziak neureak baizik ez izanik.

Beñat Oyharçabali zor diot, halaber, proiektu honen izate eta gauzatze bera, soilik aita batek ahal lukeen bezala eman baitit aitzina joateko kuraia.

Aitzinsolasa

BETTIRIÑO: Eta yauna, gauza batec bertzia ekhartzen ohi duien bezala, orhoitzen naiz salbatzaille zerutarrac erran ziola Simoni: *Emac ume huni anhez behatu barkhatuic izan zaizquioc, zeren anhez maithatu baitu, multa peccata...*

CADET: Gaizqui huha, Bettiriño; erran behar duc *Remittuntur ei peccata multa quoniam dilexit multum*.

BETTIRIÑO: Yauna, utz nezazu accabatzera. Orai baino lehen ahal daquizu ez dela latina nic phenxatuia ez asmatuia. Bertze alde, hitz choil bat gora bera edo aitzin guibel, ez ahal du mila importa...

CADET: Osoqui trompatzen eta enguenatzen hiz haurra. Testament edo Ordenu Zaharra eta Berria erran behar dituc han diren bezala, bi arrazoin direla causa: lehenbizicoric, letra saindu eta eguiacarren hequierrri zor zayoten errespectu haundia dela causa; eta bi garrena, zeren guizon itxu eta guezur khoyec ez baitiote correi, eta gutiago arranya, Izpiritu Sainduiaz eguin, erran, eta arranyatuic diren gauza sacratu hoc.

(*K&B*, 62)

2009ko ekainaren 18an XVIII. mendeko eskuizkribu bat aurkeztu genuen Hazparnen, Euskaltzaindiaren 90. urteurreneko ospakizun ekitaldian sarturik.¹ Idazki haren lehen berria 2008an jakin nuen, Euskal Ikasketak egiten nituelarik Baionan, aitzineko urte batean Annie Lissarrek hartaz master lan batean lehenbiziko transkripzio saio bat egina baitzuen. Irakasleekin mintzatu ondoan, ikerketa berezia eta edizio kritiko bat egin zitekeela pentsatu nuen, eta horretarako lehen urratsak abiatu.

Transkribatu, aztertu eta —zenbait puntutan— egokitu dugun eskuidatzia ez da testu laburto eta ezdeus bat; *a contrario*, bere 205 orrialde eta 26.800 hitzekin lehen mailako lekukotasuna da, XVIII. mendeko nafar-lapurteraren² corpusaren

¹ Padilla, M., 2009, “Hazparneko euskara XVIII. mendeko testu argitaratugabe baten arbera”, *Euskera* 54, 1. 181-190.

² Konzient gara *nafar-lapurtera* izendapena XIX. mendean azaleratzen den literatur dialekto bat definitzeko sortua dela, hots, behenafarreraren eragina —baina ez bakarrik— barneratu duen lapurtera berriago bat (ikus Pikabea 1993: 15-22). Lan honetan termino horren erabilera libre eta berezia egiten dugu, tradizionalki Lapurdiko behenafarreraren sartu diren bariatateen inguruko eztabaida dialektalekiko distantzia hartu nahian; bada, Hazparne aldeko euskararen kokapenez den bezainbatean, gauzak arras nahasiak suerta baitaitezke (Epelde 2003: 9-14). Zilegi izan bekigu, beraz, *nafar-lapurtera* (ez-)konpromisozko deitura hau tradizionalki *lapurtera* eta *behenafarrera* gisa —ekialdekoa nahiz mendebaldekoa— ezagutu ditugun euskalkien batura bezala baliatzea.

emendatzera datorrena. Testua espezifikotasun bat markatzen duten zenbait ezau-garriz hornitua da:

- Anonimoa da.
- Hazparne aldeko euskararen lekukotasunik zaharrena dateke.
- XVIII. mendeko genero didaktikoan koka daiteke.
- Irakurleria femenino bati zuzendua da.
- Solasaldi baten forman egina da, hikako moldeak pisu handia izanik.
- Larramendiren lanaren eragipen goiztiarra erakusten du.

Ez dakigu deus egileaz, nahiz apez bat zela aise suposa dezakegun. Lehen orrian edukia azaltzen zaigu, izenburu gisara: *Yesu Christo eguiazco Yainco Guizonaren bizia eta heriua laur evanyelista eguiazcuen eta sainduien arabera*. Jondoni Johansen Ebanjelioaren ordena berean azalduak dira parabolak eta gai nagusiak ere. Zenbait parabola luzaz dira aipatuak, hala nola ogi bihiarena edo haur prodigoarena. Ama Birjinari leku handia eskaintzen zaio, testuaren hastapenean (1-40), bai eta Maria Magdalenari ere, penitent bezala (55-64). Zenbait pasarte garaiko gizarateaz mintzo zaizkigu, zeharka bada ere:

Egungo eguneco nescacha dohacabec, Elizaz baino plaza publicuez artha guehiago dutenec [...] imitatzen die Andre Magdalena bere bekhatu eta desordretan, baina ez bere conbersio edo itzulmendu admiragarrian, eta orainic are gutiago bere penitencia famatuian. (55-56)

Lekukotasun ezohiko hau Iraultza aitazinekoa da, mende erdian kokatzen ahal dugularik. Horrek XVIII. mendeko lapurteraren tradizioa garamatza; izan ere Baionako diozesan testu berriak argitaratu ziren garai hartan. Liburu batzuk baliatuak izan ziratekeen instrukzioetan edo Elizaren irakaskuntzan, apezgaitegietan. Etxeberri Sarakoaren *Lau-urdira gomendiozko karta, edo guthuna* (1718), Chourioaren *Imitazionea* (1720), Martin Harrieten *Gramatica escuaraz eta francesez* (1741) edo beharbada Haranederren *Gudu espiritual* (1750) dira gure izkirioaren autoreak ezagut zitezkeen lan batzuk.³ Halere, frogatu dugun eragin ezin ukatuzkoena Hegaldetik zetorkion: Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza* (1745).

Formaren aldetik, testua solasaldi baten itxurapean egituratzen da, Kadet ize-neko apeza eta Bettiriño haurra elekide izanik. Urrun gara, beraz, debozio liburu zaharretarik, bai eta katixima baten formatik, zeren Aita Kadet eta Bettiriño galto-arrapostu eskema mekaniko batera plegatu gabe, malgutasun eta libertate handirekin mintzatzen baitira. Idazkia, beraz, aiseago koka daiteke XVIII. mendean indartsu zegoen genero didaktikoan, gero ikusiko denez.

³ Berriagoak dirateke Larregiren lanak (1775-1777), Mihuraren *Andredena Mariaren imitazionea* (1778) edo Baratciarten *Guirichtinoki bicitzeco eta hiltzeco moldea* (1784).

Erran dezakegu, beraz, idazkiaren garrantzia bikoitza dela: batetik, Hazparne aldeko euskararen berri ematen digun lehen testua delakotz, nafar-lapurteraren corpusa emendatzen duena; bestetik, euskarazko genero didaktikoaren lekukotasun franko interesgarria delakotz. Gainera, hizkuntzatik begiratu haren euskarak baditu hainbat elementu ikerketa saio bat eskatzen zutenak. Hazparnen errana gelditu zen bezala, testu haren ezaugarriek ikertze sakonago batera bulkatzen ninduten, eta arte honetan ene hitzari ohore egiten ahalegindu naiz. Lan horren emaitza eskaintzen da orain.

I

AZTERKETA

1. Sarrera

1.1. Datazio irizpideak

Lot gakizkion orain testuaren kokatze historikoari. Zeregin honetan bi irizpide mota desberdin balia dakizkiguke: hizkuntzaz kanpokoak eta barnekoak.

1.1.1. Hizkuntzaz landako argudioak

Bi irizpide estralinguistiko mota baliatu zaizkigu: batetik ur marken informazioa, eta bestetik *irizpide sozio-historikoa* deit genezakeena. Haren fidagarritasun mailagatik, paperaren ur marken ikertzea funtsezkoa da euskarri fisikoaren dataitzeko. Kontu horietan aditua den Koro Segurola andreari eskatu zitzaion paperaren analisia, datu zehatzak eman dizkiguna (ikus IZKRIBUAREN AZTERKETA FISIKOA). Estudio honen emaitzek munta handiko bi datu eskaini digute. Lehenik, XVIII. mendeko papergintzan ezaguna den deitura bat: Ballande familiarena, Gavaudun eskualdekoa. Bigarrenik, papera 1742 baino lehen datekeela egina, beti ere argi utziz kaiera 1742az geroztik ere izan zitekeela erabilia.

Nolanahi ere den, paperaren ekoizte datak XVIII. mende erditsura garamatza: horretaz dakitenek erraiten digute paperaren erabiltze epea urte eskas batzuetara mugatzen dela —eskuarki bizpahiru urtekoa—, aintzat hartzen den gehienezko denbora-marjina hamar bat urtekoa izanik.

Bestenaz testuak informazio sozio-historikoa eskain dezake, dagokion gizarte giroa iradokitzen baitu. Eta ematen dizkigun zantzu guztien arabera, giro hori Iraultza baino lehenagokoa izan behar da:

- Testuan islatzen den harremana, jaun apez eta haur ttipi baten artean nekez gerta zitekeen Iraultza ondoko denboretan: 1789az geroztik Frantziako Eliza izitzen da, uzkurtzen, eta horrekin erlijioa bortizten da. Ondorioz, XIX. mendeak seriotasun bat, tinkotasun bat markatuko du. Erka bekio hemengo testua Duvoisin kapitainaren *Laborantza* liburuari (1858), non semea gure testuan somatzen dugun baino distantzia handiago batetik mintzatzen baitzaio aitari, prefet bailitzan kasik.
- Gauza jakina da *ex silentio* argudioek ez dezaketela deus handirik frogatzen. Halere, ez da aise onartzekoa 1789az geroztik eliza gizon batek gisa honetako testu luze batean Erreboluzioarekiko aipamenik egin ez dezan, hain zuzen gertatu ez balitz bezala.

1.1.2. Hizkuntzaren barneko argudioak

Larramendiren neologismoen erabilera da *Kadet eta Bettiriño*ren ezaugarri aipagarrienetako bat. Ezaguna denez, *Diccionario Trilingüe* zedarrri ezin utzizkoa dugu XVIII. mendean. Hazparneko *Vie de Jesus* honetan bertako hitzak atzeman ditugu, erran nahi baita Larramendik irazan hitz berriak, eta beraz hura baino lehen ezin dokumentatuzkoak. Bihoaz hiru etsenplu: *abrildu* ‘immolar, matar en sacrificio alguna res’; *gaindadi* ‘mysterio’ eta *irasenda* ‘contraveneno, antídoto’. Honen arabera, testuak 1745 ondokoa behar du izan.

Neologismoen atzematea arras baliatu zaigu testuaren datatze egitekoetan, *post quem*-eko elementu segur bat eskaintzen baitigu (paperaren ekoizpena, jadanik ikusi den bezala, 1742 baino lehenagokoa da). Bi datu hauek, azkenean, bateragarri izateaz haratago, elkarri ematen diote indarra.

1.2. Izkribuaren herexa

1.2.1. Transmisioa

Badakigu Maurice Harriet (1814-1904) izkirioaren lehen jabe ezaguna izan zela. Hil eta urte guttira haren euskal biblioteca Larresoroko apezgaitegitik Belokeko abatetxera pasa zen, handik Uztaritzeko apezgaitegira iragaiteko. Zenbait urteren buruan Etcheverry izeneko apez batek atxiki zuen Uztaritzeko bere gelako armairu batean. Denborarekin Etcheverryk Lafitteri uzteko proposatu zion apezgaitegiko buru zen Matthieu-ri (hazpandarra sortzez, 1931ean apezpiku izanen zena). P. Lafittek Aita Andiazabal egin zuen bere ondasun horren begirale. Duela zenbait urte, azkenean, Aita Andiazabalek eskuizkribu batzuk begiztatzeko utzi zizkion Piarres Charrittoni, eta honek IKER-eko ikertzaileei ere erakutsi, eta fotokopiak egitera utzi, zeinetan gu oinarritu baikara lan honen abiarazteko.

Idazki hau, beraz, Lafitteren ondarekoa da, non Uztaritze eta Larresoro dokumentuak biltzen baitira. Zirriboratu dugun transmisioak izkribuan utzi duen azterna bakarra, aldiz, Belokeko abatetxearen zigilua da. Honela dio:⁴ *Institution N.-D. de Bel-loc. Urt (B.-P.)*. Gogora dezagun aipatu abadia 1875ean izan zela zabaldua, Ahurtin (Lapurdi).⁵

⁴ Arras higitua da zigilua. Josune Olabarria andereari eskertu nahi nioke eman didan laguntza.

⁵ Baina zergatik egon ote zen Harrieten biblioteca denbora batez Beloken? Bernard Goityk (2007: 397-407) kontaktzen du nola 1906ko bukaeran Baionako elizbarrutiko apezgaitegiak hetsi eta hustu zituzten. Larresorokoa (*Petit Séminaire*) berehala, 1907an, Beloken jarri zen, hango beneditanoak mugaz bestaldera joan ondoan, 1926 arte, Uztaritzeko apezgaitegi berria urte hartan ireki baitzen.

1.2.2. Orotatiko Euskal Hiztegian, zeharka

Ibilbide luzexko horretan, alta, gure testua era isilean iragan da. Guk dakigula, Maurice Harrietek bakarrik erabili zuen eta aipatu, bere hiztegian izkiriortik ilki zenbait adibide txertatuz, *Vie de Jésus manuscrite* aipamoldeaz. *OEH*-k ez du testu hau bere corpusean sartu, baina haren zeharkako aipamen zenbait egiten ditu, beti ere Harrieten hiztegitik hartuak. Ikus ondoko sarrerak, *OEH*-tik hartuak:⁶

LIPAR [...] “*Denbora liphar bat*, une parcelle de temps (*Vie de J.C. manuscrite*)” Harriet.

PIKO-SAGAR “*Figue verte, non mûre. Etzuen orainik arbola hunek phiko-sagarrik baizen* (*Vie man. de J.C.*)” Harriet.

UHUNBE “*Plongeon, descente d’un objet au fond de l’eau. Untzia uhunberat zohan*, le vaisseau allait couler au fond (*Vie de Jésus manuscrite*)” Harriet. v. *pulupa*.

Aipagarri dira, halaber, LO-GURKHUSKA eta NABAR sarrerak, non hitzaren adiera batean *OEH*-k Harrietengandik hartu aipuak ekartzen baititu. Ohartaraz dezadan Harrietek ez zuela, kasu hauetan, bere iturria aitortu:

LO-GURKHUSKA (-*kh*- H (L)). “*Arratseko othoitzza lo gurkhuska egitea*, faire la prière du soir à peu près endormi, en faisant des saluts de tête” Harriet.

NABAR [...] “5. au fig., [...] trompeur, dissimulé, qui se présente sous différents aspects. *Zer perfidia nabarra! Zer hipokrisia beltza!*, [...]. 6. au fig., sale, déshonnête. *Guthizia, desirkunde nabar, lohi, satsuak*, envies, désirs sales, impures, immondes” Harriet.

Honela atzematen ditugu etsenpluak jatorrizko testuan:

- *zeinetan ez baitzen egon dembora liphar bat baizin* (35).
- *haren chalupa bethiaren bethetz uhunberat baitzuhan* (45).
- *orainic etzuien arbola hunec phico saaric baizin* (153).
- *Ya zuien goitz arratxeco othoitzac, nahiz guehienetan lô gurkhusca edo phuscache eguiten ohi dituzuie* (141-142).
- *zer perfidia nabarra, zer hypocrisia beltza*. (15).
- *guthizia eta desircunde nabar, lohi, xaxu guziac* (50).

1.2.3. Testua nola izenda

Testuaren transmisioaz aritzeak bide eman digu beste afera batez mintzatzeko: haren izendatzeko manera. Izkirioaren lehen orrialdeko goiburuan honakoa ira-

⁶ Aipatu hitzetan *uhunbe* eta *piko-sagar* hapax legomena dira. kurtzen da:

*Yesu Christo eguiazco Yainco Guizonaren bizia eta heriua
laur Evanyelista eguiazcuen eta Sainduien arabera.*

Beraz, zeren hautatu *Kadet eta Bettiriño* izenburua? Ez dea oraintxe aipatu goiburu hori, klarki, izkribuaren titulua? Bai, izan bada. Gainera frogatu dugu Maurice Harrietek testu hau ezagutu zuela, eta bere hiztegiarendako baliatu. Badu bere interesa datu honek, zeren izkirioari izendapen bat emateko tenorean ez baitzitekeen ahantz erabilia izatea suertatu zaion aldi bakarrean *Vie de Jésus manuscrite* gisara izan dela aipatua, eta ez *Yesu Christo eguiazco Yainco Guizonaren bizia eta heriua...*

Ene ustez baziren arrazoinak testuari beste mota bateko izenburu baten emateko:

- a) Batetik, izenburuaren tradizioak ez du aski obligatzen: Harrietek baino ez zuen aipatu, *Vie de Jésus manuscrite* bezala itzuli eta laburturik. Azpimarkatzeko da, gainera, Harrieten hiztegia ez dela inoiz argitaratua izan eta, beraz, hark erabili deitura ezin izan dela inondik inora ere zabaldu hura erabili ondoko hiztegiarekin urriez landa.
- b) Bestetik, *Yesu Christo eguiazco Yainco Guizonaren bizia eta heriua laur evanyelista eguiazcuen eta Sainduien arabera* luzeegi litzateke testuaren izenburutzat hartzeko, urrun baita egungo ohitzatik honen titulu luzearen ematea.

Hortaz, testu honen izendatzeko beste molde baten xerka abiatu ginen, eta egokiagotzat jo dugu *Kadet eta Bettiriño*.⁷

- Lehenik, hobeki ezkontzen delakotz testuaren natura didaktikoarekin, solaskideen izenak nabarmenduz (mintzaldia Aita Kadet eta Bettiriño haurraren artean gauzatzen da).
- Bigarrenik, idazkiaren berehala kokatzeko balio duelakotz, espezifikotasun bati egiten baitio erreferentzia, eta ez hainbat erlijio testutan kausi genezakeen edukiari. Etsenplu soil bat: bada Lhandek bere hiztegian *Hazparneko kalbario* gisa aipatzen duen izkribu bat.⁸ Erran gabe doa gurea *Jesusen bizia eta herioa* bezalako izenburu batekin aipatzeak nahastekamendua ekar lezakeela.
- Hirugarrenik, aipabide trinkoago bat eskaintzen digu, gogoan aiseago atxikitzeko eta baliatzeko errazago, *K&B* laburdurapean ere eman daitekeena.

Haizu izan bekigu.

⁷ Egungo giroan hobeki txertatzeko proposatzen dugu izenburuaren oraiko ortografian ematea.

⁸ *Dictionnaire basque-français*-ean (Paris, 1926), *Nom d'auteurs et d'ouvrages* direlakoan taulan (xxxviii. orrialdean) "Hazparneko Kalbario" bat aipatzen da, *Hazp.* laburdurari dagokiona. Lhandek lapurteraren lekukotasunen artean kokatzen du.

1.3. Testuaren izaera didaktikoa

Euskararen corpus historikoan ez dira ugari xede didaktiko duten testuak, ka-tixima xumeez landa. Aipatzekoa da Frantses Iraultzaren garaiko eskola liburuxka bat (Oyharçabal 1997 eta 2006). Aztertu dugun testua diferente izan arren, genero didaktikoan sar genezake, ondoko ezaugarriak azpimarkatuz:

- a) Solasaldi baten moldean egina izatea.
- b) Sinonimiaren erabilera pedagogiko nabarmena.
- c) Latinozko eta beste mota bateko aipuen iruzkinen presentzia.

1.3.1. Solasaldi baten molde pean

Hauxe da, formaren aldetik, *K&B*-ren ezaugarri argiena, begien bistakoena, eta tradizio didaktiko batekin klarki erlazionatua.⁹ Kadet izeneko apeza eta Bettiriño haurra elekidet izanik, malgutasun eta libertate handirekin mintzatzen dira. Nabarmenezkoak dira haien harremanen kalitatea eta hurbiltasuna. Zenbaitetan haurrak bere ikasteko grina agertzen dio Aita Kadeti:

CADET: Orai contez hiz Bettiriño?

BETTIRIÑO: Yauna huntaz contez niz, bainan samur ez bazinite, bertze galde labur bat banuque.

CADET: Phenxatzen diat, Bettiriño, zer galde eguin nahi duian.

BETTIRIÑO: Astia zira beraz yauna, zu; galde eguin nahi nautzun eya aita eta semia bera ere etzirenez trailatu ama viryinareen sabelian.

CADET: Hauche duc galde extraordinariua eguin dautayana undarrian, Bettiriño. Uste duca galde suerte guzien arraphostuac eman ere badizaqueyadala?

BETTIRIÑO: Yauna, ez naiz anhez penetan yaquintasunez eta arguiez, bainan bai anhezetan borondatiuz. Guzia zure nahian datza. Eta huntaz contentatucu naiz behin, bainan hunen arraphostuia behar dut.

(9)

BETTIRIÑO: Yauna, hemen banuque galdeño bat zuri eguiteco, bainan zeren ikhusten dudan zure beguian colera pintatua, mihiaren moco mocotic barnerat egorri dut.

⁹ XVIII. mendeko instrukzio erlijiosoan baziren solasaldiaren ereduaren arabera eginikako lan didaktikoak. Alexandre de Caulet abateak (1684-1733), adibidez, ama-alaba elkarrizketan oinarritu zuen lan bat: "Il avait composé en faveur d'une jeune demoiselle de cinq ou six ans, qui promettait beaucoup, un petit catéchisme de morale et une conversation entre elle et sa mère, qu'on lui fit apprendre par cœur, où il ramenait en abrégé tous les principes de la religion et de la vertu, de la manière la plus nette et la plus touchante" (Bertrand de La Tour: *Vie de l'abbé de Caulet*, xvi). Ez dakigu nondik edaten duen *Kadet eta Bettiriño*ren egileak; ikertzeko liteke frantses eredu batean oinarritzen den, uste dugun bezala.

CADET: Ukharen duc orainic dembora frango galde gauzezen eguiteco, Bettiriño; goazin oraino aitzina.

(100)

BETTIRIÑO: Emequitto, emequitto, yauna; parabolac horren ederrac izan, eta zuc horren ederqui azaltzen, eta parabola hau utziric aitzina yoan nahi zaizquit? Othoitz-ten zitut, yauna, bi hitzto-ren bederen erraitia parabola hunen gainian, eta hitz emaiten dautzut zeruian izar den bezent bat parabola guehiago izanic ere, baquian utziren zitudala.

CADET: Etzaquiat, haurra, hic gauzen ikhasteco duian cocaluch edo hatz errabiatu hori, nola egonen hi quitzicatu gabe eta ene beharriac hantu gabe, parabola baten izena aditu eta iduria ikhusiz gueroz? Bainan, dena den bezala, orainic plazer hau eguinen dayat.

BETTIRIÑO: Yauna, hitz eman daut-zut eta nore hitzari ohore eguinen diot.
(139)

Bettiriño diszipulu ona dela erakusten du, Aita Kadeti entzun diona labur bilduz, honi haria gal ez dakion:

CADET: Bethico ukharen duca, Bettiriño? Mardi, Andre Magdalenac hi oraico arabera discipulu fina ukharen hi?

BETTIRIÑO: Yauna, alchatu zinuenian, arrazoinequin, bekhatoren bezala eguiazco penitenten molde edo modela eder hau, nic galde eguin naut-zun neure gauzen errotic eta funhez ikhasteco hatz saminarequin, nungua zen Andre Magdalena, eta zer ofizio zuien. Eta zuc ihardexi zinerautan deitzen zela *Magdate*, zeren zen Jurdan erriberaren haindico aldeco *Magdala* deitzen zen herrihca bateco alaba; zela guziz famatua, zeren izaira edo naturalezaren dohain guziac, hitz batez ororen erraiteco, berequin zituela (zeren ikhusten dut, yauna, yadanic khachatu zirela). Erran zinerautan, yauna, dembora berian —bainan orai baino pazienza guehiago zinuenian— bere offizioz zela eguiazco modista bezala, moda berri guzien autorra, eta dembora berian perruquertxa; bazaquitza, beraz, gorphutz baten (burua barnian) mundutar eta encantadore eguiteco behar ziren secretu eta moyen guziac. Eta orai accabatzen dut oharpentto hunequin. Niri orduan guehiago erran bazinaut, nic orai, aldiz, guehiago erranen nautzula; ezic yauna, batere secreturic neurezat beyratu gabe oro erran daizquit.

CADET: Admiratzen ditiat, Bettiriño, hire hartze ona eta yuyamendu goiztiarra. Bainan yaquin izan banu hunen khorda luzian sartzera yohan hintzala, eta elhe chorro hortan hoinbertze khondaira bazela, ez gunituian hunen urrun yoren. Hainbertze mintzatu hiz, Bettiriño, nun ez bainiz orai orhoit ere nun guelditu guinen.

BETTIRIÑO: Yauna, ez baduzu bertze sabel minic, ez ukhan hortaz penaric: mende oso bat, erran nahi dut ehun urtheco bat solasian egonic ere, ni bethi or-

hoituco naiz gure sail hasia nun uzten dugun. Simon farisayuaren etchian guelditu guinen, yauna.

(63-64)

Erran den bezala, solaskideak librokori mintzo dira, hurbiltasun batetik. Ondoko pasartean agerian gelditzen dira konfidantza maila eta harremanen kalitatea:

CADET: Zer dioc orai, Bettiriño? Ez hiz content oraico alditto huntaco? Ezic iduritzen zautac zerbait erran eta erakhuxi dayatala oraico phús huntan.

BETTIRIÑO: Yauna, guziz content naiz. Bizquit artian badut orainic arrangu-ratto bat: hitz eman zinaiztan parabola eder hetaric zombait, mihiaren mocotic phasatu zaizquit-zu?

CADET: Zer dioc, quichquila?

BETTIRIÑO: Yauna, barkha zadazut. Mihiac laster eguin deraut. Erran nahi nuien hoinbertze gauza ederren artian, ez ez daquizulacotz, bainan ohar gabian eta uste gabez utzi dituzula phasatzera zombait parabola, ez choilqui azaldu gabe, bainan bai orainic achala den gutiena ere hunquitu gabe. Ezic orainic falta dirade, yauna, mustarda hazi ttipiarena eta alchagariarena.

CADET: Zer, eta guziac aldi batez ez choilqui ikhasi, bainan iretxi nahi dituc?

BETTIRIÑO: Yauna, aditzen zaitut eta endelgatzen, erran nahi da... Eguizu, yauna, plazer duzuna; zure borondatia enia da. Capharnaun guelditu guinen gure Salbatzaillia bere apostoluerri bere parabola misterioxiuen azaltzen uzten guinuelaric.

(76-77)

1.3.2. Sinonimiaren erabilera pedagogikoa

Erranahikideak oparoki izaten dira erabiliak, binomio eta trinomotan, eskuarki *edo* juntagailuaren bidez. Arazo diferenteei aitzi egiteko baliabidea da hau:

- a) Mailegu edota hitz kultoagoen konpreniarazteko: *enyendratu edo sorthua* (1), *testament edo ordenu zaharreco* (1), *malaproposqui edo funxic gabe* (60), *erre-compenxa edo ordaintza* (97), *costuma edo usantza* (169), *copa edo edan untzi* (169), *hipocrisia nabarra edo atxeguin beltza* (189).
- b) Berdin neologismoekin: erranahikide edo azalpen batez lagunduak agertzen dira: *emac umeric heroico edo homantena* (6), *misterio edo ezin endelgatuco gaindadi batzu* (10), *yanthorontze edo banquet* (165), *baineta edo diferentzia* (170), *desogobituiac edo determinatuiac* (190), *billaquieitzen edo chehequi iformatzen* (192), *miniztatzen edo mehachatzen* (198).
- c) Euskararen barneko sinonimoak ematen ahal dira, batzuetan hizkera diferentetakoak: *gambara edo guela* (2), *aurkhitu edo hazeman* (22), *zeruco*

gultza edo gakhua (25), *pichar edo pegar batequin* (40), *Ebiacoitz edo larunbate* (44), *chalupan edo unchiscan* (45).

- d) Edo hitz baten azalmendua, etimologikoki ere: *dibortzia edo senhar emazten berechtia* (50), *eguerditic, edo egun erditic* (43), *parfun edo ur usain onezco batequin* (59), *enigma edo coropilo lachgaitz huntaz* (111), *erresurezione edo berriz phiztu onduan* (156).

1.3.3. Aipuen iruzkinak

Latinozko eta beste mota bateko aipuen komentarioak kausitzen ahal ditugu. Adibide gisa, bihoaz bi pasarte hauek:

CADET: Bainan erran ezadac: orainic sei urthetaco adina, eguia erraiteco orainic ez zahar, bainan apenaz iracurtzen yaquin, eta latin hoc nundic athera dauzquidac? *Vt cognovit* eta *Vides hanc mulierem...* Egua bada ere ez duc *Vides* baizic *Vide hanc mulierem*; bainan dena den bezala...

(58)

BETTIRIÑO: Eta yauna, gauza batec bertzia ekhartzen ohi duien bezala, orhoitzen naiz salbatzaille zerutarrac erran ziola Simoni: *Emac ume huni anhiz bekhatu barkhatuic izan zaizquioc, zeren anhitz maithatu baitu, multa peccata...*

CADET: Gaizqui huha, Bettiriño; erran behar duc *Remittuntur ei peccata multa quoniam dilexit multum.*

(61-62)

1.4. Euskarazko eskolatzea XVIII. mendean

1.4.1. Oinarrizko instrukzioa: ororen eskolak

K&B aise koka daiteke XVIII. mendeko genero didaktikoan. Gogora bedi garai hartan oinarrizko eskolatzea Elizaren begipean zegoela, Iraultza artio bederen, eta euskaraz egiten zela.¹⁰ Beñat Oyharçabal oinarrizko eskolatzeko horren historiaz mintzo zaigu (1997: 1-10):

¹⁰ XVIII. mendean Iparraldeko populazionearen zati handi bat elebakarra zen. Hortaz, Elizak euskararen beharra zekusan Jainkoaren hitza jende xumeengana helarazteko. Ekar dezagun Bellefonds apezpikuaren aipua, Bertrand de La Tour-en *Vie et lettres de mademoiselle d'Etcheverry* (1751) lanaren prefaziotik hartua: "On peut dire que la langue rend le pays Basque presque inaccessible aux étrangers; il leur est presque impossible de l'apprendre; elle n'a aucun rapport avec une langue connue. Ce pays ne peut donc trouver de ressources que dans lui-même pour l'instruction des peuples et l'éducation de la jeunesse. Peu de familles sont en état d'envoyer leurs enfants ailleurs; les personnes du sexe et les gens de la campagne y seraient absolument sans secours, si des prédicateurs, des maîtres et des maîtresses du pays, ne se chargeaient pas de les instruire dans leur langue".

Izan ziren 17. mendean, eta are gehiago, 18. mendean, Iparraldeko euskal herrialdeetan, erresumako beste aurkientzetan bezala, hala nola Biarnon eta Baionan, Frantzian *petites écoles* erraten zitzairen, eta euskaraz Belapeyrek *ororen eskola* deitu zituen eskolak. Egitura horiek, maiz herriek bere antolatzen bazituzten ere, eta erregeek, 1698tik aitzina oroz gainera, sustatzen, elizak bultzatu zituen, Trentoko kontzilioaren ondotik bereziki, bere irakaskintza jendeen artean hobeki finkatzeko.

Oyharçabalek gaztigatzen digun bezala, Belapeyrek (1696) antolamendu horren berri ematen digu bere katiximaren atarian:

Nous avons ordonné, au conformément au susd. arrêt du Conseil d'Etat du 18 septembre 1665 tous les curés du présent país de Soule, feront incessamment établir chacun en droit-soy, par la voye du droit, un ou deus Régens d'école, de la qualité requise, selon la portée, & situation de leurs paroisses, pour l'instruction & éducation des enfans dans la crainte de Dieu, & la connoissance de ses saints mystères, compris au catéchisme du présent diocèse, que nous avons composé en langue basque, vulgaire du présent país, au dépens de chaque communauté. (arrêt 27/07/1693).

Erretor eta Vicariec biciki escola eraciren dutie bere Parropietaco haur gaztiac, chipiçaroan ihiki ikhas, eta hartia hobeki bethicoz beguiratcen ahal dielacoz. Hala goure Jaun Apezcupiaren ordenancen arau, Norc bere Parropietan, Orogen escolabat eçar eraciren die ahalic sarriena, çognez arrancura berhecibat Vkenen baitie bere erretoretaco eguinbidec lekhu derieno, auher eztaudian, nontic sortcen baitira vicioac; edo beste escola burçagui onsa ikhassi, bicitce honetaco, eliçaco javez onhexi datian, bati eraguinen. [Zuberoako ofizial gisa egin ordenantza, erretor eta bikariei manatu].

Euskarazko irakaskintza horren xedea, beti ere, alderdi espiritualaren menpe zegokeen: alfabetatzeak balio purki instrumentala zuen katiximaren irakasteko —beraz, haurren erlijionearen bidetik ibilarazteko—.

Oyharçabalek dio *petites écoles* edo *ororen eskolak* aski zabalduak zirela Ipar euskal herrialdeetan, eta alfabetatze maila apala baldin bazen, irakaskintzaren beraren ezau-garriengatik zatekeela. Ekar ditzagun ikertzailearen azken ondorioak (1997: 10):

1. Katiximaren irakasteari lotuak ziren oroz gainera eta horregatik irakurketa zen hurrei eskaini nahi ziren oinarritzko irakaskintza (haur askorentzat bakarra, bereziki laborari familietakoen kasuan).
2. Katixima euskaraz egin izanik, irakurketaren oinarriak ere hain segur euskaraz finkatzen ziren.
3. Irakasleen maila hala-holakoa zen, lanbide aski gaizki ordaindua baitzatekeen.

4. Mutikoentzako eskola zen gehiago neskentzako baina, hirietarik kanpo bereziki.
5. Eskola horiek ez ziren jakintza eskolak, eta gutik ikasten bide zuten haietan jakintzako bideak irekitzen zuten frantsesa eta are gutiago latina.¹¹

Erran den guztiagatik, uste dugu *Kadet eta Bettiriño* genero didaktikoan bai, baina euskarazko oinarrizko eskolatzean zeutzan *ororen eskola* haietan ez litekeela koka; hortaz, goragoko maila batera zirkunskriba genezake.

1.4.2. Irakaskintza jasoagoa: seminarioak

1698an Luis XIV.ak manatzen die Elizaren ordezkariari apezgaitegi berrien erai- kitzea diozesa guztietan. Erregeak *lettres patentes* (erret dekretua) zirelakoak sinatzen zituen seminario bakoitzeko. Apezgaitegi bateko irakaskintzak teologia, filosofia, logika eta metafisika biltzen zituen, aintzinako fakultateen modura. Ordu artio bakarrik familia handietako semeek ikas zezaketen, besteak ahal bezala formatuak izanik.

Baionan 1702an ireki zen lehen seminarioa haur ttipiendako, berantago *Grand Séminaire* deitua Drouillet apezpikuarekin. Ezaguna da Baionako apezgaitegia jansenismoaren eraginpean zegoela; pentsamolde diferentea zutenendako ikastegi hau ez zatekeen sobera fidatzekoa; beraz, establezimendu berri baten beharrean ziren.

1733 urtean Daguerre abateak *lettres patentes* ukaiten ditu Larresoroko apezgaitegiaren sortzeko. Cesar Duvoisinek, bere liburuan *Vie de M. Daguerre, fondateur du séminaire de Larressore, avec l'histoire du diocèse de Bayonne* (1863) anitz xehetasun ematen ditu haren biziaz, borondate handiko apez bat zela erakutsiz. Haren xede nagusia zen Euskal Herriko mutil guztiek euskaraz ikas zezaten bere apezgaigoan jende xumea lagunduz. Harremanak atxiki zituen inguruko beste seminarioekin, hala nola Aire-sur-Adour, Tolosa eta Nafarroan ere. Daguerrearen gidaritzapean Larresoroko apezgaitegiak garrantzia eta hotsa hartu zuen, kultur gune gisa haren eragin eremua zabalduz. Jakes Mestelanek eta Nicole Bergarak diotenez:

1739an, Larresoroko seminarioan, Daguerrek aterbetzen ahal zituen filoso- fiako eta teologiako ikasle handiak eta laster ikastegiaren eragina heldu zen Baio-

¹¹ Aski da Martin Harrieten lanaren izenburu osoaren aipatze hutsa erremarkatzeko fran- tsesaren ezagutza ez zela oso hedatua: *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan* (Baiona, 1741).

nako diosesaren mugetarik harat, Akize eta Oloroekoetaraino. Ikasle berriak etorri ziren Euskal Herri guztietarik, Iparraldetik bai eta Hegoaldetik. Larresoroko maila guztiak iragan eta, berriz, Daguerrek berak bidaltzen zituen edo Tolosako, Bordeleko eta Pariseko unibertsitatetara edo berdin Zaragoza, Salamanka eta Coimbrakoetara. (Mestelan & Bergara: “Larresoroko Seminarioa edo Ikastegi ohia”. *Euskonews & Media* 122. zkia).

Larresoroko eta Aire-sur-l'Adour-eko seminarioek San Sulpizioaren araua segitzen zuten

Elizak, gizarteak bezala, joera berritzaileak ezagutu zituen XVIII. mendean. Izan ziren korronte diferenteak eragina utzi zutenak: batetik jansenismoa, eta bestetik Kontrarreformaren segida, seminario ttipietan berantago jarraituko zukeena Félicité Lamennais-en eraginpean. Erraiten ahal da XVIII. mendean Frantziako Erresuman galikanismoa ongi errotua zegoela, eta lekuan lekuko ohitzak errespetatzen zirela.

1760an baziren Frantziako Erresuman 153 seminario eraikiak. Orientazio lazarista zutenak nagusi, eta besteak jesuslagunenak edo San Sulpizioaren araukoak ziren. San Sulpizioen konpainia bizitza apostolikoari orientatua da. J. J. Olier de Verneuil-ek sortu zuen Parisen 1645ean. Konpainiakideak elkarrekin bizi ohi dira, botorik gabe; zentzu horretan ez litezke elizgizontzat har. Konpainia hau estuki lotua da Frantzian XVII. mendean sortu ebanjelizazio eta berritatzeko mugimenduekin, izan ere Trentoko Bilkurak ordurarte existitzen ez ziren seminarioen sortzeko agindua emana zuen, apez katolikoek hobeki formatzeko.

Bernard Plongeronek dioenez (1974: 60) San Sulpizioen konpainiaren eragina hedatuz joanen zen, Frantzian bi muturretan koka genitzakeen orientazioetarik kanpo bere bidea eginez:

Très tôt, cependant, s'impose ce qu'on pourrait appeler un style sulpicien, mélange d'une solide spiritualité, de règlement à la fois strict et ouvert, de cadres compétents et irréprochables, d'études sérieuses et équilibrées, de garantie intégrale de l'esprit gallican. Ni suspects de jansénisme, comme d'autres éducateurs de clercs, ni enclins à l'ultramontanisme des jésuites.

Uste dugu Larresoroko izpiritua hori zela, bai eta ere Aire-sur-l'Adour-ekoa; horrek azaltzen du zeren Larresoroko seminarioak igorri zituen hainbeste ikasle leku horretara. Izan ere, César Duvoisinaren arabera Daguerrek Aire-sur-l'Adour-eko antolamendua hartu zuen eredutzat.

1.5. Eliza eta irakaskuntza Iraultza aitzineko Hazparnen

1.5.1. Iraultza aitzineko Eliza Hazparnen

Hazparne herri hazia zen XVIII. mendean. 1793 erroldaren arabera 4641 hiritar bizi ziren, erran nahi baita egungo populazionetik ez urrun. Dударik gabe, Hazparne garrantzizko gunea zen Lapurdiko Ekialdean. Hiribarrenek honela gorai-patzen zuen hazpandarren erlijiotasuna (*Eskaldunac*, 1853):

Komentu oro dire segida handitan,
Ungiaren bahiak menderen mendetan;
Muthikoak anaiek dituzte altxatzen;
Neskatilak serorek luzeki arthatzen,
Eri etxea bada deus ez dutenentzat,
Jendea ekharria behar guzientzat.

Baziren hiru otoizleku Iraultza aitzineko Hazparnen: Jondone Joane Baptista-ren Eliza, haren kapera anexatua, San Josepe (1642an eraikia), eta Trinitate Sainduaren kapera (Elizaberri, 1686). Erretora hiru bikarioz izaten zen lagundua, zeinetarik batek Urkuin baitzuen egoitza (Haristoy, 1894).

M. L. Grosjean, bere aldetik, Iraultza aitzineko Hazparneko irakaskuntzaz mintzo zaigu:^{11 b}

Dans chacun des quatre quartiers, un régent, appointé par la communauté, enseignait à lire, écrire et compter aux garçons. Les benoîtes faisaient l'école aux filles. A Celhay, il y avait une école de filles où on disait la messe. Un pensionnat de jeunes filles, appelé *Maison de Retraite* avait été fondé par M^{lle} d'Etcheverry, originaire d'Urrugne en 1738. [...] L'alphabétisation a légèrement progressé au XVIII^e siècle.

1.5.2. Misionestak

Ez genezake ahantz Hazparne herrian garrantzia berezia izan duen misionesten mugimendua, ez eta honek euskal literaturan izan duen eragin emankorra. Misisio edo egortzak hedatu zirenean, XVIII. mendean, predikatzailak herrietarat izaten ziren egorriak abendutik Garizuma artio, bertan oradore egoteko. Apezgaitegi berriek garrantzia handia izan zuten misionesten belaunaldi berri baten sortzeko, baina ez soilik Larresoro edo Uztaritzeko seminarioetatik; Parisen eta Tolosan (Estebe Hiriart) ere formatzen ziren batzuk, edo Bordelen (Chourio) eta Pauen. Hazparnen XIX. mendean eraikiko zuten misionesten etxea, Landaburua, J. B. Garat Picassarryk bulkaturik.

^{11 b} <http://www.hasparren-histoire.fr/mapage4/index.html>

Arribatuko zirenen ifrentzuan, Hazparnetik ere atera zen misiolaririk. Haristoyk kontatzen digu nola Daguerrek misionest talde bat moldatu zuen (1893: 466). Aipatzen du bi laguntzaile izan zituela, bata Martin Behola senpertia, eta bestea Gratien Diharce hazpandarra. 1732an Urruñan egin zuten misio baten kariatara famatu omen ziren, “arrakasta izigarria izan zuten” P. Xarritonen hitzetan (1992: 2).

1.5.3. Erretrera Etxea

Pausa dezagun arreta *Maison de Retraite* izeneko erakundean, 1738an irekia. Larresoroko seminarioaren sortzaile bera, Daguerre abatea, Hazparneko Erretrera Etxe honena ere bada, eta Etcheverry anderea bertako lehenbiziko gehiena. Ondoko pasartean Haristoyk proiektuaren sorrera kontatzen digu (1893: 567):¹²

Un jour, dans un de ses entretiens intimes avec M^{lle} d’Etcheverry, elle [la vicomtesse d’Urthubie] lui manifesta le desir de voir créer une maison de retraite, où les personnes du monde iraient passer quelques jours pour s’occuper uniquement de leur salut. Celle-ci s’empressa d’en parler à son Directeur. Or M. Daguerre méditait déjà depuis assez longtemps une œuvre semblable: il voulait que les filles vertueuses, qui composeraient sa communauté en travaillant à leur sanctification, travaillassent aussi à celle des autres, qu’elles élevassent la jeunesse... Il avait même jeté les yeux sur M^{lle} d’Etcheverry. [...] Il lui explique en détail le plan de la communauté dont il voulait la faire supérieure.

Diharce d’Alçuyet familiak, Alzieta etxeokak, laguntza eman zion Daguerre abateari *Maison de Retraite* haren sortzeko; beraz, ez da harritzekoa etxejoanaren anaia, lehen aipatu den Gratien Diharce, erakunde hartako lehen omoniera izan bazen (Haristoy 1893: 2), eta gutiago harritzekoa kontu egiten badugu Gratien Diharce Daguerrearen misionest taldekoka izana zela.¹³ Dominique d’Etcheverryren zuzendaritzapean establezimendu berriak natura bikoitza hartuko zuen: erretrero etxe zein neskendako eskola. Lehen *K&B* izkribuaren izaera pedagogikoa izan dugu solasgai, baina nori zuzendua ote zen aipatu gabe. Gure ustez testua Hapar-

¹² Iraultzarekin desjabetza jin zen, eta etxea kaserna bezala izan zen baliatua, nahiz haren lehenagoko izaerak iraun zukeen jendeen oroimenean, XIX. mende finieran oraino baitzatekeen deitua *komentu zaharra*.

¹³ Gratien Diharceren gainean dakigun gutia César Duvoisin-en lanean atzeman dugu: “Né à Hasparren, travailla tout jeune aux missions avec M. Daguerre. Il fut le premier aumônier de la Maison de Retraite de Hasparren, obtint une prébende dans cette paroisse, et y mourut en 1781. Il était docteur en théologie et frère puîné de Laurent Diharce, qui contribua beaucoup à la fondation de la Maison de Retraite” (1863: 494).

neko neskatilez hartzaile gisa pentsatuz izan zen idatzia; izan ere, hainbat pasartek irakurleria femenino baten hipotesia azkartzen dute.¹⁴

[AITA CADET:] Zuien exemplu eta modela zerbitzatu behar lizatequeyen hama hirur urthetaco nescachatto huntaz; nescacha baino aingueruiago den creatura dohatxu hau, naturalezaren eta graziaren dohain guzietz ya yantzia, choilqui guizonaren formac estonatzen du, izitzen du, ikharatzen du. Eta zuiec, bat ere bertze prenda eta bahiric gabe, baizic Eva tristiaren erorico auhengarriaren ondorio faltacorrac, presunziunia eta urgulua zurbitzat, zeruco izarrac baino gorago igan nahi zirete? (*K&B*, 2-3)

[AITA CADET:] Etzirete hemen ahalgue gorritan yarriren, nescacha gaztiac? Edo zuien buru flacuietan fidatuz, edo viryinitatia ez ongui ezagutuz, edo ez asqui preziatuz occasione galcorretan eta lanyerosetan presentatzen ziretenac? Ikhas ezazue, viryinitatiaren surtza eta ithurburu nothagabe hunen ganic, eya zoin prenda eta yoya preziosa eta baliosa den viryinitatia: nahiago du Hirurtasunaz bethi danic hautatua den haur eta nescacha christal lyndo hunec, zeru lurren erreguina eta eguiazco yainco guizonaren ama, izaitetic guelditu eziquetz bere viryinitatezco lore charmantaz gabetu. (*K&B*, 3-4)

[AITA CADET:] Ikhas ezazuie beraz, nescacha gaztiac, lehen Evaren alaba dohacabiatic; ikhas ezazuie, Evaren bidechca okherrac eta lanyerosac utziric, bigarren Eva —lehen a itxu bezen argui, zoro bezen zuh—ur— hunen bide chuchen eta segurraren seguitzen. (*K&B*, 7-8)

Orduan zeren Bettiriño bezalako mutiko bat hautatu eta ez neskatila bat? Beharbada egileak ez du jaun apez bat neskatila batekin horren harreman luze eta estuan agertu nahi, kasu honetan egokiagotzat emanez *toka* moduko elkarrizketa *noka* baino.

Bestalde pentsa dezakegu euskarak nolabaiteko lekua zukeela Erretreta Etxean, kontu eginik zenbait neskak erdararik ez zekiela. Dominique d'Etcheverryren gutunetan (La Tour 1751) erreferentzia batzuk aurkitu ditugu. 1739ko uztailearen 29ko eskutitzean, adibidez, Erretreta Etxeko gehienak honakoa eskatzen dio Daguerre abateari: “Il y a bien de gens qui ont paru souhaiter que l’amende honorable que nous faisons en français après vêpres, les dimanches et fêtes, se fit en basque; nous en feront la traduction si vous le trouvez à propos”. 1745ko apirilaren 24ko gutunean etxeko ekonomiaren ardura hartuko duenaz mintzo da d'Etcheverry:

¹⁴ Irakurleria femenino hau, nolazbait, bazen garaiko egile zenbaiten gogoan. Berriki argitaratu den [Mujika 2010] *Birjina, edo donceil christaba* eleberria da honen etsenplurik hoberena, baina ez bakarra. Aipa dezakegu Egiategiren lan bat maleruski galdua: *Aberatz-tarzun gussien guils bakhoitza*, etxeko ekonomiaren gaineko tratatu bat.

“On ne pourrait jeter les yeux que sur une qui n’entend que le basque; vous l’avez mise à une grande épreuve, en voulant qu’elle vous écrivit en français, ce qui lui est absolument impossible”.

Arras iradokigarria da, beraz, *Kadet eta Bettiriño* d’Etcheverry anderearen itzalpeko neskatilendako idatzi zelako hipotesia. Eta guztiz egiantzekoa, halaber, Gratien Diharce d’Alçuyet, ospe handiko misionesta eta Erretreta Etxe hartako lehen apez omonierra, gure izkribuaren egilea izan zedin.¹⁵

1.5.4. *Hazparneko eliza gizonak: egiletasunaren zantzuen xerka.*

Lehen erran den bezala, *Kadet eta Bettiriño*ren jabe izateaz apart Maurice Harrietek (1814-1904) izkribu hau baliatu zuen, bere hiztegian aipatuz. Harrietek erabili zituen testuen zerrenda —hiztegitik berak egin zerrenda— aurkeztu digu Arantxa Hirigoyenek (2003: 142-147). Bertan liburuak eta eskuizkribuak euskalkiaren arabera hurrenkeratzen dira, eta Lapurdiri dagokion atalean honakoa hatzeman dezakegu:

*Jesu Christo eguiazco Jainco guizonaren bizia eta heriua laur Ebangelisten araber*¹⁶ (manuscrit sans pagination par un prêtre de Hasparren (l’abbé Bidassouet?) Man.J.C.bizia.

Erran behar da eskuizkribua ez dela datatua, eta zerrenda ez dela hurrenkera kronologiko batera plegatzen. Eskaintzen duen informazioak, dena den, badu munta: batetik, M. Harrietek Hazparnekotzat ematen du idazkia eta bestetik, egile posible bat seinalatzen du: *l’abbé Bidassouet*. Hazparneko herriak hiru apez eman ditu deitura horrekin, guk dakigula: Jean Broussain-Bidassouet (1670ean sortua), Jean Broussain de Bidassouet (1718 - ?) eta Pierre Diharce de Bidassouet (1765-1843). Azkena ezagunagoa da, eta guztiz ibilbide heterodoxoko gizona.¹⁷

¹⁵ Guilhem Hiriart erretorea ere kontsidera genezake, Erretreta Etxearen hastapenatarik izan baitzituen harreman estuak komunitatearekin. Azpimarkatzekoa da establezimendu berrian apez omonier zereginak Gratien Diharcerekin partekatu izana (Haristoy 1893: 2).

¹⁶ Harrietek idatzi bezala. Originalaren grafia bestelakoa da: *Yesu Christo eguiazco Jainco Guizonaren bizia eta heriua laur evanyelista eguiazcuen eta saïnduien araber*.

¹⁷ Vinsonek haren potreta egiten digu, kritiko baino zerbait gehiago izan litekeen liburukaren baten kariaz: “L’abbé d’Iharce de Bidassouet, tourné en ridicule par L’écluse et ses amis, ne valait ni cet honneur ni cette indignité. Il avait en linguistique des idées extravagantes, mais il était fort instruit et ne manquait pas de talent. On a publié à son sujet la brochure suivante, « Aventures piquantes de M. l’abbé Diharce de Bidassouet, par un de ses élèves. Bayonne. impr. Lamaignère, nov. 1835 » —45 p. in-8. C’est un « pamphlet » fort intéressant. Nous y apprenons que M. Diharce de Bidassouet, né à Hasparren le 25 décembre 1765, élève du Séminaire de Larressore, fait prêtre à S. Sébastien, en 1792, instituteur, maître de pension, curé en Béarn, vicaire à Hasparren, se brouilla en 1820 avec l’évêché. Il n’aimait ni les bigots,

Haren lanen artean dugu *Histoire des cantabres ou des premiers colons de toute l'Europe avec celle des basques leurs descendants directs et leur langue asiatique-basque* (1825). Ez dirudi euskarazko idazkirik utzi zuenik. Bistan denez, datazio kon-
tuengatik nahiz haren interes markatuengatik, ez dugu Diharce de Bidassouet
K&B-ren egiletzat proposatzen ahal.

Besteez anitzez gutiago dakigu. Jean Broussain-Bidassouet (1670) nahiz Jean
Broussain de Bidassouet (1718an sortua eta apeztua 1792an) aiseago ezkont li-
tezke idazkiaren datazioak eman dituen datuekin, zeinen arabera papera 1741 ai-
tzin baitateke ekoitzia, baina nezesarioki 1745az geroztik idatzia. Hortaz, lehen
Broussain-Bidassouet urteetan sartua zegokeen, eta bigarrena ez zen oraino apez,
eta beharbada gazteegi gure testuaren egilea izateko.

Harrieten iradokizunaz ahanzten bagara, eta XVIII. mende erdira Hazparneko
erretore izan zirenei eskaintzen badiegu arreta, beste hiru izen ekar ditzakegu (itu-
rria: Haristoy 1894):

- 1715-1733 Jean Hiriart, 1683an sortua, Marcel Hiriart eta Jeanne Etche-
versen seme. 1733ko urtarrilaren 4an dimisioa ematen du bere anaia gazte-
enaren alde, Guilhem, eta 1745eko uztailaren 31n hiltzen da.
- 1733-1759 Guilhem edo Guillaume Hiriart, 1697an sortua, Jean bere anaia
gehienaren bikario. Haren erretore denboran Daguerre abadeak, Larresoroko
apezgaitegiko nagusiak, Hazparneko *Maison de Retraite* sortu zuen Domini-
que d'Etcheverryren eskutik. Lehen aipatu den bezala, Guilhem Hiriartek
erakunde berriko apez omoniera, Gratien Diharce, bere egitekoetan lagundu
zuen. 1759ko azaroaren 5ean azkendua.
- 1759-1767 Etienne, *Estebe* Hiriart, Guilhemena anaia, Michel Hiriart eta
Marie Etchevers-en seme, Lekhuineko *Etchechuria* etxean sortua 1705eko
irailaren 2an. Tolosako jesuitekin egin zituen ikasketak (“de bonnes études”).
Han graduatu zen eta apeztu 1731. urtean. Erretor Lekhuinen (1732), Ar-
beroako Donamartirin (1745), Bastidan (1746) eta Hazparnen (1759), non
1767an hil baitzen.

Ene ustez, gure idazlea hauetako bat izatera, datei doakienean Guilhem litzateke
hautagaia: paperaren ur marken irizpideak (1741 aitzin ekoitzia) nahiz *Hiztegi Hi-
rukoitzak* eskaintzen duen *post quem*-eko datak markatzen diguten tartekak —guti

ni les jésuites, ni les jeunes prêtres ultramontains. Avec le successeur de M. d'Astros, M. d'Ar-
bou, le conflit prit un caractère aigu. L'abbé Diharce déclara se soustraire à l'obédience de
l'Evêque qu'il accusait très nettement d'entretenir au palais épiscopal une chambrière, une
focarie, une *agapète* (sic), d'ailleurs mariée au valet de chambre de Monseigneur [...]” (*Bi-
bliographie de la langue basque* I, 275-276).

goiti beheiti hamar urtekoa— hala eskatuko luke. Paperaren datazioaz nolabaiteko abstrakzio eginik, ordea, arras tentagarri litzateke Estebe Hiriartez pentsatzea: gizon ikasketetan jantziagoa zatekeen eta, iduriz bederen, inguruetan gehiago ibilia ere.

Kontu egin behar da, ordea, Hazparne bezalako herri handi batean anitz gehiago zirela eliza gizonak, lehen aipatu erretoraren hiru bikarioekin has eta misionestekin buka. Grosjean andereak kopuru zehatz bat ematen digu: “Treize prêtres vivaient à Hasparren peu avant la Révolution dont le Curé et son vicaire et le desservant d’Urcuray”.¹⁸ Guztiarekin, erretor bat aiseago idurikatzen ahal dugu idazle lanetan Elizaren hierarkiako beheko urratsetakoak baino, batez ere *Kadet eta Bettiriño* idaztean erakutsi den kultura mailaren jabe izanen bada. Ezin ahantzenez, hortaz, Erretreta Etxeko apez omonierra:

- 1) Izkribuaren datazioarekin bat datorrelako, guztiz. Mende erdirako Gratien Diharce d’Alçuyetek esperientzia eta adin egokia zukeen holako lan baten idazteko.
- 2) *Maison de Retraite*-ko omonier edo kapilaua izanik, bertako komunitatearen gidaritza espiritualaz arduratzen zelakotz —eta, hein batean, hezkuntzaz ere—.
- 3) Irakurleko femeninoaren hipotesiarekin bat egiten duelakotz: Diharcek bere ardurapeko neskei eskainiko ziekeen lana.
- 4) Hazparnekoa izateaz gain, Diharce d’Alçuyet gizon ibilia zelakotz.
- 5) Soilik predikatzaile aparteko bat —kasu honetan teologian doktore eta ospe handiko misionesta— izan daitekeelako gai *K&B* lanean zehar erakusten diren baliabide erretorikoen.

Horregatik guztiagatik uste dugu Gratien Diharce d’Alçuyeten egiletasunaren hipotesia sendoena dela. Orduan zergatik Maurice Harrietek seinalatuko zuen “l’abbé Bidassouet”? Badugu aieru bat: posible liteke eskuizkribua hel zekion *Diharce* erreferentzia batez hornitua —zernahi gisaz guganaino heldu ez dena—. Puntu bateraino normaltzat hartu behar da Harrietek Diharce de Bidassouet abatea aipa zezan eta ez Gratien Diharce, hura hau baino anitzez ezagunago eta, azken finean, leinu bereko seme baitzen.

1.6. Larramendiren kultur proiektuaren itzala iparraldean: *K&B* eragin horren lehen lekukoa ote?

Europar Humanismoak interes bizia piztu zuen hizkuntzen inguruan, eta hantemenka hasi ziren tokian tokiko mintzairak kultur hizkuntza bilakatzeko saioak, zenbait estatuk bere lengoia propioa grekoaren edo latinaren prestijio eta maila

¹⁸ <http://www.hasparren-histoire.fr/mapage4/index.html> [azken kontsulta 2010eko irailean].

gorenera igaiteko nahia agertu zutelarik. Horrela, Nebrixaren *Gramática de la lengua castellana* (1492) espainolari bultzada eman zion hein berean eraginaren zieketen hainbat lanek beren hizkuntzei. Maiz entseiu hauek ez ziren inprobisatuak, aitzinetik definitu proiektu baten arabera baizik: lehenik hizkuntza aldarrikatu behar zen; bigarrenik gramatika idatzi, hizkuntza erregulartasunean sar zitekeela erakusteko; eta hirugarrenik hiztegi batez hornitu, lengoia zernahi gaiez aritzeko on zela frogatzeko.

Manuel de Larramendik ere (Andoain, 1690 - Loiola, 1766) kultur proiektu gisa kontzebitu zuen bere lan hirukoitza, Europan hedatua zen eskemari jarraikiz: apologia → gramatika → hiztegia:

1. *De la antigüedad y universalidad del bascuence en España* (Salamanca, 1728)
2. *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada* (Salamanca, 1729)
3. *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín* (Donostia, 1745)

Proiektu horren xedea euskara kultur hizkuntza bilakatzea zen, lehen grekoa edo latina (gero espainola edo frantsesa ere) bezain konplitu, perfektu eta baliagarri izan zitekeela erakusteko. Historikoki, aldiz, Larramendiren gaineko iritzia ez da hoberena izan, zenbait gauza bidegabe eta anakronikoki egotzi izan baitzaizkio, nagusiki neologismo gehiegi sortu eta bere hiztegian sartu izana. Soilik azken markadetan hasi dira haren lana eta eragina izari zuzenean balioesten.¹⁹

Manuel de Larramendiren herexa fite hedatuko zatekeen, uste baino lehenago. Horretarako ezinago egoki zen Zarauzko frantziskotarren komentua, misionesten etxe gisara garrantzia handia hartuko zukeena. Blanca Urgellek bikain berreraiki du garai hartako giroa (2001: xvii-xxi):

Larramendiren aurka agertu zirenak, haren egitasmoari barre egin ziotenak beste baterako utzirik, gero eta argiago ageri da XVIII. mendearen bigarren zatian izenez ezagutzen ditugun hiruzpalauak baino nahikoa euskaldun gehiago hasi zirela euskarari bestelako begiz begiratzen, baita haietako batzuk euskara bestelako baliabide eta asmoz erabiltzen ere. Azken hauetan, nabarmen, Zarauzko komentukoak jarri behar ditugu.

Erran daiteke XVIII. mendean Hegoaldeko euskaldunak, Iparraldekoak ez bezala, euskarazko *usus scribendi* baten peitu zirela. 1746an, Zarauzko komentua misiolari seminario bihurtu zenean, kokatzen da predikatzaile euskaldunen hezteko lehen entseia Hegoaldean. Urgellek dioen bezala (2001: xviii), “bistan dago mintegia unerik egokienean jaio zela, haren [Larramendiren] lan argitaratuek

¹⁹ Ricardo Gómez, Joseba Lakarra eta Blanca Urgellen lanak dira erreferentziak.

—gramatika (1729) eta hiztegia (1745)— misiolarien zeregin zailari halako euskarri bat eman ziezaioketenean, hain zuzen”.

Francisco Antonio de Palacios (Oñati 1727 - Zarautz 1804) izan zen predikari frantziskotar haietako bat, Villasanteren ustetan “el más célebre de los sujetos que florecieron en el convento de Zarautz, al tiempo que este convento revestía la modalidad de Colegio-Seminario de Misioneros Apostólico” (1961: 11). Haren garrantzia ez da horretara mugatzen, Larramendiren itzalpeko lehendabizikoetakoa ere izan baitzatekeen:²⁰

Hartaz dakigun xehetasun bakoitzak bigarren labekadako larramenditar bat dugula —ezagutzen ditugun bakanetakoa, bakarra ez bada— berresten du, hots, Kardaberatz, Ubillos eta Mendibururi hogeiren bat urte kentzen dizkiena, baina bere aldetik Gerriko, Agirre, Mogel, Añibarro, Lizarraga edo Astarloa baino 13 eta 25 urte bitartean zaharragoa. (Urgell 2001: xx)

Lan honen helburua ez da, baina, aski ongi aztertuak izan diren puntuen hemen errepikatzea; horretarako aipatu ikertzaileen lanetara igortzen ahal dugu. Honan heldurik, Larramendiren inguruko aspektu bat axola zaigu besteen gainetik: Bidasoaz iparraldera izan zukeen eragipena; zeren, baldin oraintsu arte Palacios hartzen ahal bagenuen lehen larramenditartzat, Zarauzko misiolarietarik urrunsko zegoen —eta ez soilik geografikoki— Hazparne herrian kokatzen den *K&B*-ren lekukotasun ezohikoa moldeen haustera etorri baitzaigu. Komeni da irakurtzea nola deskribatzen zuen Joseba Lakarrak, orain duela mende laurden bat, *Hiztegi Hirukoitzaren* itzala Iparraldean, ordurarte iduriz aski ahula (1985: 33-34):

Orain arte hango hiztegiatar (Hiribarren eta Harriet eta hauen zordunetara) mugatu ohi da *Hiztegi Hirukoitzak* Iparraldean izan zuen eragina; baina bada gehiagorik. Alde batetik, Txomin Peilleni esker badazagugu orain XVIII. mende berreko Belako zaldunaren hiztegia, jada hartaz goragokook baino ia mende bat lehenago baliatu zena; bestetik, Vinsoni eskerrak ezagutzen dugu —izenez behintzat— Robinek mende horren bukaerantz kopiatutako *Birjina* nobelatar (lau liburuki) eskuizkribua. Villasantek dioskunez “particularidad notable de esta es la introducción masiva de neologismos, sea de origen larramendiano o sea de propia invención” (HLV 116).

²⁰ Francisco Antonio Palaciosen sermoiak eskuz idatzirik gorde dira 13 liburukitan, zientaririk bakarra baita euskaraz, Villasanteri jarraikiz (1961: 19). Badakigu 1762an sartu zela Zarauzko Misioilarien Kolegioan, 35 urterekin, eta bertan iragan zituzkeela bere bizitzako beste 42 urteak. Arras irakurgaitz izan arren, euskarazko sermoi horiek ikertu beharrekoak dira, datazioa finkatzeko baizik ez balitz ere.

Egiategiren *Filosofo Huskaldunaren Ekheian* ere jesuitaren lanak Iparraldean izan zuen eraginaren lekuko franko aurki genezake, bai ideietan, eta baita hainbat eta hainbat hitzetan.

Zerrenda ttipi haren emendatzera etorriko zen Ibon Sarasola (1986: 203):

Iparraldeari dagokionez, Lakarrak aipatu obrei, 1828ko *Testament berria* gaineratu behar zaie. Hau da agian, Iztueta eta Egiategiren idazlanen ondoan, Larramendiren eragina nabariarik azaltzen duen Lore-Jokoen garaiz aurreko liburua. Bestalde Lécluse-ren *Manuel de la langue basque*-ko hiztegiaren nabaria da Larramendiren itzala eta are, neurri handi batean bederen, harekiko zuzeneko zorra. Orobat, I. Seguiolak adierazi didan bezala, Inchauspek, *Guero Guero*-ren bere “ekhoiztean” bederen, erabiltzen ditu hitz larramenditarrek.

Iparraldeko euskal herrietan *Hiztegi Hirukoitzaren* eragipena Joan Felipe Belaren lanean soma genezakeen lehenbiziz: 1780 baino lehen datatzen da (Peillen 1983), eta gero Egiategirengan. Hemendik goresmenak eman nahi genizkioke Jose Antonio Mujikari *Birjinia, edo donceil christabaren* edizio lan handiarendako, zeinari esker, eta beste anitz gauzez apart, Larramendiren proposamenen erabilearren lekukotza bikaina jartzen baitzaigu eskura. Datu zenbait eskaintzen ditu Mujikak (2010: 24):

Kontuak gutxi gorabehera eginez, liburuen hondarrean erantsi dugun hiztegiaren 410 bat hitz dira *OEH*-n agertzen ez direnak (70 Larramendirenak, 340 bestelakoak), 135 bat hiztegiaren bai baina testuetan agerpenik ez dutenak (85 Larramendirenak, 50 bestelakoak), eta 380 lehen agerpena *Birjinia*-n dutenak (170 Larramendirenak, 210 bestelakoak). Agerian uzten dute datu horiek, *Eguiateguy*-ren lanean izan zuen presentziarekin batean, eragin handia izan zuela andoaindarraren hiztegiak Iparraldeko zenbait idazlerengan ere, are Hegoaldekoengan baino lehenago.

Gure izkirioaz den bezainbatean erakutsi ahal izan dugu *Kadet eta Bettiriñoren* egileak (Gratien Diharce d’Alçuyet?) Larramendiren lanaren berri bazekiela, haren hiztegiari baitzuen jotzen.²¹ Horrekin batean, eta inportanteago dena, frogatu dugu testu hau badela Ipar euskal herrietan jesulagunaren eragina agertzen duen lehena, datazio lanek XVIII. mende erditsuan kokatzen baitute, erran nahi baita *Hiztegi Hirukoitza* argitaratu eta urte gutira. Datu hau Oyharçabalen hipotesiaren azkartzera dator, hots, andoaindarraren eragipena espero genezakeen baino goiztiarrago

²¹ Xehetasunentzat ikus “*Hiztegi Hirukoitzaren* eragina”, LEXIKOA atalean. Bertan zerrendatzen dira dokumentatu ditugun hitz guztiak.

izan dela Iparraldeko zenbait idazlerengan.²² Hortaz, proposa genezake, behar den zuhurtzia guztiaz, *K&B* izan litekeela Larramendiren eragina lehenbiziz jasotzen dutenetakoa Euskal Herri guztietan. Honek jakinmina pizten du gure baitan, halako moldez non ihardeste zaileko galto zenbait pausatu nahi baikenituzke: i) Norainoko harrera ukaten zuten Espainiako euskal liburuek Lapurdin eta, oro har, Pirinioez bestaldeko euskal herrialdeetan? ii) Horri lotuz, Iparraldean zenbatek konpreni eta irakur zezaketen espainolez?²³ iii) Nola eskuratzen ziren mugaz bestaldean argitaratu liburuak? Ba ote zen liburu haien banatzeko nolabaiteko tradizioirik?

KRONOLOGIA

- 1720 Chourioaren *Imitazionea* argitaratzen da Bordelen.
- 1729 Larramendiren *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada* Salamancan argitaratzen da.
- 1730 Larramendi Baionan biziko da hiru urtez, Mariana de Neoburgo Espainiako erreginaren konfessore.
- 1732 Daguerren egortza Urruñan, Martin Behola eta Gratien Diharce laguntzaileekin.
- 1733 Guilhem Hiriart Hazparneko erretore. Larresoroko apezgaitegia irekitzen dute. Lavieuxville apezpikuaren *Bayonaco Diocesaco Bi-garren Catichima*.
- 1738 Daguerre abateak eta Etcheverry andereak Hazparneko Erretreta Etxea abiatzen dute.
- 1741 Martin Harrietek *Gramatica escuaraz eta francesez* plazaratzen du.

²² Ezin ahantz daiteke Manuel de Larramendi 1730-1733 bitartean Baionan egon zela Espainiako erregina alarguntsaren konfessore bezala. Pentsatzen badugu urte haietan Daguerre abatearen taldeak misio lanetan ziharduela, izan liteke Gratien Diharce Larramendi bera ezagutu izana.

²³ Ezaguna da Iztuetak erraten zuela bere garaiko Gipuzkoan seitik batek baizik ez zekiela erdaraz; uler bedi: ez zen populazionearen zati hori erdaldunetz osatua, gainerateko guztiak euskaldun elebakarrak zirela baizik. Pentsatzen baldin badugu Ipar euskal herrialdeetako egoera soziolinguistikoaz, hizkuntza bat baino gehiago ziren euskararekin lehian: puxantza handiz frantsesa, gaskoina gutiago eta guztiz gibelatuz latina. Hauei gaztelania emendatzen bazaie ondorioztatu behar dugu euskaldun zenbait elebidun baino eleaniztunago ziratekeela. Gogora bedi *Hiztegi Hirukoitzean* euskara xede-hizkuntza dela, hots, sarrerak gaztelaniar dira emanak. Honek inplikatzeko erabiltzaileak nezesarioki gaztelaniaren ezagutza izan behar duela.

- 1745 Larramendik *Hiztegi Hirukoitza* argitaratzen du Donostian.
1747 Dominique d'Etcheverry hiltzen da. Jeanne Cazaubon, Hazparneko Erretreta Etxeko gehiena.
1750 Jeanne de Cazaubon hiltzen da. Haranederren *Gudu espiritual*a argitaratzen da.
1759 Estebe Hiriart Hazparneko erretore.
1781 Gratien Diharce hiltzen da
17?? *Birjina, edo donceil christaba* itzulpenaren eskuizkribua.
1789 Iraultza. Hazparneko Erretreta Etxea husten eta hesten dute.
1822 Misionesten etxea, Landaburua, irekitzen dute.
1875 Belokeko komentua zabaltzen da.
1904 Maurice Harriet hiltzen da.
1907 Ustaritzeko apezgaitegia irekitzen da.

2. Hizkuntzaren azterketa

2.0 Atarikoak

Nongo euskara? Bi argudio mota baliatu zaizkigu *Kadet eta Bettiriñoko* euskara geografikoki kokatzeko: batetik, testuak berak preseski egiten dituen aipu edo erreferentziak; bestetik, hizkeraren ezaugarrien azterketatik idoki ditzakegun ondorioak.

Erreferentzia zuzenak Hazparneko herriari. Izan ere, Hazparne da izkirio osoan zehar aipatzen den leku bakarra, Bibliako toponimoez apart. Aipamenak ez du zalantzarik uzten:

Yendone Yoanne Baptista, Zachariasen semia eta Hasparneco gure patroin loriosa (22).

Bestenaz, Jendone Joane Baptista lau aldiz izaten da aipatua *gure patroin loriosa* tituluaz (20, 22, 23, 39). Jakina, baliteke idazlea Hazparnetik kanpoko izatea, baina bederen jakin badakigu testua Hazparnen ziharduen eliza gizon batek izan zela izkribatua, eta bertan kokatzen dela erreferentzia geografikoa.

Hizkeraren ezaugarriak. Aztertu dugunaren arabera, idazkiak islatzen duen hizkera bat dator Hazparnekoarekin. Uler bedi: testuaren ezaugarri dialektalak XVIII. mendean kokaturik, koherente dira Hazparneko egungo hizkeraraino heltzeko gertatu diren zenbait aldaketarekin, zeren hizkerak definitzen dituzten ezaugarriak ez baitira mutaezinak mendeetan gaindi, kanbiakorrak baizik. Liburu honen atal garrantzitsu bat eskaini zaio testuaren hizkuntz ezaugarrien azterketari, eta horra igortzen dugu xehetasunendako.

Gure testuaren hizkuntz ezaugarrien kokapen dialektalaz den bezenbatean, ohar batzuk nahi genituzke egin:

- Ezin ahantz daiteke esku artean duguna XVIII. mendeko lekukotasun bat dela, eta beraz, aurkeztuko ditugun hizkuntz ezaugarriak eta hauen eremu geolinguistikoak aldakorrak direla. Gertatzen ohi da delako herri bateko hitzunak zenbait ezaugarri identifikatzen dituela bere sort hizkerarekin, anitzetan segurtasun handiz; ezaugarri horietako batzuk, gainera, barietatearen ordezkatzera iragan daitezke, ezaugarri *markatzaile* bilakatuz. Baina Hizkuntzalaritza Diakronikoak —nahiago bada Linguistika Historikoak— eta Filologiak klarki

erakusten digute hiztunari berezkoen zaizkion ezaugarri horiek ere kanbiakorak izaten direla forma, maiztasun, erabilera nahiz eremuaren aldetik.

- Testuaren naturagatik beragatik —hizkuntza erregistro jasoan egina eta xede didaktikoz, kasu— idazleak herri hizkeratik urrun litezkeen hautuak egiten ahal ditu. Oso diferentea da, zentzu honetan, *Hazparneko dotrina*, erran nahi baita Asteteren katixima Bonaparte printzearen manupean itzulirik.
- Gisa guztiz egileak, eliza gizona baitzen, Hazparneko barietateaz haratago lihoakeen eremu bateko ezaugarriak erabil zitzaizkeen. Logikoa denez, ikasketak zituen pertsona bat ibiliagoa behar zen izan.

Lan honetan, beraz, egilea nahiz euskara Hazparne aldekotzat jotzea izan da guretzat “zero hipotesia”, gero mintzairaren gaineko azterketak berretsi diguna. Egiletasunaren afera inoiz ebatz baledi zero hipotesi hori definitibo bihur liteke edo, agian, errefusatua izan. Ene ustez, idazlea Hazparne aldekoa ez izatera, orduan auzo herri bateko seme behar luke izan.

Gogora bedi Bonapartek (1866: 29) Mendebaldeko behenafarreran sartu zuela Lapurdiko eremu zabal bat (“Lapurdiko azpieuskalkia”), bitan banatua: Uztaritzeko barietatea (Uztaritze, Larresoro, Jatsu, Haltsu, Ezpeleta, Zuraide, Kanbo, Itsasu eta Milafranga) eta Lekornekoa (Hazparne, Lekorne, Makea, Luhuso eta Lekuine),²⁴ azken hau, halaber, bi azpibarietatetan banatua: “propioa” (Lekorne, Makea, Luhuso eta Lekhuine) eta Hazparnekoa. Lapurdiko Aturrialdeari doakionean, printzeak Ekialdeko behenafarrerari lotu zuen. Ikuspegi hau, denborarekin, eztabaidatua izan da; izan ere, Lapurdiko Ekialdeko mintzoek eremu linguistiko gatazkatsua osatzen dute sailkapenez ari bagara (ikus Epelde 2003: 9-14).

2.1. Grafiak eta hotsak

Sarrera

Atal honen xedea ez datza deskribapen huts eta xehe-xehean, baizik ere egungo ohitza grafikoetarik urruntzen gaituzten ezaugarrien berri emaiten. Zenbait kasutan grafia sistemaren azterketak badu funtsa delako hizkeraren hotsen identifikatzeko, eta horiekin batean gerta litezkeen fenomeno fonologikoen ere. Bestetan, grafiaren ikerketak testuaren datazione zereginetan lagunt gaitzake. Hots, grafiaren ikerketa ez da helburu *per se*, berezko interesa duen arren.

²⁴ Honen aitazinieko sailkapenean Bonapartek (1866: 29) seigarren bat ere sartu zuen hizkera horren barruan: Aiherra.

Euskararen kasuan, idazle zaharrek hizkuntzaren ahoskera islatu nahi dute, baina bi elementuk desitxura dezakete haien saioa: batetik, hitzen idazkera etimologikoarekiko nolabaiteko atxikimendua erakustea; bestetik, auzoko kultur hizkuntzen bilakaera grafikoarekiko menpekotasuna agertzea.

2.1.1. Bokalak

Bokalen grafiari doakionean pare bat kontu ditugu aipatzeko. Hasteko, /i/-ren agerpen bikoitza: <i> eta <y>. Bigarren grafema hau markatua da, eta baliatzen da soilik honako testuinguruetan:

- Beheitiko diptongoetan: *etxay* (72), *eyhartua* (48), *sasoynic* (11), *ayros* (8).
- Inoiz silabagune gisa, batez ere hitz bukaeran: *lyndo* (4), *berry* (14), *oharraraazy* (156); baina *berri* (134), *hararazi* (107).

Diptongoetan ere ez dago sistematikotasunik, kasu hauetan <i> ager baitaiteke: *aphezei* (51), *hogoi* (70), *etxai* (151).

Bestenaz, <y> grafemak balio etimologikoz erabiltzen ahal da: *tyrano* (19), *Syria* (44), *hypocrisia* (198), *ypocrit* (47); baina *hipocrit* (91).

Beste ezaugarri grafiko aipagarri da bokal bikoitzen presentzia, horietako batzuk akzentudun:²⁵ *osaasunaren* (43), *osáasuna* (144, 175), *osâagarri* (121)²⁶ baina *osagarriaren* (144); *tiriitatzen* (201), *proosinua* (17), *proochuric* (164), *proochatuco* (175), *fruutac* (143), *fruuta* (172); *oharraraazy* (156), *ekhararaazi* (179), *sinhex-araazten* (203), *eror-araazten* (203) baina *sararazten* (156), *jastarazten* (163), *itzul arazten* (34). Kasuistika nabarmen emendatzen da bokalarteko kontsonanteen desagertzearekin:

- *b* > Ø, *accaazetic* (111), *ilhun naarrian* (153), *ilhun nâarrian* (79), *iraazteco* (163), *erreelatu* (116); baina *accabatu* (34), *irabazi* (179), *errebelatuen* (92).
- *g* > Ø, *phico saaric* (153).
- *r* > Ø, *escaatzaren* (22), *igáanic* (93).

Aipatu baizik ez ditugu eginen latinozko aipuetako bokal bikoitzak:

- œ, *cæli* (38), *cælorum* (99).
- æ, *Et porta inferi non prævalebunt* (99). Grafia hau, halere, euskarazko mintzaldira iragan da kasu batean: *Cæsarea* (95), *Cæsar* (155).

²⁵ Akzentuen gaineko informazioarako ikus 2.1.3.

²⁶ Zenbait hitzekin sistematikoki gertatzen da (*osaasun*, *proochu*, *fruuta*).

2.1.2. Kontsonanteak

Herskari ezpainkari ahostuna

Testu zaharretan /b/ hotsa , <v> eta <u> grafemen bidez idurikatzen ahal da. Oro har, grafia neutroa litzateke eta <v> eta, batez ere <u>, grafia markatuak. Ohartarazi behar da erabiltzea koherente dela irizpide fonetikoekin, ezen euskarak peitu du erromantzeek duten (edo izan duten) herskari ezpainhorzkari ahostuna. Bat dator herentziarekin, bestetik, <v> eta <u> termino markatuak izatea -rekiko. Gehienetan, etimologiarekin dago lotuta: jatorrizko hizkuntzan <v> edo <u> duten maileguez gorde ohi dute euskaraz ere, irizpide etimologiko batez. Honakoa da egoera gure *K&B*-n:

- <u>-rik ez da /b/ balioz kausitzen.
- non-nahi hatzeman daiteke, ondare zaharreko hitzetan bezala mailegutuan ere: *bizia* (1), *Salbatzaillia* (1)...
- <v> markatua da. Hauek dira haren agerraldi guztiak: *Eva* (2), *David* (4), *virynitatia* (3), *vanaloria* (6), *divino* (15), *valheroxu* (28), *Olivetaco* (109), *mervellez* (162), *Evanyelista* (1) baina *ebanyelistac* (21); *viryina* (1) baina *biryinen* (30), *verthutiaren* (5) baina *berthutez* (66), *arrivatu* (89) baina *arribatu* (51), *convertitu* (116) baina *conbertitu* (41), *divoirziuz* (120) baina *dibortzia* (50), *favore* (191) baina *fabore* (166), *esclavo* (204) baina *esclabo* (172).

Batzuetan gauzen estatistikoki adierazteak argia eman dezake:

	<v>
%98,78	%1,28

 grafemaren nagusitasuna guztizkoa da, beraz. Ohargarria da, halaber, hainbat maileguren tradizio grafikoaren kontra egitea: *esclabo*, *dibortzia*, *conbertitu*... Argi dago testuaren egilea irizpide fonetikoaren alde lerratzen dela, hau da, jakinaren gainean etimologiaren kontra erabiltzeko joera duela, eta hau, dirudienez, idazle jasoen ezaugarri bat dateke.

Igurzkari ezpain-horzkaria

/f/ hotsa era arruntean irudikatzen da, salbu:

- inoiz <ff> digrafoa, hitz barnean, atxikimendu etimologikoz: *effort* (188), *officiale* (43), *officiuan* (20).
- <ph> ere, zenbait grafia etimologikorendako: *Philipo* (33), *Capharnau* (35), *pharisayo* (53) baina *farisayo* (114).

Hasperena

<h> grafema aurkitzen dugu hasperena euskarari ager daitekeen testuinguru guztietan (cf. Mitxelena, *FHV* 203). Hitz hasieran: *hagun* (98), *hescuara* (115), *harmaric* (83); bokalarrean: *nahi* (115), *lehen* (4), *ahalez* (11), *uhunberat* (45); diptongo eta bokal baten artean: *sayhex* (40), *eyhartua* (48), *oyhu* (88); eta ozen ondoan: *senhar* (31), *sinhesten* (34), *anhiz* (32), *belhar* (77), *elhe* (64), *zilho* (35), *urhaxa* (46), *erhietan* (120), *orhoizten* (30), *urhurutu* (12). Bada, gainera, euskararen barneko etimologiarekiko leial diren grafiarik, nahiz ahoskatzean hasperenik ez izan: *ezhoben* (198).

Herskari hasperendunak

Hots hauek egun soilik Iparraldeko mintzoetan gorde dira, zenbatenaz Ekialderago hanbatenaz gehiago. Gure testuan indar-indarrean zeuden herskari hasperendunak: *pharaizu* (7), *aphezac* (14), *phiztea* (67), *phozic* (75), *gorphutz* (9); *artha* (15), *athera* (16), *bethi* (91), *ethor* (15), *thu* (135); *dakharcona* (1), *okherrac* (8), *ilkhi* (16), *bakhotcha* (18), *ikhus* (142). Erran behar da <cc> digrafoa ere posible litekeela /k^h/ hasperendunaren islatzeko. Adibide bakanak kausitu ditugu: *occzagarrienaren* (12) ziurra, eta *soccorri* (31) dudazkoa.²⁷

Marka bedi herskari hasperendunak posible diren leku guztietan aurkitzen ahal direla, hasperenketaren arauak errespetatu: lehen edo bigarren silaban, ber hitzean ezin ager daitekeela bat baino gehiago.²⁸ Bestenaz, ez da ahantzi behar <ph> digrafoaren gibelean grafia etimologiko bat egon daitekeela, lehen ikusi dugun bezala.

Herskari belare ahostuna

/g/ hotsaren kasuan gure testua erdaren usantzari jarraikitzen zaio:

- <g> *a, o, u* bokalen aitzin: *gauza* (62), *golaxegui* (95), *gure* (191).
- <gu> *e, i* aitzin: *argui* (12), *eguiazco* (1), *erregue* (13), *aingueru* (12).
- <g> *r, l* aitzin: *ingrat* (12), *erregla* (51), *minagriac* (56).
- Zenbait kasutan <gue> grafiak /gue/ ahoskera islatzen du: *zaguen* (2), *daguen* (162), *guehiaguetan* (35). Etsenplu hauetan guztietan egikaritu da *o*-ren ixtea *-e* aitzin.

²⁷ *Soccorri* grafia etimologikoa izan badaiteke ere, oso litekeena da hasperenduna izatea. *Sokhorri* ongi dokumentatzen da euskararen corpusean.

²⁸ Dena den, badira *hilabathe* (146) edo *huba* 'hoa' (62).

Guztiarekin ere, zenbaitetan egileak <ge> eta <gi> baliatzen ditu: *aingeruac* (18). Agerraldi bakarra balitz huts dela pentsatu beharko genuke, baina lau dira *aingeru*-renak; baliteke, beraz, irizpide fonetikoaren aldeko lerradura baten zantzuak izan litezen.

Igurzkari sabaikari ahostuna

/ʒ/ hotsa, erromantzeek sarrarazia Ipar Euskal Herrian, maileguetan hatzematzen ahal dugu. Haren isla grafikoa <g> dukegu, *e* eta *i* aitzin: *erregenerazione* (38), *omenage* (40), *gentil* (123), *tragedia* (191), *originalean* (6), *legitimo* (140), *afligitu* (55), *legione* (80).

<j> eta <y> grafien afera

Erdibokal edo irristari batetik kontsonante igurzkari sabaikari batera doan tarreak bi gauzatze grafiko du gure testuan: <j> eta <y>,²⁹ alografo gisa erabiliak. Transkripzioa behin eta berriz segurtaturik, honako ondorioetara heldu gara:

- <j> eta <y> grafiak trukagarriak dira, erran nahi baita alografoak, haien erabilera ez baita arrazoin fonetikoen araberakoa.
- Hitz hasieran <j> nahiz <y> baliatzen ditu egileak, baina honako banaketarekin: hitz mailegatueta <j> eta besteetan <y>. Euskal hitz zenbaitek ager dezakete *j* hasieran, baina guztien kasuan gailentzen da *y*-dun grafia: *joan* / *yoan* (4 vs. 78 agerraldi), *jin* / *yin*³⁰ (1 vs. 45), *judu* / *yudu* (9 vs. 33). Beste muturrean, aipatzekoa da *Jesus* grafiak 281 agerraldi dituelarik, *Yesus*-ek 13 baizik ez.
- <y> garaile da hitz barnean, maileguetan ere. Adierazgari da *juye* (3), *pyant* (24...) edo *suyetatu* (100) grafiak, klarki salatzen baitigute <j> kokagune horretan ez erabiltzeko joera. Hala ere, badira salbuespenak: *objet* (1), *sujet* (174), *majestuosen* (193).
- Hitz barnean, beraz, <j> salbuespen guztizkoa da, posizio honetan %1,9an baizik ez baita agertzen.

²⁹ Arazo paleografiko baten aitzin egin dugu: <y> eta <j> grafema argien pare, <y> puntudun bat ere aurkitzen da, eta ez gutitan. Hasieran nahasmendua sortu zitzaigun, puntu haiek <j>-renak zirelakoan. Gisa guziz, alta, *y* grekoarenak dira.

³⁰ Oso adierazgarria da izkribuaren 94. orrialdean ikus daitekeen autozuzenketa: *jin* barratua agertzen da, eta ondoren *yin* idatzi du egileak.

Herskari belare ahoskabea

/k/ hotsaren kasuan grafien banaketa tradizionala da guztiz: <c> a, o, u aitzin eta <qu> e, i aitzin: *nescacha* (2), *eguiazcuen* (1), *miraculuzco* (14), *uzcurchcotto* (38); *baquezco* (50), *coquetac* (57), *hoquiequin* (6), *adichquidequin* (21). Banaketa honek ez du salbuespenik, zenbait grafia etimologikoez landa:

- <cc>: *occasione* (3), *accusatzeco* (29).
- <ch>: *Christo* (1...), *christau* (1...) eta *christal* (4, 9).
- <kh>: *Zakharías* (1).
- <qu>: *qualitatez*³¹ (110), *qualificatzen* (146).

Dardarkari bortitza

Bada XVI. eta XVII. mendeko ohitza grafikoetatik datorkeen joera bat dardarkari bortitza <r> soil batez errepresentatzeko. *K&B*-n batere sistematikotasunik gabe lekukotzen dugu, batzuetan hitz bukaeran: *barurez* (103) baina *barurrac* (142); *belduraz* (195), *beldurez* (67) baina *beldurra* (19, 129), *beldurrez* (3, 19, 73, 81, 136, 177). Eta maizago bokalarteko kokagunean: *erreberituric* (107), *erresurezione* (67), *beriz* (134), *kheruz* (194), *zeratzen* (115), *alchagariarena* (77), *araxian* (58), *ekhari* (72), *garatz* (188), *haraos* (81), *hararazi* (107), baina *berriz* (125), *kherruca* (193), *zerratzen* (32), *alchagarriarena* (68), *arraxian* (21), *ekharri* (69), *garratza* (11), *harraoxac* (121), *harraraztia* (201).

Txistukariak

Erran dezakegu *K&B*-n ongi bereizten direla sibilante guztiak, artikulazio moduaz (igurzkarri, afrikatu) zein guneaz (apikari, lepokari eta sabaikari). Sabaikariek sor daiteke nolabaiteko nahastekamendua:

	igurzkarri	egungo grafia	afrikatu	egungo grafia
apikari	<f>, <s>, <ss>	<s>	<x>, <tx>	<ts>
lepokari	<z>, <c>, <sc>	<z>	<tz>	<tz>
sabaikari	<ch>	<x>	<ch>, <tch>	<tx>

³¹ Hona *OEH*-k dioena: “Leiçarraga, Etcheberri de Ziburu, Haramburu (425), Tartas (*Arima* 95), Mihura (29), Baratciart, Mercy (éste junto con *ka-*) y Etchahun escriben <qualitate>”. Mailegu hau erromantze ala frantsesetik sartua izanik, <qua> grafiaren arrazoina purki etimologikoa da. Aldiz, *quarter* (80, 93) hitzak duda sorrarazten digu, posible baitira bi ahoskera: /karter/ edo /kuarter/.

Txistukari apikariak

/s/ txistukari frikatua <s> zein <f>³² grafiekin idurikatzen da:

- <f> hitz hasieran: *fainduien* (1), *femia* (1), *fan* (13).
- <s> kokagune guztietan (hitz hastapenean soilik larri delarik): *Christo* (1), *esperantza* (1), *desohore* (1).

Badira, halaber, beste bi molde /s/ hotsaren etimologikoki idazteko:

- <ss>: *Messias* (189), *possible* (37) baina *posible* (4), *necessarioqui* (37) baina *necesario* (109), *missione* (84).
- <x>: *extraordinario* (164), *explicatzen* (10).

/tʃ/ txistukari afrikatuarentzat bi aukera dugu:

- <x> bokalarlean, ozen ondoren nahiz hitz bukaeran: *dohaxu* (7), *ebaxia* (19), *arraxian* (21); *onxa* (165), *enxeyuraren* (27), *garxua* (39); *kharax* (11), *hux* (29), *sayhex* (49).
- <tx> bokalarlean eta ozen ondoren: *hotxa* (44), *itxuen* (1), *dohatxu* (1), *yautxi* (5); *perruquertxa* (63), *gartxuan* (36).

Txistukari lepokariak

/s/ txistukari lepokari igurzkaria <z> grafemarekin islatzen da usuen. Grafia etimologikoez apart, <z> testuinguru guztietan baliatzen da. Hitz hastapenean: *zacoyan* (40), *zerutic* (37), *zian* (41), *zoin* (42), *zuhur* (51); bokal artean: *eliza* (98), *izen* (98), *phozic* (75); kokagune plosiboan: *zaizquit* (115), *odolezco* (143); hitz bukaeran: *beraz* (52), *ez* (52), *fullatuz* (59).

Badira <z>-z landako grafiak: <c> *e*, *i* aitzin, oso bekanki, eta gehienetan guztiz etimologikoa. Hauek dira etsenplu guztiak: *centenier* (52), *prince* (97), *necesario* (109), *luce* (1), *guciz* (204), *principala* (98), *preciosa* (168); baina *preziosa* (72). Bestenaz <sc> digrafoa ere aurki daiteke, balio etimologikoz: *discipulu* (59), *piscina* (144).

/ts/ txistukari lepokari afrikatua <tz> digrafoaz islatzen da non-nahi: *tzela* (1), *etzitela* (3); *bihotza* (11), *ezagutza* (98); *esperantza* (1), *bertze* (2); *utz* (112), *ebia-coitz* (136).

³² Testuaren editatzeko egungo banaketara ekarri ditugu <f> luzeak, batzuk <S> larri eta besteak <s> xehe.

Txistukari sabaikariak

/f/ txistukari sabaikari igurzkaria <ch> digrafoarekin idazten da beti³³ eta non-nahi: *charmant* (8), *hauche* (6), *chuchen* (8) *bidechca* (8), *marachturi* (20).

/tʃ/ afrikatuari dagokionez, bi grafia txandakatzen dira: <ch> eta <tch>. Hona zenbait adibide: *nescacha* (2), *bacocha* (11) baina *bakhotcha* (18), *alchatu* (172), *borcha* (12); *etchola* (102), *ihetche* (11), *mehatchaturic* (186), *untchisca* (67), *etchura*³⁴ (186) baina *echuran* (26). <tch> grafia dutenen artean erditik goiti *etche* eta haren deribatuak dira.

Hots sabaikarituak

L palataldua. /ʎ/ hotsa <ll> digrafoaz errepresentatzen da, anitzetan *i* batekin aitzinean: *salbatzaille* (1), *eguille* (13), *traillatu* (10); edo *i* gabe: *ereinzalliarena* (67), *phicazalley* (73), *Mervellez* (162), *fullatuz* (59), *atropella* (67).

N palataldua. Gure testuan /ɲ/ hotsari <ñ> grafema egokitzen zaio sistematikoki: *Bettiriño* (1), *galdeño* (100), *peña* (42), *zurguiñaren* (83), *ñimiñua* (78). Baliteke zenbaitetan <nh> digrafoak *n* bustia idurika lezan, beharbada gaskoinaren tradizioari jarraikiz. Etsenplu bakarra kausitu dugu: *aita-guinharrebaren* (179).

T bustia. /c/ hotsaren isla grafikoa aski berezi da: <tt> gehi <^> diakritikoa. Horrela baliatzen da, sistematikoki: *Bettiriño* (1...), *ttipi* (2), *uzcurchcotto* (38), *pittica* (122), *exemplutto* (141), *ttar ttar* (186).

D bustia. /j/ hotsarendako oso adibide bakanak hatzeman ditugu, beti ere <y> grafiaren gibelean ezkutatuak: *linyo* (163, 183, 194) *linyotasuna* (77). *Lyndo* ere lekukotzen da (4, 193). Cf. gazt. *lindo*.

Kontsonante talde etimologikoak

Grafia	Ahosk.	Etsenpluak
<cc>	/k/	<i>occasione</i> (3), <i>accusatzeco</i> (29)
<kh>	/k/	<i>Zakharías</i> (1)
<ph>	/f/	<i>Philipo</i> (33), <i>Capharnau</i> (35), <i>pharisayo</i> (53)
<ff>	/f/	<i>effort</i> (188), <i>officiale</i> (43)
<mm>	/m/	<i>commuzqui</i> (7)
<mn>	/n/	<i>condemnatu</i> (51), <i>damnazionezco</i> (51)
<nn>	/n/	<i>Joannes</i> (101)
<tt>	/t/	<i>attentzione</i> (30), <i>lettra</i> (62)

³³ Bada forma problematiko bat: *xaxu*, egungo grafiaz *satsu*, *xatsu* (BN) edo *txatxu* (hainbat lekutan, BN-n ere).

³⁴ Forma hau autozuzendua da izkirioan: ~~*echuran*~~ *etchuran*, hain justu txistukariaren grafia dela eta.

2.1.3. Diakritikoak

Akzentuak

Akzentu zorrotza. Hona hemen testuan zehar kausitu ditugun adibide guztiak: *phús* (76), *igáanic* (93), *Erresumán* (106), *méneco* (107), *sapientíá* (124), *Machabéez* (137), *osáasuna* (144, 175), *paséeta* (145), *Zaché* (150), *Bartimé*, *Timéen* (151), *ilhun naárrian* (161), *balíz* (173), *osáasuna* (175), *khondatuquiró* (179), *ichilquiró* (180), *aguertuquiró* (187).

Akzentu zirkunflexua, bakanagoa: *trônuan* (36), *lô* (72), *ilhun nâarrian* (79), *ââr*, *osâagarri* (121), *âar* (128), *pôla*, *pôlaraino* (130), *lô* (141), *pôt* (175).

Akzentu baten edo bestearen erabilerari doakionean ez dakusagu inolako irizpiderik; izan ere, zenbait hitzetan biak lekukotzen dira. Bestenaz, balirudike inoiz erdal grafiak eragin izana: *pôle* > *pôla*, *pôlaraino*; *trône* > *trônuan*.

Laburdurak

Deus guti errateko laburduren inguruan, sudurkaritasunari historikoki lotua izan zaionaz apart: *ziteã*, *dèbora*, *hunè* (← *zitean*, *denbora*, *hunnen*).

2.2. Fonologia

Testuak eskaintzen dituen datu guztiak ez dira interpretabide fonologiko batetik iruzkinduko —ez baita hori gure lanaren xedea— baina bai, bederen, bilakabide nagusiak identifikatuko dira, eta horietako batzuk azaltzen ahaleginduko.

2.2.1. Bokalak

U + bokal ez altua³⁵

u + *a* > *uia*. Bilakabide hau oso markagarria da, isla etengabea baitu deklinabidean (baina ez soilik), *-u* akabantza duten enborrei artikulua eransteanean. Ez da sistematikoki betetzen:³⁶ *buruia* (54), *buruiac* (87), *buruiari* (42), *buruiaren* (7),

³⁵ Lehen bilakabidea ez dateke joera antihiatiko huts, *u*-ren palataltzeari lotua baita. Pentsa bedi ez dela antzekorik gertatzen bestelako bokalak hiatus batean elkartzean. Arreta berezi eskainiko diogu batetik dialektalki munta handikoa izateagatik, eta bestetik aldatuz joan delako denboran zehar.

³⁶ Izan liteke egileak ez lezan aldi oro fenomeno hau grafikoki adieraz. Datuen estatistikoki iruzkintzetik bestelako hipotesirik idok dezakegu, hots, erregelak hau ez zela osoki hedatua; hortaz egilearen grafia zalantzata eta pare abondantak.

buruian (10), *buruiaz* (37) baina *burua* (27), *buruac* (137); *aingueruia* (19), *aingueruia* (2) baina *aingueruac* (3), *aingueruari* (5); *juduiac* (131) baina *juduac* (132); *diruiaren* (184) baina *diruarentzat* (171); *osamenduia* (187) nahiz *osamendua* (157); *poseituia* (172), *sacratuia* (71), *galduiac* (79) nahiz *poseytua* (66), *sacratuaz* (185), *galduac* (202).

Guztiarekin ere, iduri luke zenbait hitzekin joera argiagoa izan ledin: beti *mundua*, *munduan* edo *munduaren* (guztira 17 agerraldi); *zuian* (172 aldiz) eta ez **zuan*. Ondoko taulan zenbait kasu adierazgarri biltzen dira.³⁷

	% <i>ua</i>	% <i>uia</i>
<i>mundu</i>	100	-
<i>-mendu</i>	64	36
<i>-tua</i>	59	41
<i>ordu</i>	23	77
<i>buru</i>	7,5	92,5
bat. <i>zuan</i>	-	100

Azkenik erran behar da <uya> grafia ere hatzematen ahal dela, aldi bakanetan bada ere: *etzuyan* (203), *duyalaric* (31) eta *nuyalaric* (8) baina *nuian* (49).

u + e > uie. Hemen ere sor daiteke epentesi bat, eta *ua / uia* txandakatzean bezala, askotariko kasuistika dugu: *juduie* (40), *juduien* (17) baina *judue* (36), *juduen* (14), *yuduerri* (22); *dohatxui* (163), *dohaxuien* (75) baina *dohaxu* (163); *zeruietaco* (44), *zeruietan* (50) baina *zeruen* (119).

Berrikuntzak hedapen diferentea du hitzen arabera. Zenbaitek ez dukete *uie* onartzen: *apostoluec*, *apostoluen*, *apostoluequin*, *apostoluerri*, *apostoluetaric* (36 agerraldi); *discipuluec*, *discipuluen*, *discipuluequin*, *discipuluerri*, *discipuluetaric* (25 agerraldi). Beste batzuetara, aldiz, osoki hedatu da —hitzen kategoriak baduke zerikusirik—: *batzui* (163), *batzuien*, *batzuietara*, *batzuietaric*, *batzui* (163), *batzui* (**batzue*...); *zui* (163), *zui* (163), *zui* (163), *zui* (163), *zui* (163), *zui* (163), *zui* (163) (**zuec*...). **Edun* aditzaren formak, aldiz, *ue* zein *uie* itxurapean ager daitezke, proportzio kanbiakorrean.

³⁷ Xerkatzean deklinabide kontuak aintzat hartu dira: *-ua* gisa adierazi kopuruek *-uaren*, *-uac*, *-uari*, etab. ere hartzen dituzten bere baitan.

	% <i>ue</i>	% <i>uie</i>
<i>dituen</i>	95	5
<i>zituen</i>	50	50
<i>duen</i>	16	84
<i>zuen</i>	12,5	87,5

Egungo Lapurdiko Ekialdeko euskaraz den bezenbatean, *u + a* bilkuraren ahoskera honela gauzatzen da (Epelde 2003: 324):

u + a elkartzean *-uia* epentesiduna daukagu Larresoron, Haltsun, Uztaritzen, Ezpeletan eta Kanbon. Zuraidek mendebalera dituen herriekin bat egiten du, eta *-ua* bukaera erabiltzen da han, silaba bakarrekotan izan ezik. Itsasuk, berrik, Hazparne aldearekin egiten du bat: *-üa* erabiltzen da Itsasun, Hazparden eta Lekornen, eta tarteko *-üia* Milafrangan.

Eskain diezaiogun arreta *Hazparneko Dotrina*³⁸ gisa ezagutzen den, eta Luis Luzien Bonaparte printzeak manatu itzulpena (Asteteren katiximarena) den izkirio anonimoari. Itzultzaileak utzi dizkigun oharren artean honakoak azpimarkatzen ditugu:

1. La terminaison *ua* se prononce *oua* —frantses grafiaren araberako ahoskera— quand le mot sans la désinence est terminé en *o*, *Jinco*, *Jincua*; *lagno*, *lagnua*.

2. La même terminaison se prononce *ua* (comme en français) quand le mot sans la désinence est terminé en *u*. Ex, *Ceru*, *cerua*; *buru*, *burua*.

— C'est le seul cas où l'*u* ait cette prononciation. C'est donc par erreur que j'ai écrit *ui* toutes le fois que ce cas s'est présenté. Si j'ai laissé subsister la faute, c'est afin de ne pas surcharger ce travail de ratures.

Hau da, *Kadet eta Bettiriño* baino mende bat berankorrago den *Guirichtino dotrinaren* itzultzaileak *ceruia*, *buruia* izkribatzen du egun *zerüa*, *burüa* idatziko genukeenetan. Honek gure testuan ere <buruia> grafiaren gibelean *burüa* oguzkera legokeela pentsatzera bulka gintzakeen arren, hipotesi diferente bat dugu go-goan. Ene ustez, *K&B*-n lekukotzen dugun *u + a > uia* epentesiduna guztiz koherente da egungo Hazparneko *üa* emaitzarekin; izan ere, honako bilakabide historikoa proposatzen ahal dugu: *ua > uia > üia > üa*.

Batetik argi dago, beraz, gure testua jatorrizko hiatoaren eta egungo emaitzaren tarteko egoeraren isla dela. Bestetik, alta, afera ez da desira genukeen bezain gar-

³⁸ *Guirichtino Dotrina. Ahazparneco lengoyan*. Eskuizkribua nahiz Deustuko Unibertsitateak Rosa Miren Pagolaren zuzendaritzapean argitaratu bertsioa baliatu dugu.

dena, hizkera honen lekukotasunak ez baitira, halaber, nahi genukeen bezain abundantak. Eta grafiaren arazoa ere hor dukegu: historikoki <u> grafiak noraino adieraz lezakeen *u* palataldu bat ebaztea ez da beti posible —edo bederen erraz— izaten.

Nolanahi ere den, *ua* > *uia* > *üia* > *üa* bilakabidea *u* bokalaren palataltzeari lotua da. Honela mintzo zaigu Mitxelena (*FHV*, 121):

Hay una tendencia muy generalizada a palatalizar *u* ante una vocal en los dialectos orientales. Los hechos, que se manifiestan sobre todo en la declinación y conjugación, han sido estudiados minuciosamente por R. Lafon, “Tendance à la palatalisation de la sonante *u* dans les parlers basques du Nord-Est”, *RliR* 13 (1937), 70 ss. En suletino p. ej. hay *i* de *ü* en el nom. sing. de los temas en *-ü* < **-u* (*-ía* < **-ü'a*, pasando probablemente por *-ü'ya*). [...] Como se ve, el sonido de transición [**u'a* > **ü'ya* > *ü'a* > *ía*] era ya claramente perceptible en la época de Dechepare, quien escribía consecuentemente *buruya* ‘la cabeza’, *çuyen* ‘vuestro’, *nuyen* ‘yo lo había’, etc.

R. Lafon hizkuntzalariak, anitz gauzaren artean, erreferentziatzeko lanak egin zituen *ü* bokalaren gainean. Honela laburtzen ditu *-ua* eta *-ue* bilkurak jasaten dituzten kanbiamenduak (1962: 107):

Les voici, dans le sous-dialecte bas-navarrais oriental de l'Adour, *-ua* et *-ue* sont devenus respectivement *-uya* et *-uye*. On entend quelquefois *-üya* au lieu de *-uya*; mais cette prononciation “n'est pas constante”. À Briscous on dit *ziek* ‘vous’, mais au datif *ziüyeri*. Dans le sous-dialecte bas-navarrais occidental dont Villefranque fait partie, *-ua* se prononce de trois façons, *-üya*, *-üa*, *-ua*; ‘vous’ se dit *ziüik*; *ue* est devenu *üi* dans les formes verbales. Dans le sous-dialecte labourdin d'Arcangues, dont Bassussarry fait partie, et que Bonaparte appelle “hybride” parce qu'il est mêlé de bas-navarrais, la combinaison *-ua* est devenue *-uya*, mais “elle a quelque-fois pour variante, chez certains individus, non pas *-üya*, mais presque *-euya*, en donnat à l'*eu* le son qu'il a dans le mot *peu* (non pas celui du mot *veuf*) mêlé à celui de l'*ü*”.

Epeldek, bestenaz, honela laburtzen ditu *ue* > *ui* bilakabideak izan dituen emaitzak egungo mintzairan (2003: 324):

[u + i] ingurunean (*ue* > *ui* bilakatuz), *u* hori palatalizatzen da, baina emaitza desberdinak ditugu eremu batean eta bestean: Uztaritzen *ui* & *üi* eta Hazparnen *ii*.

Berriz ere Lafonengana joko dugu (1937: 89):

U voyelle en fin de mot ou devant consonne est resté intact.

Groupes *ua, ue*. *Ua* est devenu *ia* en baïgorrien, *uya* à Ustaritz, *uya, üya* et *üa* à Mendionde, *ua* et *üa* en aezcoan, *û* étant “une simple variante de *u*”. *Ue* est devenu *ii* en baïgorrien et à Mendionde, et *üi* à Ustaritz: *ziin, duzii, züin, duzüi*. [...]

Guk tarteko urrats batez emendatzen dugu Epelderren deskribapen diakronikoa, honela baitakusagu bilakabidea: *ue* > *uie* > *ui* > *üi* > *ii*. Bistan denez, *Kadet eta Bettiriño*n bigarren urratsa ez da osoki bete. Mende bat berantagokoa den *Hazparneko dotrinan*, aldiz, euskara hazpandarraren ezaugarri nahi bada markatzaile³⁹ hau egun bezala dokumentatzen ahal dugu: *diinac, ditiinac*, etab. Honek badu, ene ustez, testuen naturan datzan esplikabide logiko bat, ezen *K&B*-ren egileak maila bateko testua adelatzen ahalegindu bazen (honek inplikatzten dituen hautu guztiekin) Bonaparte printzeak, ezaguna den bezala, hizkeren *nortasuna* eta izaera dialektalaren berri ematea xede baitzuen. Ahantzi gabe hizkuntz aldaketek ez dutela zertan erritmo erregular batera plegatu.

O + bokal ez altua

O bokalaren eskuinean bokal ez altu bat denean *u* bilaka daiteke. Honela formula dezakegu bilakabide hau, arau gisa funtzionatzen duena: *o* > *u* / _ *bok*^{-altus}.

Ikus ditzagun [*oa* > *ua*] gisako zenbait adibide: *ahua* (72), *arnua* (34), *banua* (42), *goguan* (38), *barbaruaren* (133), *abariziua* (51), *demoniuz* (44), *altzeiruzcua* (10), *farisayua* (144), *onduan* (bi aldiz *ondoan*, %2,5).

Erregela honen aitzinean badira salbuespenak, baina gehientsuenetan bokalarteko kontsonante bat erori da, eta beraz hiztunak mantentzen duke silaba egitura zaharraren kontzientzia: *phorogatu* > *phoroatu* (179), *burxoratu* > *burchoatu* (149), *ogale* > *oale* (119), **corona* > *khorôa* > *khoroa* (67), *troxatu*, *toroxatu* > *tooxatu* > *toachatuia* (12). Bestelako azalpena behar dute *Yaincoarentzat* (5), *loac* (79), *joan* (behin *yuan* (41)).

[*oe* > *ue*] adibideak: *zaguen* (2), *amodiuen* (127), *demoniuez* (80), *farisayuec* (48), *ondicuezen* (14), *guehiaguetan* (147).

³⁹ Hazparneko ezaugarri eskusiboa ez dela ikustetik gatoz (ezta Lekorneko hizkera deit daitekeen horrena ere). Halere, *ii* emaitzak badu izaera markatzaile inguruko beste herriekiko.

O-ren ixtea

O bokalaren ixtea hedatua da Ipar Euskal Herrian, zenbatenaz Ekialderago hedatuago. Mitxelenaren ustez (*FHV*, 54-57) fenomeno honen zergatiak ez dira $u > \ddot{u}$ bilakabidearenak bezain gardenak. Gure testuan honela dokumentatu dugu:

- n aitzin, batez ere hitz bukaeran edo kontsonantearen ezkerrean. $K\phi B$ -n *hun*, *hunec*, *hunen*, *huntaz* bezalakoak hatzematen ditugu. Bestenaz *undar*, *nun*, *untzi* (163), *unchisca* (88), *afruntu* (100), *hunentbertze* (86). Zenbait kasutan zalantzatia da: *abundantez* (53) baina *abondantena* (197). Beste hainbatetan o ez da ixten: *guizon*, *ongui*, *contre*, *zonbait*...
- l aitzin, zenbait kasutan: *hula* baina *hola* (3 vs. 27 agerraldi); *hulache* baina *holache*.

Epelderentzat (2003: 324) Hazparne aldean indar handiagoa du sudurkari aurreko $o > u$ ixteak Larresoro inguruan baino.

Diptongoen bakuntzeak

Adibide eskasak (urria baita diptongo hauen maiztasuna) baina adierazgarriak:

- $ui > u$: *escuneco* (162), *higunaren* (202), *higungarrienen* (28)
- $eu > u$: *uli* (56)

2.2.2. Kontsonanteak

Hasperenaz haborozeago

Aitzineko atalean bai h , bai herskari hasperendunen indarrak mintzatu gara. Soilik emenda genezake badirela h protetiko batzuk ez etimologikoak, beraz *kre-atuak*. Gogora dezagun Mitxelenak honen kariaz zioena (*FHV*, 209):

Ejemplos de h parásita se encuentran en muchísimas lenguas, si no en todas las que poseen ese fonema: cast. *henchir*, *hinojo* ‘rodilla’, fr. *haut*, alem. *heischen* (a.a.a. *eiscōn*), gr. ático *he-méra*, etc. Pero los ejemplos vascos resultan comparativamente muy numerosos. Eso no quiere decir, sin embargo, que algunas de las explicaciones que suelen ofrecerse en otras lenguas no tengan aplicación en nuestro caso. Así *harroka* sería *arroka* x *harri* ‘piedra’, *hezkabia* debería la inicial al cruce con *hatz* ‘prurito, sarna’, etc.

Gure testuko etsenplu guztiak ez dira ber tailukoak:

- Hitz batzuk h -z baizik ez dira lekukotzen: *harma* (142...), *harmatuac* (173), *harroca* (32...), *herrebes* (6...), *hira* (171...), *hirritatuac* (48).

- Bestetan txandakatzek gertatzen dira: *hamu* (203), baina *amu* (4 aldiz); *hare* (71, 170),⁴⁰ baina *are* (9 aldiz); *hasma(tu)* (3) nahiz *asma(tu)* (behin); *hauzo* (85) *auzo* (116); *heri* (44), *herien* (136) baina *eri* (43...) eta *erien* (52).
- Azkenik zenbait adibide huts dirateke, agerraldi bakarrekoak izanki guztiz gailentzen baitira *h*-rik gabekoak: *haurkhitu* (189), *hogui* (69).

Igurzkarien galera bokalartean

Bokalarteko *b*, *d* eta *g* kontsonante frikatiboak erortzea arras hedatua da euskaraz garai guztietan. Galera horiek izkiriatuak emaita, aldiz, bi gauzen seinale izan daiteke: mintzamoldeetarik hurbil dagokeen hizkera islatu nahi da —beharbada oharkabea— edo egileak, hitzaren forma higatua gailendu delako, ez du kontzientzia hor kontsonante bat galdu dela.

- Lehen multzoan hauek sar genitzake: *accaazetic* (111), *pharaizu* (7), *aichquidec* (60), *muitzaille* (173), *oale* (119), *pico saaric* (153), *atxein* (18).
- Batzuk bi eratara agertzen dira: *erreelatu* (116) / *errebelatu* (114); *goernadoriaren* (173) / *gubernadoriaren* (205); *iraazteco* (163) / *irabazi* (179).
- Ondokoetan galeraren kontzientzia galdu dateke: *haraos* (81), *despeitzeco* (91), *beiratu* (101), *beiratzeco* (71, 75, 179), *correitzeco* (106), *phoroatu* (177).

Dardarkari bakunaren galtzea

Bokalarteko igurzkariak bezala, *r* interbokalikoa ere aise erortzen da. Ez da asko adibide: *escaatzaren* (22), *errequeitu* (41), *igáanic* (93), *opeator* (173, 195), *atheatu* (44), *ekharraazten* (198) baina *atheratu* (148), *ekhararaazi* (179).

Dardarkari bortitzari lotuz, *beriz* (134), *beldurez* (78) edo *haraos* (81) bezalakoak kontu grafiko hutsa dira, eta ez zubereraz gertatzen den dardarkari horren ahultze edo lenizio bat (ikus GRAFIA).

d > r

Bilakabidearen etsenplu bakana hatzeman dugu: *zitarela* (27). Fenomenoa zaharra da euskaraz. Cf. gazt. *quedar* > *geratu*; *mediku* > *miriku*; *aixkide* > *aixkire*. Kontrako norabidean ere gertatu da, batik bat Zuberoan: *altzeiru* > *altxeidü*; *feira* > *feida*.

⁴⁰ Kasu honetan pentsa liteke hasperenak baduela arrazoi etimologikorik; izan ere, *hare* 3. graduko erakusle baizik ez da, *-n* gabeko genitibo arkaikoa erantsirik.

$r > l$

Badira, izkirioan zehar, $l > r$ bilakabidearen zenbait etsenplu, gehientsuenak kodan: *algal* (36) baina *argal* (98, 199), *gallaldiac* (6) (cf. *gollardia* < esp. *gallardía*), *daldaretan* (11), *toleatzeco* (8) (< esp. *torear*).

$g > h$

Baditugu zenbait etsenplu: *nigar* / *nihar* (6 vs. 2 agerraldi), *egun* > *ehun* (137), *hoibeldua* (16), *hoibelduac* (57).

Espainol /x/ hotsaren egokitzapena

Ezaguna da Iparraldeko euskaldunek —Pirinioetatik beheiti ere, Nafarroa Garaiko zenbait lekutan— egokitu dutela gaztelaniaren /x/ igurzkarri sabaikaria. Beraz, ez da harritzekoa kausitu ditugun adibide bakanak gaztelaniatikako maillekuak izatea: esp. *género* > *khenero* (75), *ventaja* > *benthakhetan* (129).

Txistukarietan zalantza (guti)

Txistukari apikariak eta bizkarkariak (idaztean *s* eta *z*, hurrenez hurren) ongi bereizten badira ere, zenbaitetan egileak ez du guztizko segurantzaz. Duda hauek herskari ahoskabe aitzin ageri dira:⁴¹ *aste asquen* / *astezquena* (158); *damustatu* (152) / *ihiztatu* (53); *baster* / *bazter* (4 vs. 3 agerraldi); *espata* / *ezpata* (hiruna agerraldi); *lastan* hitzaren kasuan, beti <*s*> grafia (8 aldiz).

Hauekin batean ekar genitzake, halaber, balizko hiperzuzenketa kasu zenbait:

- *ezcritura* (27). Hurrengo orrialdean *izcritura* (cf. *espiritu* / *izpiritu*).
- *uzte* (176), *uzte gabetasun* (177). *Uste* grafia nagusitzen da.
- *uzpelcatzen* (193). Bestenaz *uspelcatzen* (183), *uspelez* (194).

Hitz bukaerako herskarien nahastekamendua

Zenbaitetan idazleak zalantzak ditu hitz bukaerako *-t* eta *-k* herskarietara doakienez. Fenomeno hau ezaguna da euskara mintzatuan. Egia da segurtasun falta horrek hutsak eragiten dituela idazlanetan —hutsak diren heinean, zuzenduak izan dira gure edizioan—, eta hau ez dateke ongi ezkontzen maila jasoko izkribu ba-

⁴¹ Ez dugu bi txistukari sailen arteko oposaketaren galeraren hastapen faseaz hitz egiten, neutraltze fonologiko hori lehenbiziz gertatzen den ingurunea herskari ahoskabeen aitzonean dela gauza ezaguna izan arren.

tekin. Aldiz, kopuruari begiratzen badiogu ez zaigu oso adierazkorra iruditzen: hamahiru etsenplu orotara. Hauek dira:⁴²

Zer behar lukeen	Zer idazten duen	Orrialdea
<i>duc</i>	<i>dut</i>	12
<i>arinentzat</i>	<i>ari-nentzac</i>	55
<i>ditut</i>	<i>dituc</i>	62
<i>zolarat</i>	<i>zolarac</i>	80
<i>urerat</i>	<i>urerec</i>	105
<i>bekhatoriac</i>	<i>bekhatoriat</i>	117
<i>ezaguturic</i>	<i>ezaguturit</i>	140
<i>hipocrit</i>	<i>hipocric</i>	140, 180
<i>yainco zat</i>	<i>yainco zac</i>	146
<i>dituc</i>	<i>ditut</i>	160
<i>dioc</i>	<i>diot</i>	160, 178
<i>dituc</i>	<i>ditut</i>	185
<i>haren ganat</i>	<i>haren ganac</i>	199

2.3. Izen morfologia

2.3.1. Deklinabidea

Has dezagun atal hau izen morfologiari hertsikien lotzen zaionarekin, erran nahi baita deklinabidearekin. Datuak kasuz kasu aurkeztuko dira, horietako baikoitzean numero bariazioa agertuz. Logikoa denez, euskara komunetik (bai eta hizkeraren erreferentzia eremutik ere) urruntzen diren fenomenoei eskainiko diegu arreta gehien; aldiz, holako interes berezirik ez duten datuekin zerrendatzera mugatuko gara.

Absolutiboa

- Singular *-a*: *abariziua* (51), *adultera* (31).
- Plural *-ac*: *urbaxac* (125), *faltac eta hobenac* (126), *brillantac* (57).
- Plural hurbila *-oc*: *discipuluoc* (131), *guzioc* (132).

⁴² Edizioan huts bezala izan dira tratatuak; beraz, ohar paleogafikoetan ematen da zuzenketen berri.

Plural hurbilaren erabilera markatzekoa da nafar-lapurteraren eremuan. *K&B*-ren lekukotza ekarri ditugun adibideetara mugatzen da. Honakoak dira Corpus Arakatzaillearen emaitzak *guziok* formarendako: Leizarraga, Haranburu, Argaiñaratz, Pouvreau, Etxeberri Sarakoa, Gazteluzar eta Haraneder eta Lhande. Gure testuan *guzioc* behin baizik ez da agertzen.

Ergatiboa

Singularrean bada absolutibo / ergatibo arauaren nolazbaiteko haustura, *zein* erlatibozko izanordainari lotua. Egileak ez ditu erlatibo hauetako singularreko absolutiboa eta ergatiboa formalki bereizten, hortaz *zeinac* idazten du *zeina* beharko lukeenetan (ikus “*Zein ... bait-* erlatiboak”, SINTAXIA atalean). Pluralean *-e* akabantza duten hitzetan grafia bakundua agertzen da ($e + e > e$).

- Singular *-ac*: *beruac* (69), *dorpeac* (13).
- Ez mugatu *-c*: *leproxuc* (137).
- Plural *-ec*: *ministruec* (193), *hegastinec* (70), *leguec* (50).

Datiboa

- Singular *-ari*: *angueruari* (5, 28), *aitari* (118, 121, 155), *berteruari* (195).
- Ez mugatu: *bi itxury* (151).
- Arreta berezia merezi du datibo pluralak. Ipar Euskal Herrian bi joera bereizten ahal dira: *-ei* eta *-er*. Azken jokabidea zubererarena da, bai eta baxenafarrerarena ere hein batean. *K&B* izkribuan, hala ere, gauzak ez dira hain definituak, pluralean *-ei* eta *-er* kasu markak ez ezik, *-erri* ere kausitzen ahal baitugu:⁴³
 - *-ei*: *urgulusei* (7), *guizonei* (13), *yendei* (52), *phicazalley* (73), *burhasuey* (71).
 - *-er*: *bere buruier* (134), *achalezcuier* (144), *egarriener* (175).

⁴³ Pikabeak polimorfismo honen gaineko ikuspegiak jaso ditu (1993: 45-48). Batzuentzat *-ei* liteke jatorrizko marka, zeinari *-r*-eufoniko bat erantsiko bailitzaioke (*-ei > -eri*), azkenean bukaerako *-i* galtzeko (*-eri > -er*). Ez gara akort, zeren *-er* lehen testuetatik lekukotzen baita, *-eri* akabantzaren agerraldiak berriagoak izanki (Pikabeak XIX. mendean kokatzen ditu). Geografikoki begiratu, hirmorfismo hau koherente da oso bi tradizioen arteko kontaktua ezagut lezakeen eremuarekin: Lapurdiko Ekialdea; zentzu horretan guztiz adierazgarri da Jean Hiriart-Urruty hazpandarrak hiru aukerak balia zitzaizkion.

Nolanahi ere den, azpimarkatu behar da gure testuan ez *-eri*, baina batez ere *-erri* marka dela hatzematzen. Guk dakigula, *-erri* atzizkia ez da kasik agertzen *K&B*-z kanpo. Bourciezen bilduman bi herritan dokumentatzen da: Lehuntzen (*chorierri*, *saarronduerri*, *mahatserrri*) eta Larribarren (*urderri*, *sorierrri*). Ez dirudi, beraz, sekula forma hedatua izan den.

- *-erri*: *yuduerri* (22, 23), *aneyerri* (106), *sehierri* (120).
- *-eri*: *umeri* (170), *haundieri* (183).

Estatistikoki *-erri* klarki gailentzen zaie *-ei* eta *-er* aukerei:

<i>-ei</i>	<i>-er</i>	<i>-erri</i>
%14	%14	%72

Edutezko genitiboa

- Singular *-aren*: *ebanyeliuaren* (70), *echuraren* (169, 184), *egortzaren* (84).
Bada uzkurdura baten adibiderik: *heriuan borthan* (169).
- Ez mugatu *-ren*: *suren* (154), *ttipiren* (86), *bertzeren* (125).
- Plural *-en*: *erregueen* (17), *erreguen* (190), *bekhatoren* (63), *biziuen* (126), *elizen* (36).

Leku-denborazko genitiboa

- Singular: *Hasparneco* (22), *bateco* (63), *bihotzeco* (42).
- Ez mugatu: *ttipitaco* (93), *urthetaco* (58).
- Plural: *beguietaco* (22), *bihotzetaco* (42), *inguruetaco* (56).

Soziatiboa

Soziatiboan *-(are)quin* baizik ez dugu. Ez dago *-(are)kila(n)* bezalakorik testu osoan.

- Singular: *arnuarequin* (169), *fidanchiarequin* (127), *bizitasunarequin* (165).
- Ez mugatu: *desircunderequin* (100), *errespecturequin* (182), *ohorerequin* (98).
- Plural: *deseinuequin* (204), *escribauequin* (103).

Destinatiboa

Destinatiboak aukera bikoitza eskaintzen du: *-(ren)tzat* eta *-(ren)dako*.

- Singular: *anearentzat* (122), *yaincoarentzat* (5), *ahalxuarentzat* (148), *battendaco* (171).
- Ez mugatua: *desohoretaco* (57).
- Plural: *yentilentzat* (92), *presunentzat* (187).

Motibatiboa

Liburu honen beste atalean azaltzen diren arrazoinengatik (ikus “Destinatiboa-aren hedakuntza”, SINTAXIA kapituluan), gure testuan ia desagertua da *-(ren)gatic* marka. Haren ordean *-(ren)tzat* hedatu da. Dena den bezala, marka zaharrak badi-rau egitura zaharretan: *amodiua gatic* (101), eta guztiz *amorecatic* (15, 28, 31...) forma lexikalizatuan, perpaus finalen sarrarazteko baliatzen dena. Bestenaz *-gatic* marka aditzari lotua kausi dirogu: *guizatua gatic* (149), *izana gatic* (149), *nahia gatic* (165).

Inesiboa

*Bizidunak*⁴⁴

- Singular: *haren baithan curiosasuna, hunen baithan discreziona* (6), *bere baithan* (27).
- Plural: *hoyen baithan* (172), *hoquien baithan* (192), *bere baithan* (16).

Bizigabeak

- Singular: *desertuan* (22), *chalupan* (45), *zeruan* (95).
- Ez mugatu: *gorritan* (3), *sacrifiziotan* (172), *ezagunmendutan* (170).
- Plural: *erresumetan* (14), *berrietan* (12), *sacrifiziuetan* (111).

Adlatiboa

Ezaguna denez, Ipar Euskal Herriko euskaran aukera bat baino gehiago dugu adlatiboan. Batetik *-t-dun* ala gabeko atzizkiak, eta bestetik *-ra* / *-la* atzizkien konkurrentzia:⁴⁵ *-ra*, *-rat*, *-la*, *-lat*. Kontuan harturik bizidun / bizigabe oposaketa ere islatzen dela leku postposizioetan, eta bizidunentzat badirela oraino beste bi aukera (*gana* vs. *baithan*), arrunt emendatzen da kasuistika.

⁴⁴ Bizidunen leku kasuetan bada, oro har, *-gan* / *baithan* txandakatze bat, gure testuan banaketa honekin dena: inesiboan *-(ren) baithan*, adlatiboan *-gana(t)* eta ablatiboan *-(ren) baitharic* nahiz *-ganic*.

⁴⁵ Interes bizikoa da *-la* marka, nahiz haren maiztasuna hain ttipia izan (testu osoan hiru agerraldi, hirurak *-a* berezkoarekin). Egungo Hazparnen normalki *-la* erabiltzen da *-a* organikoa denean (*plazala*). Honek bide emaiten digu pentsatzeko ezaugarria Ekialdetik joan dela hedatuz azken mendeetan.

Bizidunak

- Singular: *Jesusen gana* (41), *hunnen gana* (24), *enegana* (132) / *Jesusen ganat* (32), *harenganat* (33).
- Plural: *zure ganat* (5), *zu gana* (88) / *heyen ganat* (134).

Bizigabeak

- Singularrean *-ra* / *-la* bikotea dugu: *bisayara* (193), *desertura* (20), *elizarat* (22), *herrirat* (82), *etchetarat* (133) / *bisayala* (181), *gorala* (45) eta *Yudeala* (19).
- Ez mugatu: *oguitara* (26), *orotara* (86), *batetara* (44).
- Plural: *erresumetara* (17), *erresumetarat* (18), *herrietarat* (107) *lagunetarat*⁴⁶ (116).

Muga adlatiboa

- Singular: *dohaxutasuneraino* (40), *pôlaraino* (130), *etcheraino* (82).
- Ez mugatu: *hainbertzetaraino* (21), *urthetaraino* (20), *zazpitaraino* (107), *mugarri-taraino* (156).
- Plural: *gordetaraino* (180), *seindimenduetaraino* (54).

Ablatiboa

Oro har bi markatan datza ablatiboa, *-(r)ik* zaharra eta *-tik* berria, aztertzen ari garen hizkeran honako banaketan agertzen direnak: *-tik* bizigabeen singularrean baliatzen da ia soilik, *-(r)ik* ere posible izanik; pluralean ia beti *-(r)ik*. Ekar ditzagun etsenpluak.

Bizidunak

- Singularrean *eneganic* (28), *hireganic* (58), *hunenganic* (4), *bere baitharic* (65).
- Pluralean *zure ganic* (5), *heyen ganic* (85) nahiz *bere baitharic* (17), baina *zure baithatic* (115).

Bizigabeak

- Singularrean *eguiatic* (187), *berthutetic* (124), *zerutic* (38) nahiz *zeruric* (6).
- Pluralean *ezdeusetaric* (148), *leihuetaric* (45), *diruietaric* (171).

⁴⁶ Adibide honen testuinguruan ardiez mintzatzen baita, *lagun* bizigabeen moldean deklinatzen da.

Instrumentala

- Singular: *bekhatoreaz* (141), *borondatiaz* (9), *biziaz* (192).
- Ez mugatu: *podorez eta berthutez* (66), *bozcarioz* (114), *errespetuz* (103).
- Plural: *galcorrez* (130), *faltez* (197), *garbiez* (163).

Prolatiboa

- *Bidetzat* (51), *gorthetzat* (11), *amoinazat* (171), *errecompentxazat* (182), *yaincozat* (12), *lekhucozat* (100), *ordenuzat* (169).

Partitiboa

- *Autoritateric* (39), *beldurric* (4), *deusic* (8), *eguiaric* (23).

2.3.2. *Izenordainak*

Deklinabidea ikertu ondoan, lot gakitzen izenordain, erakusle eta posesiboen aztertzeari. Aurkezpide gisa, honetara plegatuko gara: lehen singularra eta plurala gero, bakoitzaren barnean, formak pertsonaka (graduka erakusleetan) multzokatu ditugularik eta, azken mailan, deklinabide kasuka.

Forma neutroak

Singularra

1. pertsona

ni 5, 8, 11, 15, 24, 39, 52, 64, 68, 94, 116, 117, 119, 123, 141, 142, 145, 165, 167, 181, 187 // nic 24, 37, 49, 54, 59, 62, 63, 64, 68, 72, 95, 109, 122, 130, 134, 146, 154, 174, 177, 185, 197 // niri 8, 72, 78, 88, 90, 162, 186; nihi 164; ni⁴⁷ 118, 165, 181 // ene 8, 25, 52, 62, 65, 89, 98, 99, 101, 102, 111, 119, 120, 121, 139, 141, 145, 147, 159, 161, 165, 168, 169, 170, 176, 181 // enequin 58, 116, 122 // enezat 69, 71 // nitaz 94, 169 // eneganic 28, 166 // enegana 132; enegana 15.

⁴⁷ Testuak datiboa hiru formatan eman arren edizioan hutsak balira bezala jokatu dugu, idazleak berak maizen baliatzen duen *niri* berrezarrit. Kontu grafiko hutsa da, zeinaren pean bokalarteko *r* ahularen erortzea baitatza.

2. pertsona

hi 15, 31, 33, 61, 63, 69, 77, 95, 98, 115, 121, 122, 128, 138, 139, 143, 159, 160, 174, 182, 187 // hic 37, 61, 72, 79, 95, 139, 142, 143, 178, 187, 191, 192, 197 // hiri 60, 186 // hire 27, 28, 58, 64, 69, 95, 99, 100, 122, 129, 138, 150, 160, 172, 186 // hireganic 58.

3. pertsona

hura 6, 7, 22, 24, 38, 39, 42, 47, 52, 67, 73, 87, 89, 102, 104... // harc 18, 131 // harec 29 // harrec 7, 53, 126 // hari 7, 41, 172, 187 // haren 5, 6, 7, 33, 40, 41, 43, 44, 45, 52, 67, 82, 88, 90, 111... // harequin 32, 37, 90, 194 // harrentzat 203 // hartaz 18, 94, 97, 193 // haren baithan 6 // hareganat 33, 199.

Plurala

1. pertsona

gu 34, 51, 102, 202 // guc 25, 46, 48, 85, 94, 152 // guri 29, 44, 46, 109, 161, 163, 164, 167 // gure 10, 20, 22, 23, 39, 64, 77, 79, 83, 118, 143, 172, 177, 187, 191, 192, 197 // gutaz 137.

2. pertsona

zu 3, 9, 34, 52, 88, 90, 137, 141, 144, 195 // zuc 29, 33, 54, 62, 63, 109, 122, 139, 165 // zuri 8, 59, 100, 171 // zure 2, 4, 5, 9, 29, 52, 54, 58, 62, 73, 77, 100, 102, 119, 120, 122, 123, 146, 165, 166, 171, 177 // zurequin 2, 40 // zuretzat 102 // zutaz 24 // zure ganic 5; zure baithatic 115 // zure ganat 5; zu gana 88.

2. pertsona pleonastikoa

zuiec 2, 57, 117, 125, 142, 146, 166 // zuiec 35, 36, 56, 75, 94, 167, 170 // zuyec 40, 85, 169 // zuierri 128 // zuien 28, 35, 51, 56, 57, 71... ; zuyen 35 // zuiequin 161, 166 // zuientzat 71, 127, 168 // zuietaz 56, 58, 70, 125, 145.

3. pertsona

hec 115, 131, 173 // heyec 16, 22, 41, 67, 89, 90, 97, 103, 133, 138, 145, 173, 181, 197, 198, 200 // heyerri 163, 164, 165; hequier 163; hequierri 113 // heyen 14, 21, 41, 47, 48, 67, 70, 78, 79, 89, 103, 106, 110, 112, 133, 136, 138, 147, 152, 155, 157, 163, 164, 167, 173, 175, 181, 185, 187, 198 // hequien 81, 106, 185, 190 // heyequin 117, 161, 162, 173 // hequientzat 108, 173 // *heyez 12 // heyen ganic 85, 150 // heyen ganat 134.

Izenordainak: forma indartuak

Singularra

1. pertsona

neure 8, 63, 79, 90, 118, 123, 140, 146, 181 // neurezat 64.

2. pertsona

hihorec 181 // heure 192.

3. pertsona

bera 19, 39, 42, 52, 62, 67, 87, 96, 107, 174 // berac 13, 19, 29, 47, 54, 72, 99, 109, 156, 160, 188, 189, 198, 199, 200, 203 // bere 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 11, 12, 13, 14, 15, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 28, 29, 31, 34, 35, 36, 37, 38, 39, 41, 42, 43, 46, 47, 51, 52, 54, 55, 56, 59, 60, 61, 63, 64, 66, 68, 69, 70, 72, 73, 74, 75, 76, 77, 78, 79, 81, 82, 83, 84, 85, 86, 87, 88, 91, 92, 94, 95, 97, 100... // berequin 1, 46, 53, 63, 65, 80, 142, 155 // berez 125, 178 // bere baithan 27, 32, 49, 80, 118, 119, 123, 178, 196 // bere baitharic 65, 102 // bereganat 44, 45.

Plurala

2. pertsona

zuhorec 59 // zihorec 76.

3. pertsona

berac 47, 99, 156, 198, 204 // berec 86 // beren 128, 199 // berequin 23, 83 // berez 125, 178 // bere baithan 16, 53, 71, 115, 149 // bere baitharic 17.

Izenordainak: laburpen taula (singularra)

	1. perts	+ mark	2. perts.	+ mark	3. perts	+ mark
ABS	ni		hi		hura	bera
ERG	nic		hic	hihorec	harc	berac
					harec	
					harrec	
DAT	niri		hiri		hari	
GEN	ene	neure	hire	heure	haren	bere
SOZ	enequin				harequin	berequin
DES	enezat	neurezat			harentzat	
INS	nitaz				hartaz	berez
MOT*						
INE					haren baithan	bere baithan
ABL	eneganic		hireganic			bere baitharic
ADL	enegana				harenganat	bereganat
	eneganat					

Izenordainak: laburpen taula (plurala)

	1. p.	2. p.	+ mark	2. p.	3. p.	+ mark
ABS	gu	zu		zuiéc	hec	berac
ERG	guc	zuc	zuhorec	zuiéc	heyec	berec
			zihorec	zuyec		
DAT	guri	zuri		zuiéri	heyerri	hequier
						hequierri
GEN	gure	zure		zuién	heyen	hequien
				zuyen		beren
SOZ		zurequin		zuiéquin	heyequin	berequin
DES		zuretzat		zuiéntzat		hequientzat
INS	gutaz	zutaz		zuietaz	heyez	berez
MOT*						
INE						bere baithan
ABL		zure ganic			heyen	bere baitharic
		zure baithatic			ganic	
ADL		zure ganat			heyen ganat	

* Motibatiboa (-*gatic*) ez da morfologikoki bereiz agertzen, baina bai semantikoki. Honen arazoina destinatiboaren markaren hedapenean datza; izan ere -(*r*)*entzat* marka beste balioak joan da bereganatuz, hala motibatiboarena nola prolatiboarena (ikus “Destinatiboaren hedakuntza”, SINTAXIA kapituluan).

2.3.3. *Erakusleak*

Izarño batez izenordain gisa baizik ez direnak lekukotzen. Forma bakoitza eta bere agerraldiak adierazi ondoren laburpen taulak eskaintzen dira.

Singularra

- ABS hau 2, 6, 7, 12, 14, 17, 19, 21, 26, 30, 32, 33, 34, 36, 37, 38, 40, 41, 42, 43, 49, 51, 52, 53, 55, 57, 60, 61, 63, 65, 66, 72, 73, 75, 78, 80, 81, 82, 83, 85, 86, 88, 89, 91, 94, 98, 99, 100, 102, 103, 107, 112, 116, 118, 119, 120, 121, 122, 123, 124, 125, 126, 127, 133, 135, 136, 139, 140, 141, 144, 148, 149, 150, 152, 153, 155, 159, 160, 167, 171, 172, 173, 174, 176, 178, 180, 183, 185, 186, 187, 191, 196, 197, 199, 202, 203 // hori 4, 7, 8, 31, 36, 57, 79, 113, 124, 139, 172 // hura 1, 3, 8, 10, 14, 16, 19, 24, 29, 31, 32, 33, 36, 40, 41, 46, 48, 49, 53, 54, 56, 59, 65, 70, 79, 80, 93, 94, 96, 103, 106, 108, 111, 112, 120, 121, 123...
- ERG hunec 1, 4, 8, 14, 15, 17, 19, 24, 25, 26, 27, 28, 30, 39, 42, 43, 46, 48, 52, 54, 60, 64, 68, 70, 71, 80, 85, 86, 92, 95, 96, 97, 101, 102, 104, 112, 114, 118, 119, 120, 121, 123, 124, 127, 128, 131, 135, 136, 137, 142, 143, 146, 147, 153, 163, 168, 169, 170, 175, 176, 183, 184, 186, 187, 189, 191, 192, 194, 195, 197, 199, 200, 203 // horrec 10, 58, 115 // harc 71, 77, 164, 165, 166, 170, 174, 175, 178, 181, 185, 196, 202; *harec 29; *harrec 7, 53, 126.
- DAT huni 22, 28, 34, 40, 45, 46, 52, 54, 57, 61, 71, 73, 84, 85, 122, 130, 134, 135, 136, 171, 181, 188, 201, 204 // horri 122 // hari 68, 78, 111, 202.
- E. GEN hunen 4, 5, 8, 11, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 26, 27, 28, 39, 44, 45, 47, 52, 53, 54, 70, 72, 75, 78, 81, 84... // horren 35, 57, 95, 98 // haren 19, 46, 49, 51, 74, 85, 87, 91, 104, 113...
- L. GEN huntaco, 50, 76
- SOZ hunequin 64, 170, 195 // *harequin 32, 37, 90, 194.
- DES hunentzat 199 // *harentzat 203.
- INS huntaz 2, 3, 15, 32, 40, 48, 65, 66, 81, 102, 105, 109, 111, 136, 138, 141, 150, 153, 164, 170, 176, 186, 204 // hortaz 23, 64, 114 // hartaz 29, 37, 125, 133, 185, 196.

IN_{BIZ} *hunen baithan 6 // *haren baithan 6.

IN_{BG} huntan 9, 12, 16, 17, 22, 37, 39, 40, 48, 53, 61, 76, 86, 89, 102, 121, 130, 137, 140, 147, 151, 154, 169, 196, 203, 205 // hortan 64 // hartan 12, 16, 31, 35, 41, 43, 80, 87, 88, 137, 150, 157, 158, 162, 168, 173, 179, 204.

ABL_B hunenganic 4.

ABL_{BG} huntaric 16, 65, 83, 150, 152, 153, 156, 157, 169 // *hortaric 9 // hartaric 7, 16, 33, 93, 176, 177, 197, 201.

ADL_B hunen gana 24; hunenganat 54 // *harenganat 33, 199.

ABL_{BG} huntara 9, 35, 50, 51, 135, 144, 162, 171 // hartara 2, 164, 173; hartarat 202.

Plurala

ABS hauc 99 // horiec 11, 54, 188; hoc 13, 14, 16, 21, 27, 31, 32, 36, 42, 44, 46, 58, 76, 78, 79, 81, 84, 86, 101, 108, 115, 129, 133, 134, 143, 149, 159, 160, 161, 163, 175, 185, 188, 193, 194, 198 // hec 84, 112, 151, 189.

ERG hoyec 37, 86, 89, 90, 115, 136, 145, 146, 173, 183, 198, 204; hoquiec 132, 133 // hequiec 35.

DAT hoquier 183; hoquierri 12, 38, 47, 73, 108, 111, 118, 131, 155, 175, 180, 190, 199 // *heyerri 163, 164, 165; hequier 163; hequierri 48, 62, 113.

E. GEN hoyen 22, 35, 37, 42, 46, 67, 76, 88, 91, 97, 104, 108, 115, 116, 135, 136, 140, 148, 159, 165, 172, 176, 178, 180, 185, 186, 188, 191; hoquien 24, 27, 49, 137, 140, 146, 152, 156, 186, 191 // heyen 99, 193, 199, 200; hequien 81, 106, 113, 185.

L. GEN hetaco 18.

SOZ hoyequin 13; hoquiequin 6 // *heyequin 117, 161, 162, 173.

DES hequientzat 108, 173, 190.

INS hotaz 23, 33, 68, 93 // heyez 12.

IN_B hoyen baithan 172; hoquien baithan 192; hotan 37.

IN_{BG} hotan 53 // hetan 16, 46, 48, 93, 104, 112, 118, 151.

ABL_B *heyenganic 85, 150.

ABL_{BG} horietaric 120 // hotaric 61, 69, 104, 114, 116 // hetaric 76.

ADL_B *heyenganat 134.

ADL_{BG} hetara 83, 172; hetarat 85.

Erakusleak: laburpen taula (singularra)

	1. gradu	2. gradu	3. gradu
ABS	hau	hori	hura
ERG	hunec	horrec	harc harec* harrec*
DAT	huni	horri	hari
E. GEN	hunən	horren	haren
L. GEN	huntaco		
SOZ	hunequin		harequin*
DES	hunentzat		harentzat*
INS	huntaz	hortaz	hartaz
MOT*			
INE _{BIZ}	hunən baithan*		haren baithan*
INE _{BG}	huntan	hortan	hartan
ABL _{BIZ}	hunenganic		
ABL _{BG}	huntaric	hortaric*	hartaric
ADL _{BIZ}	hunengana		harenganat*
	hunenganat		
ADL _{BG}	huntara		hartara hartarat

* Motibatiboa (-*gatic*) ez da formalki agertzen, baina bai semantikoki. Honen arrazoina destinatiboaren markaren hedapenean datza; izan ere -(*r*)entzat markak beste balioak joan da bereganatuz, hala motibatiboarena nola prolatiboarena (ikus “Destinatiboaren hedakuntza”, SINTAXIA kapituluari).

Erakusleak: laburpen taula (plurala)

	1. gradu	2. gradu		3. gradu	
ABS	hauc	hoc	horiec		hec
ERG			hoyec	hoquiec	hequiec
DAT				hoquier	heyerri
				hoquierri	hequierri
E. GEN			hoyen	hoquien	heyen
L. GEN					hetaco
SOZ			hoyequin	hoquiequin	heyequin*
DES					hequientzat
INS		hotaz			heyez
MOT*					
INE _{BIZ}		hotan	hoyen	hoquien	
			baithan	baithan	
INE _{BG}		hotan			hetan
ABL _{BIZ}					heyenganic*
ABL _{BG}		hotaric	horietaric		hetaric
ADL _{BIZ}					heyenganat*
ADL _{BG}					hetara
					hetarat

Pluraleko erakusleetan bada polimorfismo nabarmena. 2. gradukoetan hiru tema dugu: *ho* - *ho(r)i* - *hoqui*. Gehienetan txandakatze hutsak badira ere, markagarria da *hoc* absolutiboan baizik ez agertzea eta *hoquiec* ergatiboan. Honek 3. gradurako ere balio du: *hec* (nom.) vs. *hequiec* (erg.). Honi zenbait kasu marken berezko polimorfismoa emendatzen bazaio (datiboa zein adlatiboarena) aukera anitzeko saila da erakusleena.

2.3.4. *Posesiboak*

Forma neutro eta indartuen banaketaz, ikus “Linschmann-Arestia legea”, SINTAXIA atalean.

Singularra

1. pertsona

N⁴⁸ ene 8, 25, 52, 62, 65, 89, 98, 99, 101, 102, 111, 119, 120, 121, 139, 141, 145, 147, 159, 161, 165, 168, 169, 170, 176, 181.

I neure 8, 63, 79, 90, 118, 123, 140, 146, 181 // nore 15, 24, 56, 58, 61, 69, 95, 98, 116, 117, 119, 122, 130, 139, 143, 161, 168, 181, 185, 188.

2. pertsona

N hire 27, 28, 58, 64, 69, 95, 99, 100, 122, 129, 138, 150, 160, 172, 186.

I heure 192.

3. pertsona

N haren 5, 6, 7, 33, 40, 41, 43, 44, 45, 52, 67, 82, 88, 90, 111...

I bere 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 11, 12, 13, 14, 15, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 28, 31, 34, 35, 37, 39, 41, 43, 46, 47, 51, 52, 54, 55, 56, 59, 60, 61, 63, 64, 66, 68, 69, 70, 72, 73, 74, 75, 76, 77, 78, 79, 81, 82, 83, 84, 85, 86, 87, 88, 91, 92, 94, 95, 97, 100...

Plurala

1. pertsona

N gure 10, 20, 22, 23, 39, 64, 77, 79, 83, 118, 143, 172, 177, 187, 191, 192, 197.

2. pertsona

N zure 2, 4, 5, 9, 29, 52, 54, 58, 62, 73, 77, 100, 102, 119, 120, 122, 123, 146, 165, 166, 171, 177.

⁴⁸ N = neutro, I = indartua.

2. pertsona (pleonastikoa)

N zuien 28, 35, 51, 56, 57, 71... zuyen 35.

3. pertsona

N heyen 14, 21, 41, 47, 48, 67, 70, 78, 79, 89, 103, 106, 110, 112, 133, 136, 138, 147, 152, 155, 157, 163, 164, 167, 173, 175, 181, 185, 187, 198 // hequien 81, 106, 185, 190.

I bere 12, 16 (2), 17, 18, 22, 29, 36, 38, 41, 42, 55... // beren 128, 199.

2.4. Aditz morfologia

2.4.1. Forma jokatugabeak

Aditzoinaren erabilera

Aditzaren forma jokatugabeen historia aintzat harturik, jakin badakigu horien kronologia erlatiboa honakoa izan dela: 1) aditzoina; 2) partizipioa; 3) aditz izena. Gauzak horrela, aditzoinaren erabilera arkaismotzat jotzen ahal dugu; Iparraldean⁴⁹ gaurdaino iraun duen arkaismoa. Iparraldeko testu zaharretan, dena den, jadanik hatzematen ahal dira nolabaiteko ahultzearen zantzuak:

- 1) *-i*-dun partizipioetarik hasi dateke aditzoina galtzen, konkretuki silaba bakarrek erroetarik: *vci naçaçu* (Etxepare X, 27).
- 2) Leizarragak ez du bereizten *arazi* aditzarentzat: *trebuca eraciten bahau* (Mc 9, 43).

K&B-ko hizkerak biziki ongi atxiki du aditzoina, lehentxe aipatu salbuespenak ere ez baititu agertzen:

- *-tu* partizipio marka duten aditzekin beti: *debruac trompa eta enguena ziten* (31); *Bozcariotan sar eta liberti zitezte enequin* (116); *etxamina eta hiltzera condemna zezan* (179); *ez baitiote correi, eta gutiango arranya* (62).
- *-i* aspektual dutenekin ere, bai eta silaba bakarrekoeekin nahiz *arazi*-rekin: *erakhux ahal baitzeaqueyen* (66), *ez baitaitaque eros, ez ardiex* (75), *uz nezac* (24), *hel araz zezaqueyena* (40), *itzularaz dezan* (37), *jarraraz zazue* (86).

⁴⁹ Mendebaldeko testurik zaharretan ere ongi lekukotua dugu aditzoina.

- Aitzinekoak ez dira nahastekatu behar *-i* berezko edo lexikala dutenekin: *Bizi bedi* (151), *yaiqui hadi!* (148).

Ekar ditzadan aditzoina agertzen den beste zenbait erabilera:

- *Begira* **edun* aditzaren forma sintetikoak (zentzua agintera negatibo bate-na da): *Berautzuie trompa, berautzuie enguena!* (36); *beraun guehiago bekaturic eguin* (134) ‘ez ezan gehiago bekaturik egin’; *Bainan beraut-zuie, edo hobequi erraiteco debeatzen daut-zuie*⁵⁰ (176).
- *Beldurrez* adberbioak sarrarazten dituen mendeko perpausetan. Egitura hauetan **ezan* edo **edin*-en adizki bat idurika dezakegu elipsian: *beldurrez berac ebaxia zuien erresuma hura gal* (19); *Beldurrez Jesusi suerte bera guertha zitzaquion* (39); *beldurturic guizon miraculuzco haren heriotzetic zerbait malur haundi ethor* (172).
- Forma ezohikoak: *lanian âar* (128) ‘lanean aritu’.

Azpiatal honi finieraren emaitako, aipa dezagun bi fenomeno paralelo. Lehena da *-tu* partizipio batetik *-t* moduko aditzoin bat sortzen duen bilakabidea (*deithu* > *deit*; *xuxendu* > *xuxent*; *lagundu* > *lagunt*). Leizarragarengan ongi lekukotzen da: *chuchêt ceçan* (Mc 9, 27). Gure testuan hiru kasutan aurkitu dugu: *etzitela izit* (3), *bihurt zaitequeyela* (43), *deit-nezazun* (119) eta *deit-nazazun* (120). Aurrekoa zaharra izanik, bada “aditzoinaren tinkatze” gisa izenda genezakeen beste eboluzione bat, berriagoa, zeinaren medioz *-i* berezko edo lexikal duten aditzek *-i* hori galtzen baitute (*idoki* > *idok*). Gure testuan etsenplu pare bat kausitu dugu:⁵¹ *idec ez dezaqueyen* (184), *iduric ere zezaqueyen* (97). Bilakabide hauek arrazoin diferenteei erantzuten dietelako: *lagunt*, *xuxent* edo *deit* moldeko formek aditzoinaren izenki edo adjektiboekin ez konfunditzeko nahian dukete jatorria. Beharrik ez, aldiz, *iduriki* eta *ideki* bezalakoen kasuan.

Partizipioa

Ekar dezagun partizipioari lotua den ezaugarri bat: *-tu* markaren hedakuntza aspektuaren markatzeko, hots, *-n* akabantza duten aditzei *-tu* eranstea. Bistan denez hau pleonasmoko bat da; guztiarekin, gure testuan *-tu* ez da purki erantsia, *-n* marka ordezkatzeko duela baizik: *etzuian seme hau etchian sarthu nahi izatu*

⁵⁰ Adibide honetan susmatzen ahal da egituraren kutsu herrikoia: *edo hobequi erraiteco debeatzen daut-zuie* [...] *hunqui deza-zuie*...

⁵¹ Eratorpeneko erro gisa harturik honakoak emenda genitzake: *ohartu* > *ohart* > *ohartpen* (26); *iduriqui* > *iduric* > *iduricpena* (18).

(121); *bederen yende enguenazaille edo opeator hunequin bizi izatu zira?* (195); *yoan zituian Jesusen ganat, eta harequin egotu egun hura guzia* (146); *gauza guziac ez-deusetaric atheratu dituenarent zat* (148).

Aditz izena

Espero bezala, *-tze* (*abrilitzen, cherkhatzen, miniztatzen*) eta *-te* (*eguiten, sarraztzen, ebasten*) moduko aditz izenak hatzematen dira testuan gaindi. *-Ki* markadunek *-tzen* nahiz *-te* har dezakete: *iduriquitzen* (22), *aurthiquitze* (42); *yaiquitzen* (163), *yaquitzen* (165).

Bada, halaber, *-ite*.⁵² *emaiten* (8), *eremaiten* (44), *hatzemaitera* (14), *izaiteco* (4), *erraiten* (2), *yoaitia* (143), *igaiten* (34), *iragaiten* (137), *yoiten* (141).

Geroaldia

Euskarak baditu bi atzizki⁵³ etorkizunaren adierazteko: *-ko* eta *-(r)en*, jatorriz leku eta edutezko genitibo markak, hurrenez hurren. Futuroaren adierazteko tenorean Euskal Herria hirutan banatzen da marka hauen banaketari doakionean: Mendebaldean *-ko* bakarrik, Erdialdean *-ko* eta *-en*, eta Ekialdean *-(r)en* bakarrik. Zenbatenaz ekialderago, gehiago. Erdialdeko banaketa da egungo Lapurdin eta Nafarroa Beherean kausitzen duguna, Amikuzeraino. Egungo Zuberoan⁵⁴ bakarrik aurki daiteke Ekialdeko banaketa, *-ko* ere sartua izanik. Gure testuan honakoak dira kontuak:

- *-N* eta *-l* akabantza duten aditzei, espero bezala, *-en* marka eransten zaie: *eguienen* (8), *egonen* (12), *hilen* (18), *yinen* (78).

⁵² Traskek bikain iruzkindu zuen datu hau “The *-n* class of verbs in Basque” artikuluan. Aditz hauek bereizgarri batzuk dituzte:

— Ez dago partizipio eta aditzoinaren arteko desberdintasunik.

— Bukaerako *-n* galtzen dute *-te* eta *-le* atzizkien aitzinean.

— Aldiz, euskara zaharrean (eta ekialdean gaur) *-i-* bat agertzen da: *emaĩte*, *emaĩle*; *joaĩte*, *joaĩle*.

Trasken azalpena: aditz hauek ere *-i* sailekoak ziren eta erroa *-n-z* bukatzen zen (**emani*, **joani*...). Bokalarreko *-n-* galdu zenean, **emani* > *emai* bilakaera gertatuko zatekeen. Bilakaera honen ondorioetako batzuk lekukotuak ditugu, beti ere izen gisa (cf. RS *emai* eta Oih. *emoi* ‘emaitza’).

⁵³ Partizipioari erants dakizkiokeen markez ari gara, ahanzi gabe badirela beste manerak geroaldiaren adierazteko.

⁵⁴ Maisterrek (1757) *-(r)en* baizik ez bazuen erabiltzen, egungo Zuberoan *-ko* sartu da. Santagrazin badira, gainera, *jinenko* bezalako forma pleonastikoak.

- *-I* partizipioek *-ko* nahiz *-(r)en* morfemak onartzen dituzte. Zenbait kasutan bi eratarazka erabilgarriak daude: *utziren* (166), *hautxico* (185), *ekharriren* (28), *egorrico* (74), *erakhuxiren* (40), *ardiexiren* (101), *idequiren* (99), *ebaquico* (177), *ikhusiren* (67) nahiz *ikhusico* (170), *estaliren* (5), *irauliren* (95) nahiz *iraulico* (185).
- *-Tu* akabantzadunek, berdin: *baliatuco* (32), *deithuco* (49), *guerthatuco* (150), *orhoituco* (64), *zerbitzatuco* (2) nahiz *baliaturen* (96), *deithuren* (32), *guertaturen* (157), *orhoituren* (59), *zerbitzaturen* (27).
- Besterik: *atheraren* (58).

Bi aukerak posible direnetan, zail liteke erratea *-ko* ala *-ren* gailentzen den; estatistikoki orekan leudeke:

<i>-iren</i>	<i>-iko</i>	<i>-turen</i>	<i>-tuko</i>
%54	%46	%42	%58

Bada beste ezaugarri bat izkirio honetako geroaldiko forma zenbait lotua: *-ren* akabantza eranstean zaie *-n* batez bukatzen diren partizipioei (*izaren*, *ukharen*...). Sistematikoa ez bada ere, *izaren* eta *ukharen* maiztasun handikoak ditugu, eta besteak askoz bakanagoak. Fenomeno hau aztertzeke dagoen arren, ohar batzuk egin genitzake:

- Soilik gertatzen da *-a + n* akabantza dute aditzetan.
- Guztietan lekukotzen dira *-ite* aditz izenak.
- Lekukotzen dira, halaber, *-ain* moldeko geroaldiak (*hatzemanen* > *hatzemaen* > *hatzemain*; *izanen* > *izaen* > *izain*).

Partizipio	Aditz izen	<i>-en</i>	ager.	<i>-ren</i>	ager.
izan	izaiten	izanen	5	izaren	22
ukhan	ukhaiten	ukhanen	-	ukharen	8
joan	joaiten	joanen	3	joaren	1
erran	erraiten	erranen	8	erraren	3
hatzeman	hatzemaiten	hatzemanen	1	hatzemaren	1

Futurozko forma hauen jatorriaren gaineko hipotesirik egitera, bi bide daku-sagu:

- 1) Bokalarreko *-n-* galdurik (*izanen* > *izaen* > *izain*) *-r-* bat sartzea.
- 2) Geroaldi kanonikoetako *n-en* disimilatzea: *izanen* > *izaren*.

Bada beste aukera bat aurrekoekin guztiz bateragarria: nolana ere den, hiztunaren gramatika bada edutezko genitibo atzizkia *-r-z* hartzen duten aditz kopuru handi bat, lehen ikusi dugun bezala. *Utziren, estaliren, gertaturen* bezalako formekiko analogia dosi bat, beraz, ez litzateke automatikoki baztertu behar.

Ukhan *perifrasietan*

Egun Hazparne aldean (Epelde 2003: 325) *ukhan* aditz laguntzaile gisa erabiltzen ahal da *perifrasietan izan*-en lekuan (*egin ukhan dut*), Lafonek *temps sur-composés* gisa izendatu zituenetan. Gure testuan *ukhan* aditz nagusi gisa agertzen da, salbuespen bakar batekin: *Judas gaichtaguinac berac ikhusi zuenian bere nagusia Cayfasen etchian hiltzera condemnatuia [...] ezin pairatu ukhan ahal zian estatu desohore garrien hura haren bihotz harroca erdiratu gabe.* (200)

Ezin pairatu ukhan ahal zian ordena bitxiaz apart, adibide honek badu bere garrantzia, datuek iradoki bailiezagukete *ukhan* aditzaren erabilera laguntzaile gisa azken mendeetan hedatuz joan dela Ekialdetik. Honen arabera, *ukhan*-en hedakuntza berriago liteke bertako hizkeran.

Bi bitxikeria

Kadet eta Bettiriño testu oparoa baita (hapax legomenei dagokienez, kasu), aditzaren morfologian ere estonatzeko gaitu. Horrela, *-xe* atzizkia partizipioei eranstea normala da, baina ez gerundioei. Zentzuaz aise jabetzen gara pasarte irakurriz: *Eliza Ama Sainduiac manatzen dituen barurrac aphurto bat bederen eguitenche dituzuie* (142).

Diferentia da ondoko formaren natura, gure ustez frantsesaren *gérondif* delakoaren egokitzapen bat: *en passant* → *pasantian*. Adibide bakarra da testu osoan, eta ez da, guk dakigula, beste inon lekukotzen: *Hemendic athera eta Galileaco sinagoguetan predicatzen zuielaric, pasantian yin zuian Nazareth bere hirirat* (41).

2.4.2. Forma jokatuak⁵⁵

Izan-en formak

Naiz zein *niz* kausitzen dugu (41 vs. 5 agerraldi), baina bigarren pertsonan *hiz* beti. Pluraleko formetan *guira, dira* nahiz *guirade, dirade*. Gure ustez *naiz*-en era-

⁵⁵ Forma bakoitzaren agerraldiak non diren jakiteko, ikus ADIZKITEGIA.

bilera eta maiztasuna erraz esplikatzeko da prestijio arrazoinengatik, *niz* monoptongatuan gehiago hauteman litekeelako forma herrikoi bezala.

Nor-nori adizkietan *-au-* da erro nagusia (ez bakarra, ordea). Iduri luke *-ai-* gertatzen dela objektu plurala delarik edo datiboa 3. pertsonako delarik, baina ez beti:

<i>-au-</i>	<i>-ai-</i>	<i>-ai- (nor plural)</i>
zauc zaut zautac zautzuien	zayen zayoten	zaizcoc zaizcan zaizquit zaizquitzu guitzaitzue

**Edun-en formak*

Ohiko forma monoptongatuez landa (*dut, duk, du...*), nor 1. edo 2. pertsona delarik ere kausitzen dira monoptongazioak:

<i>nau-</i>	<i>*ni-</i>	<i>nu-</i>
nauc nauena naute nautenei nautzue nauzu nauzuenian	hi 'hau' hit 'haut'	banuc 'hik ni' nuialaric nuian

<i>gaitu-</i>	<i>gitu-</i>	<i>*gutu-</i>
gaituzten zaitu zaitut zaituztet zaituztela	guitic zitudala zitudan zitut zituztet	zutudala ⁵⁶

⁵⁶ Huts izan liteke, kontuan hartuz agerraldi bakarra dela izkirio osoan.

*N-N-N laguntzailea: -i- erroa vs. *eradun*

**Eradun* ez da aukera bakarra forma triperersonaletan, zeren datibo 3. pertsonakoa denean posible baitira **i* errodun adizkiak, Hazparneko hizkera modernotik desagertuak (Epelde 2003: 325). Ondoko taulan **i*-ren forma guztiak zerrendatzen dira, eta eskuinean ber baldintzak betetzen dituzten **eradun*-enak:

+ orain		+ iragan	
*-i-	* <i>eradun</i>	*-i-	* <i>eradun</i>
dio dioc 'diok' dioc 'ziok' dion diot diotedan 'diedan' diotet 'diet' diozu diyoyan 'dioan'	dacon dacotelaric dacoten dacoye	baitzion baitzioten nion ziola zion ziotean ziotela ziotelaric ziotenian zioteyan ziotzaiztean 'zizkiean'	baitzacon etzacoyan 'zioan' zacotean 'ziotean' zacotelaric zacoteyan zacoyan 'zioan' zangolaric zangoyan 'zioan'

**Edin-en formak*

Hiru ohar dugu egiteko:

- Badira forma monoptongatu gabeak nahiz monoptongatuak: *zaiten* / *zite* ('zu, +orain'); *daitequeyen* / *ezditaque* ('hura, +orain').
- Forma zaharretan pluralgile bakarra dago (*zaitte* < **zadite*), eta berrietan pleonasma (*zaittez*). *K&B*-n forma zaharrak gailentzen dira, pleonastikoak agertzen hasiak badira ere: *zaiten*, *guiten*; *ditezen*, *ziten* 'zitezen'.
- Nor-nori formen presentzia: *zaquiola*, *zitzaquion*⁵⁷ 'zekion'.

Indikatiboz kanpoko laguntzaile iragankorrak

**Ezan* da nagusi (edo bakarra, ondoan ikusiko diren salbuespenekin) *irrealis* moduetan, hala forma bipertsonaletan: *gure escuiac eman ditzagun* (177), *errezebi zezaten* (113), *ohora nazazu* (62). Forma triperersonaletan berdin: *Uste duca galde*

⁵⁷ Forma honetan beharrik gabeko *zit-* erantsia, analogiaz, iraganaldiaren markatzeko.

suerte guzien arraphostuac eman ere badizaqueyadala? (9), *permeti zadazut niri ere zu gana oynez yitia* (88), *beha zoc* (61), *bere faltac aithor eta confesa ziotzon* (127). **Ezan*-en forma triperpersonalen artean oso bakanak dira *-i-* datibo ikurra (*dative flag*) agertzen dutenak: *ziozola* ‘ziezaiola’ (43), *ziotzon* ‘ziezazkion’ (127) eta *diezadayan* (187). Bestenaz: *zezola* ‘ziezaiola’ (81), *zoc* ‘iezaiok’ (61), *zozue* ‘ieziaiozue’ (32), *zozuie* (57), *bezo* ‘biezaio’ (134).

Bada objektu pluraleko zenbait forma anbiguo suerta dakizkigukeenak, argi baita balio subjuntiboa dutela, baina ez hainbeste zein den erroa: *zor diotzagun* [*io] *eta, merechi dituen bezala, gure ahalez esquerrac bihur diotzagun* [*ezan]⁵⁸ (192).

*Iron *aditzaren formak*.

Aurreko puntuari lotuz, badira **iron* aditz laguntzailearen agerraldi zenbait, guztiak ezezko moldean. Aditz hau Ekialde zabal bateko euskararen ezaugarri dugu, azken mendeetan **ezan* aditzarekin lehiatzen izan bada ere. Honela mintzo zaigu René Lafon (1973 [1998]: 523):

On trouve parfois, chez Dechepare et (plus rarement) chez Liçarrague, et dans les poésies et les proverbes d’Oihenart, des formes auxiliaires de type *diro, liro, ziroen*, à la place de *dezake, lezake, zezakeen*.

Ikusiko ditugun formak arkaismotzat har daitezke; hortaz, konprenitzekoa da nolabaiteko kamustura pairatzea (*-r*-aren erortzea, kasu). Aditzoinarenean presentziak segurantza eskaintzen digu:

- *ezdiogu nihorc ere deusic endelga* (10) ‘ez dezakegu’.
- *ez diot nic yaquin* (54) ‘ez dezaket’.
- *etziotela paga* (60) ‘ez zezaketela paga’.
- *ez baitiote*⁵⁹ *correi, eta gutiago arranya* (62) ‘ez baititzakete’.
- *etzioyat ilhunbian deus ere onic equin* (159) ‘ez zezakeat’.

⁵⁸ *Diotzagu* ‘dizkiogu’ ongi dokumentatzen da lapurteran. Corpus Arakatzailerean arabera, soilik Hiribarrenek eskeintzen du subjuntiboaren adibide argi bat: *Eman diotzagun bizkarrerean Heretiko, Xizmatiko, Judu, Pagano eta sinheste-gaben trufa eta hirriak* (*Euskaraz egia*, xix). Pasarte honetan bi aldiz ageri da, baina ez dira berdinak: nonbait **io* eta **ezan* laguntzailearen arteko nahastekamendua gertatu dateke, emaitza sinkretiko batekin: *dietzozgun* (bat. *diezazkiogun*) > *diozzagun*. Ohartu bedi lehen forman *zor* **edun* dugula, eta bigarreanean aditzoina baliatu dela, **ezan*-ek eskatzen duen bezala.

⁵⁹ Lehen begi kolpuan *baitiote* objektu singularreko formatzat hartzen genuke; aldiz, guk uste dugu objektu pluralarekiko komunztadura badela: formaren esplikabidea ahozko mintzaldiak eragin higaduran datza: *baititirote* > *baitiote* (cf. *baititut* > *baitut*).

- *zeren amu hau bakharric utziric ez bailio deus ere hatzeman* (202) ‘ez baile-zake’.

Nabarmentzen dugu orainaldiaz landako aldietako adizkien lekukotzea: iraganaldiko *etziotela* eta alegialdiko *ez bailio*; bai eta singularreko nahiz pluraleko lehen eta hirugarren pertsonakoak, edo alokutiboaren moldea ere; gainera ematen du objektu pluraleko adizki bat badatekeela (*baitiote*). Ez da gutti sei forma soiletan horren guztiaren hatzematea. Egungo Zuberoan *diro* eta *liro* baizik ez omen dira baliatzen:

Des formes de ce type s’emploient, selon Bonaparte, en souletin (y on compris le roncalais), en bas-navarrais oriental et dans une partie du bas-navarrais occidental de Labourd. Le souletin actuel se sert couramment de *liro* ou de *liroke*, réduits dans la conversation normale à *lio*, *lioke*.

La triade *diro* / *liro* / *ziroen* était encore en usage en souletin au XIXe siècle. [...]

De nos jours seule subsiste la série de l’éventuel, *li(r)o*, qui équivaut au conditionnel présent du français. “il peut le prendre”, “il pouvait le prendre” se disent respectivement *hartzen ahal dü*, *hartzen ahal zian*. Les séries *diro* et *ziroen* constituent autant de cases vides (Lafon 1973: 523).

Ordea, ez da *-ke*-dun formarik aurkitzen.

Nor *elementuaren pluralgilea*

Badira aukera batzuk, nagusiki [-it-], [-tza-], [-z-] eta [-zki-].⁶⁰ Ez ditugu guztiak aztertuko, ez eta ere sakonki.

- [-it-] pluralgileari dagokionez ez da ustekaberik, espero diren formetan aurkituz (*baititu*, *ditiguc*, *ditzadan*...). Hari lotua tartekatzen den *-z-* eufonikoa, aldiz, ez da beti agertzen: *baitituzte* baina *lituqueyen*, *nituque*.
- [-z-] eta [-zqui-] txandakatzen dira euskara batuak hartu duen [-zki-]-ren eremuan:

⁶⁰ Diakronikoki [-zki-] ez da morfema bakun bat, bere baitan [-z-] pluralgile zaharra eta [-ki-] datiboaren ikurra biltzen baititu.

	-z-	-zqui-	batuaz
nor-nori	zaizcoc	zaizquioc	zaizkiok
	zaiztec	zaizquiuyan	zaizkiek
*ezan NNN	zazcoyan	zaizquitzu	zitzaizkioan
		zaizquielacotz	zaizkizu
*eradun		zaizquit	zaizkielako
	ziotzon		zatzaizkit
inperatibo uzkurtuak		daizquiat	ziezakion
	naizten	daizquidac	dizkiat
		daizquiot	zizkidak
		daizquizuet	dizkiot
		eguintz-quic	dizkizuet
		uz quizue	nizkien
			egin itzak
			utz itzazue

- [-tza-] pluralgileaz erran daiteke [-z-] ren alomorfoa dela. Ondoko adibideetan kausitzen dugu: *dabiltzac*, *dioztzagun* ‘dizkiogun’, *badaquitzac* ‘badakizkik’.
- Bada forma pleonastikorik:
 - [-tza-] + [-z-], *ziotzaiztean* ‘zizkiean’.
 - [-tza-] + [-zki-], *daquitzaizquian* ‘dakizkian’.
- Iruzkintzeko tenorean arazotsuago da *dakharquizenac* ‘dakartzatenak’. Iduri luke metatesia gertatu dela (**dakharzquitenac* > *dakharquizenac*).

Nor *elementuaren pluralgile berezi bat*: -i-

Lapurdi Ekialdean hatzeman daitezke -i- pluralgile duten adizkiak. Badirudi forma horiek egundaino biziraun dutela Hazparnen, Lekornen desagertuak direnean. Jarrai gakitzen Pedro de Yizarri bere oharretan (1999: 423):

[Ohargarri da] El empleo actual en Hasparren de -i- (sin -z), con valor de plural. Para encontrar estas formas (*dait*, *zaitak*) en Mendionde, hay que remontarse a Bonaparte.

K&B-ko euskaran badira -i- dun adizkiak objektu pluralean: *Erran zinuen lehenic gantzatu zaingola zanguac, eta guero, nigar urhuriz ihiztaturic, bere ile ederraz chukhatu bai zaingon* [‘zizkion’] (59); *Yende ospe hari proposatu zaingoyan parabola*

edo paretasun hoc ['zizkioan'] (68); *Orhoituren zinen zuhorec erakhuxi zinaitala latinto hoc* (59).

Zinaitala 'zenizkidala' forma behin baizik ez da agertzen, *zinaiztan* (76) ere lekukotzen dugularik. Orobat, *zaingoyan* 'zizkioan' forma konkurrentzian da *zaizcoyan*-ekin (104).

-te pluralgileaz

Ergatiboren pluralgile bezala, hirugarren pertsona [-te] nahiz [-e] hatzematzen dugu. Ipar Euskal Herriari dagokionez, oro har, zenbatenaz Ekialderago hanbatenaz *-e*- gehiago, eta alderantziz. Kontua da aipatu morfemak banaketa argi baten arabera baliatzen direla: [-te] molde neutroan, eta [-e] hikakoan:

	<i>-te</i>	<i>-e</i>	batua
<i>*edun</i>	dute baitituzte	die ditie	ditek ditiztek
<i>*ezan</i>	naute gaituzten zaituztela zuquetela dezaqueten		
<i>*iron</i>	zezaten		baitirote (baitidate)
<i>*eradun</i>	baitiote baitautate	etzautaye dacoye etzaucuye	(ez zidatek) (ziotek) (ez zigutek)
<i>*io 'erran'</i> <i>erasan</i> <i>ekharri</i>	diote zeasaten dakharquiztenac	baderamaye	dakartzatenak bazeramatek
<i>jakin</i>	zeramatela bazaquiten		

-n- txertatua

Hazparnen badira inguruko herrietan ezin ediren daitezkeen *-nk-* eta *-ng-* adizkiak. Horrela dio Pedro de Yrizarrek (1999: 423): "En Hasparren (excepto en Ur-

curay) encontramos formas con *-nk-* y *-ng-*, que no encontramos en las otras tres comunas [Lekorne, Makea eta Luhuso]”. Yrizarrek *zangon*, *zangoian* emaiten du Haparneko, eta *zankon*, *za(n)koian* Elizaberriko. Urkuraiko, aldiz, *zakon*, *zakoian* emaiten du. *K&B-n* *-n-*dun formak nahiz gabeak kausitzen ahal dira. Ikus ditza-gun adibide zenbait:

<i>-ng-</i>	<i>-k-</i>
zangoyan ‘zitzaioan’	zitzacoyan ‘zitzaioan’
zangoyan ‘zioan’	zacoyan ‘zioan’
zaingola ‘zizkiola’	zacotean ‘ziotean’
zaingon ‘zizkion’	zacotelaric ‘ziotelarik’
zaingoyan ‘zizkioan’	zacoteyan ‘ziotean’
zangon ‘zegoen’	zagoen ‘zegoen’

Polimorfismoa

K&B-n ugariak dira polimorfismo kasuak. Batzuetan bilakabide fonetiko baten fase diferenteen emaitza gainjarriak baizik ez dira; bestetan morfema desberdinen erabilera edota konbinazioa. Etsenplu batzuk ekartzen ditugu:

- *dira*, *dire*, *dirade*
- *zaizcoc*, *zaizquioc* ‘zaizkiok’
- *zayen*, *zayoten* ‘zaien’
- *zitzayon*, *zangon*, *zitzangon*⁶¹ ‘zitzaion’
- *zazcoyan*, *zitzazcoyan*, *zitzazquioyan* ‘zitzazkioan’
- *zaitut*, *zitut*, *zutudala*
- *zaquiola*, *zitzaquion* ‘zekion’
- *zinautan*, *zinerautan* ‘zenidan’

Sinkretismoa

Ikustetik gatozen polimorfismoaren ifrentzuan ditugu sinkretismo kasuak, non bi forma (edo gehieago) jatorriz desberdinak edo analisiak bereizten dituenak, forma bakar batean nahasirik agertzen baitira. Ikus dezagun:

⁶¹ Forma honen jatorria NNN-eko *zangola*-tik datorke, *zit-* erantsiz. Hau izan liteke forma berrien sortzeko prozedura bat, beste paradigmekiko analogiaz. Orobat gertatzen da beheiti-xeago agertzen den *zitzaquion* ‘zekion’ formarekin.

Forma sinkretikoa	erranahia (1)	erranahia (2)	erranahia (3)
<i>zangon</i>	‘zitzaion’	‘zion’	‘zegoen’
<i>zaingon</i>	‘zitzaizkion’	‘zizkion’	
<i>zitzaizcotyan</i>	‘zitzaizkioan’	‘zizkioan’	

Bistan denez sinkretismo kasu hauek aiseago agitzen dira 3. pertsonan.

-Ke-dun adizkiak realis moduetan

Atzizki hauek anitzetan lotzen dira potentzialarekin, baina errealitatea konplexuagoa da. Lafontentzat *-ke* “sert essentiellement à marquer une indétermination” (1943: I, 448). *Marka modalak* deit genitzakeen *-te* eta *-ke* hauek ber balioa dute, eta *-teke*, pleonastikoa izanik, modernoago dukegu. Adizki markatuek ñabardura modalak adierazten ahal dituzte, bereziki potentziala, geroaldia edo ziurgabetasuna:

- *Yadanic ikhusi duc Jesus Christoc, Yainco bezala, ez duqueyela aitaric* (30).
- *Bichta hedatzen baitzen hasteric gabe finic ezduqueyen mugarri-taraino* (156).
- *Ez duquetela arrazoin asquiric bere erori-cuetan Debruaren accusatzeco* (29).
- *ezic yadanic ikhusi duc [...] Jesus Christoc, Yainco bezala, ez duqueyela aitaric* (30).
- *heyen ganic ebaxi ahal zituqueyen guziac* (150).
- *hogoi eta hamar diru phezec harentzat guehiago balio zuquetela* (203).
- *Eta ichilic istant bat ez hauque?* (162).
- *ez nauque, ez, zuri galde bakhar hau eguin gabe* (171).

-a / -e bereizkuntza

Bada *-a* / *-e* oposaketa bat adizki trinkoetan. Izan dadin forma bipertsonal ala tripertsonalen bereizteko (euskara arkaikoan; ikus Lakarra 1996: 165), izan dadin orainaldi ala iraganaldiaren bereizteko, euskara historikoan bada nola-baiteko banaketa. Bereizkuntza galtzea bera ez da euskalki baten ala besteren ezaugarri bereizgarria, baina galera goiztiar eta indartsu izatea behenafarreraren ezaugarritzat hartu beharko litzateke. Gure testuan aukera batzuk dira posible:

- *A e*-ren ordez: *zadin* (31), *zauden* (102), *zaucan* (53), *bazaquiten* (133).
- *E a*-ren ordez: *baderamac* (27), *baderamaye* (179).
- Bietara: *Deit-nezazun* (119); *deit-nazazun* (120).

b- *moldeko jusiboak*

Inperatiboa, zentzu hertsian, aginduak 2. pertsonaz emaiten direnetan gertatzen da. Hizkuntzek badituzte baliabideak manuak 2. pertsonaz landa ere adierazteko, eta horri deituko diogu jusiboa.⁶² 3. pertsonari doakionean, jusibo hauek subjunktiboaren bidez eraiki daitezke, *-ela* konpletiboarekin: *Aditzeco beharriac dituenac adi dezala* (74).

Ezaguna denez, euskarak badu preseski 3. pertsonako jusiboen sortzeko beste bide bat, *b-* morfemarena. Forma hauek oso ugari ez izan arren, badute, beren heinean, nolabaiteko garrantzia arkaismo gisa: *Bizi bedi David Erregueren semea* (151); *Ethor bedi ene gana eta edan bez*⁶³ (132).

Ene ustez are markagarriago da forma triperzonal honen presentzia: *bekhatu gabe denac eman bezo emac ume malurus huni lehen harri ukhaldia* (134) ‘biezaio’.

Subjunktibo zaharra

Euskara zaharrean aise aurkitzen ziren *izan* eta **edun* laguntzaileen gainean eraiki subjunktiboak. *K&B*-ko adibide bakarra eskaintzen dugu: *Dugun ikhus eya ni ala zuiec trompatzen othe guiren* (142).

Dugun ikhus ‘ikhus dezagun’: perpaus honetan interesgarria da aditzoinaren erabilera. Cf. *dugun ikhus lan-eginaren erresultat ederra* (Xaho, *Azti-Begia*, xii). Duvoisinek, Landerretzek, Abbadiek eta Laphitzek, besteak beste, erabiltzen dute *dugun ikhus*, subjunktibo zahar hau ziurrenera fosildua zela pentsatzera garamatzana.

Subjunktibozko baldintza

**Ezan* edo **edin*-en adizkiez baliatuz eratu baldintza. Egun ez da erabiltzen, euskara oso jaso batean ez bada: *sar badadi*-ren ordez, *sartzen bada* erabiltzen dugu (bai eta *K&B*-ren egileak ere), eta horrek adierazten zuen nabardura markatu nahi dugunean *sekula* edo *inoiz* bezalakoak erantsi behar ditugu. Erranahiaz ari bagara, hona Lafonek erraten duena (1943: II, 53-54):

Sar badadi, ikus badeza erakoak [orainaldiko subjunktiboak]: sert à exprimer une hypothèse envisagée d’une façon ferme, comme quelque chose qui est “à venir” soit actuellement, soit plus tard, mais qui n’est pas la réalité présente.

⁶² Hualde & Ortiz de Urbina (2003: 282). Ikus, halaber, Oyharçabal (2000).

⁶³ Hutsa ez bada, bakarra litzateke Iparraldeko tradizioan. Hegonafarreran *bez* arras ongi lekukotzen da (Corpus Arakatzaillearen arabera, Lizarraga eta Beriainengana).

Sar baledi, ikus baleza erakoak [alegiakoak]: Dès le XVI^e siècle, en effet, le type *ikusten balu* sert souvent à exprimer une hypothèse rapportée au présent, par opposition à *ikus baleza*, qui sert à exprimer une hypothèse relative à l'avenir.

Lehen moldekorik ez da gure testuan. Bigarrenekoak aldiz bai; ongi lekukotzen dira, sobera abundantak izan ez arren:

- *Yauna huntaz contez niz, bainan samur ez bazinite, bertze galde labur bat banuque.* (9)
- *Yauna, yoan baguinite pôla batetic bertze pôlaraino ere, nic ez nezaque nore sail hasia behin ere gal* (130).
- *Bainan Jesusec erreputatu, confonditu eta erhaustu zitian burhozaille hoc, Bettiriño, erraiten zayelarie etzela posible izan zadin debruiaren erresuma berechia eta phartecatuaia, eta hala lizatequeyela baldin debruiac yadanic poseitzen dituen gorphutzetarie khen balitza bere menecuac eta pecuac.* (110)

*In aditza

Hau da *eman* aditzak ukan ditzakeen erro supletiboetako bat. Aginterazko tesuingurutan baliatzen da: *Jauna, erakhux ezaguzu edo iguzu* (109); *Aita, gure onthasunac phartituric indazu eni neure phartia* (118).

*Uzkurdurak (arras guti)*⁶⁴

Kontrakzio hauek arras hedatuak dira egungo nafar-lapurteran. Lehen testuetarik dokumentatzen ditugu: *egocitu* 'egotzi ditu' (Etxepare, I, 336), eta dudarik gabe hedatuz joan dira denborarekin. Gure testuan adizki uzkurtu hauen maiztasuna ttipia da. Oso etsenplu bekanak hatzeman ditugu: *tuc* 'dituk' (6), *baitiote* 'baititi(r)ote' (62).

Trinkoak

Ez dira oso ugariak. Zerrenda osoa liburu honetako Adizkitegian ikus daiteke. Hona hemen interesgarrien iduritu zaizkigunak; *hauque* 'hagoke' (162), *huba* 'hoa' (62), *dakharcona* 'dakarkiona' (1), *dakharquiztenac* 'dakartzatenak' (23), *daquitzazquian* 'dakizkian' (181), *zaizcan* 'zeuzkan' (131), *zatzala* 'zetzala' (50, 113), *zeasaten* 'zerasaten' (94), *zuazin* 'zihoazen' (114).

⁶⁴ Hizkeraren berri emaiten dugularik, batzuetan ongi lekukotzen diren ezaugarriak bezain interesgarri suertatzen ahal dira okurrentzia guti dutenak, berrikuntza bat ez baitateke oraino hedatu (hau liteke aditzaren uzkurduren kasua); ez bedi ahantz, dena den, testuan ez lekukotzetik ezin dela automatikoki idoki hizkeran gertatzen ez zenik.

Aginterazko forma laburtuak

Inperatibo uzkurtuak edo laburtuak ez dira adizki trinkotzat hartzen ahal:

The synthetic forms of transitive verbs cannot be used as imperatives, and contracted forms are found even for verbs lacking a synthetic conjugation (Hualde & Ortiz de Urbina 2003: 281).

Molde honetako formak arkaismotzat jo daitezke; iduri luke mendeen igaraitzarekin haien erabilera eta maiztasuna gibelatu direla: *aurthicac* (27), *considerazac* (128), *hartzac* (32), *ikhusac* (18, 174, 195), *unezac* ‘utz nazak’ (25), *galde eguintz-quic* ‘galde egin itzak’ (181), *errazu* (52), *emozuie* ‘eman iezaiozue’ (85), *uz quizue* ‘utz itzazue’ (73).

2.4.3. *Alokutibotasuna*

Gai orokorrak

Kadet eta Bettiriño testuaren izaeragatik (solasaldi bat) adizki alokutiboen erabilera biziki ongi kausitzen da, oparoki ere. Gaian sartu baino lehen utz dezagun argi zeri deituko diogun *hitano* eta zeri *alokutibo*:

- a) Hitanoa bigarren pertsona hurbila baliatzen deneko moldea da. Bertan berdin sartzen dira *haiz*, [*hik*] *duk* bezain *diagu* edo [*hura*] *duk* bezalako formak. Hitanoaren barnean solaskidearen generoaren araberrako bereizketa egiten da: *toka* (maskulinoa) edo *noka* (femeninoa). Erran gabe doa gure testuan *toka* gailentzen dela guttiz, kontuan hartuz Aita Cadet mutiko bati mintzo zaiola. Dena den, *noka*-ren zenbait etsenplu ere aurkitzen ahal dira (Jesu Christo bere hitzetan emazteki bati mintzo zaiolarik, kasu).
- b) Alokutiboa estuki lotua da hitanoari, baina ez dira batera kontzeptu balio-kideak. Soilik solaskidea adizkien bitartez lotzen denean gure eleetan mintzo gaitzke alokutiboaz, hots, adizkietan solaskide horrekiko erreferentzia bat txertatzen denean. Honen arabera *jin gintuan* alokutiboa da (bai eta hitano ere), eta *jin hintzen* hitano hutsa da, baina ez alokutiboa. Eta ez da ahantzi behar alokutiboak *hika* ez ezik, *zuka* edo *xuka* gisakoa ere izan daitekela: *etorri ninduzun*, *etorri ninduxun*.
- c) Molde alokutiboen arauak ez dira beti ber-berak izan: badira diferentziak hizkeraz hizkera, bai eta zenbait aldaketa historiko ere; dena den, *grosso modo* jarraipide batzuk deskriba daitezke. Forma alokutiboak ezin dira, oro har, mendeko perpausetan agertu (nahiz egungo gazteen hizkeran erregela hau hein handi batean hautsi den), ez eta galderetan ere.

Hau erranik, interesgarri izan daiteke gure testuko forma alokutiboen zenbait ezaugarriren berri ematea.

-oia- formak

Lehena Pedro de Yrizarren hitzetan ekarriko dugu (1999: 423):

En las formas alocutivas masculinas con sujeto de primera persona del singular, encontramos en Hasparren formas con *-oia-*, a las que corresponden en las otras tres comunes formas con *-oa-*: *nakoian* frente a *nakoan*.

Hau da, joera antihiatiko bezalako fenomeno fonologiko batek ezaugarritzatzen ahal du barietate bat, adizki hauen maiztasun handiarengatik. Honen arabera, *zazcoyan* ‘zitzaizkioan’ (72), *zitzacoyan* ‘zitzaioan’ (19), *etzioyat* ‘ez diroat’ (159), *zioyan* ‘zioan’ (185), *zaingoyan* ‘zizkioan’ (68) aise kokatzen dirateke Hazparneko hizkeran.

d- ala z-

Bestenaz, ohargarri da orainaldiko forma alokutiboetan gertatzen den txandakitze bat, konkretuki dagokien forma neutroa *d-* hasten deneko kasuetan: batzuetan *z-*, baina gehienetan *d-*. Hobeki bistarazteko ondoko taula eratu dugu. “Batua” zutabetan Euskaltzaindiak proposatu dituen forma alokutiboak agertzen dira.⁶⁵

	<i>z-</i>	batua	<i>d-</i>	batua
<i>*io</i>			dioc	ziok
<i>*ezan</i>	zezaqueyat	zezakeat		
<i>*iron</i>	etzioyat	ez zioat	daizquidac	(zizkidak)
<i>*eradun</i>	zaucuc	(ziguk)	dauzquidac	
			dayec	(ziek)
			diayec	
<i>*io</i> ‘erran’	zioc	ziok	dioc	ziok
	ziotec	ziotek		
	zioyat	zioat		
<i>egon</i>			diagoc	zagok
<i>ibili</i>			dabiltzac	zabiltzak
<i>joan</i>			badazic	bazoazak
			badihac	bazoak
<i>eraman</i>			baderamac	bazaramak
			baderamaye	bazaramatek
<i>jakin</i>	etzaquiat	ez zakiat		

⁶⁵ 14. araua, “Adizki alokutiboak (hikako moldea)”.

-i- txertatua

Zenbait formatan tartekatzen den *-i-ri* buruz soilik aipa genezake *diagok* ‘zagok’ eta, beharbada, *badihac* ‘bazoak’. Txandakatze bat hatzeman dugu forma laguntzaileen artean: *dayec* / *diayec* ‘ziek’.

-a- ala -e-

-a- / -e- delako kanbiamendua munta handikoa izan arren, ez gara aferan sartuko zeren, lehen ikusi dugun bezala, *K&B*-ko hizkeran arras nahasia baita bereizkuntza hori; hortakoz nekez idoki genezake ondoriorik.

Paradigmak

Aurkez dezagun orain aditz laguntzaile erabiliene⁶⁶ joskera alokutiboa (hikako forma huts batzuk ere sartzen dira):

Izan nor

	ni	hi	hura	gu	haiek
+orain	nauc	hiz	duc	guituc	dituc
+iragan		hintzala	zuian zucan etzuyan	gunituian	zituian bazituian

Izan nor-nori, +orain

	niri	hiri	hari	guri	haiei
ni					
hi					
hura	zautac	zauc	etzacoc		
gu					
haiek			zaizcoc zaizquioc		zaiztec

⁶⁶ Gogora dezagun adizki guztiak zerrendatuak hatzematzen ahal direla (ikus ADIZKITEGIA). Hortaz, hemen ez ditugu agerraraziko laguntzaile guztien paradigmak, batzuen kasuan oso forma guti aurkitzen baita testuan.

Izan nor-nori, +iragan

	niri	hiri	hari	guri	haiei
ni					
hi					
hura			zitzacoyan		zitzayeyan
gu					
haiek			zaizquioyan zazcoyan zitzaizquioyan		zitzaizquiotean

**Edun +orain*

	hura	haiek
nik	diat	
hik	duc	
hark	dic	ditic
guk	diguc	ditiguc
haiek	die	ditie

**Edun +iragan*

	hura	haiek
nik	nian	
hik		
hark	zian	zitian
guk		
haiek	zitean ziteyan	zitiztean

*Eradun +orain (*nor* elementua singular nahiz pluralez)

	niri	hiri	hari	guri	haiei
nik					
hik					
hark	daizquidac dauzquidac			zaucuc	dayec diayec
guk					
haiek	etzautaye			etzaucuye	

*Eradun +iragan (*nor* singularrez)

	niri	hiri	hari	guri	haiei
nik					
hik					
hark			zacoyan zangoyan		zayean zayeyan
guk					
haiek			zacotean zacoteyan		zayetean

*Eradun +iragan (*nor* pluralez)

	niri	hiri	hari	guri	haiei
nik					
hik					
hark			zaingoyan zaizcoyan		zaiztean
guk					
haiek			zaizcoteyan		

2.5. Sintaxia

Behenafarreran kokatzen baita, baditu gure testuak hainbat ezaugarri sintaktiko Ipar euskal herrietan guztiz normal direnak; hortaz ez luke zentzurik, ene ustez, banakako azterketarik dedikatzea.⁶⁷ Iparraldeko mintzoetako joskerak usuen agertzen dituen bereizgarri horien arteko batzuen aipatzera mugatuko gara, etsenplu gisa:

- Muga adlatiboaren atzizkia denborazkoetan: *dagueno* (129)
- Datiboarekiko aditz komuztadura aukerakoa: *zuerri mintzo naiz* (141)
- Aditz nagusia - aditz laguntzaile - aditz nagusi - Ø: *yin zuian eta sarthu* (52)

2.5.1. Genitiboa adiera destinatiboz

Euskara arkaikoan genitiboak adiera destinatiboa har zezakeen. Ondoko adibideak fosildua irau du balada batean: *Opilez zarea baitzen / Beterik jente prauben* ‘praubeendako’ (“Ahetzeko Anderea”). Badira adibide gehiago, eta guztiek erakusten digute destinatiboaren marka (erlatiboki) berria dela. Gure testuan badira ezaugarri honen zenbait etsenplu, kuantitatiboki guti izan arren arkaismo gisa balio handia dutenak. Guztira hiru hatzeman dugu, baina ez maila berean.

Lehenbizikoan ezaugarria purki azaltzen zaigu:

- *Yauna, gure hoberena da aitzina yoaitia* (143), non *gure* ‘gureztat’.

Besteetan destinatibo marka hurbil izaten da:

- *Zuien eta mundu guziarentzat* (170), non *zuien* ‘zuientzat’; bestenaz, pentsa daiteke *-tzat* hondarkiak sintagma osoa hartzen duela bere menpe, genitibo marka izenkiari berezkoago eta hurbilago zaionean: [*zuien eta mundu guziaren*] *tzat*.
- *Hequientzat eta mundu guziarent* (173), non *guziarent* ‘guziarentzat’. Iduri luke genitiboaren gainean eransten den destinatiboaren atzizkiak bi elementuetan agintzen duela; [*hequien eta mundu guziaren*] *tzat*. Errepara bedi *-t* akabantzaz: *guziarent*.

⁶⁷ Beheitiago aztertuko direnei doakielarik, Iparraldean arras hedatua den ezaugarriarik aukeratu badugu, haren bilakabide diakronikoaren aldetik gure testuaren lekukotasuna intereskoa delako izan da.

2.5.2. TO-GEN (*objektu zuzena genitiboan*)

Gauza jakina da Nafarroa eta Iparraldeko euskalkietan posible dela izenaren genitiboan ematea hau aditz nominalizatu baten objektu zuzena delarik. *K&B*-n anitz etsenplu kausi dezakegu: *bertze asco gauza erran nahi ez ditudanen eguitemo, eta eguin arazteco* (55); *erien sendotzeco eta debruien casatzeco* (107); *hunnen hilarrazteco chede beltzaren formatzeco* (149); *eta hunnen jaten ari zirelaric* (162); *bictima balios hunnen abritzeco* (172); *yentil idolatren deitzera bere Eliza haundiaren formatzeco* (155).

Erran daiteke TO-GEN delakoaren araua eskrupuloski betetzen dela gure testuan, *egia erraiteko* edo *pietate ukhaiteko* modukoez landa salbuespen bakar bat kausitu baitugu: *sala eder hura emaiteco* (161). Bestenaz iduri luke erregela hau ez dela betetzen aditz nominalizatua izenkiaren ezkerrean doanean: *nihori ere ez salhatzeco miraculu hau* (82); *emaiteco ezpatac bere baynen barnian* (178); *erran zayean bere sehierrri ekhartzeco lehen baino lehen etchian zen yantziric hoberena, eta seme haren beztitzeco* (120).

2.5.3. *Destinatibo markaren hedakuntza*⁶⁸

Bada Iparraldeko tradizioan kasu destinatiboaren markaren hedatzeko joera bat, frantsesaren eraginez. Horrela, *-(r)entzat* morfemak bestelako balioak har ditzake, hala motibatibo nola prolatiboarena. Motibatiboaren kasuan ordezkatzeko bat gertatu da, XVIII. mendean hasi eta XIX.era osoa datekeena (Pikabea 1993: 158).

Nabarmentzekoa da gure testuan motibatiboarekin gertatzen dena. Erran daiteke destinatiboaren markak motibatiboarena ordezkatu duela, *-(ren)gatic* marka zaharrak fosildurik irauten badu ere (*amorecatic*, 15, 28, 31...). Ikus dezagun adibide zenbait: *Zertaco, beraz, hoinbertze pena, anxia, hira eta crina onthasun pasacorrent-zat?* (71); *Comeitatu zayeyan guizon edo presuna pherestuen etchetan sartzeco, eta handic edozoin gauza charentzat ez ilkhitzeco* (85); *Bainan abaraziosac diruarrentzat comuzqui eguin ez dezaqueyenic ez den bezala* (171); *Ardit batentzat mila guezur erranic* (175).

Motibatiboarena adierazgarri den bezala ere, ez da ahantzi behar destinatiboa beste balioak hartuz joan dela bere hedaduran, hala prolatiboarena: *Ichiltasuna mezipretzio batentzat*⁶⁹ *hartzen die* (191); *Lacho ezachola batentzat phasatuco hiz!*

⁶⁸ Ikus Pikabea (1993: 148tik aitzina).

⁶⁹ Kasu honetan zaila liteke *bat*-en prolatiboa destinatibotik bereiztea. Dena den bezala, *mezpreziotzat* idatz lezake egileak; euskarak ez baitu *bat* artikulua beharrik, gisa guztiz frantsesa dagoke honen giblean: *pour un mépris* → *mezprezio batentzat*. Guztiarekin ere, egileak *-tzat hartu* emaiten du maizen.

(192)... nola usuen adlatibo konposatu batez (-*rako*) adierazten den denborazkoa: *Zeren ez dira fidel ez leyal hazi admira garri huni dembora labur batentzat baizin* (71).

Erabilera berri hauen arrazoina xerkatu behar da, dudarik gabe, frantsesak XVIII. menderako hartua zuen puxantzan. *K&B* izkribuan -(r)entzatz markak osoki ordezkatu du -(ren)gatik, eta beste baliotarako hastapen fase batean kausitzen dugu hedakuntza. Horrela, prolatiboari dagokionez nagusi dira *bidetzat* (51), *gorthetzat* (11), *amoinazat* (171), *errecompentxazat* (182) eta *lekhucozat* (100) bezalako en agerraldiak.

2.5.4. X-rekin Y = X eta Y

Bi elementuren lotzeko modurik sinpleena eta juntagailua da: *Kadet eta Bettiriño*. Baina euskarak ezagutu du beste koordinazio egitura bat testuetan arras gutti lekukotu dena. Egitura horren berezitasuna soziatiboaren baliatzean datza: *Doridogaz Silveroren bervac* ‘Doridoren eta Silveroren berbak’ (Lazarraga, 14r).

Joseba Lakarrak ikertu du [X-rekin Y = X eta Y] delako arkaismoa, ondorioztatuz haren hedadura ez zela Bizkaia eta Gipuzkoara mugatzen. Izan ere azken urteotan, Lazarragaren izkribuaren aurkikuntzari esker, ezaugarriaren eremua Nafarroa eta Arabara hedatu da, eta berri berritan Lakarrak berak (2008) erakutsi du “Urthubiako alhaba” baladan ere kausitzen dela adibide bat,⁷⁰ eta horrekin batean koordinamolde hau komuna izan zitekeela iraganean.

*Kadet eta Bettiriño*ren lekukotasuna hipotesi honen indartzera dator, bertan bi adibide klar hatzeman dugulako:⁷¹

Bethi Jesus hurbiltzen ari zelaric Yerusalemerat, sarthu zuian Martha eta Maria bi ahizpen etchian, Bethanian, Jerusalemetic hirur lecua laurdenen bidian. Martha anhiz arrangura eta khechamendurequin abiatu zuian Jesusi bere lagunequin bazcariaren preparatzen, eta Maria Jesusen oymetan yarriric, tranquilqui Jesusen aditzen (109).

Lehen adibide hau ez da purki “X-rekin Y” moldekoa, “X Y-rekin” baizik. Maleruski datiboaren komunztadura falta da; bestenez datibo horrekiko komunztadura

⁷⁰ Hauxe da: *Jauna, othoi indazu amaren bizia; / amaren biziarekin aitaren libertatia*. Joseba Lakarrak egitura arkaiko honen presentzia argudio gisa baliatzen du balada autentikoa delako hipotesiaren sendotzeko, hain justu faltsutze “moderno” bat baledi esku beltz horrek nekez balia lezakeelako duela urte guti artio euskalariendako ezezagun izan den ezaugarri linguistikoa bat.

⁷¹ Bada oraino hirugarren etsenplu bat, baina duda-mudazkoa: *Seme guehiena, escribau farisayuac —erran nahi dut mundua bere adorazaille itxuequin—* (128).

dura plural ala singularrarena den ikus genezake. Markagarria da, halaber, datibozko sintagma izatea,⁷² ondorengo bezalaxe:

Ikhusiric beraz Jesus Christoc dembora hurbilduia zela, igorri zitian bere discipuluetaric biga (Jendone Bettiri eta Joannes) Jerusalemera —zeren nahi zituen, juduen phascuen bictima izan baino lehen, bere discipuluequin phascuac eguin— emaiten zayelaric den amodioric bihotzta, gartxu eta leyalenaren marca bat, eta heyequin guri bere buruia janhari (161).

Lehen adibidean *Jesusi bere lagunequin* ‘Jesusi eta bere lagunei’ ulertu behar da, testuinguruak garbi uzten duelako *lagun* horiek Jesusenak direla; bigarrean *heyequin guri* ‘[bi apostulu] heyer eta guri’. “X Y-rekin” koordinamoldearen kariaz, pentsa bedi egungo euskaran posible dela kasu komitatiboa zuzenean aditzak eskatu kasua ez denean (*mintzatu* edo *ezkondu* bezalako aditzekin) predikatu bigarrenkari gisa erabiltzea, beti ere absolutiboan edo ergatiboan den izen sintagma batez erranik: *Zu lagunekin joan zira / Zuk lagunekin eginen duzu / *Zuri aitarekin erran dautzute.*

K&B-k argi erakusten du XVIII. mendean gauzak ez zirela hola. Nolanahi ere den gure testuak, “Urthubiako alhaba”-ren adibidearekin batean, [X-rekin Y = X eta Y] izeneko egitura arkaikoa Ipar Euskal Herrian dokumentatzen du, eta data aski berankor batendako.

2.5.5. Egitura konparatiboak

Gramatika gehienen arabera, euskarak baditu gehiagotasun eta berdintasun konparatiboak. Azter ditzagun kausitu digutun aukerak:

Gehiagotasunezko egiturak

- a) *baino -ago*. Hau da euskaran aukerarik sinpleena. 25 bat etsenplu dira testuan zehar. Hona hemen zenbait adibide: *elhur mina baino churiago* (101); *zuien ardiac baino balios-chago* (116); *Elizaz baino plaza publicuez artha guehiago dutenec* (55); *minagriac baino eztiac uli guehiago hatzemaiten omen dic* (56); *uste baino yende guehiago* (34); *zeruco izarrac baino gorago igan nahi zirete?* (3, 140); *Lurraren eta orainic tronuaren baino ifernuaren gayago zen tyrano cruel hau* (19).

⁷² Lakarrak bildu corpusean genitibozkoak eta absolutiboak nagusitzen dira, bi alatibo, destinatibo eta ergatibo bana ere izanik. Gureak, beraz, datibo gisa dokumentatzen diren lehenbiziko adibideak dira.

Ezezko moldean anitzez ere gutiago dira, eta bakarra *K&B*-n: *ez dituc nagusiac baino guehiago, ez eta ere apostoluac egorri dituen a baino guehiago urus* (167). Konparagai den elementua izenki bat denean, *gehiago*-rekin agertzen ahal da: *lur baino harri guehiago zen toquirra* (69, 71); edo *-ago* atzizkia izenkiari zuzen itsatsia, erabilera honetan izenak izenondo gisa funtzionatzen badu ere: *nescacha baino aingueruiago den creatura dohatxu hau* (2).

- b) *baino miliunetan -ago*. Egileak molde berezi bat darabil gehiagotasun konparatibo hauen indartzeko: *miliunetan -ago* ‘anitzez ere -ago’. Guk dakigula soilik Martin Duhalderen *Meditazioneak* liburuan hatzeman daiteke formula hau, gure testuaz apart: *Ni, Judas berria, Herodes berria, Pilatus berria, Borredo berria, eta hek guziak baino miliunetan areagoa, nere Jesus maitea hanbat aldiz gurutzefikatu, xehakatu, hil dudana!* (“Abisua meditacionearen gainean”). Eta, beste itxurapean, J. M. Hiribarrenen *Eskaraz egia* lanean: *Hobe, izan dadiela giristinotasuna, oinetarik buru eta hastapenetik akhabantzarat, hemezortzi ehun miliunetan mendi hoik baino higuingarriagoko zoro-keria* (xix).

K&B-n hiru adibide kausitu dugu: *Sabel elhurra baino miliunetan churiago zen eta choilqui eguiazco Yainco batentzat gai eta digno zen huntan* (9); *Hura zela zeruco oguia, heyen burhasuec desertuan yan izan zuten mana baino miliunetan hobiago* (90); *Ez phenxa, ez iduric ere zezaqueyen, baino miliunetan haundiago bat ardiexi zian* (97).

- c) *zonbatenaz -ago ... hanbatenaz -ago*. Espero den bezala, egitura hau edireiten da elkarrekin erlacionean diren bi osagaien erkatzeko tenorean: *zonbatenaz presuna bat haundiago, eta hanbatenaz hunen humilitatia admiragarriago duc* (6).
- d) *-ago ... eziketx*. *Ezik* partikula egitura konparatiboetako bigarren elementuaren sartzeko balia daiteke. Erabilera honentzat *ezik* nahiz *ezik ez*⁷³ dira posible; gure idazleak lexikalizazio maila bat adierazten du *eziketx* loturik idaztean: *nahiago du Hirurtasunaz bethi danic hautatua den haur eta nescacha christal lyndo hunec, zeru lurren errequina eta eguiazco yainco guizonaren ama, izaitetic guelditu eziketx bere viryinitatezco lore charmantaz gabetu* (4); *Behkhatore convertitu eta penitent bakhar batec zeruian atxein eta bozcario guehiago causatu duiela, eziketx laur hogoy eta hemeretzi justu penitencia behar-ezequec* (117).

⁷³ Eremuari doakionean, ekialdekotzat jo dezakegu, Aezkoa eta Luzaideko euskaretara itzuli Asteteren katiximetan ongi lekukotzen baita, hala nola Erronkarierazko testutan: *bada obe dazaizu galtia miembruetarik bat ezik ez zore korpiz guziua fan dein iburniara* (Pedro Hualde: *Gore Jainaren ebanjelio Sainiua*, 5. kap).

Gutxiagotasunezko egiturak

Purki errateko, ondoko perpausetan ez dira bi elementu konparatzen (“X baino gutiago”), esplizituki bederen. Ohargarri iduritu zaigu, halere, *gutiago* + *adjektibo / izenki* egitura. Hatzeman ditugun bederatzi adibideak ezezko perpausetan dira: *etzirela bere baithan gutiago arguixuiac* (16); *etzirela bere baithan gutiago eder dis-tirant eta airos?* (149); *nahiz othalacuan yarria ezduc gutiago yainco* (12).

Berdintasunezko egiturak

Izenondo bat emaiten denean atributo edo predikatu osagarri bezala lotzen bazaio berdintasunezko konparatiboa *bezain* (gure testuan *bezen*) erabiltzen da. Ondoko adibideek, erregela honen arabera guztiz normalak badira ere, itxura konplexuago bat dukete, erkaburu bikoitzak —eta are hirukoitzak— agertuz: *discipulu aitzinian curayos bezen orai herabe hau* (196); *thomba campos eder bezen barnez igungarri heyen* (110); *lehenbizico bi hoc tonto eta bano bezen —etchurapenez bederen— adretac eta amarutxuac* (185); *emac ume aitzinian bekhatore escandalos bezen orai penitent famatu huni* (61).

Kentzen baldin bagenu *bezen* hori eta eskuinera igortzen, egungo euskaran *-bat* behar litzateke erantsi (*bezainbat*): *Gatu hori elhurra bezen xuri da* → *Gatu hori xuri da, elhurra bezainbat*. Hortaz, bitxi suertatzen zaigu ondoko perpausa: *eta hola claro da, eguerdico arguia bezen* (29).

Bezen partikulak, ageriko adjektiborik gabe, kualitate bati ez dagokion konparazio bat adieraz dezake: *bainan hastian bezen abant-zu guelditzera noha* (123). Perpausaren zentzua, beste molde batez: ‘bainan kasik hastean bezala gelditzera noa’. Bestalde, behin baizik ez dugu kausitzen *bezainbat*: *hitz emaiten dauztut zeruian izar den bezent bat parabola guehiago*⁷⁴ *izanic ere, baquian utziren zitudala* (139).

Euskaraz, bestenez, markagarria da *berdin* baliatzea egitura konparatiboetan: *zeinarent-zat bethi iragana eta ethorquizuna bardin present baitziren* (114). Iduri luke erdararen eragina izatea (cf. *pour lequel le passé et le futur étaient toujours également présents*).

⁷⁴ Pasarte honetan *bezainbat* berdintasunezko konparaziorako baliaturik eta jarraian *gehiago* agertzen da: *zeruian izar den bezent bat parabola guehiago*. Pentsa liteke agramatikala dela, bietako bat —*bezent bat* edo *guehiago*— soberan izanez. Gure ustez, aldiz, perpausa zuzena da, honela interpretatuz: *Zenbat parabola gehiago gelditzen dira? [Zeruian izar den bezainbat] parabola gehiago izanik ere...*

2.5.6. Artikulu zehazturik gabeko superlatiboa

Gaztelaniaz bi superlatibo bereizten ahal dira: absolutua (*altísimo*) eta erlatiboa (*el más alto*), beti ere multzo bati dagokionez eta beraz, nezesarioki determinatua, artikulu definitu batez mugatua.

Egungo frantsesez kontuak diferent izaten dira, absolutua baizik ez delako baliatzen (*la plus belle ville*). Baina iduri luke frantses historikoan latinaren *-issimus* superlatiboaren atzizkiak irauin zuela, oso erabilera murriztuaz. *TLF*-n honakoa irakur dezakegu: “*-issime*, Suffixe tiré du lat. *-issimus* ou de l’ital. *-issimo*, servant à former des adjectifs à valeur superlative, généralement avec une nuance ironique ou plaisante” (*élégantissime*). Bistan denez, *-issime* / *-ísimo* atzizkidunek artikulu definitu nahiz indefinitu har dezakete, superlatibo absolutuak soilik definituarekin direnean posible.

Euskaran superlatiboak artikulu batez lotzen dira usuen: *ikusgarriena, gaitzesgarriena, estonagarriena...* Ikuspegi etimologiko batetik, superlatiboak genitiboaren gainean (*-en*) izaten dira eraikiak: *handien, politen, nardagarrien*. Deusek ez luke, *a priori*, zernahi mugatzailearen baliatzea eragozten: *handiena, handien bat, handien hau...*

Gertatzen da euskarak ez duela aise uzten artikuluz kanpo beste mailakatzailerik agertzera. Zentzu horretan, *K&B* izkribua biziki abundant eta aberats suertatzen da superlatiboaren inguruan eratu sintagmei doakienean:

- a) Izen + izenondo superlatiboan + mugatzaile: *berri ondicuezen hau* (14), *ama lastanen hau* (17), *prenda amulchuen hori* (36), *eta amodio gartxuen batez* (163). Anitz dira, halere, lehengo motako sintagmak superlatiborik gabe⁷⁵ (izen + izenondo + erakusle): *tyrano cruel hau* (19), *berri ohicoez hau* (41), *tragedia bihotz erdiragarri hau* (192), *mamu narda-garri hunec* (27).
- b) [Iz + Izond] + *en* + *en*. Badira, bestenaz, superlatibo pleonastikoak edo bi-koitzak. Hona zenbait etsenplu: *den eguiaric haundienena eta clarenena* (189), *Viryina christalenen sabel lastanera* (9), *bihotzetaco seindimendu gordenenac* (42), *enbidia beltzenena* (173).
- c) [izena + izenondo + *en* + *en*] + erakusle: *haur gazte eta adret ikhusgarrienen hunen prudentzia* (5), *izpiritu higun-garrienen hunec* (28), *ekharri zayean parabola guzien artian den admiragarrienen hau* (118).

⁷⁵ Pentsa liteke goian aipatu egitura batzuek Hegoaldeko *egunen batean, libururen bat* bezalako zentzu indeterminatua dutela, edo egileak genitiboaren eransteke joera automatikoa duela erakusleekin; hortakoz zerrenda honen zergatia.

K&B, erran bezala, oparoa da aipatu egiturei dagokienez; baina ez era eskusiboan.⁷⁶ Lapurteran [izen + superlatibo + erakusle] moldeko sintagma lekukotzen dira: *Ikus dezagun orai beraz egiteko handien hau norena den* (Duvoisin: *Liburu ederra*, “Jainkoak zertarako egin izan zuen gizona”); *Zorionik handien hau galdegiten darotzut* (Dv, *Liburu ederra*, “Heriotzearen gainean”); [...] *Baldin norbaitek lituelarik bi ezpata, bata baino bertzea hobea, eta hoberen hau zokhoan utzirik* (Etxeberrri Sarakoa: *Eskuaren hatsapenak* “Eskuara garbia da”).

2.5.7. Erlatibozko egitura zenbait

*Erlatiboa eskuin*⁷⁷

Zein ... bait- moldeko egiturak baztertzen baditugu, euskaraz adizkiari *-n* erantsiz eraikitzen diren erlatiboak usuen izenaren ezkerrean doaz; baina erlatibo mota hau eskuinean ere ager daiteke:

jadanik den gauzari → *gauza yadanic denari* (*K&B*, 148)

deus balio ez duten arrainak → *arrain deus balio ez dutenac* (*K&B*, 76).

bere gorputzean zituen zazpi debruak → *zazpi debru bere gorphuzian zituenac* (*K&B*, 56)

Izenki biluziaren eta erlatiboaren artean zenbait sintagma tarteka daitezke: *Nahiz traidore faxu hunec pôt egundaino munduan izan den esquer-gaitz eta ingratenen batez erakhuxi dayen* (*K&B*, 175). Hainbeste, non batzuetan erlatiboa distantzia handirekin gelditzen baita izenkitik:

Sabel elhurra baino miliunetan churiago zen eta choilqui eguiazco Yainco batentzat gai eta digno zen huntan (*K&B*, 9).

Christau bere beharra eta eritasun tristia ezaguturic, humilqui legue berrico putzu edo piscina puyant huntara bere osagarriaren onduan yinen direnac (*K&B*, 144).

Zenbaitetan perpausen endelgatzea anitz iluntzen ahal da, ondoren transkribatzen dugun erranaldian bezala:⁷⁸

⁷⁶ Molde honetako sintagmen beste egilerengan hatzemateak ez du testu honen berezitasuna gutiesten. Ekarri adibideak testuan aurki daitezkeenetako batzuk baizik ez izanik, eta ezaugarriaren oparotasuna aintzat harturik, zilegi izan bekigu “artikulu gabeko superlatiboa” deit genezakeen egituraren erabilera *Kadet eta Bettiriñoren* ezaugarri propiotzat hartzea.

⁷⁷ Deitura hau guk dugu proposatzen; “erlatibo tartekatua” ere egoki dakusagularik.

⁷⁸ “Perpausen hedadura” izeneko atalitoan iruzkindu dugun arren, egoki iduritu zaigu perpaus hau erlatiboen gaineko puntuan ere aipatu. Hau da gure interpretazioa: bi erlatibo juntatu, biak beste erlatibo baten barnean: [[*christau urgulutxu eta [bere penitentzia achalezcuez espantu eguitera yiten diren] eta [bere osásuna ardiexi beharrian bere gaitz auhengarria emendatzen duten] ac] significatzen dituen] *farisayua* URGULUAC *condemnatu zian*. Erranaldi honen perpaus menderatzailea, beraz, hau da: *farisayua urguluac condemnatu zian*; non *urguluac* subjektu baita.*

Guisa berian, christau urgulutxu eta bere penitentzia achalezcuez espantu eguitera yiten diren, eta bere osáasuna ardiexi beharrian bere gaitz auhengarria emendatzen dutenac significatzen dituen farisayua urguluacondemnatu zian (K&B, 144).

Usantza zaharra da hau, dudarik gabe (ikus De Rijk 1979) eta, kontrakoa pentsa baliteke ere, noizbait euskararen ezaugarri orokorra izan da, Ekialdeko testu zaharretan bezala Mendebalde eta Erdialdekoetan ere kausitzen baititugu erlatibozko egiturak izenkiaren eskuinera:⁷⁹

- Leizarraga (Beraskoitze, 1571): *Comparatu da cerüetaco resumá, mustarda bihi guição batec harturic bere landán erein duenarequin* (Mat 13, 31).
- Mikoleta (Bilbao, 1653): *Artu-eguisu beyñ onaco trapu iqusleac ecarriditusanac (Metodo... 30. orr.)*.
- Kapanaga⁸⁰ (Mañaria, 1656): *aita santu begia egozaneenac* (11-12/13), *Mådamentu gordeco doguzanac* (24-25), *pecatu confesadu dituecan guztia* (88-23/24).

Arkaismo gisa “erlatiboa eskuin” deit genezakeen hau normala zen erronkarietaz. Urkixok honakoa dokumentatu zuen: *Agin min emoiten dayana erranka zak*.⁸¹

Gauzak honela, ez da inola ere harritzekoa XVIII. mendeko Lapurdiko ekialdean holako joskeren hatzemateak; K&B-ri doakionean, agian azpimarkatu beharrekoa dateke ezaugarriak agertzen duen indarra eta maiztasuna; izan ere, 26 aldiz hatzeman dugu izenkiaren eskuinean doan erlatibozko egiturarik.⁸²

Zein ... bait- erlatiboak

Zein ... bait- moldeko erlatiboak zinez abundantak dira testuan, segurki maiz baliatzen den erlatibo egitura mota izanki.⁸³ Kontua da egileak ez dituela erlatibo hauetako singularreko absolutiboa eta ergatiboa formalki bereizten, hortaz *zeinac* idazten du *zeina* beharko lukeenetan:⁸⁴ *zeinac deitzen baitzen Sichar* (39); *zeinac baitzen yuduen igande eguna* (46).

⁷⁹ “Erlatibozkoa ere, posible da ardatzaren eskuinean agertzea; euskalki guztietan ditugu honelako adibideak, nahiz gaur egun gutxiago erabiltzen diren, bereziki Erdialdean eta Mendebaldean” (EGLUV, 1999: 178-180).

⁸⁰ Blanca Urgelli zor dizkiot etsenplu hauek.

⁸¹ J. de Urquijo, *Los refranes de Garibay*, xxi. orr.

⁸² Baliteke, jakina, bat baino gehiago oharkabean igaran zedin gure begi aitzinetik.

⁸³ Kasu honetan ez dugu hustuketarik egin, testuan murgildurik ibili ondoren dugun inpresio baizik ez da.

⁸⁴ Absolutiboa eskatzen duten perpausetan behin baizik ez du *zeina* ematen: *zeina baita* (13), gainerateko guztietan *zeinac* baliatuz (1 vs. 23ko proportzioan).

Bitxikeria horretaz apart, aurrekaria eta erlatiboaren beraren artean izan daitekeen distantzia luzea aipa genezake: *eta hotaric bat bakharra, samaritano bat, bihurtu zangoyan Jesusi esquerren bihurtzera, zainari Jesusec erran baitzion* (138). Erlatibo honen aurrekaria tarteko perpau baten subjektua da (*bihurtu zangoyan Jesusi esquerren bihurtzera*). Egungo euskararen sintaxi hau bitxia da, baina ez historikoki, Lazarragaren adibide honetan ikus daitekeenez: *Silveroc au ençun eguian orduan bere buruari ychi eusan lurrera jausten, ceñagana Silvia joan çidin lasterca*. Erlatiboak Silverori egiten dio erreferentzia, sintaktikoki *bere buruari*-tik (12r) hurbilago legokeen arren.

Egitura korrelatiboak

Propioki ez dira erlatiboazko egiturak, baina maiz aipatzen dira haiei lotuak. Nolanahi ere den, euskararen korrelatiboak oso hizkera maila jaso baten seinale dira, adierazpide eta hizkuntz baliabideak gehien zaintzen dituzten egileen ezau-garriztat har baititzakegu. Hona hemen adibide zenbait:

- NOR ERE *besarcatuco baitzuien eta hura zaitequeyela* (173).
- NOR ERE *autoritate propiaz eta mendequiozco izpiritu batez harmez zerbitzatuco baitzen, goiz edo berant harma berez galduia izaren zela* (178).
- *aita familiacuac phartzen zuian ZONBAT ERE presuna baitziren mahayan edo familia guzian eta hainbertze phusquetan, eta emaiten onduan bakhochari beria* (168).
- ZER ERE *baitugu maitenenic, edo zertara ere baiquiria ekharrienic, eta hartarat khitzitcatzen eta hizatzen guitic* (202).

2.5.8. Linschmann-Aresti legea

Euskara zaharrak bi posesibo sail bereizten zituen: neutroena (*ene, hire, haren*,⁸⁵ *gure, zure, haien*) eta indartuena (*neure, heure, bere, geure, zeure, beren*). Idazle zahar-rrengan, beraz, bi sail hauek banaketa garbi baten arabera agertzen dira: posesibo indartuak baliatzen dira baldin eta perpau bakun bereko aditzaren argumentu baten (absolutibo, ergatibo edo datibo) erreferentziakide badira; honen segidaz, erreferentziakide ez izatera, neutro edo arrunta izanen da posesiboa.⁸⁶

⁸⁵ Konzient gara beste hizkuntzalariek 1. eta 2. pertsonen baizik ez dutela aintzat hartzen lege honi doakionean.

⁸⁶ Sarasolak (1979) honela definitzen du legea: “Lehen eta bigarren pertsonetako posesiboek bi era dituzte: *lehen era* (*ene...*) eta *bigarren era* (*neure...*) deituko ditugunak. Sintagmaren batean posesibo bat gertatzen bada, delako posesibo hori lehen eran agertuko da baldin agertzen den sintagmari dagokion aditzan pertsona eta numero bereko formanterean bat (2), NOR, NORK nahiz NORI motakoa, agertzen bada. Bestela posesiboak bigarren era hartuko du”.

Azken mendeetan legea ahulduz joan da, ia desagertzearaino: egun posesibo neutro eta indartuen arteko bereizkuntzak soilik 3. pertsonan du indarra, eta euskara jasoan. Beraz, euskara zaharrak banaketan eskaintzen zituen bi aukeratarik bakarraren aldeko hautua egin du euskalki bakoitzak: Erdialde eta Ekialdean posesibo arruntak hedatu direnean, Mendebaldean forma indartuek besteak baztertu dituzte.

K&B-n (gogora bedi XVIII. mende Erdiko testigantza bat dela) posesibo neutroak zein indartuak erabiltzen dira. Kasurik kasu aztertu ondoren, honako ondorioetara heldu gara:

- a) Linschmann-Aresti legea osoki betetzen da singularreko 1. pertsonari dagokionez: *ene* vs. *neure*, *nore*. *Ene* neutroaren 34 agerraldietan 33 zuzen dira, lehen pertsonak aditzean islarik ez duenean; orobat, *neure* (9 agerraldi) eta *nore* (25) beti erabiltzen dira erreferentziakide gisa. Ikus dezagun adibide zenbait: *Hau da ene seme maitea, eta ene plazer eta complazent-zia guzien objet baxharra* (102); *Segui zazuie eta erran, ene phartez, bere etchian duien sala eder hura emaiteco, zuiequin han eguin ditzadan nore undar phazcuac* (161); *Balin bahu niri zerbait hoben bisayala emaiteco, ene biltzarriac gabazcuac izanic, edo zerbait gauza gaichto erakhuxiric, ez hindaque guphidaz egon; orduian nore buruia defendatu edo debecatu beharco niquac, neure buruiac arranguraten naizalaric* (181).

Salbuespen bakarra hatzeman dugu. Ondoko adibidean *ene* erabili da 1. pertsona erreferentziakide izanki: *Erran ezozue acheri nabar hari orainic egun eta bihar ere sendatzen ditudala eriac, eta hirur egunen buruiac accabatzen [dudala] ene sail penatuia* (111).

- b) 3. pertsonan ere, hala singularrean nola pluralean, erregelaren indarra soma daiteke: *Eta orduian hunec, haren zanguetara bere buruia aurtiquiric, adoratu zian* (137); *Harrec bere gostu lizun batez izaira guzia lohotxatu dic, eta hunec bere merechimenduz haren [bertzearen] calte guziac erreparatu ditic* (7); *Yair yohan zelaric beraz Jesusequin bere etcherat, bere ustez eta nahiz bere alaba maitiaren sendotzera, bidian erran zacoteyan ya haren alaba maitia hil zela* (82).

Hona hemen Linschmann-Aresti legea hausten duen pasarte bakanetakoa: *Zeren hari egundaino ez ikhusi, ez ezagutu gabe, phenxatu eta hasmatu zaingon haren bizico eguintza guziac* (41).

- c) Gainerateko kasuetan legea ez da gehiago betetzen. Singularreko 2. pertsonan *hire* hedatu da: *hire Yaincua baxharriac adoratu eta zerbitzaturen duc* (27); *aurthiac hire burua hemendic beheiti* (27); *Habil, hire sinhestiac sendotu hi*

(138). Hona *heure* forma indartuak testu osoan duen agerraldi bakarra: *Hic, Jesus Christoren eguiazco soldado fidel eta leyal bezala, hic ere guisa berian artha hartu behar duc, heure nagusiaren biziaz bezala, haren beraren heriuaz ere* (192).

- d) Pluraleko 1. pertsonan *gure* da lekukozen den posesibo bakarra. Ondoko etsenpluek erakusten dute nola forma neutroak indartuaren eremua bereganatu baitu: *Goazin beraz orai gure sail hasira* (79); *Yauna, nahi duzu espatetan gure escuiac eman ditzagun zure defendatzeco?* (177); *gure ahalez esquerrac bihur diotzagun* (192).
- e) Orobat gertatzen da pluraleko 2. pertsonarekin: *Yaquin ezazu zure cusia Elisabethec ere conzebitu duiela seme bat* (5); *Ohora nazazu zure arthaz* (62); *Ez duzu, yauna, ogui garbia erein zure landan?* (73).

Laburpen gisa aurkezten den taulatto honetan ikus daiteke Linschmann-Aresti legea non dagoen indarrean:⁸⁷

	Singular			Plural		
	1. p.	2. p.	3. p.	1. p.	2. p.	3. p.
Etxepare	X	X	X	-	-	X
Leizarraga	X	X	X	-	-	X
Tartas	X	X	X	-	-	X
Axular	X	X	X	X	X	X
Etxeberri Z.	X	X	X	X	X	X
Harizmendi	X	X	X	x	x	X
Argaignarats	X	X	X	x	x	X
Geroko naf.-lap.	-	-	X	-	-	X
<i>K&B</i>	X	-	X	-	-	X

2.5.9. Adlatibo + laguntzaile

Euskara zaharrean posible zen mugimenduaren adieraztea sintagma adlatiboa aditz bilakaturik; gogora bedi sintagma adlatiboen lexikalizazioak mugimenduzko aditzak sortu dituela, *-tu* atzizkiarekin nahiz gabe: *atera, etxeratu...* Aski ezaguna den testu arkaiko batean honakoa irakurtzen dugu: *Lasturrera bear dozu, Milia*

⁸⁷ Sarasola (1978) hartu dugu abiapuntu, 3. pertsonari dagozkion datuak emendatuz. Azken herronkan, *Kadet eta Bettiriño*.

(“Milia Lasturco”, XV. mendea). *K&B*-n adibide zenbait hatzeman dugu: *Caparnauna zenian* ‘Kafarnaumera zihoanean’ (114); *Etchera denian* ‘etxera doanean’ (116).

Ondoko adibidea ere *-ra izan* moldekoa dateke, baina *hurbildu(xe)* tartekazen da. Hortaz, normalena liteke *hurbildu* aditza dela pentsatzea eta, beraz, mugimendua burutua dela; modu diferent batean ulertuz *hurbilduxe* hemen ez liteke partizipioa, adjektiboa baizik. Testuinguruak interpretabide honen azkartzera datorke: *Bethamara hurbil-duche zenian aditu zian nola Lazaro hilt zen, eta bazuiela ya laur gau egun ehortzia zela. Marthac, zeren aditu zuien Jesus harat hurbiltzen* ARI *zela, yoa zangoyan bidera* (147).

2.5.10. Konpletiboa ezezko aginteran

Iparraldeko euskaran bada joera bat konpletiboaren markaren eransteko inperatiboa ezezko denean.⁸⁸ Horrelakoak dira gure testuan ere dokumentatu ezezko inperatiboak:⁸⁹ *Etzitela izit, Maria* (3); *Ez haila hola samur, Bettiriño* (56); *Ez hadila presatuegui eta golaxegui izan* (95).

Hau, beharbada, subjunktiboa + *-ela* baliatuz eratzen diren forma jusiboekiko analogia azal liteke (*ez dadila etor*). Nolanahi ere den, fenomenoak ikertzekoa da.

2.5.11. -a galdera morfema

Bailez moldeko galderetan *-a* partikula erants dakioke adizkiari, erdialdeko euskalki batzuetan *al* partikula tartekatzen den bezala:

- *Mutikoa etorri al da?* (Erdialdeko moldean)
- *Mutikoa etorri dea?* (Ekialdeko markarekin)

Egungo Lapurdin Itsasutik ekialdera baliatzen da morfema hau. Gure testuan aise lekukotu dugu, erabilera sistematikoa ez dela erran behar badugu ere. Galto absolutu —*bailez*— guziak iruzkindu ondoren datu hauek eskain ditzakegu:

- Galdera absolutu guztien soilik %17ak du *-a* marka, erran nahi baita %80 baino gehiagok ez duela hartzen posible delarik.

⁸⁸ Bigarren pertsonako formez ari gara hemen, ezen hirugarren pertsonarentzat (*b-* markadunez apart, jakina) ohikoa eta komuna da *-(e)la* eranstea, subjunktibotik abiatzen baita usuenik. Kasu hauetan baiezko ala ezezko testuinguruak ez du inport: *joan dadila / ez daila joan*. Deskribatzen dugun fenomenoak anitzez murriztago da, beraz.

⁸⁹ **Edin* eta **ezan* laguntzaileak garbi agertzen diren perpausez ari naiz. Ez ahantz badirela beste moduak aginteraren ezezkoan emaiteko, horietako bat, maila semantikoan bederen, *begira ukan* aditzaren forma trinkoena da: *Berautzui trompa, berautzui enguena!* (106).

- Galto markaz ageri diren adizkiak oro (*duca, badaquica, hiza, daya, duzuia*) singularrekoak dira, beste multzoan ere kausi daitezkeelarik (*duc, badaquic, hiz, da, duzu*).
- Marka gabe baizik ez diren adizkien artean aipatzekoa da *duzuie*, zeren zortzi agerraldirekin ez baitateke kasualitate huts beti *-a* morfema gabe izatea; gako fonologian datzake: *duzua > duzuia, duzue > duzuie* bilakaera hedatuak diren heinean, *duzuie + a > *duzuieia* bezalako forma egongaitza espero liteke.

Galdera morfemarekin ala gabe, ezar genezakeen banaketa (singular vs. plural) ez da guztiz egiazkoa, zeren, ikusi dugun moduan, *-a* onartzen dutenak *-a* gabe ere azaldu baitira. Maila teoriko batean bi esplikabide dakusagu:⁹⁰

- 1) Ezaugarria fase errezesiboan lekukotu dukegu, *-a* marka soilik maiztasun handieneko adizkiei lotzen zaielarik.
- 2) Ezaugarria hedatze fase batean dagoke, hortaz arazo fonologikoak sorraraz litzaketen adizkiak (oraindik) baztertzen lirateke.

Beharbada hobe da irakurtzaileak juja dezan bere begiez, horretarako *-a* morfemadun galto guztiak bidu ditugu:

- *Uste duca galde suerte guzien arraphostuac eman ere badizaqueyadala?* (9)
- *Badaquica berri haundi bat Nathanael?* (33)
- *Bethico ukharen duca, Bettiriño?* (63)
- *Zer dioc orai, Bettiriño, content hiza ala ez?* (79)
- *eta possible daya⁹¹ hi hec baino atrebituago izaren hitzala?* (115)
- *Ez daya eguia, eta ezin ukhatuzcua, zuien lehenbizico urhaxac izan direla, haur dohacabe hau bezala, zuien Aita onaren ganic urruntzia?* (125)
- *Possible daya ez duzuiela seguituco, bere desordretan bezala, bere prudenzian?* (127)
- *Bainan ez daya izquiriatua, eta errana, zuiec ere yainco batzu zirete —zioc Jesus Christoc—, Yaincuac yaincozat qualificatzen dituien guizonac yainco badire?* (146)
- *Eta yauna, dudatzen duzuia ez dudala hunen hiltzia eta heriua ere atxein eta plazer haundirequin ikhusi, ikhasi, eta behar bada seguitu ere nahi?* (159)
- *Posible daya zeruan aingueru zerafinez ikharan laudatua, ohoratua eta adoratua zinen demboran, izaren zinen ez choilqui erromano ohoretxu bat bezala ere, bainan esclabo apha desohora garri bat bezala tratatua?* (182)

⁹⁰ Gure ustez ezaugarri honen bilakabide historikoa ikertzekoa da.

⁹¹ *-a* galdera morfema baliatzen dutenen artean *dea* nagusitzen da, diferentzia handirekin. Etxeberrri Sarakoak euskal hizkeren bereizteko markatzaile gisa hautatu zuen *daia* forma: *Bada oraino Eskualdunen artean bertze mintzaira diferent bat, zeinetan, mintzo baitira herri batzuetan hitzei letrak berretuz, eta berriz bertze batzuetan letrak ganbiatuz: hala nola Andreia, Buruia, Diruia, ethorri daia?* (*Eskuararen hatsapenak*, 3. galdea).

Bil ditzagun orai zenbait kontraetsenplu:

- *Etzirete hemen abalgue gorritan yarriren, nescacha gaztiac?* (3)
- *Orai contez hiz Bettiriño?* (9)
- *Bainan badaquic zer guertatzen ohi den?* (55)
- *“Ez duzu, yauna, ogui garbia erein zure landan?”* (73)
- *Ez hiz content oraico alditto huntaco?* (76)
- *Uste duc Yaincuac niri zabaldu dautala bere segueretuen bortha itzatu hura?* (79)
- *Ez da hunen ama Maria deitzen?* (83)
- *parabola hau utziric aitzina yoan nahi zaizquit?* (139)
- *Oh lurra, oh lurra! Ez hiz hire Creatzailliaren fagore alchatzen? Idequiriric, urratu-
turic, arroilduric; ez duc mamu ifernutar hau biziric iretxico?* (172)
- *Ez duzuie ikhusten berac bere buruia condemnatu duiela, bere buruia eguiazco
Yaincuaren seme eguinez?* (189)

2.5.12. Zenbait aditzen jokadura eta errejimen zaharraz

Ezaguna da zenbait aditzen jokatzeko modua aldatuz joan dela azken mendee-
tan. Horietakoa da *nahi izan* aditzarena, iragangaitz izatetik iragankorrera kan-
biatu dena; *nahi zirete* bezalako joskerak orokorrak izan dira euskal herrietan. Cf.
nahi daquiçula (Lazarraga, 12r). Zenbaitetan fosildua heldu zaigu erabilera zaha-
rra: *erran nahi da* (77). Ikus ditzagun gure testuaren aipuak: *Zeruco izarrac baino
gorago igan nahi zirete?* (3); *Hortacotz bere baimena eta consentimendua eman baino
lehen, segurtatua izan nahi da bere garbitasunaz* (4); *Eta bat bederen azaldu gabe
yoan nahi zaizquit aitzina?* (115); *Parabola hau utziric aitzina yoan nahi zaizquit?*
(139).

Guztiarekin ere, *nahi* aditza bere mendekoarenaren arabera izaten ahal da ira-
gangaitz ala iragankor (*joan nahi naiz* vs. *egin nahi dut*). Izan ere, badira iragan-
kortasunaren indartzearen zantzu argiak: *Eta niri azaldu gabe utzi nahi zinituien
[parabola hoc]?* (72); *Yauna, nahi baduzu yoanen guirade igaracaren errotic athe-
ratzera* (73). Bai eta ere erabilera zahararen kontrako adibiderik ere: *Zeruco izarrac
baino gorago igan nahi zutela* (140).

Aztertzekoa da, halaber, *zerbitzatu* aditzaren errejimen eta jokadura. Ekialdeko
tradizioan lehen testuetarik lekukotzen da laguntzaile iragankor bipertsonal batez
(ap. OEH). Gure testuan: *Hire Yaincua bakharric adoratu eta zerbitzaturen duc*
(27); *gostu haundirequin zerbitzaturen hit* (69).

Laguntzaile iragangaitzez eta instrumentaleko osagarritz ere hatzematzen dugu,
Iparraldean XIX. mende artio gertatu den bezala: *Zuien exemplu eta modela zerbit-
zatu behar lizatequeyen hama hirur urthetaco nescachatto huntaz* (2); *nor ere [...]
harmez zerbitzatuco baitzen* (178).

Edo laguntzaile iragangaitz hutsez: *Yainco batentzat ezditaque zerbitza sabel viryina bat baizin* (4); *Emaiten deraut-zuiet, zerbitza nadin dembora berian yan-hari eta bictima* (168).

Edo datibozko osagarriz: *Zeren hari bere urustasuna bere heinetic gorago igan nahi izaiteco zerbitzatu izan zangon bezala, huni zerbitzatu baitzaco bere buruiaren ezdeusteco* (7); *justiziazco eguzquiaren erreynuac etzaiztec zerbitzatzten, isthilaren guisa, guehiago gogortzeco eta itxutzeco baizic* (178); *zeinequin zerbitzaturen baitzaut ordenuzat heriuan borthan naizelacotz* (169).

Ohart gaitezen, azkenik, zenbait aditzek agertzen duten errejimenaz: *Jesusec, zeren zen abitua eta egarritua, escatu zacoyan emac ume huni edatera* (40); *solizitatu ziteyan Jesus yatera* (41).

2.5.13. *Perpausen hedadura*

Orai arteko guztiarekin ere, lehen begi kolpuan *K&B*-ko euskararen sintaxian zerbait suertatu behar bazaigu deigarri, segur aski perpausen hedadura nabarmena izanen da. Gainera, izkirioaren puntuazio guztiz kaotikoak franko zailtzen ahal du testuaren behar bezala endelgatzea. Zenbaitetan gertatzen dira anakolutoak, egileak lerro luzeetan zehar idazten aritu den erranaldiari ilkibiderik emaiten ez balio bezala. Baina era berean harritzen gaitu idazle horrek erakutsi duen maisutasuna mintzaldi luze bezain konplexuen modu natural eta dotore batean adierazteko. Ataltto honetan tailu diferenteko adibide batzuen irakurraldia proposatu nahi dugu. Ondoko pasartean markatuak diren bi elementuen arteko guztia bokatibo hutsa da:

ZUIEC, zuien hitz solas ascotan funx gabez eta guehiaguetan escandalosez —ez figuretan, yudu itxu hequiec bezala, bainan errealitatian— asqui ez den othoitz-ezco etche sacratuaren profanatzia, orainic eguiazco guiristuac, bere debozione gartxuan trublatzen eta nahasten dituzuenac, USTE DUZUIE aldariaren gainian yarria dagon bildoch amulchuen hori begui gabia dela? (35-36).

Oraiko honetan, kortxete artean, erlatibo kanoniko luze bat irakurtzen da:

Bainan Salbatzaille zerutar hunec, zeinarent-zat bethi iragana eta ethor-quizuna bardin present baitziren, proposatu zayeyan [ehun ardi zituen eta hotaric bat galduric, laur hogoy eta hemeretziac utziric, ardi errebelatu hunen onduan yoanic, hazemanic, bere bizcarrian etcherat ekharriric, eta guero hunen bozcarioz, phesta eder bat bere adichquidequin eguin zuien] artzainaren parabola (114).

Zenbaitetan konplexutasun sintaktikoa muturrekoa izan daiteke:

Guisa berian, christau urgulutxu eta bere penitentzia achalezcuez espantu eguiter a yiten diren, eta bere osáasuna ardietxi beharrían bere gaitz auhengarria emendatzen dutenac significatzen dituen farisayua urguluac condemnatu zian (144).

* Interpretabidea. Erlatibo bikoitza eskuin, non bietarik lehena mugatzailerik gabe baitoa; hori guztia beste erlatibo baten pean: [[*christau urgulutxu eta bere penitentzia achalezcuez espantu eguiter a yiten diren, eta bere osáasuna ardietxi beharrían bere gaitz auhengarria emendatzen dutenac*] significatzen dituen farisayua] URGULUAC condemnatu zian. Erranaldi honen perpaus menderatzailea, beraz: *farisayua urguluac condemnatu zian*, non *urguluac* subjektu baita.

Kakots artean emaiten diren Jesu Kristoren hitzek arazo bat zerratzen dute:

Erran zayean, beraz, justiziazco eguzqui distirant harc —Jesus Christoc— orainic: “Zeruco Erresumac iduri du mustarda hazia, zeinac hazi guzietan den ttipiena delaric berenaz bertze belhar eltzetar guziac baino gorago igaiten eta hain aldaca haundiac ekhartzen baititu, nun aireco choriac heyen gainian phausatzen baitire” (77-78).

* Interpretabidea. Bi egitura gainjartzen dira:

- 1) *Zeruco Erresumac iduri du mustarda hazia, zeinac hazi guzietan den ttipiena delaric berenaz bertze belhar eltzetar guziac baino gorago igaiten [baita] eta aldaca haundiac ekhartzen baititu,*
- 2) *hain aldaca haundiac ekhartzen ditu nun aireco choriac heyen gainian phausatzen baitire.*

Dena ez baita korapilatsu eta iluna izanen, proposa dezagun pasarte distirant eta garden bat. Baliabide erretorikoz josia da,⁹² estilistikoki aberatsa: zerrenda eta gradazioen bidez heltzen da klimaxera; ondoren latinozko aipua baliatzen da kadentzia bezala:

Huna beraz, Bettiriño, nun dugun sainduien sainduia, erreguen erreguia, puyantzia, autoritate, podore, indar eta ahal guzien ithurburua; ez guizonez, bainan bai aingueru zerafinez nagusi bezala obedituia, erregue bezala gorthecatua, yainco bezala ohoratuia, laudatuia, maithatuia, eta ikhara daldaretan adoratuia, herioric cruelennera eta desohoragarrienera condemnatuia: Deus est mortis (190).

⁹² *Kadet eta Bettiriño*ko alderdi estilistikoak ikerketa saio bat merezi luke, lan honi mugak ezarri nahian erretorikaren azterketari uko egin baitiot.

2.6. Lexikoa

2.6.1. Maileguak, neologismoak eta hapax legomena

Erran bezala, *K&B*-k dituen interesguneetako bat hiztegiarena da. Eranskin moduan eskaintzen dugun hiztegian hitz guztiak zerrendatzen dira: 5340 forma diferent 2290 sarreretan emanak. Hor denetik dukegu: lexiko anitza, batzuetan jaso bezain bestetan herrikoia, non egileak, zernahi gisaz, termino berrien sorzeko bere hizkuntza sena agertzen baitu, honako prozedurei jarraikiz: mailegutza, eratorbidea eta neologia.

Mailegutza. Hitz mailegatuak ugariak dira, latinetik (*bene-causa*), frantsesetik (*aflixant, ebien, friperies, mervellez, opeator, effort*), gaskoinetik (*adret*) zein espainoletik hartuak. Nabarmentzekoak iduri zaizkigu azkenak, ezen horietako anitz beharrik gabekoak izanki, bide emaiten digute pentsatzeko egileak harreman sakonak izan zituela ez jadanik Hegoaldeko euskaldunekin, baizik Ebro ibaiaz haratagoko jendeekin ere; ez bedi ahantz, gainera, Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza* erabiltzen ahal izateko behar-beharrezkoa zela gaztelaniaren ezagutza egokia. Gaztelaniatikako maileguen artean *benthakha, khenero, sentido, enfadatu* edo *lindo* bezalako hitzak edireiten ditugu, maiz euskal ordain edo mailegu errotuago baten ondoan aipatuak: *benthakhetan eta abantailetan bezala* (129). Hau prozedura erretorikotzat har genezake, argi baita egileak hitz mailegatu horien euskal ordainak ezagutzen dituela eta baliatzen; gehiago iduri luke binomio eta trinomioen eratzeko jotzen duela hiztegiatarra eta, beraz, mailegatzerara.

Bestenaz *eratorbidea* da gure egileak gehien baliatzen duen prozedura hitz berrien kreaktzeko. Garrantzia handikoa baita, atalito berezi bat paratu dugu haren berri emateko (“Erorpena”, beheitixeago). Usuen kausitzen ditugun atzizkiak, beharbada, *-tasun, -mendu* eta *-garri* dira, baina ez da *-pen, -khoi, -liar* edo *-kiro* bezalakorik falta, eta are atzizkien metatzeak: *-garriki* edo prozedura berriei zor zaizkien atzizki berriak, *-ez* bezala.

Hapax legomena. Hitz lekukotu gabeak direnez bezanbatean, proportzio masiboan ez bada ere, baditu gure testuak adibide interesgarriak:

- Hapax legomena: *baineta* ‘diferentzia’ (170), *janthorontze* ‘banket’ (165), *karrotutsu* (? 183), *atsegin beltz* ‘hipokrisia’ (189), *phiko sagar* ‘piku berde’ (153), *bertero* ‘bereter (emazte)’ (195).
- Hiztegietatik hartuak, baina sekulan erabili gabeak: *ezagutuez* ‘ezezagun’ (126), *geiruditu* (183) ‘plantazko’, *humanta* ‘heroi’ (6).
- Aldaera lekukotu gabeak: *afrontu* → *afronto* (183), *batheiu, bateo...* → *batheu* (38), *giristino, khiristi* → *giristu* (36), *kanaila* → *kañale* (190).

2.6.2. Hiztegi Hirukoitzaren eragina

(Ikus “Larramendiren kultur proiektuaren itzala Iparraldean”).

Neologiari lotuz, baina ez bakarrik, nabarmentzekoa da Larramendiren *Diccionario Trilingüe*-ko (1745) formen presentzia, oso ugaria ez bada ere, klarki erakusten baitigu *Hiztegi Hirukoitza*-ren ezagutza Iparraldeko lurretan, eta ez soilik Josef Egiategi batengan, baina baita xede didaktiko dukeen erlijionearen gaineko testu batean. Jesuitaren eraginaz aitzinsolasean aritu baikin, ordu luke materian sar gintezen, hitz konkretuak ekarriz (izarño batez markatu hitzak ez dira *OEH*-n bildu):

*ABRILDU “inmolar, matar en sacrificio alguna res”. *OEH*-n ez dago. Hervás y Pandurok⁹³ *apirila*-rekin lotzen du: “Si suponemos que el nombre *apirilla* proviene de *abrildu*, “inmolar”, se debe conjeturar que el nombre *opea* aludía a los bollos o panecillos regalados que servían de ofrendas en casamientos o sacrificios. En bascuence se dice *abrildu*, “inmolar, matar algunas reses en sacrificio”; *abrildea*, “inmolación”; *abrildaria*, “inmolador”. Van Eys-ek honela jasotzen du bere hiztegiaren: “*abrildu* — gip. ‘inmoler’ *aber* + *il* + *du*. “[...] un de très rares qui aient rapport à un culte quelconque.” Zytsar-ek ere jasotzen du:⁹⁴ “El vasco *abrildu* ‘sacrificar’ considerado compuesto de *abere* ‘animal’ e *ildu* ‘matar’ puede en realidad contener un **abere* ‘oveja”.

Iduriz soilik Serafin Baroja gipuzkoarrak (1840-1912) erabili du hitz hau, *Prudente* operan (1878): *Biak hemen abriildutzeko desioak daukazkit nik*. Gure egileak behin baino gehiagotan baliatzen du, aditz arazle gisa ere (*ABRILARAZI):

- *bictima hoben gabe hau abriildu baino lehen* (199).
- *Orai ofreitzen eta abriiltzen dut zuientzat nore bizia ogui pochi hunen etchuraren azpian* (168).
- *ya bictima balios hunen abriiltzeco dembora tristia ethorri duc!* (172).
- *hainbertze amen haur maite abriilarazi izan ditic* (19).

ASMEQUI ← ASMEGUI “Profecía, etorquizunen asmeguia, profezid”. Manuel Antonio Antia gipuzkoarrak (1830-1894) baliatu zuen hitz hau, *San Frantzisko Asis-*

⁹³ Hervás y Panduro, L., 1808, *División primitiva del tiempo entre los bascongados usada aún por ellos* [A. Astorganok paratu edizio elektronikoa, 2008. Alicante: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes].

⁹⁴ Zytsar, Y, 1984, “Reconstrucciones en el dominio del culto a la luna y a las ánimas (para la etimología del vasco *argizagi*)”, *Euskera* 29, 731-737.

koaren bizitza lanean (1901ean argitaratua): *gogoraerazitzen zien lenago aitatu degun Asisko agurearen asmegia* (1. bereziera) *mugida aundia egiñ zien asmegi edo profezi batekiñ* (13. bereziera). Gainera, Lizarraga Elkanokoak *asmegitatu* lekukotzen du, eta Etxegaraik *asmegitari*. Gure testuan: *hemen osatuia izan duc Zachariasen asmequia edo profezia* (205).

BIHOTZTAR “Cordial”: *Eguintza noble, yeneros eta bihotzta hau* (64); *emaiten zayelaric den amodioric bihotzta, gartxu eta leyalenaren marca bat* (161).

BILLAQUIEITU ← BILLAQUINDU “Escudriñar, inquirir, pesquisar” / BILLAQUINDETU “Averiguar, escudriñar”. Agerraldi bakarra *K&B*-n: *Haren beraren heriuaz ere billaquieitzen edo chehequi iformatzen hiz-alaric* (192).

COTIZA “Tributo”. Corpus Arakatzailaren emaitzen arabera, J. A. Uriarte bizkaitarrak baizik ez duke erabili. *K&B*-n lau aldiz lekukotzen dugu. Etsenplu bat: *erran zacoyan etzela hura obligatua, Yaincuaren seme bezala, cotiza haren pagatzera* (104).

DESOGOBITU ← DESEGOBITU “Determinar, lo que está indiferente”. Iztuetak erabili zuen: *Beakarririk gabe eta ez gogarta desegobiturik igarotzen dituzte tristekiro orduak* (*Gipuzkoako dantzak*, 149). Gure testuaren adibide bakarra: *yadanic preventuac, disosatuiac, preparatuiac eta desogobituiac edo determinatuiac ziren cañale hequientzat* (190).

DONEGARRI ← DONEKARRI “Venerable”; gure testuan gehiago litzateke izena,⁹⁵ ‘veneración, respeto’: *zeinarentzat bethi baitzuien donegarriric edo errespecturic haundiena* (187).

ELGARDUN ← ELKARDUN “Recíproco”. *Baquezco eta caritatezco amodio elgardun hoyen baithan* (172).

ESANGUIA “Adagio, axioma”. Gure idazleak *-a* organikoz erabiltzen du: *esanguia edo maxima gaichto caltecor batzu erein zituela* (180). Seinala bedi *esan* erroa errespetatu duela, bere hizkerara moldatu gabe.

*EZAGUTUEZ “Desconocido”. *Ah amodio zuhurra, eta oraico mende dohacabetan ezagutueza!* (126).

*GAINDADI Larramendik *garaiuste* zein *gaindadi* ematen ditu *mysterio*-ren euskal ordaintzat. Badakigu Antiak baliatu zuela, *San Frantzisko Asiskoaren bizitza lanean: Konbentu au, Danteren izkribua eta Loretxoak dira Kristiandade gaindadi edo misterioaren obra nagusia* (19. bereziera); bai eta Lizarraga Elkanokoak: *Deitzendá mystério, naibaitu errán secréto gaindadi bárna góra* (*Urteco igande*, 146v).

⁹⁵ Gogora bedi *-garri* atzizkiak izenkiak ere sor ditzakeela. Cf. *ikhus garri* (18, 81), *ikhus-garria* (11).

Gure testuan bederatzi agerralditan edireiten da. Bihoaz bi etsenplu: *Explicitzen nauc, nahiz hoc oro misterio edo ezin endelgatuzco gaindadi batzu diraden* (10); *Gaindadia denaz gueroz ezdiogu nihorc ere deusic endelga: bertzenaz ezli-zateque gaindadi bat* (10).

GAUZEZ OEH-ren informazioa (GAUZAEZ sarreran): “Inútil (referido a cosas o personas); despreciable, ínfimo, sin importancia (Lar, Añ, Dv, H). Documentado sólo al Sur, con mayor frecuencia entre los autores vizacínos”. Ikus GAUZEZQUI.

K&B-n aski ongi lekukotzen dugu: *Bi effort eta yauzi gauzez hoquien onduan* (27); *nola da possible, yauna, guizon gauzez batec ur hotza eta garbia arnorat itzularaz dezan?* (37); *Ukharen duc orainic dembora frango galde gauzezen eguiteco* (100); *ema char batzuien guisa ttar ttar, solas molas gauzezetan egon gabe* (186).

*GAUZEZQUI ← GAUZEZQUIRO “Inútilmente” (Lar → H). *Gauzez* Larramendiren hiztegia badateke ere, egileak bere moldera eratoritzen du: *gauzezqui* eta ez *gauzezquiro*: *arraxian baster guzietan gauzezqui chercatu onduan* (21).

*GRINAITU “Exigir”. Orain arteko lekukotasun bakarra Iztueta gipuzkoarrarena zen: *Erri beraren sakabanatasunak ez grinaitzen ta ez zillegitzen du suertez ere* (1824). Hona gure testuarena: *yanthorontze edo banquet sacratuen harc zonbat garbitasun grinaitzen zuen* (165).

*GUEIRUDITU “Afectado” (Larramendi). Hitz hau ez da, guk dakigula, beste inon lekukotu. Ohart bedi idazleak ez duela Larramendiren forma egokitu: ez *h*-ari doakionean, ez eta erroari berari ere, *irudi* bakarra baita testuan; bestenaz *guediduritu* igurika genezake (cf. *esanguia* eta *loiguille*). *Harturic beraz etchura serios, eta autoritatezco aire gueiruditu bat* (186).

HASMAZAILLE ← ASMATZALLEA “Adivino”, “agorero”. *Hiztegi Hirukoitz*-ean PROFETA sarreran *asmeguitaria* proposatzen den arren, gure idazleak beste hitz bat aukeratzen du euskal ordain gisa: *Erraiten zuielaric profetac edo hasmazailliac choilqui, ohoreric gabe, bere herrietan edo hirietan zirela* (83). Ohar bedi Larramendiren forma *h* batez hornitzen dela, ASMEQUI hitza ez bezala: *hasmatu* → *hasmazaille, hasmapen* (79)... baina *asmequi* (205), ez dukeelako lotura etimologikorik egin.

*HOMANTA ← HUMANTA “héore, hombre famoso, de inmortal fama”. Iztuetak lekukotzen du: *bere indar guztiakin eraso zeban humanta Euskaldunaren kontra* (*Gipuzkoako probintziaren kondaira*, 24. kap). *K&B*-n: *Istantian ezaguturen duc ama viryina izan dela creatura guzietan den emac umeric heroico edo homantena*. (6).

IRASENDA “Contraveneno, antídoto”. Orai artio José Cruz Echeverria gipuzkoarrrak (1773-1853) baizik ez zuen lekukotzen. Gure testuan bi agerraldi du: *Je-*

susec, eritasun suerte guzien irasenda ahalxu hunec (43); *irasenda urricalmenduxu hunec istantian sendotu zuian* (112). Gainera, iduri luke egileak hitz hau berriinterpretatzen duela, forma berri bat emanez: ERISENDA (*eri + senda*): *erremedio eta erisendaric hoberena phozoinic gaichtuenera itzul arazi du* (142).

IZAIRA “Realidad, existencia” (Larramendi), ‘natura, unibertso’ zentzuan: *Iduri dic ya izaira guzia hunen contra alchatu dela* (172). Cf. *Izaira zegoen ornitua udaberriko galakiñ* (Antia, 9. bereziera); *ükhaitü düütüdala izairak eman dereiz-tadan abantaillak* (Egiategi, “Berthüdiáz”).

LEGARDA “Antídoto”, “preservación”, “preservativo”. Corpus Arakatzaillearen arabera, José Cruz Echeverria gipuzkoarrak nahiz Lizarraga Elkanokoak erabili dute. *K&B*-n: *eritasun guzien legarda poderoxu hura* (52); *eguiazco legarda den phozoinic lanyerosenera itzularazi zian* (144).

LOIGUILLE “Alfaharero”. *Zoinec jaunaren ordenez erosi baitzuuen funtz loiguille bat* (205). Marka bedi egileak ez duela hitz hau bere hizkerara egokitu (*lohiguille*). Cf. *asmequia* (205), *esanguia* (180), *gueiruditu* (186).

MARRA “Nota, marca, señal”. Adiera honetan bi adibide ditugu testuan: *testament edo ordenu zaharreco figura eta profezia guzien objet principala eta marra* (1); *proposatu zaiztean parabola batzu, zeinen marra eta churia baitzen heyen irazar-rriric, adretic, eta bethi erneric iduquitzia* (157).

MINIZTATU “Reprehender”. *Miniztatzen edo mehachatzen zituelaric bere malezia eta hypocrisia nabarraz* (198). Cf. *miniztatu edo reprenditu ere zuen gogorkiro* (Iztueta, *Gipuzkoako dantzak*, 2. zatia).

ODOLGUIRO “Cruel”, “feroz”, “fiero”, “sanguinario”. *Badihac beraz Judas Iscariotez, ohoin abarazios hura, judu odolquiro hetara haren esclabo izan baliz bezala* (172).

SICLO “Moneda antigua de los Hebreos, era de plata, de peso de media onza”. Korpus Arakatzaillearen emaitzak honakoak dira: Kardaberaz, Mogel, Uriarte, Duvoisin eta Lardizabal. Gure testuan: *hazeman zuian arrain eder bat zeinac bere mihiaren gainian baitzuuen siclo edo stater bat* (105).

Zerrendatu ditugun hitz guztiak ez dira ber tailukoak: kasu batzuetan, Larramendik irazan formak haien jatorrizko itxuran ditugu paperean: *gaindadi, legarda, abrildu...* Bestetan gure idazlea haratago doa, jesuitaren formak bere eginez:

- a) eratorpeneko prozeduren pean jarriz (*abrildu > abrilarazi; gauzez > gauzezqui*).
- b) nolabaiteko aldaketa fonetikotik pasaraziz (*desegobitu > desogobitu; elkardun > elgardun*).
- c) *Hiztegi Hirukoitzeko* formen berranalizatuz ere (*irasenda → erisenda; donekarri > donegarri*).

Ifrentzuan, zenbait formek salatzen digute idazleak *Diccionario Trilingüe*-ko proposamenak ez dituela egokitu, beharbada ez dukeelakotz haien etimologia susmatu hiztegiara jo duelarik ordain xerka. Horrelako zerbait hatzematen da *gueiruditu* “afectado” forman, ezen esperokoa litzateke *guehiduritu* bezalako egokitzapen baten emaitza, edo *asmequia* “profecía” eta *loiguille* “alfaharero” (205) hitzetan, posible diren *h* guztiak eskaintzen dituen hizkera batean *hasmequia* eta *lohiguille* igurika baikenitzake (cf. *hasmatu* (49), *hasmapena* (79), *lohi* (50)). Bestenaz, ikerketa lexikografiko sakonago bat behar liteke zenbait formen gibelean *Hiztegi Hirukoitza* dagoenetz ebazteko:

CATAMOTZ ‘tigre’ bezalakoan analizatzeko. Hitz hau, guk dakigula, Gipuzkoa eta Bizkaiaz landa soilik Egiategirengan lekukotu da. Iduri luke berriz ere jesuitaren hiztegiara jo dela ordain bila frantsesaren *tigre* (‘agressive, férocé’ pertsonen egokitzen zaielarik) itzultzeko. *Aingueruac gabaz abisatu zituien Herodes catamotz enbidiosaren chede malinuaz* (17); *Catamotz cruel hoyoc* (183).

GORROTGARRI “detestable”, ABORRECIBLE sarreran *gorrotagarria* ematen badu ere. Kasu honetan Larramendiren huts tipografiko baten hedakuntzaren aitzinean izan gintezke. *Urrun hadi eneganic, izpiritu faltxu eta guezurraren aita gorrotzgarria!* (28).

Finitzeko, badira zenbait hitz egileak Larramendiren sorkuntza baliabideak imitatuz kreatu dituzkeenak. Horrela, *ez* negazioa atzizki gisa baliatuz eratorri diren forma batzuen erdua Larramendik du emaiten: *gauzez, ezagutuez, oitez* etab. Ekar ditzadan batzuk:

BEHAR-EZECO ‘beharrik gabeko’: *Bekhatore convertitu eta penitent bakhar batec zeruian atxein eta bozcario guehiago causatu duuela, eziquetz laur hogoy eta heme-retzi justu penitentzia behar-ezequec* (117).

OHICOEZ ‘ezohiko’ (Larramendik *oiteza* proposatzen du). *Nola guerthaturen da gauza ohicoez hori?* (4); *argui ohicoez hunec irazartu zitian apostoluac* (101).

ONDICOEZ ‘irus, zorioneko’. Erro bezala *ondico* “infelicidad”, “desgracia” (Lar).⁹⁶ *Herodesec [...] yaquin zuenian berri ondiquezen hau, bilarazi zitian bere legueco guizon sabantac eta yaun aphezac* (14).

Bi dozena hitz, beharbada, ez dateke asko *Cadet eta Bettiri*-ren tamainako testu batentzat; baina guti izanik ere klarki erakusten da egileak bazekiela Larramendiren lanaren berri eta, gehiago dena, *Diccionario Trilingüe*-ra jotzen zuela euskarazko ordainen xerka. Honek guztiak hizkuntzarekiko nolabaiteko arrangura maila eskatzen, *grinaitzen* du.

⁹⁶ Argi dago erroa nafar-lapurteraren ondarekoa dela. Hona hemen Corpus Arakatzaillearen emaitzak: Axular, Etxeberri Ziburukoa, Pouvreau, Urte, Gazteluzar, Haraneder, Chourio, Duhalde, Duvoisin, Haramburu, Goyetche.

2.6.3. Eratorpena

Lehen adierazi dugun bezala, eratorpena da hitz berrien sortzeko baliabide nagusietako bat, mailegutza eta neologiarekin batean. *Grosso modo*, eta manera ia inpresionistan, erran daiteke euskal hizkuntzaren historian eratorpenaren garrantziak gora egin duela, euskara eratorbidera apenas jotzen ez zuen mintzaira izatetik aise deribatuzera igaran baita. Izan ere, atzizkien —eta hein ttipiago batean aurrizkien ere— erabileraren hedakuntza da euskara modernoaren ezaugarritzatzeko aipatzen diren elementuetako bat.⁹⁷

Atal honek xede zerrendatzailea du, zenbait ohar eginki. Atzizkiak eta aurrizkiak sor dezaketen kategoriaren arabera izanen dira hurrenkeratuak, ondoan tes-tuan hatzeman ditugun etsenpluak aipatuz. Izarño batez markatuek izaera baitezpadakoa dukete.

Atzizkiak

Izen sortzaileak⁹⁸

a) Izen abstraktuak

-TASUN, *aisetasun, amultsutasun, barnatasun, behartasun, bizitasun, buruzagitasun, dohatsutasun, edertasun, eritasun, ernetasun, eztitasun, gabetasun, garbitasun, gixixtinotasun, gizatasun, gizontasun, gogortasun, haunditasun, humiltasun, itsusitasun, itsutasun, ixiltasun, jakintasun, kuriostasun, lekhukotasun, linjotasun, nagusitasun, paretasun, promptasun, saindutasun, urustasun, ustegabetasun, zahartasun.*

*-TATE, *autoritate, banitate, birjinitate, borondate, errealitate, humilitate, ikhustate(dun),⁹⁹ kalamitate, kalitate, karitate, libertate, majestate, pietate.*

-EZIA, *malezia.*

*-TZIA, *dibortzia, diferentzia, indiferentzia, inozentzia, insolentzia, konplazentzia, konbenientzia, penitentzia, presentzia, prudentzia, pujantzia, sententzia, sustantzia, zirkonstantzia, zuhurtzia.¹⁰⁰*

-KERIA, *adulteria, deboxkeria, faltsakeria, gaixtakeria, lohikeria, nardakeria, zikhin-keria, zorakeria.*

⁹⁷ Horrela da Joseba Lakarrak euskaren historiarako egin periodizazio saioan (1997: 511-517).

⁹⁸ Ez dugu aditz izenen sortzeko baliatzen diren *-te /-tze* morfema aintzat hartuko.

⁹⁹ Hitz hau azpimarratzen dugu, hartaz landako guztiak erdaretarik mailegatu diren eleak baitira, izan latinetik (*-tas, -tatem*) ala frantsesetik (*-té*).

¹⁰⁰ Berriz ere salbuespen bakarra dugu euskal erro bati lotuz deribatu den hitzarena.

b) Egile izenak

-ARI, *dantzari, gidari, laborari, mandatari, salhatari, zerbitzari.*

-GIN / -gile, *gaixtagin, zurgin.*

-LE / -TZAILE, *egile, loigile, adoratzaile, akusatzaile, arrantzaile, burhotzaile, engentzaile, enkantatzaile, ereintzaile, gidatzaile,¹⁰¹ imitatzaile, mugitzaile, phikatzaile, profanatzaile, salbatzaile.*

c) Multzoak

-TI, *mahasti.*

-ERIA, *gazteria.*

d) Tresna edo baliabide

-GAILU, *edergailu.*

e) Emaidza

-GARRI,¹⁰² *donegarri, ikhusgarri.*

-KI, *asmeki, ethorki.*

-KIZUN, *ethorkizun.*

-KO, *beharriondoko, zaflako, eroriko.*

f) Lekua

-TEGI, *presondegia.*

g) Garaia

-TE, *gosete.*

h) Ekintza - ondorioa

-TZA, *egintza, egoitza, egortza, ezagutza, laguntza, ordaintza, surtza.*

-MEN / -PEN, *baimen, erospen, etxurapen, ethorpen, ethorkipen, gardapen, hasmapen, hastapen, idukipen, iduripen, iraupen, oharpen, orhoitzapen, solaspn.*

*-ZIO,¹⁰³ *mezprezio.*

¹⁰¹ Ohart bedi *gidari* nahiz *gidatzaile* agertzen direla.

¹⁰² Kasu gehientsuenetan adjektiboen sortzeko atzizkia izaten da, gero ikusiko den bezala.

¹⁰³ Guretzat zalantzazkoa da atzizki honen nortasuna, kausitu ditugun etsenplu guztiak maileguak bere hartan sartuak izanki: *sakrifizio, dibortzio...* *Mezprezio* formak, nonbait, hizkuntzaren baitako bilakaeren arabera araberakoago lidurike besteak baino.

- *-ZIONE,¹⁰⁴ *adorazione, atenzione, atzione, benedizione, damnazione, debozione, dedikazione, deliberazione, desesperazione, diskrezione, disposizione, errejenerazione, erresurrezione, humiliacione, indignacione, intentzione, jeneracione, kapitacione, konparacione, komunikacione, kondenaçione, letzione, multiplikacione, nazione, obligacione, perfezione, persekuzione, prekozione, presunçione, proposizione, purifikacione, tentacione, traizione, transfiguracione.*
- (D)URA, *arrangura, entseiura, hedadura.*
- KUNDE, *desirkunde.*
- ANTZA, *akabantza, primantza, frogantza, usantza.*
- ANTZIA, *fidantxia,*¹⁰⁵ *pujantzia.*
- MENDU, *azalmendu, barkhamendu, emendamendu, endelgamendu, errabimendu, esturdimendu, ezagunmendu, itsumendu, itzulmendu, jujamendu, khexamendu, kondenamendu, konsentimendu, konsolamendu, manamendu, mereximendu, moimendu, onhetsmendu, osamendu, pagamendu, phentsamendu, salbamendu, seindimendu, sufrimendu, tratamendu, ukhamendu, urrikalmendu, zerramendu, zoramendu.*

Izenondo sortzaileak

a) Kualitate baten posesioa

- TSU, *abaltsu, amarrutsu, amultsu, argitsu, balherotsu, banitatetsu, dohatsu, egarritsu, egiatsu, gartsu, karrotutsu, kurajotsu, lanprotsu, leprotsu, lilitsu, mirakulutsu, misterioticsu, ohoretsu, poderotsu, preziotsu, urgulutsu, urrikalmendutsu, xatsu.*
- OS / -US: *abantailos, abarazios, airos, balios, bekhatoros, biktorios, doloros, engenos, eskandalos, eskrupulos, furios, inbidios, jelos, jeneros, kuraios, kurios, lanjeros, lorios, majestuos, penos, prezios, probetxos, serios, supestizios; amurus, malurus, urgulus, urguluts, urus.*

Zenbait kasutan *-tsu* eta *-os* baliokideak direla guztiz, ondoko adibideek erakusten dutenez: *kurajotsu / kuraios; preziotsu / prezios; urgulutsu / urgulus*; ber maineran, *mirakulutsu, misterioticsu* adjektiboen pare *mirakulos, misterios* ere igurika genitzake.

¹⁰⁴ Ezaguna denez, *-zione* da euskarak latinaren *-tio, -tionis* hirugarren deklinamoldeko hainbat izenkiren mailegatzeke hautatu duen akabantza, jatorriz akusatiboarena: *-tionem*. Hortaz, kolokan jar daiteke euskal atzizki tasuna, hizkuntzaren baitako eratorpenerako ez baitateke baliatzen (gure testuan bederen).

¹⁰⁵ Afrikazio gunea mugitu arren (*tz > tx*) argi da hitz honen atzizkia *-antzia* dela. Maurice Harrietek *fidantxia* ematen du bere hiztegian. Cf. zub. *usantxa, esperantxa*, etab.

b) Jatorria¹⁰⁶

-(T)AR, *aitatar, bihotzatar, farisaiotar, feniziatar, galileatar, genasientar, herodiatar, ifernutar, israelatar, izpirituar, jainkotar, judeatar, kananeatar, kristautar, lurtar, mundutar, nazarentar, saduzeatar, zerutar.*

c) Joera, zaletasuna

-TI, *gezurti.*

-KHOI, *gezurkhai, itzalkoi, odolkhoi.*

-TIAR / -LIAR, *goiztiar, phestaliar.*

-KOR,¹⁰⁷ *egiakor, faltakor, galkor, hilkor, jeloskor, kaltekor, phasakor, sanjakor.*

d) Gaitasuna (pasibo nahiz aktiboa)¹⁰⁸

-GARRI,¹⁰⁹ *abominagarri, admiragarri, altxagarri, apreziagarri, aubengarri, barkhagarri, desohoragarri, erdiragarri, erremarkagarri, espantagarri, estonagarri, gaitzetsagarri, gogotzagarri, higungarri, ikharagarri, ikhusgarri, imitagarri, izigarri, lastimagarri, laudagarri, miragarri, miretsagarri, nardagarri, ohoragarri, okhaztagarri, onhetsagarri, osagarri, salbagarri.*

e) Jabegoa

-DUN, *elgardun, faltadun, hobendun, ikhustatedun, kutsudun, hots dun.*

f) Zerbaitekiko zailtasuna

-GAITZ, *eskergaitz, laxgaitz.*

¹⁰⁶ Honako izenondoak ez legozkioke jatorriari, ez bederen zentzu hertsia, geografiko batean: *aitatar, bihotzatar, izpirituar, jainkotar*. Gehienak lat. *-alis* (> esp. *-al*, fr. *-el*) tankerakotzat har genitzake: *izpirituar* ← *spirituek*; *aitatar* ← *paternel*. Adiera geografikoaz den bezenbatean, markatzekoa da atzizki honek ez duela *-ar* alomorfoa.

¹⁰⁷ Orhoit bedi B. Oyharçabalen artikulu bikaina: “*-Kor* atzizkiaz”, *Iker* 14 (I), P. Lafitteren sortzearen mendemuga; Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra, Gramatika gaiak, 357-384.

¹⁰⁸ Afera honi dagokionez, ikus X. Artiagoitiaren lan gogoangarria: “*-GARRI* atzizkiaren izaera bikoitzaz: zergatik den maitagarri bezain mingarria”, *ASJU* 29: 2, 355-405.

¹⁰⁹ Kasu batzuetan *-garri* atzizkiak izenkiak ere sortzen ditu: *donegarri* (187) ‘begirune, errespetu’, *ikhusgarri* ‘ikuskizun’ (11, 18, 81, 164).

g) Kualitate negatiboa

-EZ,¹¹⁰ *ezagutuez, gauzez, ohikoez, ondikoez.*

Aditzen sortzeko: *-tu*

Begi bistako arrazoinengatik ez dira *-tu* morfema erantsiz kreatu aditz guztiak zerrendatuko. Ekar ditzagun, aldiz, adierazgarri diratekeen zenbait adibide:

- *Izena + tu: bandatu* ‘banda batez estali’, *berduratu* ‘landareez apaindu’, *konpainiatu, mutindu.*
- *Adjektibo + tu: airostu, bidegabetu, faltadunagotu.*
- Mailegu baten egokitzapena: *fullatu* (< fr. *fouiller*).
- Ez da ahantzi behar *-tatu* moldekoak ere sortzen direla: *particularstatu.*

Adberbioen sortzeko

a) Modalak

-KI, *abantailoski, abondazki, admiragarriki, adreki, ageriki, alegeraki, aski, ausartki, borondatezki, ederki, egiazki, emeki, fermuki, funtski, gaizki, garbiki, garrazki, gauzezki, hobeki, humilki, justuki, klarki, komuzki, malaproposki, maleruski, nezarioki, osoki, partikulazki, preferableki, prezisoki, publikoki, segurki, tendreki, trankilki, xeheki, xoilki.*

-KIRO, *khondatukiro, ixilkiro, agertukiro.*

b) Balio instrumentala

-KA, *beharriondokoka, gurkhuska, harrapaka, ingurika, irhinzinaka, kherruka, lasterka, oihuka, tropaka, ukhaldika.*

c) ‘X-ren xerka’

-KETA, *lekhukoketa, perla preziosketa, urketa.*

Ttipigileak

a) Izen, adjektibo nahiz adberbioekin

-TTO, *alditto, aphurto, arranguratto, emekitto, etsenplutto, hitzto, latintto, neskatxatto, oharpentto, umetto, uzkurskotto, aitzinttua.*

¹¹⁰ Kasu honetan *ez* negazioa atzizki gisa erabilia dugu. Hau da Manuel Larramendiren eginmolde bat gure egileak bere egin duena. Hemen biltzen diren adibide guztiak, beraz, neologismoak dira.

b) Izenekin soilik

-SKA /-XKA, *phuska, untxiska, untzixka, arrainxka, bidexka, herrixka*.
-ÑO, *Bettiriño, galdeño*.

c) Adjektiboekin soilik

-SKO / -XKO, *gogorxko, uzkurskotto*.

Handigileak eta peioratiboak

Besterik ezean, aipa genezake *tzar, txar* adjektiboa ia atzizki gisa erabilia:

-(T)ZAR / -TXAR, *haur tzar, ematxar*.

Enfatikoak

Hemen badugu atzizki bat adberbio nahiz erakusleekin maiz agertzen dena:¹¹¹

-TXE / -XE, *oraintxe, halaxe, holaxe, hulaxe; hauxe, huraxe, boxe*.

Aurrizkiak

DES-, *deskantxatu, deskantxu, desenkusatu, desesperazione, desesperatu, desogobitu, desohoratu, desohoragarri, desohore, desordre, despeitu*.

*ERRE-, *errebenitu (< revenir), erreberitu*.¹¹²

EZ-, *ezdeustu, ezhoben*.

ONDORIOAK

- a) Izkribua anonimoa baita, funtsezkoa zen kokapen diatopiko nahiz diakroniko egoki baten egitea, eta horretarako hizkuntzaz barneko zein kanpoko argu-diotan oinarritu gara. Testuari dagokiokeen leku eta garai zehatza proposatzen dugu: XVIII. mende Erdiko Hazparne. Beraz, lapurtera eta behenafarreraren artean koka genezakeen ekialdeko Lapurdiko euskaren lekukotasunik zaharrena dateke.

¹¹¹ Ez ditugu hauekin batera aditz forma jokatugabeak, erranahiaren aldetik beste ñabar-durarik hartzen baitu *-xe* atzizkiak: *hurbilduxe, egitentxe*. Bigarren forma hau oso kasu berezia da, *guk dakigula -xe* atzizkia partizipioei bai, baina gerundioei ez bide zaielako eranstean.

¹¹² Badira beste hainbat *erre-*, baina ez dira aurrizkitzat hartu behar, zeren hitz mailegatuen *re-* erromantzeari protesia erantsi baizik ez baitute egiten; semantikoki ez dira euskaratik sortuak. Hemen eman ditudanak, beraz, salbuespen bakanak dira.

- b) Iraultza aintzineko Hazparne hartan bazen giro egoki bat euskarazko eskolatzeari lotutako genero didaktiko batean zirkunskriba litezkeen lanen sortzeko; izan ere 1738tik 1789ra bitartean existitu zen erakunde batean kokatu dut *Kadet eta Bettiriño*: Hazparneko Erretreta Etxea, neska gazteen-dako hezkuntza etxe bezala irekia. Daguerre abatea, Dominique d'Etcheverry anderea eta Diharce d'Alçuyet familia lotuak dira *Maison de Retraite* haren sorreran, garaiko Lapurdin abiatu zen proiektu erlijioso eta kulturaren osatzera etorri zena: Larresoroko apezgaitegia (1733) eta Daguerre abatearen egortzak (1732tik aitzina).
- c) Gratien Diharce d'Alçuyet, nolabaiteko ospea lortu zuen misionest hazpandarra eta Erretreta Etxeko lehen apez omonierra († 1781) seinalatzen dugu egile posible bezala, Guilhem Hiriarteren (1697-1759) egiletasunaren hipotesia baztertu gabe. Bi apez hauek Jesusen bizia eta herioa kontatzen duen testu didaktiko bat idatzi izan zuketan Dominique d'Etcheverryren itzalpeko neskatilentzat.
- d) Genero didaktikoaz landa, nabarmena da *Hiztegi Hirukoitzaren* eragina: hainbat hitz atzeman ditugu, gehienak beste inon erabili gabeak. Ipar euskal herrialdeetan Larramendiren eragipena erakusten duen lehenbiziko testua izan liteke.
- e) Hiztegi aberatsa du, lapurtera eta behenafarreraren lexikoa ongi lekukotzen duena bere forma jatorretan. Horien ondoan ez dira gutti egilearen neologismoak, *hapax legomena* edo lehen lekukotasunak. Idazleak, beraz, hizkuntzarekiko arrangura maila bat agertzen du. Zentzu horretan nabarmentzekoa da hainbat hitzen mozketak agerian uzteko joera, analisi morfologikoak inplikatzan dituen.
- f) Hizkuntza jaso eta zainduaren ondoan kutsu herrikoia duten forma higuatuak aurkitzen dira, bai eta ahozko mintzamolde anitz, zeinen artean adizki alokutiboak, toka erakoak, azpimarkatuko baintuzke.
- g) Azpieuskalki zehatz batean kokaturik, hizkuntz datuak beste lekukotasunetakoei erkatu behar izan zaizkie. Puntu gehienetan bat etorri arren, badira dibergentziak, baina uste dut ongi azaldu ditugula ardatz diakroniko batean kontestualizatuz (*-uia > ùia > ùa*, kasu).
- h) Bestela, espero ez ziren arkaismoak kausitu ditugu. Aipagarriena, agian, 'X-rekin Y' moldeko koordinazio egiturarena da, baina ez bakarria: aditzoinaren indarra inolako kamusturarik pairatu gabe, **iron*-en formak, genitibo adiera destinatiboan edo espero genezakeen baino sistematikoago den Linschmann-Aresti legearen betetze maila.
- i) Ifrentzuan, joera berritzaileak ere iruzkindu ditugu: frantsesaren eraginari zor zaion eta "destinatibo markaren hedakuntza" gisa defini genezakeen fe-

nomenoa, lehen lekukotasun anitz (*eskerrik asko*, adibidez), edo *zonbat*, *zoin* moduko galdetzaileen nagusitasun goiztiarra.

Horregatik guztiagatik uste dugu ikerlan honekin duela guti arte ahanzturan zegoen lehen mailako lekukotasun *berri* batez hornitzen dela euskararen corpusa. Zorigaitzez, anitz dira oraino antzeko egoeran jarraitzen duten izkribu zaharrak; tresor horien duintze eta ikertzetik on baizik ez da ilkiko.

3. Bibliografia

- ANONIMOA, *Birjinia, edo donceil christaba* [J. A. Mujikaren edizioa. Bilbo: Euskaltzaindia. 2010].
- ANONIMOA, 1734, *Othoitce eta Cantica Espiritualac. Çubero Herrico*, Paue: Jean Dupoux.
- AURREKOETXEA, G., 2004, *Bourciez-en "Recueil des idiomes de la région Gasconne" bildumako euskal testuak*, on line: http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/08/05/48/PDF/Haur_prodigoa_testuak.pdf
- BONAPARTE, L. L., 1866, *Formulaire de prône en langue basque, conservé naguère dans l'église d'Arbonne; réédité sans aucun changement et suivi de quelques observations linguistiques sur les sous-dialectes bas-navarrais et navarro-souletins de France et d'Espagne*, Londres.
- BLECUA, A., 1983, *Manual de crítica textual*, Madril: Castalia.
- CAMINO, I., 2008, "Nafarroa Behereko euskara zaharra", *ASJU* 42-1, 101-169.
- CHARRITTON, P., 1992, "Aita Sauveur Lardapide (1812-1889) Hazparneko misionestaren paperak", in *Luis Villasanteri omenaldia. IKER* 6, 143-159.
- CHOURIO, M., 1720, *Jesu-Christoren imitacionea*, Bordele: Boudé Boé.
- DE LA TOUR, B., 1751, *Vie et lettres de Mademoiselle d'Etcheverry, première prieure de la maison de retraite d'Asparrein, écrites à son directeur*, Avignon: Jean Niel.
- DE RIJK, R., 1979, "Erlatiboak idazle zaharrengan", *Euskera* 25, 525-536.
- DUHAU, H., 2003, *Beskoitzeko euskara (bigarren partea)*, Donibane-Lohitzune: Akoka.
- DUVOISIN, C., 1863, *Vie de M. Daguerre. Fondateur du séminaire de Larressore, avec l'histoire du diocèse de Bayonne, depuis le commencement du dernier siècle jusqu'à la Révolution Française*, Baiona: Lamoignon.
- EE. AA., *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa*, Euskaltzaindia. Argitaragabea.
- EE. AA., *Histoire de Hasparren. Comission extramunicipale d'histoire*. <http://www.hasparren-histoire.fr/mapage4/index.html> [azken kontsulta: 2010-05-27].
- EPELDE, I., 2003, *Larresoroko euskara*. Doktorego tesi argitaragabea, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU.
- , 2004, "Lapurdikiko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz", *FLV* 96, 271-304.

- GOÏTY, B., 2007, *Histoire du Diocèse de Bayonne*, Baiona: Elizbarrutiaren Idazkaritza.
- GÓMEZ, R., 2008, “Euskal gramatikagintza zaharraren historia laburra: XVII-XVIII. mendeak”, in X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez, ASJU-ren Gehigarriak*, 51: 329-349.
- GROSJEAN, M. L., 1990, “Hasparren à l’époque de la Révolution”, *Bulletin de la Société de Borda*, 261-300.
- HARANEDER, J., ca. 1740, *Jesu Christoren Evangelio Saindua*, Baiona: 1885.
- HARISTOY, P., 1893, “Mlle. Dominique d’Etcheverry. Première Supérieure de la Maison de retraite de Hasparren”, *Études Historiques et Religieuses du Diocèse de Bayonne*, 1893ko urtarrila.
- , 1894, “Les Paroisses du Pays basque pendant la période révolutionnaire”, *Études Historiques et Religieuses du Diocèse de Bayonne*, 1894ko abendua.
- HARRIET, M., 1741, *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan*, Baiona: Fauvet.
- HIRIART-URRUTY, J., 1892-1912, *Zezenak Errepublikan*, Donostia: Jakin, 1972.
- , 1892-1912, *Mintzaira, aurpegia, gizon*, Donostia: Jakin, 1972.
- HIRIBARREN, J., 1853, *Euskaldunac*. Berrarg. Donostia: Icharopena, 1971.
- HIRIGOYEN, A., 2003, “Maurice Harriet eta euskal idazleak”, *IKER* 14, 125-156.
- HUARTE & ORTIZ DE URBINA, 2003, *A Grammar of Basque*, Berlin / New York: Mouton de Gruyter.
- LAFITTE, P., 1944, *Grammaire basque. Navarre - labourdin litteraire*, Berrarg. Donostia: Elkar, 1987.
- LAFON, R., 1937, “Tendance à la palatalisation de la sonante *u* dans les parlers basques du Nord-Est”, *Revue de Linguistique Romane* 13, 73-82.
- , 1943, *Le système du verbe basque au XVI^e siècle*, Berrarg. Donostia: Elkar, 1980.
- , 1962, “Sur la voyelle *ü* en basque”, *Bulletin de la Société de Linguistique* 57:1, 83-102.
- , 1973 [1998], “Le suffixe *-ke*, *-te* dans la conjugaison basque”, in *Vasconiana*, Bilbo: Euskaltzaindia, 505-528.
- LAKARRA, J. A., 1985, “Larramendiren hiztegi-gintzaren inguruan”, *ASJU* 19:1, 9-50.
- , 1997, “Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri”, *ASJU* 31:2, 447-535.
- , 2008, “*Vida con / y libertad*: sobre una coordinación arcaica y la autenticidad de *Urthubiako alhaba*”, *ASJU* 42:1, 83-100.
- LARRAMENDI, M., 1729, *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*, Salamanca.

- , 1745, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*, Donostia: Bartholomé Riesgo y Montero. Berrarg. faksim. Donostia: Txertoa, 1984.
- LHANDE, P., 1926, *Dictionnaire basque-français*, Paris: Beauchesne.
- LISSAR, A., *Vie de Jésus manuscrite* [mastergo ikerketa argitaratugabea, UPPA].
- MITXELENA, K., 1977, *Fonética histórica vasca*, 2. arg. Donostia: ASJU-ren gehigarriak 4.
- NICOLAÏ, A., 1935, *Histoire des moulins a papier du Sud-Ouest de la France. 1300-1800*, Berrarg. Monein: Editions Pyrémone, 2006.
- OYHARÇABAL, B., 1997, “Euskarazko irakaskintzaren historia ororen eskolen idotik, Iraultzaren frantses garaiko eskola liburuxka bat”, *Lapurdum* 4, *J. Harritschelharren omenez*, 81-105.
- , 2000, “Note à propos des formes jussives préfixées en *b-* du basque”, *Lapurdum* 5, 111-127.
- , 2001, “Zenbait gogoeta euskarak letra hizkuntza gisa izan duen bilakaeraz (XVII-XVIII. mendeak)”, *Litterae Vasconicae* 8, 9-46.
- , 2006, “Une instruction en langue basque du XVIII^e siècle”, *Actes du Colloque L’Ecole Française et les Langues Régionales*, Montpellier: Université Paul Valéry.
- PADILLA, M., 2009, “Hazparneko euskara XVIII. mendeko testu argitaratugabe baten arabera”, *Euskera* 54, 1. 181-190.
- PAGOLA, R. M., IRIBAR, I. eta J. J. IRIBAR, 1999, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: Mendebaldeko behe-nafarrera*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- PALAY, S., 1932, *Dictionnaire du béarnais et du gascon modernes (bassin aquitain), embrassant les dialectes du Béarn, de la Bigorre, du Gers, des Landes et de la Gascogne maritime et garonnaise*, Paris: Éditions du CNRS (1998).
- PEILLEN, T., 1983, “Bela-ko zaldunaren zuberotar hiztegia, XVIII. mendean”, *FLV* 15, 127-146.
- PIKABEA, J., 1993, *Lapurtera idatzia (XVII-XIX). Bilakaera baten urratsak*, Donostia: EHU.
- PLONGERON, B., 1974, *La vie quotidienne du clergé français au XVIII^e siècle*, Paris: Librairie Hachette.
- SARASOLA, I., 1978, “Nire/neure, zure/zeure literatur tradizioan”, *Euskera* 25, 431-446.
- , 1987-2005, *Orotariko euskal hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , 1986, “Larramendiren eraginaz eta”, *ASJU* 20: 1, 203-215.
- SEGUROLA, K., 2001, “Paperaren ur markak”, *ASJU* 35: 1, 215-240.
- URGELL, B., 2001, *Fr. Pedro Antonio Añibarro. Guero Guero. Edizio kritikoa*, Bilbo: Euskaltzaindia.

- , 2004, “Etimologia eta neologia Larramendiren *Hiztegi Hirukoitz*-ean (1745)”, *Lapurdum* 9, 299-310.
- URQUIZU, P., 2000, *Historia de la literatura vasca*, Madril: UNED.
- VIDEGAIN, X., 2005, “Présentation du recueil Bourciez”, *Lapurdum* 10, 315-324.
- VILLASANTE, F. L., 1961, “El Padre Palacios (1727-1804). Estampa de un gran misionero en nuestro siglo XVIII”, *Scriptorium Victoriense* 8, 7-101.
- VINSON, J., 1891, *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, Paris: Maisonneuve. Berrarg. Donostia: ASJU-ren Gehigarriak, 1984.
- YRIZAR, P., 1999, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*, Iruñea: Euskaltzaindia.
- , 1999, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental*, Iruñea: Euskaltzaindia.
- , 1997, *Morfología del verbo auxiliar labortano*, Iruñea: Euskaltzaindia-UPV/EHU.

4. Eranskinak

I. Izkribuaren azterketa fisikoa

Koro Segurola, Euskaltzaindia - EHHA. 2002

Neurriak: 22,5 x 17,5 zm.

110 orri zenbatu gabeak. Testua lehen orrialdean hasten da eta 103.eko lehen aldearen erdialdean amaitzen da, azken zazpi orriak zuri daudelarik. Halere, idatzi gabe dauden azken orri hauen tartetik bost kenduta daude eta falta diren horiek beste orri hauekin plegua osatzen zuten: 5, 7, 8, 9 eta 10. Kendu ziren orri zuri hauek, agian, beste idazlanen batean aurkituko dira.

Pleguak tolestu, ertzak moztu eta batera apailatu ziren, hots, idazten hasterako plegu guztiak prest ziren, denak batera josita baitaude, ez sortaka, alegia. Nolanahi ere, 99. orriak gero txertatua dirudi eta beste plegu mota batetik hartua, bertan, beste orri guztietan ikusten ez den bezalako ur marka ageri baita. Orri honetako ur marka pleguaren erdian zen, hemen ere hala ageri delako, baina orri soltea denez, ez da osorik ikusten eta ez da ongi bereizten ere.

Joskera 57. eta 58. orrien artean ikusten da, bi hauek plegu bat osatzen dutelarik.

Zenbatu ditugun 110 orri horietatik 20 dira ur markarik gabeak: 48.etik 67.era, biak barne. Guztiak segidan dira eta denen artean 10 plegu osatzen dute: 48ak eta 67ak plegu bat, 49-66, 50-65, 51-64, 52-63, 53-62, 54-61, 55-60, 56-59, 57-58. Beste 89 orrietan (esan bezala, gero txertatu zen orri solte horrek beselako ur marka baitarama) ur marka hau ageri da:

L, B eta ezkila.

L hizkia, 23 orri hauetan ageri da: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 23, 24, 31, 32, 33, 34, 68, 71, 72, 73, 74, 75 eta 76.

B hizkia, 24 hauetan: 22, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 69, 70, 77, 78, 79, 80, 94, 95, 96, 97, 98, 100, 101, 102, 103, 104 eta 105.

Ezkila, 42 hauetan: 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 35, 36, 37, 38, 39, 40, 41, 42, 43, 44, 45, 46, 47, 81, 82, 83, 84, 85, 86, 87, 88, 89, 90, 91, 92, 93, 106, 107, 108, 109 eta 110.

Ur marka mota

Hizkiak eta irudiak soilik ageri dira. *L B* hizkiek papergilearen izena eta deitura adierazten dituztela dirudi. Ez da, ordea, paperaren urtea eta jatorria adierazten ezta kalitatearen berririk ematen ere.

Ur markaren lekua

Orriaren erdian ageri da eta plegu bakoitzean hizki bat eta ezkila bat ikusten dira, hau da, bi hizkiak ez dira elkartuta ageri. Honek pleguko orri bakoitzean hizki eta ezkila bana markatu zirela adierazten du. Plegua tolestu ondoren lau orriko sortak egin ziren, bi plegu osatuz, eta horregatik hizkiak plegu banatan eta ezkila banarekin ageri dira. Esaterako, lehen orria eta 110.a batera doaz, hots, sorta honetan plegu bat osatzen dute, eta lehenean *L* hizkia ikusten da orriaren erdi-erdian eta 110.ean *ezkila*, erdian hau ere. Beste plegu batean, berriz, *B* hizkia eta beste *ezkila* orri banatan.

Beraz, era honetara ziren idazki hau egiteko erabili ziren pleguetan:

<p>110 orria</p> <p style="text-align: center;">Ezkila</p> <p>-----</p>	<p style="text-align: center;">Ezkila</p> <p>-----</p>
<p>1 orria</p> <p style="text-align: center;">L</p>	<p style="text-align: center;">B</p>

Bestalde, ezkilak alde batera begira eginak daude eta hizkiak bestera, hau da, plegua jartzen denean hizkia zuzen irakurtzeko era, ezkila begira ikusten da, eta alderantziz.

Ur marken jatorria eta papergilea

Orain arte bilduta dauden datuetan oinarrituko gara, baina ur marka mota honen (edo beste hainbaten) erabileraren eremua eta garaia finkatzeko, gure ustez, ikerketa zehatzagoa eta zabalagoa egin beharko litzateke. Ezkila ur marka italiarra da, baina XV. mendetik XIX. mendera arte Frantziako ia herrialde guztietan erabiltzen da, bereziki Angulema, Périgord, Agenais eta Biarnon, baita Zuberoan ere. *Cloche* deituriko paper hau XVIII. mendean ekoizten ziren paper mota nagusien artean aurkitzen da, *Grand Jésus*, *Chapelet*, *Écu de France*, *Carré au Raisin*, etab.ekin batera. Garai honetako (XVIII. mendeko) dokumentuetan ageri diren datuen arabera, paper mota hau Agenais-ko Gavaudun, Lisse eta Ratier-en ekoizten zen. Agenais-ko lurraldean papergintza XV. mendearen erdialdean finkatzen da:

- Gavaudun. 1741ean paper-errota honetako jabea M. de Castelmoron zen. Papergilea: Jean BALLANDE. 1745ean ere papergile bera ageri da.
- Ratier. 1741. Jabea: M. Guillaume Ballande. Papergilea: Jean BOGGARD. 1745ean, berriz, papergilea: Claude COSTES eta 1772an MARTINET.
- Lisse. 1741. Jabea: M. Barbier. Papergilea: Pierre LASSOUJADE. 1745ean ere papergile bera ageri da eta urte honetako paperetan jatorria eta deitura osoa, 'ezkila' irudiaren azpian, eta honetara adierazten dira: LISSE LASSVIADÉ.

Izkribu honetako paperetan hizkiak banatuta agertzen direnez, ez dakigu zein eratan irakurri behar ditugun: *LB* ala *BL*. Alde batetik, *B* hizkia goiko hiru errota horietako Ballande eta Boggard papergileen deituretan ageri zaigu. *L* berriz, Lisse-ko Lassoujade papergilearen deituran. Bestetik, goian aipatu ditugun herrialdeetako papergileen inzialak ikertu diren arabera, ez da edo ez dugu inon *BL* aurkitu, Lisse-ko Lassoujade papergileak ere Pierre izena baitzuen. Haatik, *LB* hizkiei edo inzialei erantzunez, LÉONARD BALLANDE, LOUIS BALLANDE eta LÉONARD BOUILLON papergileak ageri dira, guztiak ere 1741ean. Léonard Bouillon, Périgord-ko *d'Exendieras* paper-errotan. Léonard eta Louis Ballande, berriz, ez dakigu familia berekoak ziren, baina jaso ditugun datuen arabera, Léonard Ballande goian aipatu dugun Jean Ballande-ren semea zen, *Gavaudun*-go papergilea 1741ean, hain zuzen. Urte honetan, ordea, Léonard Ballande Couze-ko *Bayac*-en ageri da, bertako papergile maisuen artean, Jean eta Léonard Ballande eta Léonard Bouillon ageri dira 1741ean. Luois Ballande, ordea, ez da zerrenda horretan aipatzen, ezta

beste daturik ematen ere. Honela, jaso ditugun datuen arabera eta gehiago zehaztu ezinik, Léonard Ballande izan liteke L B inizialen azpian den papergilea.

Paperaren urtea


Paper mota hau, bereziki, Frantziako hego-mendebaldean erabiltzen da eta, batik bat, XVIII. mendean. Bestalde, oro har, badirudi papergileen deitura osoak 1741etik aurrera ageri direla, aurretik izenaren lehen hizkia emanez. Horrezaz gain, 1742an indarrean sartu zen araudiak papergileak forma berriak 1742 data-rekin batera markatzera behartzen zituen. Honek, beraz, izkribu honetako pleguak zaharragoak direla pentsatzera bultzatzen gaitu, bertan ez baita paperaren urtea adierazten, ezta papergilearen deitura osoa eta paperaren jatorria ere. Ez zen beti eta leku guztietan aipatutako araudia beteko,¹ noski, baina papergilea Léonard Ballande (L B) bada, berau ere 1741eko dokumentuetan ageri dela ikusi dugu.

Paperaren urtea, jatorria eta papergilearen deitura osoa adierazten ez denetan, ez da dudarik garaia finkatzeko diren zailtasunak areagotu egiten direla, alor honetan datu eta ikerketa falta nabariak baitira. Alde honetatik, emaitza behin-behinekoa da; halere, papera urte horretan ekoiztu bazen, idazkia ez dela lehenagokoa, behintzat, ziur esan genezake.

¹ André Nicolai honela mintzo zaigu araudi berriaren betetzeaz (2006: 40): “[Au Sud-Ouest] on avait trompé de toutes manières la vigilance des inspecteurs, que, du reste, l’esprit de tolérance et la sagesse des intendants avaient réfrénée toutes les fois qu’elle avait été trop zélée”.

Izkirioaren eta haren ur marken zenbait irudi.


(Argazkiak: Manuel Padilla, 2010)




1. Kaieraren lehen orrialdea. Belokeko Abadiaren zigilua ikus daiteke.



2. Izkirioren itxura orokorra.




3. L Ur markaren itxura.



4. B ur markaren xehetasuna.




5. Ezkila ur markaren bi irudi.



6. L ur markaren xehetasuna.

[99. orrian:]



99. orriak duen ur marka bereziaren itxura zatikakoa.

II. Adizkitegia

Atal honetan testuan zehar lekukotu diren adizkiak zerrendatuko ditugu, adizka sailkatuak. Aditz bakoitzaren barnean, Euskaltzaindiak onetsi *tempus* sistemaren arabera antolatuko dira formak (*orain, iragan, alegia*). Lehenbizi, aditz laguntzaileak emanen dira: *izan, *edun, *edin, *ezan, *iron, *io, *eradun*. Ondoren, adizki trinkoak.

FORMA NEUTROAK (EZ-ALOKUTIBOAK)

<i>izan</i>	den 1, 2, 4 (3), 5, 6, 10, 11	direlacotz 38
ORAINALDIA	(2), 12 (2), 13, 17 (2),	diren 10, 18, 29, 31, 62 (2),
badire 146	20, 31, 35, 42, 49, 54,	65, 75, 92, 116, 149,
badirela 101	55, 58, 66, 69, 70 (2),	167, 169 (2), 177, 186,
bahiz 26, 27, 30	72, 75 (3), 77 (2), 94,	192 (2), 204
baniz 60	118, 120, 122 (2), 123,	direnac 101, 104
bainiz 64	124, 127, 128, 129, 139	direnaz 181
baiquiria 202	(2), 141, 142, 144, 151,	direnec 76
baita 13, 74, 78 (2), 99	158, 161, 169 (2), 171,	direnian 75, 173
baitire 73, 78, 98 (2)	174, 175, 176 (2), 177,	etzaizcola 18
baitzaco 7	183, 184, 185, 189 (2),	etzauc 187, 188
baitzaut 169	190 (2), 193, 195, 201	etzira 195
bazira 59	(2), 202, 205	etziren 86, 134
da 2, 3 (2), 4 (2), 33, 37, 52,	dena 23, 58, 126, 141 (2),	etzirela 16, 92, 106, 112,
54, 60, 71, 73, 78, 83,	166	149, 155, 165, 180, 198
92, 102, 109 (2), 116,	denari 148	etzirenez 9
117, 121, 125, 132, 143,	denaz 5, 10, 58, 93, 97, 143,	etzirete 3, 138, 142
148 (3), 164, 191 (2)	165	ezdela 10, 15
daya 115, 125, 127, 146,	denic 100, 109	ezten 103, 184
182	denian 11, 70, 116, 191	eztira 86
dela 6, 12, 21, 25, 62 (2),	dira 71, 119, 143 (3)	guira 90
77, 89, 108, 117, 149	dirade 11, 54, 71, 73, 77	guirade 73
(2), 155, 203	diraden 10 (2), 129, 181	guirela 44, 158
delacuan 112	dire 83, 138	guirelaric 186
	direla 30, 62, 89, 135, 146	guiren 142, 164, 186
		guitzaitzue 12

hitzala 115	IRAGANALDIA	138, 148, 150, 152, 153
hiza 9, 32 (2), 62, 64, 76, 98 (2), 122 (2), 129 (2), 148, 149 (2), 182, 192	baitzaizquion 38	(2), 156, 158, 178, 185 (3)
chahuturic 129	chercatzeco 89	chuchenduz 43
	chercatzen 173	chuchentzen 20

XUKHA(TU)	zanguetara 137	ZELO
chukhatu 53, 59	ZAPATA	zelo 108
chukhaturic 11	zapatac 120	ZENBAIT
XURI	zapataric 83	zenbait 157
churi 114, 163	ZARE	ZENTENIER
churia 119, 157	zare 86	centenier 51, 52
churiac 117	ZAZPI	ZER
churiago 9, 101	zazpi 56, 93, 106	zer 7, 9, 12, 15, 23, 26,
XUTIK	zazpitaraino 107	34, 55, 63, 68, 70,
chutic 126	ZEIN	71, 83, 86, 94, 97,
XUTI(TU)	zeina 13	108, 115, 125, 127,
chutituristic 143	zeinac 11, 14, 39, 41, 42,	133, 150, 162, 164,
	45, 46, 48, 53, 54,	166, 168, 171, 174,
	72, 73, 75, 77, 78,	175, 176, 177, 180,
	80, 101, 105, 119,	181, 182, 183, 184,
	130, 137, 144, 153,	191, 193, 195, 202
	154, 157, 179, 181,	zerc 160
Z	182, 185, 192, 194,	zertaco 7, 17, 36, 78,
ZABAL	195, 205	80, 103, 124, 154,
zabal 87	zeinaren 43, 51, 70, 75,	183, 192
ZABAL(DU)	97, 98, 156, 165,	zertan 176, 183, 195
zabaldu 25, 78	167, 169, 176, 177	zertara, 172, 202
zabalduric 34	zeinarentzat 111, 114,	zertaz 195
ZAFLAKO	187	ZERAFIN
zaflaco 182	zeinari 3, 72, 107, 138	serafinac 7
ZAHAR	zeinec 49, 67, 75	zerafin 164
zahar 11, 44, 58, 71	zeinen 155, 157	zerafinez 11, 182, 190,
zaharrac 18, 59, 76,	zeinequin 169	193
127, 179	zeinetan 40, 43, 53, 74,	ZERBAIT
zaharreco 1	75, 93, 94, 167	zerbait 3, 15, 31, 39, 58,
zaharren 124	zeinetara 19	76, 95, 104, 115,
zaharrenaren 124	zeinetaric 76, 118, 151,	172, 181, 184, 195,
zaharrer 200	155	201
zaharric 99	ZELEBRA(TU)	zerbaitetan 182
ZAHARO	zelebratu 37, 46, 130	ZERBITZARI
zaharo 182	zelebratuac 158	zerbitzari 5, 52, 73,
ZAHARTASUN	zelebraturic 47, 91	107, 113, 163
zahartasun 5	zelebratzeco 159	zerbitzaria 5, 8, 52
ZAIN	zelebratzen 152	zerbitzariac 166
zain 176	zelebratzera 21, 35, 46,	ZERBITZA(TU)
ZANGO	107, 130, 137, 150	zerbitza 4, 168
zango 165		
zanguac 28, 53, 59, 61,		
165, 166, 177		
zanguetan 120		

- zerbitzatu 2, 7, 183,
 184
 zerbitzatuco 178
 zerbitzatuia 128
 zerbitzaturen 27, 69,
 169
 zerbitzatzeco 30
 zerbitzatzeten 23, 122,
 149, 178
 zerbizatuz 55
 ZERBITZU
 zerbitzu 87
 ZEREMONIA
 zeremonia 18, 21, 91
 zeremoniaric 169
 ZEREN
 zeren 4, 5, 6, 10, 11,
 13, 17, 18, 19, 22,
 24, 28, 29, 30, 31,
 32, 34, 35, 37, 39,
 40, 41, 43, 45, 46,
 47, 49, 54, 57, 59,
 60, 61, 62, 63, 66,
 67, 69, 71, 79, 87,
 88, 89, 90, 91, 96,
 100, 103, 104, 105,
 106, 110, 114, 115,
 116, 117, 121, 122,
 123, 124, 129, 132,
 133, 134, 135, 136,
 137, 140, 141, 146,
 147, 149, 150, 152,
 153, 154, 166, 167,
 169, 170, 171, 172,
 173, 177, 179, 183,
 184, 185, 187, 188,
 189, 191, 196, 198,
 202, 203
 ZERNAHI
 zernahi 75, 158, 183,
 184
 ZERRAMENDU
 zerramendu 157
 zerramenduaz 157
 ZERRA(TU)
 zeratzen 115
 zerratzen 32, 49, 123
 ZERRI
 zerri 80
 zerriec 119
 ZERU
 zeru 4, 13, 17, 24, 25,
 66, 117, 143, 164,
 172, 175, 179
 zeruac 34
 zeruan 95, 182, 193
 zeruaren 120
 zeruco 2, 3, 5, 7, 25, 28,
 60, 93, 99, 140
 zerucua 154
 zerucuaren 22
 zeruen 119
 zeruiac 25
 zeruian 11, 116, 139
 zeruietaco 44
 zeruietan 50
 zerurat 96, 141
 zeruric 6
 zerutic 38, 108, 188
 ZERU-LUR
 zerulurac 148
 ZERUTAR
 zerutar 12, 15, 16, 21,
 48, 56, 68, 70, 71,
 78, 104, 114, 143,
 169, 171, 174, 175,
 176, 178, 180, 181,
 182, 183, 184, 185,
 187, 189, 191, 194,
 198, 199
 zerutarra 11, 99, 182
 zerutarrac 61, 164
 zerutarraren 74
 zerutarrari 8
 ZIGARRO
 zigarro 182
 zigarruez 194
 ZIKHIN
 zikhinac 183
 zikhinarequin 204
 zikhinen 200
 ZIKHIN(DU)
 zikhintzera 35
 ZIKHINKERIA
 zikhinqueria 201
 ZILHAR
 zilhar 117
 ZILHO
 zilho 35, 46, 85, 112
 ZIMENDU
 zimendu 71
 zimendua 144
 ZIMUR(TU)
 zimurturic 57
 ZINEZKO
 zinezco 163
 zinezcua 162
 ZIRKONSTANTZIA
 zirconstantzia 157
 ZIRKUNZIZA(TU)
 circunzizatu 13
 ZITARELA
 zitarela 27
 ZOHI(TU), *ikus* ZORHI(TU)
 ZOIN
 zoin 4, 14, 18, 42, 156,
 175, 186, 204
 zoinec 61, 205
 zoinena 155
 ZOINBAIT
 zoinbait 202
 ZOKHO
 zokho 74, 117, 141
 ZOLA

- zola 69
zolan 85
zolara 81, 85
zolarat 80
zolaric 71
- ZONBAIT
zonbait 13, 19, 26, 43,
47, 71, 76, 77, 87,
90, 93, 108, 109,
113, 136, 151, 171,
173
zonbaitec 36
zonbaiten 20
zonbaitequin 65
- ZONBAT
zonbat 46, 106, 164,
165, 168, 172, 197
zonbatenaz 6
- ZOR
zor 60, 62, 107, 187,
192
- ZORAMENDU
zoramenduez 197
- ZORAKERIA
zoraqueriaric 15
- ZORHI(TU)
zohituric 73
zorhitua 47
- ZORI
zori 191
- ZORO
zoro 8, 55, 127, 201
zorua 170
zoruac 56
zoruaren 201
- ZORROTZ
zorotz 200
zorotzac 57
- ZORTHE
zorthie 126
zortheric 126
- zorthia 128
- ZORTZI
zortzi 10, 13, 87, 158
zortzia 131
- ZUHUR
zuhur 8, 51, 76
zuhurra 126
- ZUHURTZIA
zuhurtzia 6, 10, 15, 42
zuhurtziarequin 183
zuhurtziatic 124
- ZURBI
zurbitzat 3
- ZURGIN
zurguiñaren 20, 83
- ZUZEN
zuzen 115, 162, 190
zuzenago 181
zuzenena 164
- ZUZEN-KONTRAKO
zuzen contraquenaren 190

IV. Onomastikon

TOPONIMIA

BETHABERA	Galilean 40, 104, 113	Yerusalemetic 38
Bethabera 31, 146	Galileara 38, 137	JORDAN
Bethaberatic 34	Galilearat 32, 40	Jordan 92
BETHAMA	Galileatic 132	Jordanen 93, 130
Bethama 147	GENESARET	Jurdan 63
BETHANIA	Genesareteco 45	Yordaneco 20, 22, 38
Bethanian 108	GERESA	Yordanen 31, 146
Bethaniara 152, 153	Gerasaco 80	JUDEA
BETHEESDA	HASPARNE	Judea 65
Bethesda 46	Hasparneco 22	Judeaco 2, 11
BETHZAIDA	HAZELDAMA	Judean 10, 199
Bethzaidaco 85	Haceldama 205	Judeara 91, 147
Bethzaidera 87, 94	ISRAEL	Judearat 38
BETLEHEM	Israelen 18	Yudeaco 2
Bethlemeco 12	Israelgo 34, 92	Yudeala 19
Bethelmen 14, 16, 18	JERIKO	Yudeara 19
Bethlemera 11, 13, 14	Jerichon 14, 150	KANA
DEKAPOL	Jerichora 150	Canara 34, 43
Decapolera 93	JERUSALEM	KAFARNAU
EFREIN	Jerusalemeco 27, 134,	Capharnauc 48, 81, 87,
Ephreiner 149	157, 185, 199, 205	88, 105
EGIPTO	Jerusalemen 37, 40, 100,	Capharnaun 43, 77, 79,
Egyptoco 31	111, 151	81, 130
Egyptorat 18	Jerusalemera 14, 21 (2),	Capharnaura 35, 43, 48,
Egyptuan ⁴ 19	35, 46, 107, 150,	51, 65, 89, 112, 114
Egyptotic 19	151, 152, 153, 159,	Capharnautic 53
ERROMA	161	MAGDALA
Erromaco 10	Jerusalemerat 90, 130	Magdala 63
GALILEA	(2), 151, 159, 161	MAGEDAN
Galilea 137	Yerusaleme 14	Magedan 93
Galileaco 19, 34, 41, 44	Yerusalemerat 108, 130	

⁴ Ohart bedi forma mugatua dela.

NAIM	SAMARIA	SODOMA
Naimera 53	Samaria 137	Sodoma 16
NAZARET	SITXAR	TABOR
Nazareth 2, 19, 41, 82	Sichar 39	Thaborreco 101
Nazarethera 21, 82	SIKHEM ⁵	TIBERIAS
Nazaretherat 18, 32	Sichemeneco 41	Tiberiaseco 43, 67
OLIVETAKO MENDIA	SIDON	Tiberiadeco 48, 79, 80,
Olivetaco Mendi 109	Sidonneco 91	81, 85
Olivetaco Mendiaren	SILOE	TIR
133, 157	Siloeco 135	Tyr 91
OLIVETAKO BARATZEA	SIRIA	ZESAREA
Olivetaco Baratzian 173	Syria 44	Cæsarea 94

ANTROPONIMIA

ANA	BARJONA	Bettiric, Yendone 87,
Anna 18	Barjona, Simon 98	90, 97, 165
ANAS	BARTHELEMI	Bettiriren 45, 94
Anas 179	Barthelemi 33	BETTIRIÑO
Anasec 179	BARTIME	Bettiriño 1, 3, 5, 6, 7 (2),
ANBROSIO	Bartimé 151	8, (2), 9, (3), 11...
San Ambrosio 125	BELZEBU	BOARNEJES
San Ambrosioc 124 (2)	Belzebuh 110	Boarnejes 108
ANDRES	Belzebut 66	DAVID
Andres 33, 43	BETHPHAIE	David 3, 11, 151
Andresen 32	Bethphaye 151	Davitec 47
Andresec 32	BETTIRI	Daviten 13
ARCHELAU(S)	Bettiri 43, 95, 100, 104,	EBA
Archelau 19 (2)	105, 159, 178, 195,	Eva 2, 6, 7, 8, 17
Archelauri (19)	196	Evaren 6, 7
Archelausen (20)	Bettiri, Jendone 169	ELIAS
AUGUSTIN	Bettiri, Yendone 194	Elias 94, 102
San Augustin 171	Bettiric 45, 94, 102, 105,	Eliasent-zat 102
AUGUSTO	106, 166, 177	ELISABETH
Augusto 10	Bettiric, Jendone 166	Elisabeth 5

⁵ *She'chem* dateke (Gen. 12: 6).

- FILIPO (4), 110 (3), 111, 128, 131 (3), 132 (2), 133 (3), 134 (2), 135, 136 (3), 137 (5), 138 (2), 140, 141, 145 (2), 146 (2), 147 (3), 148 (4), 149, 150 (3), 151, 152, 153 (3), 154 (3), 155, 156 (4), 157, 158 (2), 159 (2), 161 (2), 169, 174, 176, 179, 180, 182, 185, 186, 190, 191, 194, 198, 199, 205
 Jesusec 27, 32, 33 (2), 34, 37 (2), 40 (2), 42, 43 (3), 45, 46, 52...
 Jesusen 46, 48, 66, 80, 81, 87, 92, 109 (2), 147, 158, 174, 186, 191
 Jesusen gana 41
 Jesusen ganat 32 (2)
 Jesusequin 41, 82, 102
 Jesusi 39, 43, 47, 52, 80, 87, 89, 102, 108, 109...
 Jesus Nazarengua 172, 174, 176
 Jesus Nazarentar 176, 195
 Yesus 21, 25, 42, 91, 102, 108, 130
 Yesusec 25, 26, 36
- GABRIEL
 Gabriel 2
 Gabrielecc 2
- GALILEO [Jesusen deitura]
 Galileo 195
- HERODES
 Herodes 15 (2), 17, 19, 39, 43,
 Herodesec 14, 18, 111 (3)
- IGNAZIO
 Ignazio Martirra 31
- JAIR
 Yair 81 (2)
- JAKOB
 Jacopen 3, 39
 Yacobe 44, 101, 108
- JEREMIAS
 Jeremias 94
- JESUS
 Jesus 5, 13, 18 (2), 20, 26, 27, 29, 32 (5), 33, (4), 34 (2), 36, 37 (4), 38 (2), 39, 40 (2), 41 (4), 42 (2), 43 (3), 45 (3), 46 (3), 51 (2), 52, 53 (2), 59, 60 (2), 61, 66, 67 (2), 75, 77, 79 (2), 80 (3), 81 (4), 82 (3), 83, 84, 85 (3), 86, 87 (3), 88 (4), 89, 90 (3), 91 (4), 92 (2), 93 (3), 97, 101 (2), 102 (2), 103 (4), 104, 106, 107, 108 (2), 109
- Joanne Baptista, Jondone 146, 155
 Joannes 159, 161
 Joannes Zebedes 101, 155
 Yoane 32
- Yoane Baptista, Jendone 39
 Yoanne Baptista, Jendone 20, 22, 23, 31, 38, 94, 109, 146, 154
 Yoannes 1
 Yoannes Baptista 2
 Yoanne Evanyelista, Yondone 21, 91
- JONAS
 Yonas 67, 93, 98
- JOSEF
 Josef 11, 83
 Josefén 2, 33
 Joseph 18
 Yosef 19, 20, 21
 Yosefen 30
 Yosefi 19
 Yosep 13, 30
 Yoseph 18
- JUDAS
 Judas 164, 171, 174 (2), 199, 203 (3), 204
 Judasec 173
 Judasen 201, 202 (2), 204
 Judas Iscariote 59, 158, 172
 Judas Machabée 137
 Yudas 201, 203
 Yudasen 15
- KADET
 Cadet 5, 8, 9, 10, 12, 15...
- KAIFAS
 Caifas 186, 192, 193, 194, 195 (2), 198 (2)
 Caifasec 193, 198
 Caifasen 194, 195, 198
 Cayfas 186, 188, 191, 199

Cayfasec 179	MAGDATE	PIARRES
Cayfasen 191, 199	Magdate 63	Piarres 98
KRISTO	MARIA	PONTIO PILATUS
Christo 193, 198	Maria 2 (2), 3 (2), 4, 11	Pontio Pilatus 199
Jesu Christo 17, 34,	(2), 18, 20, 1, 30, 31	Pilatus 199
94...	(2), 83, 108, 109 (2),	SABAS
Jesus Christo 23, 24, 29,	147, 148	San Sabas 20
73, 90...	Mariac 3, 5	SAUL
Jesus Christoc 29, 30,	Mariaren 119	Saul 47
47, 72, 73, 77, 97,	Mariarena 30	SIMEON
99, 100...	MARTHA	Simeon 18
Jesus Christoren 25, 36,	Martha 108, 109 (4),	SIMON
45, 59, 69...	147, 148	Simon 32, (3), 33, 44,
Jesus Christorenac 53	Marthac 147	45, 53 (3), 54, 60
Yesu Christo 1	Marthari 148	(3), 61 (2), 64, 95,
Yesus Christo 1, 94	MATHIEU	98, 151
LAZARO	Mathiu 45	Simonen 44, 57, 59
Lazaro 147 (4), 148 (2)	MOISES	Simoni 54
LUZIFER	Moises 102	ZAKARIAS
Luzifer 140	Moisesen 162	Zacharias 22, 205
MAGDALENA	Moyses 102 (2)	Zakharias 1
Magdalena 63	Moysesen 17, 31, 46, 47	ZAKEO
Magdalena 55 (3)	NATANAEL	Zaché 150 (4)
Magdalenac 63	Nathanael 33 (3)	ZEBEDE
Magdalenarentzat 56	Nathanaelec 33 (3)	Zebede, Yoannes 44
	NIKODEMO	ZEFAS
	Nicodemo 37, 38	Cepha 32
	Nicodemoc 37 (2)	Cephas 98

II. EDIZIOA

3.1. Edizio irizpideak

Aurkeztu izkirioarekin egin dugun lehenbiziko lana transkripzioa izan da, modurik ahalbait fidelenean. Bigarren urrats batean edizio prozesu bati lotu gatzazkio, gogoan genuela irakurtzaile mota konkretu bat zeinak hizkuntzarekiko interes nabarmena izanik testuetan jatorrizko ortografiaz murgildu nahi baitzuen. Orduan pausatu zen galdera: testua duen itxurapean eman ala balizko hutsak zuzendu? Baziren hitz barratuak, azpimarkatuak, gainidatziak... Hori guztia bere hartan eman bageneza irakurtzeko ekintza beharrik gabe oztopa liteke. Hortakotz, edizio purki paleografiko batera mugatzeak ez zuen, ene ustez, interes handirik, kontu eginik izkirioaren faksimilea aise eskain zitekeen, eman dezagun, CD-Rom baten euskarrian. Gure xedea, beraz, testua era konprenigarrian eskaintzea izan da, irakurtzearen aritza gogaikarri bihurtu gabe, baina beti ere lekukotasun originalarekiko leialtasunetik urrundu gabe.

Eskaintzen dugun edizioa, beraz, gehiago liteke kritikoa. Puntu honetan komeni da gogoratzea zuhertasun filologikoa ez dela testua ahalik eta gutien aldatuz erdiesten, fisikoki heldu zaizkigun kopiez haratago begiratzuz baizik. Testuaren nolabaiteko egokitzapenari ekiteko erabakia harturik, zenbait hautu egin behar izan dugu. Hona hemen formulatu ditugun edizio irizpideak:

- a) Jatorrizko orrialdeztatzea agerraraziko da edizioan, kaierean orrialdeak zenbatu gabe badaude ere.
- b) Testu originalean puntuazio zeinuen erabilera kaotikoa baita guztiz, eta diskurtsoaren entelegarritasunaren mesedetan doalakoan, puntuazio eta prosodia zeinuak egokitu ditugu errotik. Orobat egin dugu paragrafoen banaketarekin, hau hain premiazkoa ez bazen ere.
- c) Letra larriak eta xeheak egungo usantzaren arabera ematen ditugu.
- d) Grafia kasu guztietan errespetatu dugu, ondoko salbuespenekin:
 1. Hitz hasierako <f> luzeak <s> arruntez izan dira ordezkatuak.
 2. <tt> digrafoaren gainean azaltzen den <^> diakritikoa ezabatu dugu, irakur aietasunaren mesederako. Egileak bustiduraren markatzeko baliatzen du, baina egungo euskal irakurtzaileari aski zaio <tt>.
- e) Egileak ahantzi dituenetan guk, hariari aiseago jarraitzeko aukera emateko, estilo zuzena sarrarazten duten CADET edo BETTIRIÑO izenak txertatu ditugu.

- f) Estilo zuzeneko erranak letra italiko edo etzanez transkribatuko dira. Estilo zuzen horren barnean, halaber, aipu zuzenak ageriko direnean, kakotsen artean emanen dira.
- g) Hitzen zatitzeari doakionean, gidioen (inoiz birgulen) bidezko zatiketak nahiz zatiketa hutsak mantenduko dira. Horrela eginez idazlearen idaztan-kera ez ezik, analisi morfologikoak ere agerian uzten ditugu. Ondoko salbuespenetan aldaketaren berri emanen da ohar paleografikoetan:
1. Adizkiak ulergaitz edo anbiguo suertatuko direlarik, gidoirik gabe, bereiz agertuz (*urrun du, gorde zen...*).
 2. Orobat loturik idatziko ditugu *zer bait, bat era, edo nor, ohiko ez bezalakoak*.
 3. Alderantziz, eta beti ere anbiguotasunaren saihesteko, zenbait kasutan tirt bidezko lotura azaltzen duten adizki nagusia + laguntzailea bereiz transkribatzen ditugu: *behart-zen* (107) → *behar tzen*.
- h) Laburdurak garatuko ditugu: B. → Bettiriño (bokatibo delarik), Cad. → CADET; *dêbora* → *denbora*.
- i) Idazleak maiz azpimarkatzen ditu hitz batzuk, nagusiki latinezko aipuak eta toponimoak. Badu, halaber, zenbait baliabide erretorikoren nabarmentzeko joera, Ez ditugu azpimarratze hauek atxikitzen.
- j) Azkenik, egileak barratu dituenak ez ditugu testuan emanen, oharretan baizik.

Aparatu kritikoaz

Bi ohar motez hornitu dugu testua: batetik, originalarekiko erreferentzia edota honen hutsak zuzentzen dituzten ohar paleografikoak; bestetik, gainerateko informazioa (nagusiki linguistikoa) eskaintzen duten ohar esplikatioak. Ohar diferente hauek sail berezietan multzoka litezkeen arren, guztiak orripean izanen dira emanak.

< 1 >

Yesu Christo eguiazco Yainco Guizonaren bizia eta heriua laur evanyelista eguiazcuen eta Sainduien arabera.

Yesus Christo, eguiazco Yaincuaren Semia, eguiazco Mesiasen marca eta seinalen bilduma berequin dakharcona,¹ mundu guziaren Salbatzaillia, bethi danic bere aita maitiaz enyendratu edo sorthua yainco bezala bere aitarequin igual eta bardina; eta guizon bezala testament edo ordenu² zaharreco profezia guzien arabera; dembora eta lekhuian, ama aitzinian eta onduan, viryina gueldituen baten ganic sorthua; testament edo ordenu zaharreco figura eta profezia guzien objet principala eta marra,³ patriarkha guzien esperantza, nazione guzien salbamenduia, eta yudu itxuen confusione eta desohore bezala, christau⁴ guzien loria, ohoria, urustasuna eta consolamenduia.

Ya laur mila urthetaco gau ilhun luce⁵ hura urthuric, iduritzen zautac, Betti-riño, yustiziazco eguzqui distirant hunec bere arrayo ayrosec arguitzera dohan egun dohatxu hura urratzen ikhusten dudala: ya bazian sei hilabate⁶ Zakharias aberitua izan tzela ukharen⁷ zuiela seme < 2 > bat eguiazco Messiasen aintzindaria, Yoannes Baptista deithuren zutena. Yoan zangoyan⁸ beraz aingueru Gabriel Na-

¹ *dakharcona*] darkhacona.

² Egileak une oro baliatzen du sinonimia haurra den solaskideari —bai eta irakurtzaileari ere— hainbat hitzen (direla ezohikoak, direla neologismoak) konpreniarazteko. Prozedura hau ezaguna da Axularrengan, zeinak hizkera diferentetako eleak konbinatzen baititu halako binomio eta trinomotan. *Geroren* kasuan xedea ahalbait irakurtzaile gehienengana heltzea denean, gure egileak gehiago duke helburu didaktiko bat. Testuan zehar maiz kausituko ditugu *edo* juntagailuaren bidez uztartu sinonimoak.

³ 'Marka, seinale'. Larramendik honela jasotzen du bere hiztegian: "Nota, marca, señal".

⁴ *Kristau* gehiago da Hegoaldeko hitza. *OEH*-ren arabera, "propio sobre todo de la tradición guipuzcoana, se documenta tbn., ya desde Etcheberri de Ziburu, en algunos autores septentrionales (no suletinos, y en su mayor parte labortanos), alternando siempre con *girstino*".

⁵ *luce*] []uce.

⁶ Gero *hilabathe* izanen da formarik erabiliena.

⁷ 'Ukhanen'. Zenbaitetan *-n* klaseko aditzek *-ren* akabantza agertzen dute geroaldian: *izarenen*, *ukharen*, *erraren*, *joaren*, eta are *hazemaren*. Kontu egin guztiek dutela *-a-z* finitzen den errorik. Etxeberri Ziburukoa edo Gazteluzar lapurtarrek badarabiltzate holakoak. Ikus ADITZ MORFOLOGIA, "Geroaldia".

⁸ Egilearen hizkeran sinkretismo kasuak gertatzen dira. *Zangoyan* formak bi adiera ukan dezake: 'hura hari zitzaioan', hemen bezala, bai eta 'hark hura hari zioan'. Baina baita, eta adizki honi gagozkiola, polimorfismo ugari ere: *zangon* / *zacón* 'zion'. *Zangoyan* bezalako formek agertzen duten *-n*- hori Hazparneko barietatearen ezaugarrietako bat da. Xehetasun gehiagorentzat ikus ADITZ MORFOLOGIA.

zareth⁹ Judeaco hiri ttipi hartara, Yudeaco tribuco Josefén esposari, Ama Viryinari, othoizetan gorderic eta bakharric zaguén gambara edo guela dohatxu hartara, eta aingueru Gabrieleac agurtu zian erraiten zangolaric: *Agur Maria, graziaz bethia, yauna da zurequin, benedicatuia zira emac ume*^{10, 11} *guzien artian, eta benedicatuia izanen da zure sabeleco fruitua, Jesus.* Maria hemen estonatuia eta trublatuia aurkhitu zuian ikhustiaz nahiz Zeruco aingueru bat bere gambaran.

Zer diozuie hemen, nescacha¹² gaztiac? Zuién exemplu eta modela zerbitzatu behar lizatequeyen¹³ hama hirur urthetaco nescachatto huntaz; nescacha baino aingueruigo den creatura dohatxu hau, naturalezaren eta graziaren dohain guziez ya yantzia, choilqui guizonaren formac estonatzen du, izitzen du, ikharatzen du.¹⁴ Eta zuieac, bat ere bertze prenda eta bahiric gabe, baizic Eva tristiaren erorico < 3 > auhengarriaren ondorio faltacorrac, presunziunia eta urgulua zurbitzat,¹⁵ zeruco izarac baino gorago igan nahi zirete?¹⁶ Ikhusiric aingueruac estonatu eta suprenitu zela Maria berri huntaz, consolatu zian, Bettiriño, erraiten zangolaric: *Etzitela*¹⁷ *izit*,¹⁸ *Maria, guziz Yaincuaren adichquide zirelacotz, eta Yaincuac ordainez maite zituielacotz, conzebituco eta erdiren zira seme batez, zeinari emanen baitiotz zu izena*

⁹ *Nazareth*] Nazaret.

¹⁰ *emac ume*] umac ume.

¹¹ Grafia etimologikoa, nahiz etimologia herrikoiori zor. Gure idazleak badu joera nabaria hitzen osagaien bereizteko, eta ez bakarrik konposatuetan, baina zenbait kasutan deklinabide markekin edo adizkiekin ere ber idazmoldea agertzen duela: *sort-berria, ene ganat, eza-dazuiet...*

¹² Txistukari afrikatua, egungo grafiaz *tx*. Idazlearen grafia sisteman <ch> digrafoak txistukari sabaikari igurzkaria nahiz afrikatua idurikatzen ahal ditu: *charmantaz* (5) nahiz *nescacha*. Xehetasunendako, ikus GRAFIA.

¹³ Ikus *ezditaque zerbitza* (4).

¹⁴ Ohart bedi gradazione hirukoitzaz : *estonatzen du, izitzen du, ikharatzen du*. Baliabide erretorikoei dagokienez ere oparoa da testua.

¹⁵ *Zurubi* 'escalera de mano, échelle'. *OEH*-k baxenafarreran kokatzen du *zurbi* aldaera.

¹⁶ Ezaguna da zenbait aditzen jokadura aldatuz joan dela azken mendeetan. Horietakoa da *nahi* aditzaren kasuan, iragangaitz izatetik iragankorrera pasa dena; *nahi zirete* bezalako joskera orokorra izan zen Euskal herrietan. Cf. *nahi daquiçula* (Lazarraga, 12r).

¹⁷ Iparraldeko euskarán bada joera bat kompletiboaren markaren eransteke inperatiboa ezezko denean. Bigarren pertsonako formez ari gara hemen, ezen hirugarren pertsonarentzat (*b-* markadunaz apart, jakina) ohikoa eta komuna da *-(e)la* eranstea, subjunktibotik abiatzen baita usuenik.

¹⁸ *-Tu* partizipio batetik *-t* akabantza duen aditzoinen idokitzea joera zaharra da, Iparraldeko tradizioan Leizarragarengandik lekukotzen duguna. Testu honetan *izit* (3), *bihurt* (43) eta *deit* (119, 120) aditzoinak kausitzen ditugu.

Jesus, erran nahi da “mundu guziaren salbatzaillia”; guziz haundia¹⁹ izaren²⁰ da, eta deithuco duzu yaun gorenenaren semea, yaunac emanen dio David bere aitaren tronua, eta Jacopen etchian bethi errequinatuco du.

Mariac hemen galde eguiten dio orainic,²¹ ez dudatzen duielacotz, ez ez daquielacotz, Yaincuac nahi bazuien, viryinitatia galdu gabe amatu zezaqueyela,²² bainan beldurrez yadanic bere yaincuari osoqui hitz emana zuien²³ viryinitatiari zerbait hoben eguin, eya nola zen obra hura posible. Etzirete hemen ahalgue gorritan yarriren, nescacha gaztiac? Edo zuien buru flacuietan fidatuz, edo viryinitatia ez ongui ezagutuz, edo ez asqui preziatuz occasione galcorretan < 4 > eta lanyerosetan presentatzen ziretenac? Ikhas ezazue, viryinitatiaren surtza²⁴ eta ithurburu nothagabe²⁵ hunen ganic, eya zoin²⁶ prenda eta yoya²⁷ preziosa eta baliosa den viryinitatia: nahiago du Hirurtasunaz bethi danic hautatua²⁸ den haur eta

¹⁹ Egilearen hizkeran *haundi* klarki hedatua da (99 agerraldi), *handi* zaharraren zantzurik ez izanik. Hona zer dioen *OEH*-k: “Al Norte, se documenta *haundi* —junto a *handi*— ya en *Itxasoco Navigacione* (1677); en el s. XVIII aparece en Urte y *Catecismo de Laneufville*, y posteriormente en autores bajo-navarros como Bordel, Joannatéguy, Barbier, J. Etchepare, Oxalde o Xalbador, que lo utilizan junto al más frecuente *handi*”.

²⁰ Cf. *ukbaren* (1).

²¹ *Orainic* ‘aún, todavía / encore’ ez da forma neutroa, nafar-lapurteraren eremuan *oraino* bezalakoak nagusi baitira (*OEH*-k Nafarroa Garaian kokatzen du hitza). Corpus Arakatzai-
learen emaitzak adierazgarriak dira: Iparraldean soilik baliatzen dute Jean-Baptiste de Camoussarryk (ca. 1840) eta Hiribarrenek (1845), bien artean hiru agerraldi eskainiz. Gure testuan *orainic* gutzit gailentzen zaio *oraino* formari (111 vs. 8).

²² *Amatu* aditza, ‘devenir mère’, iragangaitza da. Hemen, beraz, ‘[Jainkoak] Maria amatu zezakeela’ ulertu behar da.

²³ Datiboarekiko komunztadura ez agertzea normala da Iparraldean: *Yaincuari osoqui hitz emana zuien viryinitatiari*. Badira, testuan zehar, hainbat etsenplu: *mundu guziari erakhustera emaiten zutelari* (16); *guizon eta profetei baino Yainco bati comeniago zirenac* (131); *zuerri mintzo naiz* (141); *bere aitari yoan baitzen* (155).

²⁴ Literalki nahiz era metaforikoan, ‘iturburu’. Cf. fr. *source*.

²⁵ *nothagabe*] notha gabe.

²⁶ Nafar-lapurteraren tradizioan *zoin* gailenduz joan zaio *zein* zaharrari. *OEH*-ren arabera, Lapurdin eta Nafarroa Beherean soilik Gazteluzarrek dokumentatzen du *zoin* XIX. mendea baino lehen, eta aipatu gizaldian *zein* oraino zatekeen anitzez ere erabiliago. *Kadet eta Bettirriñon* bada banaketa garbi bat: *zoin* galdetzaile denean eta *zein* erlatiboendako. *Zoin* 15 aldiz agertzen da, Gazteluzarren bakantasuna hautsiz. Lotzekoak dira *zonbat* (46...) eta *hoimbertzze* (37...).

²⁷ Cf. gzt. *joya*.

²⁸ Erranaldi pasiboan eratzean agentearen kasu instrumentalean emaiteko usantza arras hedatua da Iparraldeko tradizioan.

nescacha *christol*²⁹ *lyndo*³⁰ *hunec*, zeru lurren erreguina eta eguiazco yainco guizonaren ama, izaitetic guelditu eziqetz³¹ bere viryinitatezco lore charmantaz³² gabetu. Hortacotz bere baimena eta consentimendua eman baino lehen, segurtatua izan nahi da bere garbitasunaz: *quomodo fiet istud*.³³ *Nola guerthaturen da gauza ohicoez*³⁴ *hori? Zen ez dut guizonaren iduriric ezagutzen*. Orduan aingueruac³⁵ sosegatu eta descanchatu zian, erraiten zangolaric: *Ez deusen beldurric ukhan Maria, Hirurtasuneco edo Trinitate sainduieneco bi garren presunac, yainco eguiazco izaiteco penaren azpian, zure aitzinian*³⁶ *bezala onduan ere viryina garbi guelditu behar zira; zeren bere garbitasunaz hain yelos den Yainco batentzat ezditaque zerbitza*³⁷ *sabel viryina bat baizin, < 5 > eta hortacotzat,*³⁸ *Izpiritu Sainduia zure ganat yautxiren da, eta Yaun Gorenaren verthutiaren itzalac estaliren zaitu, eta horrela, zure ganic sorthuren den seme hautatuia “yainco biziaren semea” deithuren da, eta*

²⁹ Semantikoki purtasunaren ideari lotzen zaio kristala: *kristala bera baño garbiagoa* (J. B. Agirre, *Jesu-Kristo, eta Birjiña txit santaren...* 38. erakustaldia); *ezanarazteko kastidadearen preziosidadea, ta estimarazteko kristale gau ain preziosoa* (Lizarraga Elkanokoa: *Sanduen bizitzak*, “San Malko Monjea”. Cf. fr. *cristal* (par comparison) ‘clair, limpide, pur, transparent’ (TLF). Hemen *christol* adjektibo gisa erabiltzen da, eta halako adibideak oso bakanak dira euskararen corpusean: *mur mur iturtxuloko ur kristal garbiya* (Ramon Artola, *Sagardoaren graziya*). Testuan gaindi lau aldiz lekukotzen dugu, beti ere adjektibo bezala. Honetaz apart *Viryina cristalenen* (9), *bictima garbi, linyo, lastan eta cristal* (183) eta *bisaya christol* (194).

³⁰ *Lindo* “Propre, sans tache” *Vocabulaire bas-navarrais* apud *OEH*. Semantikoki ongi lotzen da *christol* adjektiboarekin. Testuan gaindi *linyo* grafiaz ere ikusiko dugu (163, 183, 194), eta hortik *linyotasun* (77).

³¹ *Ezik* partikula egitura konparatiboetako bigarren elementuaren sartzeko balia daiteke. Erabilera honentzat *ezik* nahiz *ezik ez* dira posible; gure idazleak lexikalizazio maila bat adierazten du *eziqetz* loturik idaztean. Eremuari doakionean, ekialdekoztat jo dezakegu, Aezkoa eta Luzaideko euskaretara itzuli Asteteren katiximetan ongi lekukotzen baita, hala nola Erronkarierazko testutan: *bada obe dazaizu galtia miembruetarik bat ezik ez zore korpiz guziua fan dein iburniara* (Pedro Hualde: *Gore Jainaren ebanjelio Saindua*, 5. kap).

³² Ikus *nescacha* (2).

³³ *Quomodo fiet istud quoniam virum non cognosco?* (Luk, I, 34) ‘Nola gauzatzen ahalko da mirari hau, ez badut gizonik ezagutzen? Mariak Aingeruari pausatzen dion galdera dugu hau.

³⁴ *Ohicoez* hitzaren sortzeko eredua Larramendik du emaiten: *gauzez*, etab. Oso antzekoak dira *oitez*, *oiezana*. Balirudike gure egileak Larramendiren baitatik edan duela, zenbait hitz haren moldera eratuz; izan ere, *ez* negazioaren atzizki gisa baliatzea Larramendiren prozeduratzat har daiteke. Egun *ezohiko* baliatuko genuke. Cf. *ondicuezen* (14), *ezagutuez* (126).

³⁵ *aingueruac*] *aigueruac*.

³⁶ *zure aitzinean*] *zur aitzinean*.

³⁷ *Ezditaque zerbitza*: hemen ere aditz jokadura zaharraz ohar gaitzke; egungo moldera *hain yelos den Jainco batentzat ez dezake zerbitza* *sabel birjina batek baizin*.

³⁸ “Pour cela, à cause de cela, dans ce but” Harriet ap. *OEH*. *-kotzat* akabantza helburuzko aditz jokatugabeei doakielarik, okurrentzia bakarra dugu: *yaquitecotzat* (135).

*orai erraiten dautzut eguia hunen*³⁹ *segurtatzeco. Eta yaquin ezazu zure cusia Elisabethec ere conzebitu duiela seme bat bere zahartasun haundian eta abanzatuian, eta ya sei hilabeteco izorra*⁴⁰ *dela; zeren Yaincoarentzat gauza guziac ahal diren.*

Orduian Mariac erran zacoyan, Bettiriño, aingueruari:⁴¹ *Hori hola denaz gue-roz, huna Yaunaren zerbitzari; izan bedi haren borondate sainduia osatuia.*⁴²

BETTIRIÑO: Jesus Yauna admiratzen dut haur gazte eta adret ikhugarrienen⁴³ hunen prudentzia guziz estonagarria. Bainan ni guziz estonatzen eta suprenitzen nauena da: ya zeruco aingueru batez agurtua, eguiazco Yainco batez, ez bere esclabo, bainan eta orainic gutiago zerbitzari, bainan amazat berechia eta hainbertze milium eta miliarren artian hautatuia? Eta nola erraiten dacon huna yaunaren zerbitzaria.

AITA CADET:⁴⁴ Urrunago⁴⁵ yoan gabe, yaquin < 6 > behar tuc,⁴⁶ Bettiriño, Ama Viryinarene merechimenduac eta gollardiac,⁴⁷ zeren zonbatenaz presuna bat haundiago, eta hanbatenaz hunen humilitatia admiragarriago duc. Hauche duc creatura bat, zeren lehenbizico Evaren calte eta malur auhengarriac erreparatu behar zituen, bekhatu originalaren notharic gabe conzebitua; eta hola izaiten hasi zen bezen⁴⁸ laster izatu⁴⁹ duc grazia guzien dohainez eta faborez yantzia,

³⁹ *Transitive Object Genitive* delako ezaugarria normala da Iparraldean. Egileak eskrupuloski betetzen du, aditz nominalizatuaren eta objektuaren artean distantzia luzea denean ere. Ikus 2.5.2 “TO-Gen”.

⁴⁰ Euskaran *izorra* hitzaren erranahia ‘haur esperantxan’ izan da historikoki. Hitz hau duten hizkeretan *haurdun* ere existitzen bada, honen zentzua gehiago da ‘haurrak dituen’, ‘qui a un ou plusieurs enfants’.

⁴¹ *aingueruari*] *angueruari*.

⁴² ‘Cumplir / accomplir (desir, nahi, borondate, profetia bat...)’. Testuan gaindi adiera honetaz baliatzen da *osatu*.

⁴³ *Ikhugarrienen*: forma bitxi honen tankerako anitz emaiten ditu egileak. Superlatibo pleonastiko bat da, *-en* marka bikoizturik (ikus “Artikulu zehazturik gabeko superlatiboa”, SINTAXIA atalean).

⁴⁴ Izkirio osoan haxe da Cadet aphez dela bermatzen duen erreferentziarik garbiena.

⁴⁵ *Urrunago*] Urrun nago.

⁴⁶ Bat. *dituk*.

⁴⁷ < esp. *gallardía*. Cf. *gallaldiac* (6).

⁴⁸ *Bezain* orokorraren zenbait aldaera dokumentatzen dira Iparraldeko tradizioan. *Bezen* formari doakionez, *K&B*-koak lehen lekukotasunak izan litezke, orain artekoak hiru mende laurden aitzinatuz: “*bezen* (cf. *bezenbat* ya en Leizarraga) se documenta ya en 1831 (*JesBih*; tbn. en Jaurretche y *Marl*) y lo emplean además Hiribarren, H. Urruty, Oxobi y otros” (*OEH*).

⁴⁹ Partizipio berriak hatzematzen ditugu testuan: *izatu*, *egotu* etab., *-tu* atzizkia aspektu burutuaren markatzeko hartzen dutenak. Hona hemen *OEH*-k zer dioen: “Junto con *izan*,

erran nahi diat —aingeruac erran zangon⁵⁰ bezala— graziaz bethia. *Gratiâ plena...*

Eta yunta izac orai dohain brillant hoquiequin⁵¹ izaira edo naturaleza humanuaren gallaldiac,⁵² eta instantian ezaguturen duc ama viryina izan dela creatura guzietan den emac umeric heroico edo homantena.⁵³ Hitz batez: ikhusiren duc lehenbizico Eva dohacabea herrebes pintatua; hura bere dohainec galdu die,⁵⁴ eta hau zeruric gorenera alchatu die; haren baithan curiostasuna, hunen baithan discreziona; haren baithan presumziona,⁵⁵ vanaloria, urguluia, eta hunen baithan prudentzia, zuhurtzia, eta humilitatia.⁵⁶

< 7 > Hitz batez, Bettiriño: harrec bere gustu lizun batez izaira guzia lohotxatu dic, eta hunec bere merechimeduz haren calte guziac erreparatu ditic. Eta hori badaquic zertaco, Bettiriño? Zeren hari bere urustasuna bere heinetic⁵⁷ gorago igan nahi izaiteco zerbitzatu izan zangon bezala, huni zerbitzatu baitzaco bere buruiaren ezdeusteco.⁵⁸ *Ecce ancilla Domini.*⁵⁹ Eta hola zer guerthatu da? Commuzqui⁶⁰ urgulusei guerthatzen ohi zayotena:⁶¹ hura izan duc bere dohain guziataric buluziric, pharaizu⁶² dohaxu hartaric casaturic, emac umen dolore triste sami-

se documenta *izandu* en varios autores guipuzcoanos y alto-navarros desde principios del s. XVII. Hay *izatu* en autores labortanos de todas las épocas, aunque son escasos los ejemplos del s. XX.”

⁵⁰ Adizki sinkretikoa, ‘zion’ nahiz ‘zitzaion’ erranahiak har ditzakeena, testuinguruaren arabera.

⁵¹ Bada tema bikoitzasun bat bigarren graduko erakusleetan: *hoquieic / hoyec*. Ikus 2.3.3.

⁵² Cf. gazt. *gallardía*. Goraxeagoñi *gollardía* forma ere ageri da.

⁵³ *Humanta* “héroe, hombre famoso, de inmortal fama” (Larramendi). Iztuetak lekukotzen du: *bere indar guztiakin eraso zeban humanta Euskaldunaren kontra (Gipuzkoako probintziaren kondaira, 24. kap)*.

⁵⁴ *Galdu die* ‘(haiek hura) galdu ditek’. Hitanozko forma hau baxenafarreran koka daiteke.

⁵⁵ Cf. *presunziona* (22) eta *presunziunia* (3).

⁵⁶ Pasarte honetan kontrastea sortzen da egitura guztiz paraleloen bidez: *haren baithan curiostasuna, hunen baithan discreziona; haren baithan presumziona, vanaloria, urguluia, eta hunen baithan prudentzia, zuhurtzia, eta humilitatia*.

⁵⁷ *heinetic*] heinnetic.

⁵⁸ *ezdeusteco*] ez deusteco.

⁵⁹ *Domini*] Dni.

⁶⁰ Ikus *contez* (9).

⁶¹ 3. pertsonako datiboaren marka *-te* pluralgileaz. *Zayotena* ‘zaiena’.

⁶² Nafar-lapurteraren tradizioan *pharabizu* nagusitu da. Idazlearen hizkeran usu gertatzen den bokalarteko herskari ahostunen galerak esplikatzen du forma hau.

nei⁶³ suyetaturic, herrestan bere bizi luziaren khareatzera⁶⁴ condemnatua. Eta hau —erran nahi diat Ama Viryina— izan duc ez choilqui lehen Eva dohacabiaren eritasun cuxudunetic⁶⁵ exentatua,⁶⁶ ez choilqui emac umen dolore kharaxetaric urrundua,⁶⁷ ez choilqui pharaizu lurtar batian plazatua, bainan bai, zeruco ain-gueru serafinac baino gorago alchaturic, eguiazco Yainco guizon baten pharaizu eguina.

Ikhas ezazuie beraz, nescacha gaztiac, lehen Evaren alaba dohacabiac; ikhas ezazuie, Evaren < 8 > bidechca okherrac eta lanyerosac utziric, bigarren Eva —lehen a itxu bezen argui, zoro bezen zuhur— hunen bide chuchen eta segurraren seguitzen.

[CADET]: Orai goazin aitzina, Bettiriño, niri deusic behin galde eguin gabe. Artharequin entzuten nuyalaric.⁶⁸

BETTIRIÑO: Yauna, barkha zadazut, bainan neure ongui ikhasteco garxuarequin, ez nauque⁶⁹ orai berian zuri galde bat eguin gabe: noiz conzebitu zuien bi garren Eva hunec Hirurtasuneco bi garren presuna hura?

CADET: Izpiritu herrebesac emaiten dauc Bettiriño, ene toleatzeco⁷⁰ hatz bor-thiz hori; bainan ez dic irriric eguinen ni samurraziric. Viryina guzien lore eta elhorri gabeco arrosa charmant hunec —erran nahi diat Ama Viryina— erran zangon bezen laster bere enbachadore zerutarrari: *Huna Yaunaren zerbitzaria; Ecce ancilla*. Zeinac⁷¹ baitzen aurora, edo argui urratze⁷² ayros hunen onhexmendua-

⁶³ *saminei*] samei.

⁶⁴ Dardarkari bortitza denean egileak maiz idazten du *r* bakuna. Kontu grafiko xoil da. Cf. *zeratzia* (11), *zorotzac* (57).

⁶⁵ ‘Contagieux’.

⁶⁶ ‘Salbuetsia’. Partizipioa da (*exemptée*) eta ez erdaretan aiseago erabiltzen den adjektiboa (*exempte*). Cf. fr: *La Vierge a été, par grâce spéciale, exemptée de la peccabilité*.

⁶⁷ *urrundua*] urrun dua.

⁶⁸ *nuyalaric* bat. *naualarik*.

⁶⁹ *Egon* aditzaren forma markatua, euskara batuaz ‘nagoke’. Perpau honetan *ez nauque* ‘ez naiz egoiten ahal’.

⁷⁰ Martin Harrieten “Voces Gramaticales” hiztegian (*Gramatica escuaraz eta francesez*, 1741): “Tourmenter. Au figuré, tourmenter quelqu’un sans répit”. Cf. gazt. *torear*.

⁷¹ Egileak ez ditu erlatibo hauetako singularreko absolutiboa eta ergatiboa formalki bereizten, hortaz *zeinac* idazten du *zeina* beharko lukeenetan. Absolutiboa eskatzen duten perpauetan behin baizik ez du *zeina* ematen: *zeina baita* (13), gainerateko guztietan *zeinac* baliatuz (1 vs. 23ko proportzioan).

⁷² *Argui urratze* Hiribarrenek jasotzen du (ap. Lhande). Egileak hirtan baliatzen du *aurora*-ren erranahikide.

ren⁷³ marca clarua, instant berian yautxi zuian izpiritu < 9 > lurreco pharaizu huntara —erran nahi diat Viryina christalenen⁷⁴ sabel lastanera— eta hartu zian sabel elhurra baino miliunetan⁷⁵ churiago zen eta choilqui eguiazco Yainco batentzat gai⁷⁶ eta digno zen huntan⁷⁷ odol⁷⁸ chorta bat. Eta hortaric formatu zitian gorphutz eta arima bat bertze haurren bezala, eta guero Hirurtasun Sainduco bi garren presuna yauxi zuian, eta eguiazco guizon eguina guelditu behin bethicotz. Orai contez⁷⁹ hiz Bettiriño?

BETTIRIÑO: Yauna huntaz contez niz, bainan samur ez bazinite,⁸⁰ bertze galde labur bat banuque.

[CADET]: Phenxatzen diat, Bettiriño, zer galde eguin nahi duian.

BETTIRIÑO: Astia zira beraz yauna, zu; galde eguin nahi nautzun eya aita eta semia bera ere etzirenez trailatu⁸¹ ama viryinareen sabelian.

CADET: Hauche duc galde extraordinariaua eguin dautayana undarrian, Betti-riño. Uste duca galde suerte guzien arraphostuac eman ere badizaqueyadala?⁸²

⁷³ *Onbesmendu, onetsimendu* ‘maitasun’. Oso hitz bakana, hauxe da testu osoan agerraldi bakarra.

⁷⁴ Ikus *nescacha crystal* (4).

⁷⁵ Gehiagotasun konparazio formula hau Duhalderen Meditazioneak liburuan kausitzen ahal da: *Ni, Judas berria, Herodes berria, Pilatus berria, Borredo berria, eta hek guziak baino miliunetan areagoa, nere Jesus maitea hanbat aldiz gurutzefikatu, xehakatu, bil dudana!* (“Abisua”). Kadet eta Bettiriñon hiru aldiz ikusi dugu. Cf. *baino miliunetan hobiago* (90), *baino miliunetan handiago* (97). Ikus, SINTAXI kapituluak, “Egitura konparatiboak”.

⁷⁶ ‘Duin’. *OEH*-k Gipuzkoan, Baigorri eta Garazin kokatzen du *gai*-ren adiera hau. Batzuetan *gai* gehiago dateke ‘merezi izan’ (cf. *tronuaren baino ifernuaren gayago zen tyrano* (19)).

⁷⁷ Erlatiboa eskuinera: *sabel elhurra baino miliunetan churiago zen eta choilqui eguiazco Yainco batentzat gai eta digno zen [sabel] huntan*. Dударик gabe usantza zaharra da hau, testuetan gehiago lekukotzen dena Iparraldeko mintzoetan, baina ez bakarrik. Ikus, SINTAXIA kapituluak, “Erlatibozko egitura zenbait”.

⁷⁸ *odol*] *odo*.

⁷⁹ *Contez* forma bitxia da. Ez da *commuzqui, abondazqui* bezalakoa, zeren hauetan jatorrizko /n/ biziki ahultzen baita *-ki* atzizkiak har dezakeen *-z-* epentetikoaren eraginez. Gainera bada *contez* / *content* txandakatzea.

⁸⁰ Euskara batuaz ‘samur ez bazintez’. Usu “subjunktibozko baldintza” deitu izan da **edin*-en gainean eratzen dena.

⁸¹ *Trabailatu* > *trailatu*. Zentzu metaforikoan halako estualdi fisiko bat idurikatzen du.

⁸² *badizaqueyadala*] *badizaqueyala*.

BETTIRIÑO: Yauna, ez naiz anhez penetan yaquintasunez⁸³ eta arguiez, bainan bai anhezetan borondatiaz. Guzia zure nahian datza. Eta huntaz contentatuco naiz behin, bainan hunen arraphostuia behar dut.

CADET: Yaquin behar duc, < 10 > haurra, Trinitate Sainduco hirur presunec Yainco bezala eguiten diren obra guzietan phartalier direla; eta nahiz ascotan hirurac phartalier diraden, atzione edo eguintza hura bati choilqui bihurtzen zacola: zuhurtzia Aitari, eguintza Semiari, eta borondatia Izpiritu Sainduiari. Explicatzen nauc, nahiz hoc oro misterio edo ezin endelgatuzco gaindadi⁸⁴ batzu diraden: Hirurtasun Sainduian Semia Aitaren hitza duc, eta Izpiritu Sainduia Aitaren eta Semiaren arteco amodiua; eta zeren gure erospenco obra haundia amodiozco obra eta eguintza bat den, Izpiritu Sainduiari tocatzen edo bihurtzen zacona duc; bainan horrec ezdic erran nahi Semia bera ere ezdela ez guizon bezala, bainan Yainco bezala traillatu⁸⁵ Ama Viryinareen sabel sacratuian guizata-sunaren hartzen.

BETTIRIÑO: Yauna, asqui da, eta oraico content naiz, zeren gaindadia denaz gueroz ezdiogu⁸⁶ nihorc ere deusic endelga: bertzenaz ezlizateque gaindadi bat.

CADET: Hemen aphurto bat goiti beheiti bederatzi hilabatheren⁸⁷ buruian, publicatu ziteyan Judean⁸⁸ Augusto Erromaco zortzi garren < 11 > inperadoriaren edit edo ordena bat, zeinac manatzen baitzioten⁸⁹ guzierri yoaiteco bacocho bere

⁸³ *yaquintasunez*] *yanquintasunez*.

⁸⁴ *OEH*-n ez da agertzen *gaindadi* sarrera. Larramendik *garaiuste* zein *gaindadi* ematen ditu *mysterio*-ren euskal ordaintzat. Manuel Antonio Antia gipuzkoarrak (1830-1894) baliatu zuen, *San Frantzisko Asiskoaren bizitza* lanean (1901ean argitaratua), hala nola Lizarraga Elkanokoak: *Deitzendá* mystério, *naibaitu errán secréto gaindadi bárna góra* (*Urteco igande*, 146v). Testu honetan 10, 25, 32, 123, 165 eta 181. orrialdeetan edireiten da (bederatzi agerraldi guztira).

⁸⁵ Cf. *trailatu* (9).

⁸⁶ *Ezdiogu* ‘ez dezakegu’. **Iro* errodon forma, non, *-r-* behin galdurik, aditzoinaren presentziak emaiten baitu segurantza. Potentzialeko formen eratzeko baliatzen da **iro* erroa, haren eremu geolinguistikoa Ekialdea izanik. *K&B* testuan gaindi sei forma hatzeman ditugu, guztiak negatiboan: *ez diot* (54), *etziotela* (60), *ez baitiote* (62) *etzioyat* (159) eta *ez bailio* (202) dira besteak.

⁸⁷ *OEH*-k ez du *hilabathe* aldaera jasutzen. Orotara laur agerraldi, behin *hilabate*.

⁸⁸ *Judean*] *Judeam*.

⁸⁹ Forma sinkretikoa, kasu honetan ‘baitzien’ erranahiaz. 3. pertsonaren datiboa *-o-* batez markatzen da, eta datibo horren plurala *-te-* morfemarekin.

sort-herrira⁹⁰ bere buruiaren izquiriaztera,⁹¹ eta zeren Josef eta Maria senhar emaztiac ziren Judeaco tribu eta David erreguiaren familiaco ondoaco, yoan zituian biac Bethelamera, eta han zaudelatic, lehenbizico edo bi garren gauan Maria, ez bere yendetan ez bertzetan hostaturic hazeman ahalez, establia batian zaudelatic erdi zuian,⁹² eta bertze ahalic ez toquiric ez ukhanez, eman zian bere haur zerutarra othalacuan⁹³ trapu ihetche⁹⁴ eta⁹⁵ char batzueiz toachaturic.⁹⁶

Zer ikhusgarria⁹⁷ Bettiriño, zeruian aingueru⁹⁸ zerafinez ikhara daldaretan adortuia den Yainco puyanta, bere mayestate yaincotarra ez galduric, baizic choilqui eclipsaturic, urthian den sasoynic gogorrenian, abenduaren hogoi eta bortzian, othalaco zahar bat gorthetzat establian diagoc! Ya egun kharax⁹⁹ hunen argui urratzia, hunen garratza denian, zer izanen dirade eguberdia, eta ilhun zeratzia?¹⁰⁰ Ea Bettiriño, begui lamprotxu horiech chukhaturic eta ayrosturic ez banauc ichilic entzuten ya ni ichilduco nauc.

BETTIRIÑO: Nun da, yauna, bihotza izanic ere altzeiruzcua < 12 > ez choilqui Yainco gauza guzien yaun eta yabe dena, nahiz bere nahiz, bainan den pobrerich occaztagarrienaren haur gaicho bat ikhustiaz estatu urricalmenduxuen huntan, nigar urhuritu¹⁰¹ gabe egonen dena?

⁹⁰ Lexikalizazio oraino ez burutua. Aitzinago berriz ikusiko dugu *sorth* (14), eta bereiz idatzirik.

⁹¹ *Izkiriaraztera* irakurri behar da. Aditz faktitiboaren erabiltzeko arrazoina da, dudarik gabe, garai hartan jendeek ez zekitela idazten, hortaz *bere buruiaren izquiria(ra)ztera*, ‘à se faire inscrire’, semantikoki ‘izena emaitera’ denean.

⁹² *zuian*] zuiam.

⁹³ *othalacuan*] othalacuam.

⁹⁴ ‘Higatu, gustatua’. Nafar-lapurteraren eremutik kanpo soilik Lizarraga Elkanokoak lekukotzen du, *igetze* aldaeraz.

⁹⁵ *eta*] et.

⁹⁶ Aldaera lekukotu gabea, dudatik gabe herrikoia: *troxatu, toroxatu > tooxatu > toaxatu* ‘haurra oihaletan bildu’.

⁹⁷ Hemen *ikhus garri* izenkia da, jakina: ‘ikuskitun’. Cf. *ikhus garri* (18, 81) eta *ikhusgarri* (164). Adjektibo gisa ere erabiliko da (5, 14, 163).

⁹⁸ *aingueru*] aigueru.

⁹⁹ *kharax*] kharatz > kharax (autozuzenketa).

¹⁰⁰ ‘Zerratzia’. Cf. *khareatzera* (7).

¹⁰¹ *Urhubi* ‘hurlement du chien et du loup’ (Lhande). *OEH*-k Arberoan kokatzen du *urhuri* aldaera. Ohart bedi *K&B*-n kolokazioz funtzionatzen duela, beti *nigar* bat aitzin: *nigar urhuriz* (59), *nihar urhuritan* (197).

CADET: Arrazoin legitimua duc Bettiriño. Bainan zer phentxatzen duc,¹⁰² nahiz haragui hilcor batez eclipsatua eta establiaco othalaco errumes hartan ehortzia, haur dohatxu eta zerutar hau ez dela eguiazco yaincozat ezagutuia? Segurqui ezdic mundu ingrat eta esquer gabiaco ezagutu nahi, bainan bere borcha nahi eta ez obligatua duc ezagutzera eta aithortzera, bai eta ere nahiz arropa edo charar ihetche¹⁰³ heyez tochatuia eguiazco yainco bezala adoztazera. Bazituian gau hartan Bethelameco inguruetan artzain¹⁰⁴ batzu gabaz bere arthalden phazcatzen eta beirutzen zaudenac —nahiz othalacuan yarría ezduc gutiaco yainco— hunen aingueru batzu argui admiragarri batez inguratuac zirelaric aguertu zitzaizquiotean artzain hoquierri, eta erran: *Aleguera eta photz zitezte, berrietan den hoberenarequin heldu guitzaitzue, egun eta gaur*¹⁰⁵ *sorthu da < 13 > Daviten hirian salbatzaille bat, zeina baita*¹⁰⁶ *gantzatuia*¹⁰⁷ *eta yauna. Zuazte, artzainac, eta aurkhituren duzue establian othalaco batian tochatuia.* Eta guero instantian aingueru hoyequin junctatu zuian bertze aingeru mulho¹⁰⁸ haundi bat, eta guziec khantatu zitean boz batez: *Loria zeru guzietaco goreneco Yaincuari, eta baquia lurrian chede onezco guizonei...* Orduian instantian lasterca yoan zituian artzain hoc Bethelamera eta aurkhitu zitean Jesus haurra othalacuan¹⁰⁹ bere ama maitiaz, Ama Viryinez, eta San Yosepez compayniatuia, eta ezagutu ziteyan aingueruac eguia erran ziotela.

Circunzisioneco egun dolorosa yin tzenian ya seinditzen¹¹⁰ duc, Bettiriño, yudu lohien garbitzeco emana zen legue dorpeac etzuiela hunen baithan deus garbitzecoric, zeren legue eguille eta garbitasunaren ithurburu garbiena zen. Bainan den¹¹¹ bezala ere, zeren mundura ethorri leguen osatzera eta ez haustera, berac

¹⁰² *duc*] dut.

¹⁰³ *Charar ihetche* ‘trapu gastatu, higatu’.

¹⁰⁴ *artzain*] aitzain.

¹⁰⁵ Ekialdeko euskarán *egun* ‘aujourd’hui / hoy’ eta *gaur* ‘ce soir / esta noche’.

¹⁰⁶ Ikus *Zeinac baitzen* (8) eta oharra. Idazleak, kasu honetan izan ezik, beti erabiltzen du *zeinac* absolutiboa behar denean.

¹⁰⁷ *Gantzutu* espero genezake. *OEH*-ren arabera Añibarrok baizik ez du *gantzatu* lekukotzen. Testu honetan lau okurrentzia ditu *gantzatu* aldaerak, beste hirurak 59. eta 61. (2) orrialdeetan.

¹⁰⁸ Cf. *muilo* “Montoncito, bola”. Pouvreauren hiztegian *mulho* jasotzen da, eta hortik Van Eys eta Harrieten lanetara igaran zatekeen. Gure testuan ‘multzo’ adieran uler genezake, baina desordre ideiarri loturik. Cf. gazt. *pelotón* “conjunto de personas sin orden y como en tropel” (*DRAE*). Ikus *mulhoka* (24).

¹⁰⁹ *othalacuan*] othalacuan.

¹¹⁰ “La forma *senditu* (utilizada ya por Dechepare y Leizarraga) es propia de la tradición suletina y bajo-navarra; desde principios del s. XIX su uso se extiende a los labortanos” (*OEH*). *Seinditu*, orai artio, soilik lekukotu da Laneufvilleren katiximan. Cf. *seindimendu* (42).

¹¹¹ *den*] dem.

dioyen bezala, sorthu zenetic zortzi garren egunian circunzizatu¹¹² ziteyan¹¹³ eta aingueruac, aitzinetic conzebitua izan gabe, eman zangon izen bera, erran nahi diat Jesus. Eta hemendic zombait egunen buruian yin zituian eguzquia atheratzeco phartetic hirur erregue maguac < 14 > Jerusalemera, galde eguiten zutelatic juduen erreguia, eta erraiten heyen herri eta erresumetan aguertu zitzayela izar brillant eta charmant bat, prince berri hunen sorth¹¹⁴ seinalia marcatzen zuena. Berry ikhugarri bezen admiragarri hunec Yerusaleme¹¹⁵ guziac¹¹⁶ estonatu eta iguia-ratzi¹¹⁷ zian.

Orduian Herodesec (zeinac hila izan behar zuen, eritasun batequin erremedio eguiten ari baitzen) Jerichon yaquin zuenian berri ondiciezen¹¹⁸ hau, bilarazi zitian bere legueco guizon sabantac eta yaun aphezac, eta galde eguin eya nun sorthu behar zuen Christoc, eta aphezec arraphostua eman zacoteyan profeten promesen arabera: Bethelmen. Orduian, adrequi¹¹⁹ examinaturic eguiazco fedieren primizia prezios hoc —erran nahi diat Maguac— eya zoin demboraz eta nun aguertu zitzayen miraculuzco izar charmant hura, erran zayeyan: *Zuazte Bethelmera erregue berriaren hatzemaitera eta adoratzera, eta ikhusi duzuuien bezen laster, < 15 > artha eta atenzionerequin ezagaturic eta examinaturic, ethor zitezte ene ganat, amorecatic¹²⁰ guero ni ere yoan nadin nore¹²¹ aldian adoratzera.*

¹¹² “La forma mejor documentada es *zirkunzidatu*. Hay *zirkonziditu* en Leizarraga y *CatS*, *zirkonzisatu* en *CatLav* y *CatLan*, *zirkunzidatu* en Haraneder (en el voc. *zirkonzisatu*) y *zirkunzisatu* en Larreguy. Etcheberri de Ziburu emplea *zirkunzisatu* y (si no se trata de errata) *zirkunsezatu*, junto al gral. *zirkunzidatu*” (OEH).

¹¹³ *ziteyan*] *ziteyâ*.

¹¹⁴ Cf. *sort-herria* (11).

¹¹⁵ Toponimoak bokal paragogikoa hartu du. Cf. *Aralarre, Parise, Ustaritze*. Forma hauek deklinabidean dute jatorria: *Jerusalemetik, Jerusalem* etab.

¹¹⁶ Plural hau ez da aditzarekin komuntzatu: *berry hunec [...] Yerusaleme guziac estonatu eta iguiaratzi zian*.

¹¹⁷ Faktitibo honen zentzua idurizkoa da. Cf. *émouvoir / conmover*: *Esantza kementsu ta labur batek ainbeste igierazten dualako*. “Le afecta” (Zinkunegi apud OEH). Abertitzekoa da, bestenez, *-arazi*-ren afrikazioa.

¹¹⁸ Hitz honen eraketa honako prozedurari jarraikitzen zaio: *X+ ez* atzizki gisa. Erro bezala *ondico* “infelicidad”, “desgracia” (Lar). Cf. *ohicoez* (4) eta ikus oharra.

¹¹⁹ Gaskoieratik *adret* (cf. fr. *adroit*).

¹²⁰ Perpaus finalen sartzeko baliatzen den hitza. OEH-k: “Cf. cast. nav. *por (a)mor de, que; gascón pramou, permou, proumou que. a* (Precedido de sintagma nominal en genitivo). Por el amor (de), por consideración (a).” Espainolez, aldiz, lokuzio honek balio kausala ere izan du; horrela entzuten nion ene amatxi zenari eta horrela jasotzen du *DRAE*-k.

¹²¹ *Neure* > *nore* bilakaera Zuberoan ere kausitzen ahal dugu, hala nola Mendebaldeko zenbait hizkeratan.

[CADET]: Bettiriño, zer perfidia nabarra, zer hypocrisia beltza,¹²² zer intenzione eta chede malinua! Mamu gaitzex garrienen hunec, adozteco atzequia sainduiaren azpian, chederic¹²³ infamenena formatu dic.

BETTIRIÑO: Zer erraiten dautazu, yauna? Ez dut deusic endelgatzen, nahiz phenxatzen dudan zerbait chede traidore eta gaichto formatu duiela Herodes erre-guiac.

CADET: Segurqui, Bettiriño, Yudasen aita cruel, tyrano eta mamu odol egarri¹²⁴ hunec, adozteco estacuruian, haur zerutar hunen odol tendrian¹²⁵ eta garbian bere escu lohiac trempatu nahi zitian —erran nahi diat hil nahi zian. Bainan haur divino hunec, nahiz othalaco errumesian yarría —zeren etzen gutiago Yainco— huntaz irri eguin zian, erakhustera¹²⁶ emaiten zuielari munduco zuhurtzia zoraqueriaric baizic ezdela Yaincuaren aitzinian; *Sapientia huius mundi stultitia apud Deum*.¹²⁷

< 16 > Eta nahiz justiziazco eguzqui hunen arrayo ayrosac eta distirantac, haragui hilcor batez hoibelduac¹²⁸ eta itzaliac, etzirela bere baithan gutiago argui-xuiac,¹²⁹ athera zituian, beraz, eguiazco adozzaillen primizia prezios hoc ilhunbezco hiri dohacabe hartaric, eta bi garren Sodoma abomina garri huntaric

¹²² *Nabar* “trompeur, dissimulé, qui se présente sous différents aspects” (H. ap. *OEH*). Bestenaz, interesgarri da *beltz* adjektiboaren erabilera faltsukeriaren adierazteko (Xarles Videgainek *marda beltz* baten berri eman digu). Cf. *hipocrisia nabarra edo atxeguin beltza* (189).

Erran dezagun, bidenabar, Harrietek erranaldi hauxe jasotzen duela bere hiztegian etsenplu gisa: “Zer perfidia nabarra, zer hypocrisia beltza?”, iturria aitortu gabe. Ikus *uhunberat* (45), *lô gurkhusca* (141) eta *phico saaric* (153).

¹²³ *chederic*] chederi.

¹²⁴ *Odol egarri* ‘avidez de sangre’. Adjektibo bezala, cf. *odol egarri* “sanguinaire” (Lhande) eta, batez ere, *odol gose* (173).

¹²⁵ ‘Bigun’, zentzu propio nahiz idurizkoan. 1780ko etsenplu bat: *Caritate hedatienea eta tendrena guizonentaco ukhen duçuna* (Mercy: *Andere Dona Maria Scapoularioco Confrariaco bulla, decreta, statutac eta maniac edo chediac*, 22).

¹²⁶ *erakhustera*] erakhustea.

¹²⁷ Sententzia latinoak gogoratu nahi du gizakiaren jakitatea ergelkeria baizik ez dela Jin-koaren aitzinean. Doktrina honek San Pauloren du hasiera: *Nemo se seducat. Si quis videtur inter vos sapiens esse in hoc saeculo, stultus fiat ut sit sapiens; sapientia enim huius mundi stultitia est apud Deum* (I Ad Cor, III, 18-9).

¹²⁸ ‘Ilunduak’. *hobiellu*, *hoibellu* bezalako aldaerak hatzematzen dira baxenafarreraz. Cf. *goibel*.

¹²⁹ Hainbat gramatikaren arabera euskarak peitu duen gutiagotasunezko konparatiboa dugu hemen, aski segur erromantzeari hartu kalko egitura izanik.

ilkhi ziren bezen laster, aguertu zitzayeyan berriz bere izar guidazaille hura, eta guelditu Bethelamen, haur zerutar hunen etche dohaxuiaren gainian, bere boz mutuaz erakhustera emaiten zayelaric hamahirur gau egun hetan hainbertze anxiarequin heyec cherkhatzen zuten haur dohaxu hura han zaguela.

Sarthu zituian, beraz, lureco pharaizu dohatxu huntan, eta adonatu ziteyan, mundu guziari erakhustera emaiten zutelaric¹³⁰ bere present misterioxuez, nahiz pobre, errumes eta humil, othalaco hartan zaguen haur amulchu hura zela eguiazco < 17 > guizon, eguiazco erregue, eta eguiazco Yainco. Eta guero yuduiac, eta juduien aneya arreba dorpez irri eguinic —zeren Jesu Christo eguiazco Yainco guizon hunen aingueruac gabaz abisatu zituian Herodes catamotz¹³¹ enbidiosaren chede malinuaz— bertze bide batetic bihurtu zituian bere erresumetara; eta horra zertaco Eliza Ama Sainduiac trufaniaz¹³² edo erregueen egunian contra alderat eguiten duien bere meza nagusi aitzineco proosinua.¹³³

Erditzetic berrogoi garren eguna ethorri zen bezen laster —yadanic ikhusi duc, Bettiriño, Ama Viryina bene-causa¹³⁴ hunec etzuiela ez garbitze, ez purificazione beharric, zeren gauza lurtarrac etziren, den gutiena ere, deusetan sarthu obra admira-garri huntan; zeren yustiziazco eguzquiaren egoitza distirant hau etzen izan lehenbizico Eva curiosaren nothez den gutiena ere histuia, eta orainic are gutiago itzalduia—. ¹³⁵ Bizquit-artian presentatu zuian bere seme maite eta garbiarequin, eta zeru lurren Erreguina puyantenen hau, choilqui Moysesen leguiac pobrei manatzen zayen presentarequin, ama lastanen hau templuian¹³⁶ sarthu zen bezen laster, < 18 > Simeon zaharrac eta Izpiritu Sainduiaz arguituiac hartu zian bere escuietan Jesus haurra, eta erran: *Yaincuari eta yaun gorenari esquerrac emaiten daizquiot, eta hemendic goiti phozic hilen naiz, zeren ikhusi dudan Salbatzaillia eta*

¹³⁰ Ikus *yaincuari osoqui hitz emana zuien* (3).

¹³¹ 'Tigre, gato montés, lince'. Cf. fr. *chat-tigre* "Appliqué à une personne p. réf. à la cruauté de l'animal" (*TLF*). Guk dakigula, Iparraldean soilik dokumentatzen ahal da Egiategirengan. Iduri luke egileak Larramendiren hiztegiara jo zuela ordain xerka frantsesaren *tigre* ('agressive, féroce' pertsoneri egokitzen zaielarik) itzultzeko, orotara lau aldiz baliatzen duela (17, 183, 191 eta 199. orr.).

¹³² "L'Épiphanie. Syn: *aparizio*. [Cf. lat. *teophania*; v. fr. *tifaigne*.]" (Lhande).

¹³³ *Proosino* (Duvoisin, ap. *OEH*) 'procession'. *Proosione* (L., N.) ematen du Lhandek.

¹³⁴ Latinetikako mailegatze zuzena.

¹³⁵ Anakoluto dateke hemen: iduri luke hastapeneko erranaldia, parentesi luzearen moienez, bukatu gabe gelditu dela, ahantzia bezala.

¹³⁶ *templuian*] templuian templuian.

Israelen iduricipena.¹³⁷ Eta orobat erran zian dembora berian Anna alharguntxan: *Ni ere, orobat, atxein guzien artian hilen naiz, zeren ikhusi dut ya ikhus garri*¹³⁸ *bakhotcha*¹³⁹ *israeliten artian da*.

Nola zeremonia legatz hunen onduan Joseph eta Maria preparatzen ari ziren Nazaretherat bihurtzeko, aingeruac gabaz abisatu zian Yoseph Egyptorat yoaiteco Jesus haurra eta Ama Viryinarequin, zeren Herodes cruelac hatz eman¹⁴⁰ nahi zuen hiltzeko. Herodesec ikhusi zuenian, harc othoitztu edo manatu bezala, maguac etzaizcola aguertu, baizic hartaz khasu guti eguinic bere erresumetarat bihurtu zirela, colera fulian¹⁴¹ sarthuric, masacratu eta hilarazi zitian Bethelamen comarca hetaco bi urthetarainoco haur ttipi guziac.

Ikhusac BETTIRIÑO: guizon itxu eta faltacorren chedeac zoin diren banuac eta ezdeusac: enbidia, < 19 > yelosia edo errabiaren esclabo nardagarri hunec, beldurrez berac ebaxia zuen erresuma hura gal,¹⁴² haur bakhar bat hilarazi nahiz, hainbertze amen haur maite abrilarazi¹⁴³ izan ditic; eta bertze guziac hilarazi onduan, hauche bakharric biziric utzi dic.

Hilpen¹⁴⁴ urricalmenduzco hunen onduan fite hil zuian Herodes cruela, bere erresuma ttipia borchaz bere seme Archelauri uzten zangolaric. Lurraren eta orainic tronuaren baino ifernuaren gayago¹⁴⁵ zen tyrano cruel hau hil eta zombait hi-

¹³⁷ 'Esperantza'. *Irudiqui*-ren aditzoina den *iduric* erro gisa harturik. Ez bedi nahas, beraz, *iduripen* (23) hitzarekin (< *iduri*). Cf. *iduric ere zezaqueyen* (97).

¹³⁸ Cf. *ikhusgarria* (11).

¹³⁹ Euskara zaharrean *bakoitz* 'bakar'. Cf. *Arespakotxaga* (< *aretx* + *bakotx* + *aga*), *begibakhotx* 'begibakarra'. "En esta acepción (única en Leizarraga), su uso va disminuyendo con el tiempo; a partir del s. XVIII es muy poco frecuente, conservándose mejor en la tradición suletina" (OEH).

¹⁴⁰ Hau izan ezik, *hatzeman* beti lotua. Beharbada xede etimologiazale bati zor zaio.

¹⁴¹ Iparraldeko tradizioan *furia* nahiz *fulia*. Bi sinonimo emaiten dira batera: *colera fulian*.

¹⁴² *Beldurrez*-ek du aditzoin hau manatzen, aditz laguntzailearen elipsia dela tartean: 'beldurrez erresuma hura gal [zezan]'. Badira beste etsenplu: *Beldurrez Jesusi suerte bera guertha zitzaquion* (39), *beldurrez igaraca atheratzian oguia athera edo cordoca* (73), *beldurrez zombait tratamendu gogor errezebi* (136), *beldurrez escapa* (177).

¹⁴³ OEH-n ez dago. Van Eys-ek honela jasotzen du: "*abrildu* — gip. 'inmoler' *aber* + *il* + *du*. "[...] un de très rares qui aient rapport à un culte quelconque". Hitzza Larramendirena da: "Immolar, matar en sacrificio alguna res, *abrildu*". Iduriz soilik Serafin Baroja gipuzkoararak (1840-1912) erabili du, *Prudente* operan (1878).

¹⁴⁴ Agerraldi bakarreko hitza da hau.

¹⁴⁵ OEH: "mercedor, (el) que merece (*gai izan* es "merecer" con cierta frecuencia al Norte)". Ikus *gai eta digno* (9).

labatheren buruian, aguertu zitzacoyan Yosefi Yaunaren aingueruia Egyptuan, eta erran zangoyan ya bihur zitaqueyela¹⁴⁶ Yudearat, lanyerric gabe, zeren haur hura hil nahi zuiena bera hil tzen,¹⁴⁷ haurra biziric utziric. Yosef ilkhi izan zuian, beraz, Egyptotic¹⁴⁸ berela;¹⁴⁹ bainan Yudeala¹⁵⁰ heldu ondun —zeren aditu zuien Archelau haren semiac erreguinatzen zuien, eta zeren beldurra bazuien Archelau, bere aitaren erresumaren bezala, haren beraren crueltasunaren ere primu izan etzadin—¹⁵¹ yoan nahiago izan ziteyan Nazareth Galileaco hiri ttipira, zeinetara < 20 > ez¹⁵² baitzen hel-tzen Archelausen erresuma, eta Jesus han egon zuian Yosef eta Maria bere aita amequin, marachturi¹⁵³ edo zurguiñaren offiziuian trailatzen¹⁵⁴ zelaric; batzuien arabera hogoy eta hamahirur urthetaraino, bainan bertze zonbaiten arabera (San Sabas) hemezortzi urthetatic eta hogoy eta laur urthetaraino¹⁵⁵ fraide nazareno egon zuian, eta hogoi eta laur urthetan¹⁵⁶ yoan zuian mundua behin ere hartu gabe utziric, Izpiritu Sainduiaz guidatuia zelaric, desertura, den gutiena ere beharic gabe, penitentzia eguitera.

Hogoy eta bederatzi urthetaco adinian izan zuian Yordaneco erriberan Yendone¹⁵⁷ Yoanne Baptista gure patroin loriosaz batheyatua, eta hogoy eta hamar urthetaco adinian abiatu zuian predicatzen, miraculuric espanta-garrienac eta admira-garrienac eguiten zituelaric: hala nola itxuiac arguitzen, mutuac mintzaraz-

¹⁴⁶ *Zitaqueyela* ‘zitezkeela’, *zaitaqueyela* ‘zitezkeela’ (43, 173).

¹⁴⁷ *hil tzen*] hiltzen.

¹⁴⁸ Ahoskeraren araberako grafia. Ber paragrafoan *Egyptuan* irakurtzen da.

¹⁴⁹ ‘Berehala’. Forma higatua honen agerraldi bakarra testu osoan, *berehala* zazpi aldiz dokumentatzen delarik.

¹⁵⁰ Badira testuan *-la* gisako adlatibo bakanak, beti ere hitzak *-a* organikoa duenean: *itxasgorala* (45), *Yudeala* (19) eta *bisayala* (181), baina *Yudearat* (19) eta *bisayara* (193). Hazparneko egungo mintzoan *-la* adlatiboa eransten da *-a* berezkoa delarik: *plazala*. Atzizki hau, bestenaz, Ekialdetik joan da hedatuz azken mendeetan.

¹⁵¹ Erran nahiaz *ez* da *ez*-ik behar; menturaz frantsesaren eragina da: *de peur qu’il ne fût*.

¹⁵² *ez*] *ez ez*.

¹⁵³ ‘Arotz, zurgin’. *Maiasturu* dateke forma kanonikoa, *mabasturu*, *masturi*, *marasturu*, *maaxturu*, *mahaxturi*, *maiastru* eta abar luze bat lekukotzen direlarik. Oro har, *-ia* determinatua Baxenafarroan kokatzen da.

¹⁵⁴ *Trabailatu* > *trailatu*. Ohart aditza iragangaitz jokutzen dela.

¹⁵⁵ *urthetaraino*] urthelaraino.

¹⁵⁶ *urthetan*] uthetan.

¹⁵⁷ *Jondoni* da formarik hedatuena. *OEH*-k jasotzen dituen 19 aldaeren artean, ordea, ez da *jandone* aurkitzen. *Jandone* Baigorri eta Lapurdiko baxenafarreran erabiltzen omen da, eta *jandone* Garazi, Baigorri eta Arberoan. “Como señalan Harriet y Arradoy se emplea generalmente con los santos más importantes o de mayor antigüedad o tradición”, Hazparneko zaindariarekin agitzen den bezala.

ten, mainkhuiaç chuchentzen, eriaç sendotzen, eta undarrian, hilac phizten. Zer diot, Bettiriño! Yadanic laur egunetan ehortziac eta ustelduac zirenac, berriz berri berritan¹⁵⁸ phizarazten zituelaric. < 21 > Eta gauza onhex-garri hoc hainbertzetaraino eta hain abondazqui¹⁵⁹ eguin izan ditic, nun Yendone Yoanne ebanyelistac erraiten eta erakhusten baitaucu munduan ez dela ez paper, ez ancre¹⁶⁰ edo tintaric asqui ez iduquitzeco, ez izquiriatzeco.

Yesus haur zerutar hau yoan zuian hamabi urthetaco adinian bere aita amequin Jerusalemera —nahiz hunen gazte eta tendre— hogoy eta hamar lecua luze eta dorpe eguiten zituelaric lehenbizico aldicotzat, bere phazco sainduien zelebrazera yuduen leguen arabera. Maria eta Yosef zeremonia legatz hau osatu eta bihurtu zituan Nazarethera, uzten zutelaric heyen haur maitia eta bakharra, gutitan bere beguien aitzinetic escapatzen zitzayena, osoqui eta guziz maite zutelacotz, bertze ahaide edo adichquidequin guibeletic heldu zitzayela. Bainan ongui estonatu eta ikharatu zituan, Bettiriño: arraxian baster guzietan gauzezqui¹⁶¹ chercatu onduan, Jerusalemera berriz bihurtu behar izan zituan, eta hatzeman ziteyan biharamonian templuan yarria hainbertze yaquinxun < 22 > eta doctorren artian, hoyen presunziona eta urgulua ahalguetzen eta confonditzen zuielaric, eta guziac admiraturic eta ahalgueturic uzten zituelaric.¹⁶²

Bere aita amec erakhuxi zacoteyan, natural zen bezala, seme huni bere sorpresa eta pena haundia, zeren beguietaco ninia bezen maite zuten; bainan semiac etzayeyan ihardexi deus ere, baizic erran hura nola behar tzen¹⁶³ aurkhitu bere aita zerucuaren eytecuetan,¹⁶⁴ eta hala hura aurkhitu edo hazeman nahidutenac, templurat edo elizarat ethorri behar direla.

Yendone Yoanne Baptista, Zachariasen semia eta Hasparneco gure patroin loriosa,¹⁶⁵ desertuan bizi onduan hogoi eta hamartutaco¹⁶⁶ adineraino, aguertu zuian

¹⁵⁸ Hirukoizte enfatiko hau berdin agertzen da 75. orrialdean, bai eta beste moldez ere: *berri berritan berriz* (185).

¹⁵⁹ Disimilazio bat, gertatu dateke: *abondanzki* > *abondazki*. Ikus *contez* (9).

¹⁶⁰ *Ancre* < fr. *encre*.

¹⁶¹ Forma lekukotu gabea (< *gauzez* + *ki*), *gauzezkiro* da hurbilena: (Larramendi ← Harriet) “Inútilmente” Lar.

¹⁶² *zituelaric*] *zituietaric*.

¹⁶³ *behar tzen*] *behartzen*.

¹⁶⁴ Grafia fonetikoa: *egiteko* > *eiteko*.

¹⁶⁵ Hau da izkribuaren geografikoki kokatzeko balia dakigukeen erreferentzia estralinguistikorik argiena.

¹⁶⁶ Haplologia: *hamar urthetaco* > *hamartutako*.

arte huntan Yordaneco erriberaren heguian, bathaiozco penitentzia predicatzen zuielaric, eta erraiten yuduerri heyec hainbertze dembora luzez iduriquitzen¹⁶⁷ zuten Mesias famatu hura undarrian aguertu zela eta israeltarren artian zaguela, eta ya bahia bere escuietan, bere escaatzaren¹⁶⁸ garbitzera zohala¹⁶⁹ < 23 > eta ogui bihia ahotzetic¹⁷⁰ berechiric ahotzaren erretzera zuhala.¹⁷¹

BETTIRIÑO: Yauna, aspaldian ezdautzut deus ere galde eguin, bainan yauna, orai azaldu behar dautazu, eta erran, zer dioyen gure patroin loriosac ogui bihiaren berechte hortaz eta ahotzaren erretziaz, ezic ez dut deusic endelgatzen...

KADET: Hau duc, Bettiriño, parabola edo paretasun bat, edo orainic hobequi erraiteco iduripen bat, nahiz gauza izan ez dena¹⁷² seinalatzen eta sinificatzen duten, eguiaric haundienac berequin dakharquizenac.¹⁷³ Eta paretasun edo parabola hotaz Jesus Christo bere ebanyelio sainduian anhez zerbitzatzen duc, yuduerri hobequi bere eguia haundien sarrarazteco eta sinhexarazteco, eta guziz bere discipuluerri erraiten zayenian: *Ni naiz eguiazco mahastia, eguiazco bortha, eguiazco artzaina*; eta horrelaco bertze anhez paretasun. Hemen erran nahi dic beraz Yendone Yoanne Baptistac eguiazco Mesiasen aintzindariac, undarrian yin justiziazco eguzqui ederra bere graziazco eta misericordiazco arrayo distirantequin itxu guzien arguitzera < 24 > eta eguiazco ogui bihia berechiric eta aphainduric —erran nahi dic justuac eta sainduiac bekhatorosen ganic berechiric— undar hoquien ifernurat condemnatzera; zeren ahotzac, bekhatorosac eta gaichtaguinac sinificatzen ditic. Eta orai uz nezac ichilic segui dezadan nore khondaira¹⁷⁴ sainduia.

¹⁶⁷ *Iguriki* aditzaren aldaera hau, *OEH*-ren arabera, “se encuentra en autores labortanos del s. XVIII y primera mitad del XIX”.

¹⁶⁸ *Eskaratz* “1^o piece la plus vaste d’une maison, située immédiatement à l’entrée [...]” (Lhande).

¹⁶⁹ Forma hau ongi lekukotzen da. *Corpus Arakatzailleak* honako emaitzak eskaintzen ditu: Larreguy, Laphitz, Joannatéguy, Lapeyre, Duvoisin, Adema, Hiribarren, Elissamburu eta Etxamendi, besteak beste. Hiriart-Urrutyren adibide bat dakargun: *Erdinkala lur zolarat zohan berehala* (*Gontzetarik jalgiaraziak*, “Uholdea”). *Zuhan* bezalakoak (3, 23, 45, 50, 96, 164...), ordea, ez dira beste inon dokumentatzen.

¹⁷⁰ *Ahotz* ‘lasto’, ‘residuo de paja golpeada y trillada’.

¹⁷¹ Ikus *zohala* (22).

¹⁷² Erlatiboa eskuin: ‘izan ez den gauza’.

¹⁷³ *dakharquizenac*] *darkharquizenac* .

¹⁷⁴ *Khondaira* hitza tradizio bikoitzekoa da: jatorriz ‘kontakizun’ adieraz baliatzen da, hemen bezala. Larramendik Harrieten hiztegitik hartuko zukeen ‘historia’ erranahiaz hornituz, eta handik aitzina bigarren adiera honekin hedatuko zatekeen, batez ere Hegoaldeko larramenditarren artean.

Zeren, beraz, mundu guzia mulhoca¹⁷⁵ yohan zen¹⁷⁶ Baptista aingueruac baino sainduiago zen hunen gana,¹⁷⁷ yoan zuian bere¹⁷⁸ Jesus Christo ere bertze yenden artian. Lurreco aingueru hunec ikhusi zuien bezen laster Ama Viryinarenen sabel sacratutic ilkhi baino lehen agurtu eta ezagutu zuien zeru lurren Yaun yabe eta nagusi puyant hura, eta erran zacoyan bertze guzien artian: *Zer, Yauna? Zu, garbitasun guziaren surtza, saindutasunaren ithurburua, justiziazco eguzquia, nic batheya? Contrat*,¹⁷⁹ *ni behar naiz izan zutaz batheyatua*. Orduan ihardexi < 25 > zacoyan Yesusec: *Unezac*,¹⁸⁰ *emac-ume guzien seme alchatuena, ezic hula behar diat*¹⁸¹ *osatu justizia guzia*.

Orduan, bertze sorthu guzien artian, pribilegiatuzco, eta desertuco aingueru admiragarrien hunec batheyatu zian zeru lurren Yaincua, nahiz haragui hilcor baten ilhun eta itzalcoyez eclipsatua. Yesus uretic athera eta othoitzten yarri zen bezen laster —guri erakhustera emaiteco choilqui othoitzta dela zeruco guiltza edo gakhua— zeruiac instantian zabaldu zituian, eta yaxi zuian Izpiritu Saindua urtzo tortorela¹⁸² baten figuran, Jesus Christoren buruiaren gainera, eta dembora berian mintzatu zuian Aita eternala edo bethicua, erraiten zuielaric: *Zu zira ene seme maitia eta ene complazentzia edo plazer guzien objet bakharra*.

Huna nun dugun beraz, Bettiriño, Hirurtasunezco gaindadi edo misterio, ni horc ere ezin endelgatu eta azalduzcua, guc clarqui ezagutua: Aita mintzo dena, < 26 > Semia othoitzetan daguena, eta Izpiritu Saindua urtzo amulchuaren echu-

¹⁷⁵ Ikus *mulho* (13). Cf. gatz. *a pelotones*.

¹⁷⁶ *Yohan zen* ‘zihoan’. Kanbiamendu aspektual bat gertatzen da *joan* aditzak *-h-* hartzen duelarik. Cf. *heldu da* ‘bidean da’. Ohart bedi perpaua berean *yoan zuian* ere agertzen dela, kasu honetan aspektu burutua adieraziz.

¹⁷⁷ Erlatibo hautsia (eskuinera): *Baptista aingueruac baino sainduiago zen [Baptista] hunen gana*.

¹⁷⁸ Arazo bat pausatzen du *bere* honek, lekuz kanpo ikusten baitugu: ez da posesiboa, eta baztertu behar da *ere*-ren forma izan dadin. Beharbada hutsa da, *beraz* idatzi gabe ondoko *ere*-k, kutsaduraz, *bere* eragin dukeelakoz.

¹⁷⁹ *Kontrarat, kontrala* ‘a contrario’. “Documentado al Norte desde la primera mitad del s. XVII. Al Sur el primer testimonio corresponde a mediados del s. XVIII” (OEH). Forma hingatua, bokalarteko *r* galduaz.

¹⁸⁰ *Unezac* ‘utz nezak’.

¹⁸¹ *behar diat*] behardiat.

¹⁸² *Urtzo tortorela* forma kultoa da, ezen nafarlapurteran lekukotu dena *ttorttoila*, *ttorttola* bezalako formak dira. Egileak fr. *tourterelle* duke idatzizko erreferentzia. *Urtzo*-ri doakionean, “la forma *uso* se documenta en textos vizcaínos, guipuzcoanos, alto-navarros, labortanos y en algunos bajo-navarros. Hay *urzo* en autores suletinos y en *TB*, Goyhetche, Salaberry, Samper y Etchamendy, *urtzo* en Arbelbide, Etchamendy, Zubiri y Gatzitegi”.

ran¹⁸³ yautxia dena. Hemen, Bettiriño, orainic eguin nitzaquec bertze zombait ohartpen;¹⁸⁴ bainan ez luzegui izaiteco, guazin aitzina.

Eguintza misteriotxu hunen onduan, yoan zuian Jesus desertura Izpiritu Sainduiaz guidatuia, debruaz tentatuia izaiteco. Berrogoy gau egun luzez barur egon onduan gosetu zuian, eta izpiritu gaichtua hurbildu¹⁸⁵ zangoyan eta esqueni harri bat, erraiten zangolaric: *Yaincuaren semia bahiz, itzul eta conberti zac harri hau oguitara*. Bainan Yesusec garhaitu zian izpiritu gaitzex garrien hau, ihardesten zangolaric etzela guizona ogui choilez bizi, baizic Yaincuaren ahotic ilkhitzen ziren solas salbagarriez. Izpiritu malino eta orai artio garhaituia izaitia zer zen etzaquien hunec, estonatuia, bainan ez orainic lotxatuia, hemendic¹⁸⁶ eraman zian mendi haundi baten puntara, eta orainic < 27 > erran zacoyan: *Lurrian ahozpez yarriric edo belhaunicaturic nahi banuc adoratu, hemendic ikhusten dituiian erresuma eta toqui eder hoc oro emanen daizquiat*. Jesusec hemen mehachatu zian eta ihardexi zangoyan: *Ezcritura*¹⁸⁷ *sainduian errana duc: hire Yaincua bakharric adoratu eta zerbitzaturen duc*.

Bi effort eta yauzi gauzez¹⁸⁸ hoquien onduan, eta undarrian, mamu narda-garri hunec undar¹⁸⁹ enxeyuraren¹⁹⁰ eguiteco ya bere baithan estonatuia, suprenitua, izitua, lotxatuia,¹⁹¹ eta ikharatuia,¹⁹² bainan laur mila urthe luzeren nagusitasunaren onduan orainic ez arras desesperatuia, eguiten dic ezin hartuzco dorre edo zitarella¹⁹³ hunen contra hirur-garren eta undar yautzia eta saltua: baderamac,¹⁹⁴

¹⁸³ Testuan maizago ageriko da *ichura*, zaharrago den formatik abiatua (< gazt. *hechura*).

¹⁸⁴ Forma honen giblean, guk uste, “aditzoinaren tinkatze” gisa defini genezakeen joera dateke, *ohart* bezalako aditzoin bat eratorpenezko erro gisa hartzean. Ikus, ADITZ MORFOLOGIA kapituluan, “Aditzoina”.

¹⁸⁵ *hurbildu*] hurbil du.

¹⁸⁶ *hemendic*] hemen dic.

¹⁸⁷ Txistukarien hiperzuzenketa. Dena den, geroxeago bada *izcritura* (28). Cf. *espiritu* / *izpiritu* parean.

¹⁸⁸ *OEH*-ren informazioa: “Inútil; despreciable, ínfimo, sin importancia. Documentado sólo al Sur, con mayor frecuencia entre los autores vizcaínos”. Larramendiren hiztegikoa bada ere, bere moldera erartortzen du egileak: *gauzezqui* (21).

¹⁸⁹ *Undar* ‘azken’, izenkiaren ezkerrena.

¹⁹⁰ Forma lekukotu gabea, *-ura* atzizki erromanikoaz hornitua.

¹⁹¹ Hemen *lotxatuia* ‘beldurtua’, Ekialdean espero den bezala.

¹⁹² Testua oparoa da gradazione bat duten halako zerrenden emaitetan: 1 *estonatuia*, 2 *suprenitua*, 3 *izitua*, 4 *lotxatuia*, eta 5 *ikharatuia*.

¹⁹³ *d* > *r* bilakabidearen etsenplu bakana. Fenomenoa zaharra: cf. gazt. *quedar* > *geratu*; *mediku* > *miriku*; *aixkide* > *aixkire*.

¹⁹⁴ *baderamac*] badera-mac.

beraz, luma arin bat izan baliz bezala, Jerusalemeco templuaren dorre haundiaren moco mocora eta erraiten dioc: *Yaincuaren semia bahiz, aurthiac hire burua hemendic beheiti, ezic izquiriatua*¹⁹⁵ *duc: "manatu dio < 28 > bere aingueruari bere escuietan airian hatzemaiteco, amorecatie harrierri contra bere zanguac larru ezditzan".*

Hemen, Bettiriño, zeren ikhusi zuien eguiazco Yainco guizon hunec, izpiritu higun-garrienen hunec senxu faltxu eta contraco bat emaiten zangola izcritura sainduiari. Enfadatu¹⁹⁶ eta hasarreturic bezala ihardexi zangoyan: *Urrun hadi eneganic, izpiritu faltxu eta guezurraren aita gorrotzgarria*.¹⁹⁷ *Ezic ezduc tentatuco hire Yainco Yauna.* Hemen Debrua bere laur mila urthetaco nagusitasun ebaxia galduric, istant ihes yoan zuian, eta zeruco aingeruec eman zioteyan yatera capitain valheroxu eta curayoxuen huni.

Nun zituztet hemen, christau erphel¹⁹⁸ eta flacuac? Zer atzequia ekharriren duzue zuien erorico auhen-garriez desenkhusatzeco? Zuazte, zuazte, zuien capitain edo buruzagui hunen escolara, dudaric gabe zuien buruien < 29 > condemnatzera!

BETTIRIÑO: Yauna, ez dut dudatzen ez dela Jesus Christo guizon bezala huia-tuia,¹⁹⁹ khitzicatuia edo, zuc diozun bezala, tentatuia izatu izpiritu ifernutar hartaz; zeren Yainco bezala ez baitzitaqueyen izan, eta hola claro da, eguerdico arguia bezen,²⁰⁰ tentazionetan lerratzen edo erortzen²⁰¹ diren guirichtino lazuec, ez duquetela²⁰² arrazoin asquiric bere erori-cuetan Debruaen accusatzeco; zeren Jesus Christoc guizon bezala garhaitu duien guri garhaitzen erakhusteco. Bainan yauna, estonatuia naiz aditziaz, zure mintzatziazen arabera, Debrua hain ernia eta adreta

¹⁹⁵ *izquiriatuac*] *izquiriatua*.

¹⁹⁶ Forma hau ez da ohikoa nafarlapurteraren eremuan. Hegoaldeko mintzo batzuez landa, Zuberoan sartu da (*infadatu, efadatu* ap. Lhande).

¹⁹⁷ Horrela originalean. *Gorrotagarria* ulertu behar da. Cf. Larramendiren *gorrotgarria* "detestable", ABORRECIBLE sarreran *gorrotagarria* ematen badu ere; kasu honetan huts tipografiko baten hedakuntzaren aitzinean izan gintezke.

¹⁹⁸ *Erphil* hitzaren aldaera lekukotu gabea dateke *erphel*: "Au propre qui a l'air, qui est maladif, faible, frêle; flétri, blême" (Harriet ap. OEH). *Erphel* formak sei agerraldi ditu, eta *erphil*-ek bakarra.

¹⁹⁹ 'Exciter, encourager'.

²⁰⁰ Kontu egin bedi konparatiboaren sintaxiaz: *eta hola claro da, eguerdico arguia bezen [claro]*. Izenondo bat atributo edo predikatu osagarri bezala emaiten denean lotzen bazaio berdintasunezko konparatiboa *bezain* erabiltzen da. Kentzen baldin bagenu *bezain* hori eta eskuinera igortzen, egungo euskaran *-bat* behar litzateke erantsi (*bezainbat*). Behin baizik ez dugu kausitu *bezenbat*: *zeruian izar den bezent bat parabola* (139).

²⁰¹ *erortzen*] *erortzen*.

²⁰² Ikus, ADITZ MORFOLOGIA kapituluan, "*-Ke*-dun adizkiak *realis* moduetan".

izan, izpiritu hux bezala, eta nola etzuien desertuan ezagutu guizon mirex-garri hura eguiazco Yainco guizon zela, yadanic Yainco bezala pharaizutic casaturic harec berac ifernurat aurthiqui²⁰³ izan zuenaz gueroz.

CADET: Jesus Bettiriño, uste nian gaur²⁰⁴ ehiela²⁰⁵ < 30 > acabatuco galde fin gabeco hau! Bizquit-artian, zeren ikhusten dudan atxein eta plazer haundirequin, ez curiostasunezco causaz, bainan bai ongui ikhasteco chede batec galde mortal hau eguinarazi dayan, entzun ezac attentzione eta artharequin. Elhorri gabezco arrosa eder, eta biryinen ohore eta edergailu hunec —erran nahi diat Ama Viryina— Hirurtasuneco bigarren presuna, Yainco izaitetic guelditu gabe guizatu hau conzebitu baino lehen, Izpiritu Sainduiaren moymenduz²⁰⁶ esposatu zian San Yosepec, Jesu Christori guizon bezala aita lekhuco²⁰⁷ zerbitzatzeco; ezic yadanic ikhusi duc —baldin orhoitzen bahiz— Jesus Christoc, Yainco bezala, ez duqueyela aitaric, zeren bethi danic berenaz baithatza.²⁰⁸

Esposatu zian, beraz, hodoy lanhoric gabezco argui urratze edo aurora ayros hunec laur arrazoin direla causa. Lehenbizicoric, Yosefen yenerazionia edo ethorquizunaz,²⁰⁹ Mariarena ere ezagutua < 31 > izan zadin. Bigarrena, Maria senharic gabe izorra ezagutu, eta Moysesen leguiara arabera,²¹⁰ adultera bat bezala harrica hila izan etzadin. Hirur-garrena, Mariac bere Egyptoco piyaya²¹¹ luzian eta nequean ukhan zezan soccorri, consola eta lagun²¹² zezaqueyen lagun²¹³ bat. Laurgarrena, zioc san Ignazio Martirrac, amorecatic debruac trompa eta enguena ziten, Ama Biryinaren erditziaz uste zutelacotz eta phenxatzen, ez biryina lastan baten,

²⁰³ *aurthiqui*] *authiqui*.

²⁰⁴ Gogora *gaur* ‘esta noche’.

²⁰⁵ *Ehiela* ‘ez huela’.

²⁰⁶ ‘Moción, inspiración, impulso’.

²⁰⁷ *Aita lekhuco* “Celui qui, dans un mariage ou autre acte public, remplace le père absent. On dit de même: *aita-lekhuko*, remplaçante de mère” (Duvoisin ap. *OEH*).

²⁰⁸ Hemen *etzan* ‘existitu’ itzul liteke. Guk dakigula, *etzan* ez da adiera honekin gehiago lekukotu. Cf. *etzan* “existir, residir” (ap. *OEH*). Ikus *zatzala* (50, 113).

²⁰⁹ Cf. *OEH*-ko 5. adiera: ‘Descendencia’ (Añ). *K&B*-n ‘geroaldi’ adieran ere: *iragana eta ethorquizuna bardin present baitziren* (114); *hirur demborac —erran nahi diat iragana, presentecua eta ethorquizuna—* (147).

²¹⁰ Estonagarria gutzit. Izkirio osoan ez da (eta guk dakigula beste inon ere ez) *adlatibo* + *arabera* egituraren beste etsenplurik. Hortakotz, egilearen hutsa dateke. Cf. *leguiaren arabera* (133).

²¹¹ Bat. *bidaiia*.

²¹² *Lagundu*-ren aditzoina; ez, nonbait igurika litekeen *lagun*.

²¹³ *Lagun* “1^o compagnon, qui accompagne” (Lhande). Jakina, ‘amigo / amie’ errateko *adixkide* baliatzen da testuan zehar, euskara komunean izan den bezalaxe, salbu garai moderonoko Hegoaldeko euskal herrialdeetan.

bainan bai senhar emazte batzuien semia zela guizon puyant eta miraculuzco hura. Eta hola, Bettiriño, debruac, zeren diren²¹⁴ guziz amarruxuac, baziteyan zerbait duda eta sospecha gutiago edo guehiago, bainan ezdic egundaino segurqui yaquin izatu khurutze dorpe hartan itzatuia izan artio. Eta gauza hoc oro hulache phasatu dituc, dudaric den gutiena ere gabe, Yaincuac nahi zuielacotz, eta hula comeni zelacotz. Eta guazin aitzina orai, mihi luche hori hortzen artian ichilic iduquitzen duylaric!

Hemendic dembora pochi baten buruian, Yendone Yoanne Baptista Bethabera Yordanen < 32 > haindico²¹⁵ aldian yende batheyatzen ari zelaric, Jesus phasatu zuian han gaindi Galilearat bihurtzen zelaric, eta Baptista ikhusi zuien bezen laster erran zayean bere discipuluetaric bierrri: *Horra Yaunaren notha gabeco bildocha eta mundu guzia salbatu behar duien bictima prezioxua; horra beha zozue, horra mundutic bekhatus khendu eta casatu behar duena*. Orduian bi discipulu hoc yoan zituian Jesusen ganat, eta harequin egotu²¹⁶ egun hura guzia, ilhun narrian.²¹⁷ Andresec encontratu edo hatzeman zian Simon, eta orobat guidatu Jesusen ganat. Jesusec ikhusi zuen bezen laster Simon, Andresen aneya, hau erran zacoyan: *Simon, Yoanaren semia deitzen hiz, eta*²¹⁸ *hemendic aitzina Cepha deithuren hiz, erran nahi dic harria edo harroca*. Orhoit hadi izen huntaz, Bettiriño, eta ikhas eta hartzac ongui, ezic demboraz baliatuco zauc, zeren anhiz gaindadi bere baithan zerratzen ditic.²¹⁹

²¹⁴ Mendeko perpaus esplikatibo honen aditza ezkerrean da. Gisa honetakoak abundantak izanik ere, bildu ditugun etsenpluak oro *izan* aditzari dagozkio.

²¹⁵ *Haraindi* > *haindi* 'bertze alde' forma uzkurtua, *OEH*-ri jarraikiz, XIX. mendean hasten da dokumentatzen ekialdeko dialektotetan. Hiriart-Urrutyk baliatzen zuten: *Etxea sal, eta alpotxak bizkarrean eske; edo bertzenaz ibesi itsasoaz haindirat* (*Zezezenak Errepublikan*, 68).

²¹⁶ Partizipio pleonastikoa, aspektu burutuaren markatzeko. Cf. *izatu* (6) eta ikus bertako oharra.

²¹⁷ Bereiz, grafia etimologikoa baita (cf. *sort-berrira* (11)). Adjektibo honek soilik agertzen da bokalarteko *-b-* galdurik *ilhun naar* konposatuan, eta ez beti: *ilhun nâarrian* (79), *ilhun naarrian* (153), *ilhun narrian* (32), baina *ilhun nabarrac* (87).

²¹⁸ *eta*] *eya*.

²¹⁹ *Zerratu* "enfermer, contenir" Harriet ap. *OEH*. Zeren on guztiak diren zure baithan zerratzen (*Etxeberri Ziburukoa*: Man II 203). Testu honetan formula gisa da erabilia: *anhiz gaindadi bere baithan zerratzen ditic* (32); *zeinec bere baithan zerratzen baitu ebanyelio guziaren substantzia eta iduquipen guzia* (49); *bere baithan zerratzen duien gaindadia* (124); *hainbertze gauza eder eta abantailos bere baithan zeratzen* (115).

Biharamona yin zenian, Jesus athera zuian zanguen²²⁰ lekhtuc bihurtzeco Nazarethat, < 33 > Simon —edo hemendic goiti deithu behar dugun bezala, Bettiri—, Andres, Barthelemi hirur discipulu berri hotaz compayniatuia zelaric. Nola Jesus guzien aitzinian zuhan, rencontratu zian Philipo, eta erran: *Segui nezac, Philipo*, eta hunec ere seguitu zian atxein haundirequin. Eta guero, hunec orobat encontratu zian Nathanael, eta erran zacoyan: *Badaquica berri haundi bat Nathanael? Aurkhitu²²¹ diguc²²² Messias nazarentar,²²³ Josefén seme Jesus deitzen zen hura*. Nathanaelec ihardexi zacoyan irri erkhatz²²⁴ batequin Philipori: *Nola da possible hiri ttipi eta char hartaric gauza onic atheratzia?* Jesusec ikhusi zuienian Nathanael haren ganat heldu zitzangola, erran zian, hau ikhusi bezen laster: *Horra eguiazco israeltar bat, guziz naturala!* Nathanaelec, arras estonatuia, galde eguin zangoyan: *Eta zuc, noiz edo nun ezagutu nauzu, Yauna?* Jesusec ihardexi zangoyan: *Philipoc hi deithu baino lehen ikhusi hit²²⁵ phicuaren azpian*. Orduian erran zacoyan Nathanaelec: < 34 > *Yauna ikhusten dut, eta sinhesten, zu zirela eguiazco Messias, Yaincuaren Semia eta Israelgo erreguia*. Orduian Jesusec errepliatu zangoyan: *Ikhusico duc, bertze gauzaric ikhusten dituianian,²²⁶ zeruac zabalduric Yaunaren aingueruac igaiten eta yausten guizonaren semiaren gainera*. Anhitzetan²²⁷ hula mintzo zuian Yaun gaurenen²²⁸ hau erakhusteco bere humiltasun admira-garria eta guizatasuna edo humanitatia.

Bethaberatic yin zuian Jesus Galileaco Canara, eta zeren hemen comitatu zuten bere ama maite eta discipuluequin eztey batzuietara, eta zeren suertez edo hala-beharrez²²⁹ arnu accabatu zitzayen —dudaric gabe uste baino yende guehiago

²²⁰ Txandakatzea: *zanguen / zanguen*. Bigarrena forma berria, iraganaldiko beste adizkiek duten *-n*-arekiko analogiaz. Kasu bera da *zacon / zangon*. Ikus *zangoian* (2) eta bertako oharra.

²²¹ *Aurkhitu*] aukhitu.

²²² Forma alokutibo berria, bat. *diagu*. Hitzunak, solaskidearekiko erreferentzia *-a*- marka galdurik, hasten da *-k* eransten: *diagu* > *diaguk* > *diguk*. Testuan, alta, bada *diat*.

²²³ Forma zinez bitxia, ez dugu *-n-* tartekatatu horren aztarnarik beste inon ikusi. Egileak *Nazareth* idazten du (2, 19, 21, 32, 41, 82), baina eratortzean *nazarent(h)ar* (33, 42, 176, 195) eta *Nazarengua* (172, 174, 176), agian *nazareno* (20) formatik abiatzen delako.

²²⁴ 'Erlats'. *OEH*-ren arabera, *erkhats* 'ronquera' Lapurdiko behenafarrerari legokio. *Irri erkhatz*, *boz erkhatz* bezalako moldeak Hiriart-Urruty eta Larzabalengan ediren ditzakegu. Aldiz, bukaerako *-tz* sibilante lepokaria testu honetan baizik ez da dokumentatzen.

²²⁵ Bat. *haut*. Hazparneko Elizaberrin eta Urkoin lekukotu dira *hi* & *hit* formak (ikus Yriar 1999: 486).

²²⁶ *dituianian*] diluianian.

²²⁷ *Anhitzetan*] anhitz etan.

²²⁸ 'Jaun gorenen' ulertu behar da. Forma pleonastikoa, superlatibo marka bikoizturik.

²²⁹ *halalabarrez*] hala beharrez.

yin zaizquielacotz—, erakhuxi zayeyan yende ospe²³⁰ huni nor, eta zer tzen, eta zer eguin etzezaqueyen,²³¹ ur hotza arnoric hoberenera itzul arazten zuielaric. Eta hola lehenbizico miraculua eguiten bakharric bere ama maitiari atxein eta plazer eguiteco.

Miraculu estonagarrienen hau < 35 > eguin edo obratu onduan, yoan zuian hemendic Capharnaurea —zeinetan ez baitzen egon dembora liphar²³² bat baizin— bere ama eta discipuluequin, zeren lehen baino lehen joan nahi eta behar tzuien^{233, 234} Jerusalemara, bere phazcuen zelebrazera. Hiri bere nahiz dohacabe zen huntara heldu eta sarthu zuian templu magnifico hartan, eta zeren aurkhitu zituen friperies²³⁵ eta marchand quichquila²³⁶ batzu sacrificizuetaco ihizi eta hegastin batzuiuen saltzen, ahalgue gorritan casatu zitian, erraiten zayelaric: *Nola ausartatzen zirete Aita bethicuaren templu sainduiaren horren²³⁷ ausarqui zikhintzera, eta othoitz-ezco etche sainduiaz ohoin zilho baten eguitera?*

Zer diozue hemen, christau ausart ezacholac,²³⁸ zuyen buruzagui curayosaren baino marchand quichquila hoyen imitazailiac? Zuiec, zuien hitz solas ascotan funx gabez eta guehiaguetan²³⁹ escandalosez —ez figuretan, yudu itxu hequiec

²³⁰ *Ospe* “Aparato, tren o mucha gente que acompaña” (*Voc. Baztanés* apud *OEH*). *Oste* da hitzaren forma ohikoa. Gure testuan beti agertzen de *jende ospe*, orotara hogei aldiz.

²³¹ *Ez* enfatikoa: *zer eguin etzezaqueyen* ‘zer egin zezakeen’; izan ere Jesus mirakulu guztien gauzatzeko kapable da. Cf. esp. *de qué no era capaz; qué no daría yo*.

²³² ‘Istant bat’. “*Denbora liphar bat*, une parcelle de temps (Vie de J.C. manuscrite)” Harriet ap. *OEH*. Badakigu Maurice Harrietek testu hau baliatu zuela bere hiztegiaren egiteko, UHUNBE edo PIKO-SAGAR sarreretan segurta daitekeenez. Ikus “Izkribuaren herexa”.

²³³ *behar tzuien*] behart zuien.

²³⁴ Originalean *behart zuien*. Mozketaren egiteko zalantzaz apart, argi da afrikazioaren kontzientza.

²³⁵ Frantses zah. *frepe* > *friperie*, “Vêtements, objets défraîchis ou abîmés par l’usage et qui se revendent d’occasion. Par méton. Commerce de vieux vêtements ou d’objets usagés” (*DAF*). Ohart bedi pluralez baliatzen dela.

²³⁶ *Kixkil* “mezquino, despreciable; pobre” (SP ap. *OEH*). Erremarka *K&B*-n -a organikoa duela.

²³⁷ Gogora bedi euskara historikoan (bai eta egun, erregistro jasoan) *honen - horren - bain* hirukoteak hiru graduetako erakusleei egiten diela erreferentzia. *OEH*-ren arabera, Iparraldeko tradizioan *horren* gibelatuz joan da XIX. mendetik. Gure testuari doakionean, iduri luke arau indarrean dagoela, solaskideari *horren* baitzaio egokitzen.

²³⁸ *ez acholac*] ezacholac.

²³⁹ Mugagabea espero genezake: *behin baino guehiagotan*. Ez da hutsa, hiru agerralditan kausitzen baitugu (35, 147, 181). Euskararen korpusean adibide bakarra hatzeman dugu: *Orduko zoin gehiagotetan zenbat sari ez zuen irabazi!* (Lafitte, *Euskal literaturaz*, “Barbier jaun apez”).

bezala, bainan errealitatian— asqui ez den othoitz-ezco²⁴⁰ etche sacratuaren < 36 > profanatzia, orainic eguiazco guiristuac,²⁴¹ bere debozione gartxuan trublatzen eta nahasten dituzuenac, uste duzuie aldariaren gainian yarria dagon bildoch amulchuen hori begui gabia dela? Uste duzuie amodio fin eta leyalenaren bahi eta prenda amulchuen hori eguiazco coleraren arrotz dela, nahiz aldarian eguiazqui misericordia eta amodiaren trônuan yarria? Berautzuie trompa, berautzuie enguena!²⁴² Eguiteco seriosa da, ezic juduec profanatzen²⁴³ zuten templu magnifico hura etzen oraico elizen echurapen algal²⁴⁴ bat baizin; bainan orai zuiec profanatzen duzuien templuia Jesus Christoren espos maitia da, othoitezco etchia da, lureco pharaizuia da, erran nahi dut Yainco biziaren egoitza sacratuena da.

Yesusec, beraz, khendu onduan marchanca²⁴⁵ hoc templutic, zonbaitec escatu zioteyan eya zertaco²⁴⁶ casatu zituen, bainan Jesus contentatu zuian emaitiaz arraphostu misteriotxu hau: *Hautx zazuie < 37 > templu hau; bainan nic hirur egunez berriz eguinen dut*. Hemen yende hoyec etziteyan endelgatu, zeren uste zuten Jesus mintzo zen templu material hartaz, bainan bere buruiaz mintzo zuian, edo clarquiago erraiteco bere heriotziaz, eta guero hirur garren egunian berriz lorios phiztiz.

Occasione huntan Jesusec eguin zitian anhez miraculu, eta hoyen medioz anhitzec hunen baithan sinhexi ziteyan. Bainan Jesus etzuiian anhez fidatu hotan, zeren ziren anhez inconstantac eta sanyacorrac. Jesusec zezebratu zitian bere phazcuac, eta hoche dituc bere bizi aguerrian edo publicuan zezebratu dituen lehenac. Jesus, beraz, Jerusalem zanguelatic yoan zangoyan erraitera Nicodemo famatuia, hainbertze miraculu estonagarri eguiten zuyenaz gueroz, prezisoqui eta necessarioqui, Yauna harequin izan behar zela.

²⁴⁰ *othoitz-ezco*] othoitz-ezezco.

²⁴¹ Hutsa ez bada, forma arras bitxia, beste lekukotasunik gabekoa. Jadanik bagenuen, testuan zehar, *christau / guiristino* txandakatzea.

²⁴² Adizki uzkurruak (< *begina *edun*). Aditzoina eskatzen duten forma hauen zentzua: *ez zaiztete trompa, ez zaitezte enguena!* Bada beste etsenplurik: *Beraun gueiagi bekhaturic eguin* (134); *berautzuie [hunqui]* (176).

²⁴³ *profanatzen*] profananatzen.

²⁴⁴ 'Argal' ulertu behar da.

²⁴⁵ Forma lekukotu gabea. Baliteke hitz bukaerako *-t, -k* herskarien arteko nahastekamen-duaren ondorio izatea; halere *marchant* (35). Kasu horretan *-a* organikoa onartu beharko genuke: *marchanca hoc*.

²⁴⁶ 'Zergatik'. Cf. fr. *pour quoi* 'zertarako' nahiz 'zergatik'. Hau destinatiboaren hedakuntzari lot dakiok (ikus SINTAXIA). Ikus *zertaco* (124), non pasarte berean *zertaco* galtoari lau aldiz ihardesten baitzaio *zeren*.

BETTIRIÑO: Arrazoin zuien, yauna, Nicodemoc. Nic ere bertze hoinbertze²⁴⁷ erranen nion, ezic nola da possible, yauna, guizon gauzez batec ur hotza eta garbia arnorat itzularaz dezan?

CADET: Arrazoin duc hic ere, Bettiriño, bainan goazin aitzina. Nicodemoc bere solasac accabatu zituenian, < 38 > Jesus abiatu zangoyan mintzatzen baptauaz edo bi garren erregenerazioniaz edo sortzeaz, direlacotz guiristinotasunezco lehen borthac, *janua celi*,²⁴⁸ erraiten zangolaric dembora berian²⁴⁹ hura zela munduaren arguia eta Yainco biziaren seme zerutic lurrera yautxia. Nicodemo lehen bizian uzchurchcotto²⁵⁰ egon zuian eguia gogor hoquierri, bainan onduan, ikhusico duian bezala, sinhexi zian.

Yerusalemetic Jesus Galileara berriz itzuli goguan, Judearat yoan zuian; eta guero, Yordaneco erribera bazterrera yoanic, abiatu zuian urez eta Izpiritu Sainduz —edo hobequi erraiteco graziez eta dohainez— batheyatzen. Hau batheyatzen²⁵¹ abiatu zen bezen laster, ethorri zuian hunen ganat izigarrico yende ospe eta mulho²⁵² haundi bat, hunen batheu²⁵³ puyant eta dohatxuiaren errezebitzera. Eta jende ospe hau hain izan zuian haundia, nun Baptistaren²⁵⁴ discipuluac enbidiaz eta yelosiaz arranguratu bait-zaizquion bere nagusiari, erran nahi diat Yendone Yoanne Baptistari. < 39 > Bainan hunec ihardexi zayean bere discipuluerrri bere humiltasun ohicuaquin etzela hura Messias baizic Messiasen aitzindaria: *Hura duc esposa, eta ni ez nauc esposaren adichquidea baizin; ni nauc argui hastia*²⁵⁵ *edo urratzia, bainan hura mundu guzia arguitu behar duien eguzqui ederra eta distiranta.*

²⁴⁷ *Hainbertze* nagusitzen da *hoinbertze* berriaren aitzin (26 vs. 4). Corpus Arakatzailaren emaitzak ikusirik XIX. mendean hasi dateke hedatzen: Laphitz, Hiribarren, Hiriart-Urruty, Elissamburu, Bordaxuri... Posible da, beraz, *K&B*-renak lehen agerraldiak izan litezen. Cf. *zoin* (4) eta *zonbat* (46).

²⁴⁸ ‘Zeruaren borta’.

²⁴⁹ *berian*] beria.

²⁵⁰ Bi atzizki: *-xko*, *-tto*.

²⁵¹ *batheyatzen*] baitheyatzen.

²⁵² Ikus *mulho* (13).

²⁵³ Lekukotasun bakarreko forma; bestenez *ba(p)thaiο* agertzen da. Cf. Mendebaldeko *bateo* eta Ekialdeko *batheii*.

²⁵⁴ *Bapistaren*] Bastistaren.

²⁵⁵ *argui hastia*] arguia hastia.

Hemendic^{256, 257} dembora labur baten buruian, Bettiriño, Yendone Yoane Baptista gure patroin loriosa, eguia leyalenaren lekhuco garxua, izan zuian harrastatua²⁵⁸ eta presundeguien emana, Herodes aita iduri seme cruel hunen ordenez. Beldurrez Jesusi suerte bera guertha zitzaquion,²⁵⁹ joan zuian Galilearat, zeren Herodes odol egarriac etzuien han bat ere autoritateric. Bidian johan zirelaric²⁶⁰ Jesus guelditu zuian samaritanuen hiri ttipi baten onduan, zeinac²⁶¹ deitzen²⁶² baitzen Sichar; eta bera yartzen zelaric Jacopen phutzu baten onduan, egorri zitian bere discipuluetaric biga²⁶³ hirirat zerbait gauzaren erostera.

Arte huntan yin zuian < 40 > samaritano bat pichar edo pegar batequin urqueta.²⁶⁴ Jesusec, zeren zen ahitua eta egarritua, escatu zacoyan emac ume huni edatera.²⁶⁵ Emac ume hau estonatu zuian galde huntaz, zeren juduieac eta samaritanuec etzuten suiac eta urac baino guehigo²⁶⁶ adichquidetasunic ez comunicazioneric elgarrequin. Guero erran zacoyan Jesusec bazuiela bizizco ur bethico dohaxutasuneraino hel araz zezaqueyena, eta jinen zela fite dembora zeinetan haren aita izaren baitzen adoratuia ez choilqui Galilean eta Jerusalemen, bainan bai orainic munduco laur cantoinetan, bihurtzen zacotelaric omenage, adorazione edo culto garbi eta izpiritu huxezco bat. Orduan erran zacoyan, Bettiriño, samaritanuac nola iduriquitzen zuten Messias, duda guziac khenduric eguia purra erakhuxiren zuiena: *Ni naiz, orai zurequin mintzo naizena, zuyec eta mundu guziac iduriquitzen duzuien eguiazco Messias hura.*

²⁵⁶ *Hemendic*] hemen dic.

²⁵⁷ Deiktikoen erabilera bitxia, narratzailea kondairaren denbora eta lekuan kokatzen duena.

²⁵⁸ *Arrastatu* “detener, arrestar, confiscar” (Urt, Lar ap. *OEH*).

²⁵⁹ *Gertha zitzaquion* ‘gerta zekion’. **Edin* aditzari ez dagokion hastea baliatzen da, iraganaldiko beste adizkiekiko analogiaz (dena den, *zaquiola* (51)). Bidenabar, ohart bedi aditzoina *beldurrez*-en eraginpekoa dela; cf. *beldurrez berac ebaxia zuien erresuma hura gal* (19) eta ikus oharra.

²⁶⁰ ‘Zihoalarik’. Cf. *yohan zen* (24) eta ikus bertako oharra.

²⁶¹ Cf. *zeinac baitzen* (8) eta ikus oharra.

²⁶² *deitzen*] deithen.

²⁶³ “*Biga* s’emploie quand il n’est pas joint à un subst., de même que *bia* son syn”. (Harriet ap. *OEH*).

²⁶⁴ Adberbio ‘en busca de agua’. -*Keta* atzizkiak zerbaiten xerka ibiltzen dela adierazten du. Cf. *perla prezios-queta* (75), *phicoqueta* (153), *lekhuco queta* (189).

²⁶⁵ *Ėskatu* aditzaren erregimena adlatiboa izan daiteke.

²⁶⁶ *OEH*-k, Iparraldeari dagokionean, Aturrialdean eta Bardozen kokatzen du *guehigo* aldaera. Bestenaz, testu honetan *guehiago* da forma ohikoa (43 agerraldi).

Arte huntan yin zituian bi < 41 > discipuluac hiritic bere gauzac erosiric, eta solizitatu ziteyan Jesus yatera;²⁶⁷ bainan hau, yan gabe, contentatu zuian erraitiaz bere discipuluerrri bazuiela bertze yanhari suerte bat orainic heyec ezagutzen etzutena, zeinac baitzen²⁶⁸ haren aita bethicuaren borondatiaren eguitia. Hoc yaten han utziric, yoan zuian emac ume hura hirirat, eta publicatu eta hedatu zian hiri guzian istant batez Jesusequin eguin zuen solastea segurtatzen zituielatic guizon hura profeta haundi bat zela; zeren hari egundaino ez ikhusi, ez ezagutu gabe, phenxatu eta hasmatu²⁶⁹ zaingon²⁷⁰ haren bizico eguintza guziac. Berri ohicoez hau aditu zuten bezen laster, Sichemeneco yende guzia casic mulho eta tropaca yuan zuian Jesusen gana, eta othoitz errequeitu²⁷¹ zitean heyen hirian sartzeco. Jesus sarthu zuian, beraz, hiri hartan eta egon bi egun, eta anhizec sinhexi zitean, eta conbertitu zituian.

Hemendic athera eta Galileaco sinagoguetan predicatzen zuielatic, pasantian²⁷² yin zuian Nazareth bere hirirat. < 42 > Hemen predicatu zian Isayas profeta famatuia eguiazco Messiasi emaiten zaizcon marca seinale guziac bere buruiari bihurtzen zaingolaric;²⁷³ beraz, erakhustera emaiten zuielatic hura eta bera zela eguiazco Messias. Nazarentharrec²⁷⁴ osoqui onhesten eta laudatzen zitean, Betti-riño, hunen yaquintasun admira-garria, bainan hunen sortze aphilaz eta errumesaz escandalisatzen zituian. Jesusec, zeinac bihotzetaco seindimendu²⁷⁵ gordenenac eguberdicto arguia bezen clarqui ikhusten baitzituen, mehachatu zitian nazarenthar okher hoc bere bihotzeco gogortasunaz, eta etzayean bertze miraculuric eguin nahi izatu, erraiten zayelatic eguia haundi hau: etzela bacocha bere herrian profeta.

²⁶⁷ *-ra solizitatu*. Cf. orrialde honetako *-ra escatu*.

²⁶⁸ Cf. *zeinac baitzen* (8) eta ikus oharra.

²⁶⁹ *H-dun* formak nagusitzen dira. Cf. *hasmatu* (120), *hasmapena* (79), *hasmazailiac* (83). Salbuespen dira *asmatuia* (62) eta, arrazoin desberdinengatik, *asmequia* (205).

²⁷⁰ Objektu pluraleko forma. Beraz, *zangon* '(hark) hura hari', *zaingon* '(hark) haiek hari'. Hazparne aldean iraun duen *-i-* honen balio pluralgileaz, ikus ADITZ MORFOLOGIA.

²⁷¹ *Errekeritu > errekeitu*. "Documentado desde Dechepare hasta finales del XIX en autores septentrionales no suletinos" (OEH).

²⁷² Forma lekukotu gabea. Gure ustez frantsesaren *gérondif* delakoaren egokitzapen bat izan daiteke: *en passant à pasantian*.

²⁷³ Bat. *zizkiolaric*.

²⁷⁴ Ikus *nazarentar* (33).

²⁷⁵ Lapurdiko tradizioan *sentimendu* bada aldaera nagusia, baxenafarreraz *sendimendu* gailentzen da. *Seindimendu*, oraindaino, soilik hatzeman zitekeen amikuzeraz: Laneufville-ren katiximan eta Alphonsa Rodriguezen itzulpenean (*seindimendugabe*, ap. OEH). Cf. *seinditzen* (13).

Nazarethar²⁷⁶ hoc eguia hunec hain mutindu,²⁷⁷ samindu eta kharastu zitian, nun eraman baitzuten Yesus mendi moco batera, harroca peña²⁷⁸ batzu behera handi aurthiquitzeco. Bainan oy berriz ere, orainic, Bettiriño, guizonen zuhurtzia zoin den gauza banua Yaincuaren beguian! Jesus hoyen artetic nihorc ere ikhusi gabe escapaturic, berriz < 43 > yoan zuian Capharnauna, zeinetan eguiten ohi baitzuen bere egoitza ordinariua, nahiz etzen hemen ere anhez dembora eguiten, zeren bethi²⁷⁹ casic bazabilan baster guzietan predicatzen, instruitzen eta erakhus-ten; eriac sendatuz, itxuiac arguituz, mainkhuiac chuchenduz.

Yin zuian beraz bi garren aldian Canara, eta nola han zagon Herodes erreguiaren officiale bat zeinaren semia eri baitzagon Capharnaun, officiale²⁸⁰ hau yoan zangoyan Jesusi, othoy senda ziozola²⁸¹ bere semia. Eta nola Jesusec ihardexi zion ya bihurt²⁸² zaitequeyela, zeren yadanic haren semia sendotu zen, officiale hau bere etcherat zuhalaric yin zaizquiayan²⁸³ bere sehiac bidera, bere seme maitiaren osaasunaren²⁸⁴ berri onarequin, erraiten ziotelariac atzo eguerditic, edo egun erditic oren batian osoqui, colpu²⁸⁵ colpuz sendotu zela. Hemen ezagutu zian Jesusec, eritasun suerte guzien irasenda²⁸⁶ ahalku hunec, tenor²⁸⁷ hartan erran zangola: *Hire semia ya sendua duc.*

²⁷⁶ Nazarethar] Nazenthar.

²⁷⁷ Mutindu ez da aditz bezala lekukotzen; bai, ordea, *mutin* ‘rebeldé’.

²⁷⁸ Harroca guztiz normala da Iparraldeko tradizioan, eta *peña* (< gazt. *peña*) ere erabili izan da. Bada *harri-peña* (Barbier ap. *OEH*) eta *harpeña* “Grosse pierre, quartier de roche” (Duvoisin ap. *OEH*), baina ez *harroca peña*.

²⁷⁹ *bethi*] bathi.

²⁸⁰ *Officiale* nahiz *offiziale*, biak perpaus berean. Oso bakana da <ci> grafia, eta beti ere hizkuntza mailegatzaileren ohitza grafikoen mendeko.

²⁸¹ Bat. *ziezaiola*. *Ezan-en forma tripertsonalen artean, testu honetean, oso bakanak dira -i- datibo ikurra agertzen dutenak: *ziozola* (43), *ziotzon* (127) eta *diezadayen* (187); bestenaz *zezola* ‘ziezaiola’ (81), *zoc* ‘ieziaik’ (61), *zozue* (32), *zozuie* (57), *bezo* ‘biezaio’ (134).

²⁸² -T akabantzadun aditzoina. Ikus *izit* (3).

²⁸³ Bat. *zitzaizkioan*.

²⁸⁴ Forma hau ez da, guk dakigula, dokumentatua izan. Azentua gora behera, gure idazleak beti ematen du bokal bikoitzarekin: *osaasuna* (144, 175). Cf. *osaagarri* (121) (baina *osagarriaren* (144)).

²⁸⁵ “Blessure, contusion” ap. *OEH*. Lapurdin eta Nafarroa Beherean *kolpe* denean forma ohikoa, zuberotarrek eta amikuztarrek *kolpu* baliatzen dute. *K&B*-n, beraz, hitz markatua litzateke.

²⁸⁶ *Irasenda* “Contraveneno, antidoto” Larramendiren hiztegian. Orai artio José Cruz Echeverria gipuzkoarrak (1773-1853) baizik ez zuen lekukotzen. Cf. *erisendaric* (142).

²⁸⁷ *Tenor*, *tenore* ‘era, modu’ adieran jadanik Leizarragak ematen du: *eta skriba zietzon letra batzu tenor hunetakorik* (*Act* 23, 25). ‘Denbora, memento’ adieran, ordea, berriagoa da: Zubereroan eta Amikuzen lekukotzen da XVIII. mende erdirako eta, *OEH*-ren arabera, “a partir

Hemendic zombait egunen buruian, Tiberiaseco itxasuan, bi garren aldicotzat deithu zitian Jesusec Bettiri eta Andres bi aneyac < 44 > arraintzan ari ziren uretic. Eta aphurttu bat urrunago²⁸⁸ yoanic, eta orobat aurkhituric, bere ganat deithu zitian Yacobe eta Yoannes Zebederen bi semiac. Ebiacoitz edo larunbate²⁸⁹ batez, synagogan predicatzen ari zelaric, sendatu zian demoniuaz hartu edo poseitu bat. Orobat synagogatic atheatu²⁹⁰ onduan, sarthuric Simonen etchian, sendatu zian discipulu hunen amasua²⁹¹ sukhar zahar eta borthitz batetic. Biharamonian anhez goizic sepharatu zuian bere discipuluetaric eta yoan lekhu berechi eta sepharatu batetara othoitz eguitera, guri erakhustera emaiteco dembora berian onguí othoitz eguiterico yende ospetic eta mundu nahasitic sepharatu eta berechi behar guirela. Hau othoitzian zanguen lekhu edo toquira yoan zitzaizcoyan bere discipuluac nola yende ospe haundi bat haren onduan zabilan.²⁹² Eta guero eraman zitian discipulu hoc Galileaco hiri eta herriac gaindi, erakhusten zayelaric zeruietaco Yaincuaren erresuma. Hunen hotxa eta fama hedatu zuian Syria guzian, eta hola eremaiten zaizcoteyan²⁹³ alde guzietaric heri²⁹⁴ suerte guziac.

< 45 > Pyaya hunen onduan yin zuian Caphaurnaura, eta zeren zen hunen entzuteco guthizia zuten yende mulho haundi batez lehertua, yarri zuian Simon Bettiriren arraintzaco chalupan²⁹⁵ edo unchiscan, eta handic itxas heguian zaguen yende ospe haren arguitzen predicu admiragarri bat eguiten zayelaric. Eta guero, predicuaren onduan, erran zacoyan Bettiri, bertze discipulu guzien artian erre-marca garrienen huni, yoaiteco itxas gorala,²⁹⁶ eta han bere saren hedatzeco. Betti-

de la mitad del s. XIX su uso se extiende al resto de los dialectos septentrionales”. Testuan biak agertzen dira. Cf. *tenorra eta dembora* (131), *etzen orainic tenorra ethorri* (132), *afal tenorra yin zenian* (162).

²⁸⁸ *urrunago*] urrun nago.

²⁸⁹ Hau da *larunbat* hitzaren agerraldi bakarra testuan, gainerateko guztietan *ebiacoit* agertzen denean. *OEH*-k behenafarrerakotzat jotzen du *ebiacoit*. Erremarka bedi, halaber, *-e* paragogikoa hartzen duela: *larunbate*.

²⁹⁰ Iparraldean (baina ez bakarrik) ohikoa da *atera* aditzari *-tu* partizipio markaren eranstea. *Atheatu* aldaera herrikoia da.

²⁹¹ ‘Amatxi’. Azkue eta Bonaparterentzat (apud *OEH*) Arberoan kokatzen da *amaso* hitzaren eremua.

²⁹² Bokalarteko *-b-* atxiki duten formak nagusi dira oraino: *zabilan* (44, 49, 65, 113) vs. *zaylan* (47) eta *zaylalaric* (145).

²⁹³ *Batuaz zizkiotean*.

²⁹⁴ Idazleak batez ere *eri* emaiten du; *b-* protetikoaz ikus FONOLOGIA.

²⁹⁵ Irakur bedi *xalupan*, Iparraldeko tradizioari arrotz baitzaio *txalupa* forma.

²⁹⁶ Ikus *Yudeala* (19).

ric instantian obeditu zian, eta hazeman arrain mulho bat hain haundia, nun casic haren chalupa bethiaren bethez uhunberat²⁹⁷ baitzuhan.

Miraculuzco arraintza hunen ondoan Jesusec sendatu zian leproxu bat eta bertze eri asco, eta guziz paralitico bat, zeinac Jesus Christoren etchia inguratua zaucaten yende ospe haundia zela causa, ez borthatic, ez leihuetaric ezin sarraraziz, teilatutic sar arazi baitzuten. Eta guero, hemendic athera zenian, Jesus yoan zuian Genesareteco lagunara, eta Mathiu publicanua²⁹⁸ han hazemanic, bere ganat dei-thu zian. < 46 > Hemendic yoan zenian Jesus Jerusalemera phazco phesten zelebrazera —zeren etzitian behin ere phazco saindu hoc perfezione guziequin eguin gabe uzten, Bettiriño, guri erakhustera emaiteco eya zonbat²⁹⁹ artharequin behar ditugun guc ere guriac behin ere huxic eguin gabe zelebratu— lehenbizico urhaxa sendotu zian hogoy eta hamar urthe luzet hetan paralitico edo hebainduia zagoen presuna bat, Betheesda deitzen ohi zen zilho batian. Eta, zeren eri uste gabian sendotu hunec phozcariuen phozcarioz berequin zeraman bere ohia ebiacoitz egunian (zeinac baitzen yuduen igande eguna), juduiac escandalisatu zituan, eta zeren jaquin zuten Jesusec manatu ziola eri miraculuz sendotu huni egun saindu haren profanatzia —hoyen arabera— deliberatu zitean, Bettiriño, Jesusen hiltzia, Moysesen leguiaren haustaille eta burhozaille³⁰⁰ bezala, zeren orobat aitzinian erran zuien bere predicu batian hura zela Yainco biziaren Semia.

< 47 > Bere discipuluequin Jerusalemetic athera onduan, bere phazcuac zelebraturic, pasatzen zirelaric ogui³⁰¹ landa batzu gaindi, zeren zen oguia burutua eta casic zorhitua,³⁰² hunen discipuluec, zeren ziren gosetuac, hartu zitiztean zonbait

²⁹⁷ *Uhunbe* hitza soilik testu honetan lekukotzen da. Haren kariaz, gainera, eskuizkribuaren ibilbidearen aztarnaren berri jakin ahal izan dugu, zeren Maurice Harrietek aipu zuzena ekartzen baitu, eta *OEH*-k jasotzen: “Plongeon, descente d’un objet au fond de l’eau. *Untzia uhunberat zohan*, le vaisseau allait couler au fond (*Vie de Jésus manuscrite*)”. Badakigu, beraz, *K&B* izkirioa baliatu zitzaiola Harrieti, zeinac *Vie de Jésus manuscrite* gisa izendatu baitzuen. *OEH*-k honako hauek ere jasotzen ditu, beren testuinguruan aipatuz: *perfidia nabarra* (15), *liphar* (35), *lô gurkhusca* (141), *phico saaric* (153) eta *hipocrisia nabarra* (189).

²⁹⁸ Erromatarren artean ‘zerga biltzaile’.

²⁹⁹ *Zenbat* desagertu da egilearen hizkeratik *zonbat* berriaren alde. *OEH*-ren arabera, “la forma *zonbat*, que hasta principios del s. XIX sólo aparece en textos suletinos y algunos bajonavarros orientales, se va extendiendo desde entonces a otros autores septentrionales, y es en el s. XX algo más frecuente que *zenbat*”. Cf *zoin* (4), *hoinbertze* (37). *Zonbat* & *zoin* berriek Ekialdearen eragina salatzen dukete.

³⁰⁰ Forma lekukotu gabea, < *burho* (Hegoaldeko *birao*). Bada *biraoztaile*. Testuinguru honetan ‘blasfemo, arnegari’, lege sakratu bat hausten dukeen heinean.

³⁰¹ Gogora bedi Iparraldeko mintzoetan *ogi* ‘gari’.

³⁰² ‘Madurar’ “*Ogia zorhitzen da*” (Pouvreau ap. *OEH*).

ogui buru, eta bere escuen artian bihituric, yan ebiacoitz egunian. Farisauac pleinitu eta arranguratu zitzaizquiuyan Jesusi hunen discipuluec ebiacoitzaz eguiten zuten prezio ttipiaz, bainan Jesus Christoc justificatu eta desencusatu zitian bere discipuluac, ypocrit hoquierri erraiten zayelatic Davitec, Saulen ihesi zaylan^{303, 304} demboran, nola jan zituen beharrez Yaunaren aitzinetic harturic proposicionezco oguiac; eta orainic erraiten zayelatic heyen aphezac berac ebiacoitz egunian trailatzen³⁰⁵ zirela templuan; eta undarrian erran zayeyan, clarqui eta garbiqui, hura heyen templua baino guehiago zela, eta ebiacoitzaren nagusi bezala, Moysesen leguiaren gardapenetic³⁰⁶ bere discipuluiac dispenxa zitzaqueyela.

< 48 > Ebiacoitz egunian, Capharnauc sinagogan, sendatu zian guizon bat, zeinac beso bat hebainduia eta ya eyhartua baitzuien anhez dembora hetan, eta erakhuxi zayean farisayo urgulux hequierri etzela miraculuzco eguintza huntan deus ere leguiaren contra. Miraculu huntaz hirritatuac, farisayuec eguin zitean complot edo cabila³⁰⁷ bat herodiarrequin Jesusen hiltzeco; bainan salbatzaille zerutar hunec ezagaturic heyen chede nabarra eta malinua, yoan zuian Capharnauc, eta guero handi Tiberiadeuco itxas costara,³⁰⁸ bethi seguitua zelaric hunen aditzeco bildua zen yende ospe haundi batez.

Yendez bethi ithua, burutziaric^{309, 310} ezin eguinez, yoan zuian itxasua phasaturic mendi gain batera, eta han gau hura iragan zian othoitz-etan; eta biharamonian anhez goizic jauxi zuian mendi gainetic, eta deithuric yadanic berechi zituen discipuluiac, eman zayean apostoluen³¹¹ izena, erran nahi dic *apostolus* “egorria”.

³⁰³ *zaylan*] *zayan*.

³⁰⁴ ‘Ihesi zebilen’ (cf. *zaylalaric* (145)). *Zayan* originalean; ez baledi huts, *zabilan* > *zailan* > *zayan* proposatu beharko litzateke. Ikus *zabilan* (44)

³⁰⁵ Iduri du *trailatu* aditzaren zentzua hemen ‘aritu’ datekeela.

³⁰⁶ Hitz lekukotugabea. Semantikoki, *leguearen gardapena* ‘legearen begiratzea’. Cf. *goarda* “Observancia, cumplimiento de la ley” (Larramendi) eta gazt. *guardar* “Observar o cumplir aquello a lo que se está obligado” (*DRAE*).

³⁰⁷ Euskaraz ez da lekukotzen. Cf. fr. *cabale* “Intrigue secrète ourdie contre quelqu’un, pour l’atteindre dans sa réputation, ses actions ou ses œuvres”. (*TLF*).

³⁰⁸ *itxas costara*] itxas costora.

³⁰⁹ *burutziaric*] burutzia.

³¹⁰ *Burutzia eguin* “Action de quelqu’un qui réussit à vaincre un obstacle” (*VocBN* ap. *OEH*). “Ce mot n’est employé qu’avec la négative et au figuré” (Dv ap. *OEH*). Beti ere *OEH*-ren informazioa baliatuz, erramolde hau XIX. mendearan erdian hasten da lekukotzen; K&B-koa, beraz, lehen agerraldia dateke. Cf. *burutziaric ezin eguinez* (109).

³¹¹ *apostoluen*] (aphos) apostoluen. *Autozuzenketak*.

Eta hola, guc < 49 > ere orai artaino *discipulu* deithu ditugun guizon berechi eta hautatu hoc, deithuco ditiguc *apostoluac*.

Eta guero, mendi sayhex batian yarriric, abiatu zuian bere apostolu hautatu berri hoquien instruitzen edo arguitzen, dembora berian hunen ondotic zabilan yende ospe haundia arguitzen zuielaric. Eta orduianchet eguin zian *mendico predicua* deitzen ohi den predicu magnifico hura, zeinec bere baithan zerratzen baitu ebanyelio guziaren substantzia eta iduquipen guzia. Bainan nic orai uzten diat erran gabe predicu eder hura, zeren chehe chehia erraiten dayatan Ebanyelio Saindu guzia laur ebanyelisten arabera.

BETTIRIÑO: Yauna, barkha zadazut, bainan orai, bat ere urrunago³¹² yoan gabe, behar duzu izan borondatia predicu admiragarri haren substanzian bederen errateco, ezic guero eguinen dugu guero guisa.

KADET: Ea beraz Bettiriño zeren, nahiz menturaz uste gabe, utzi nuian³¹³ aspaldian deusic galde eguin gabe, oraicuan atxein hau eguinen dayat.

Erran eta declaratu zayeyan, beraz, eguiazco < 50 > urustasuna zatzala³¹⁴ behar-tasunian, doloretan, penitenziazco nigarretan, yustiziaren amodiuan, misericordiazco obretan, bihotzaren garbitasunian, baquezco unionian, nekhetan, gudueta, mundu huntaco onthasun phasacorren ohoren eta estimuen mezpreziuetan.³¹⁵ Dembora berian, erran zayean etzela yin mundu huntara leguen haustera, baizic ere hobetzera; eta farisayo hypocriten contra lehenbizico garbitasunaren establitzera.

Orainic erran zayean orai artaino leguec manatzen eta ordenatzen zuten baino perfezione berechi, saindu eta alchatuigo baten formatzera heldu zela, eta hola anhez gauza, nahiz orai artio leguez onhexiac —edo sufrituac— debecatza zuhala; hala nola dibortzia³¹⁶ edo senhar emazten berechtia, dembora berian debecatzen zituelaric ez choilqui eguintza edo obra lohiac, bainan bai orainic

³¹² *urrunago*] urrun nago.

³¹³ Bat. (*bik ni*) *utzi nauan*.

³¹⁴ Hemen *etzan* “consistir, residir” (ap. *OEH*). Cf. *zatzala* (113). Ikus *baithatza* (30).

³¹⁵ Zerrenda bederatzikoitza.

³¹⁶ Aldaera lekukotugabea. Euskararen tradizioan *dibortzio* nahiz *dibortza* dokumentatzen dira. Cf. *divorziuz* (130).

phenxamendu, guthizia eta desircunde nabar,³¹⁷ lohi, xaxu³¹⁸ guziac; eta guero erakhuxi zayean Yaunaren othoitzza, erran nahi diat *Pater noster* latinez, edo Gure *Aita zeruietan zaudena* hescuaraz.³¹⁹

< 51 > Guero condemnatu zitian damnazionezco pena³²⁰ haundiaren pean hypocrisia, banitattia, abariziua, yuyamendu temerariuac, herra; eta guziz errecomendatu lagun³²¹ proximuaren alderaco caritattia eta amodiua; emaiten zayelariac bidetzat erregla zuhur, prudent eta discret hau: *Zihorec*³²² *izartuac izan nabi zinuqueten izari beraz izarturen dituzuie zuien lagun proximuac*. Funxian, accabatu zian predicu admira-garri hau erraiten zayelariac etzela asqui erraitia eta sinhestia, bainan gu egun batez yuyatuco gaituzten obrac behar zirela. Predicu hunen onduan ekharri zacoteyan leproxu bat eta choilqui bere escuez hunquituric sendotu zian, eta guero igorri aphezei bere buruiaren erakhustera.

Doctrina eguiazco Yainco guizon batentzat gai zen hunen onduan,³²³ yauxi zuian Jesus Capharnauro, eta hau huna arribatu zen bezen fite, centenier noble batec, zeinaren semia eri gaizqui³²⁴ ohian bait-zaguen, egorri zacoyan hiri huntara mandatari erremarca-garri bat, othoitztera yin zaquiola bere etchera, seme eri gaizqui zuien haren sendatzera.³²⁵ Nola Jesus berehala < 52 > abiatu zen centenier noble huni atxein eguiteco hunen etcherat, centenier hunec egorri zaizquiuyan bere adichquide batzu bidera, erraitera Jesusi etzela hura gai, ez digno, haren bere etchian errezebitzeco, eta hola hara yiteco pena hartu gabe, asqui zuiela hitz choil baten erraitia eta haren seme maitia sendotuia gueldituren³²⁶ zela.

³¹⁷ *Nabar* “au fig., sale, déshonnête” (H. apud *OEH*). Ohartaraz dezadan Harrietek eman adibidea *K&B*-koa dela, iturria aipatzen ez duen arren: “*desirkunde nabar, lohi, satsuak*, envies, désirs sales, impures, immondes”.

³¹⁸ *Satsu, xatsu* “Sale, vilain” (SP ap. *OEH*), “Inmundo”, “sucio” (Lar. ap. *OEH*). Batez ere egile baxenafartarrek baliatu dute.

³¹⁹ Hizkuntzaren izenaren aldaera hau Harrietek eta Salaberryk (*Vocabulaire des mots basnavarrais*) ematen dute. Etxeparek eta Leizarragak *heuskara* erabili zuten.

³²⁰ *Damnazione* ‘condenación, damnation’.

³²¹ *Lagun* “9^o le prochain” (Lhande). Ikus *lagun* (31).

³²² ‘Zuhurrek, zeuek’. Aldaera hau Aturrialdean lokalizatzen da.

³²³ Erlatibo tartekatua edo eskuinera: *Doctrina eguiazco Yainco guizon batentzat gai zen [doctrina] hunen onduan*.

³²⁴ *Eri gaizqui* ‘eri handi, gaixo handi’.

³²⁵ Erlatiboa eskuinera: *seme eri gaizqui zuien [seme] haren sendatzera*.

³²⁶ *gueldituren*] gueldi turen.

Undarrian beraz —zeren centenier hunec ikhusten zuien eritasun guzien legarda³²⁷ poderoxu hura hurbil-zen ari zangola dudaric gabe, Bettiriño—, hunen fede bizia eta garxua ezagaturic, bera bere presunan athera zangoyan bidera, erraiten zangolaric: *Yauna, ni ez naiz ez gai, ez digno, ez gauza zu sar zaiten ene echian; bainan errazu choilqui hitz bat, eta zure zerbitzaria izaren da bere gaitz miseria guzietaric libratua*. Jesusec —zeinaren enpleguia baitzen, yadanic ikhusi duian bezala, erien sendotzia— instantian sendotu zian zerbitzari hau, eta admiratzen zuielaric centenier hunen sinheste bizia eta eguiazcua, erran zayean han ziren bertze yendei: *Ez du*³²⁸ *orainic* < 53 > *aurkhitu judu guzien artian guizon hunen pareric*.

Eguintza hunen onduan yoan zuian Jesus Capharnautic Naimera, zeinetan phitzarazi baitzuien alhargunxa baten seme, yadanic hil cuchan ehortztera zeramaten. Hiri huntan sarthu onduan, Simon deitzen zen pharisayo³²⁹ batec comitatu³³⁰ zian Jesus bazcaitera, eta hoc mahayan yarriac yaten ari zirelaric, yin zuian eta sarthu Simonen salan hirico nescacha gazte bekhatore famatu bat, zeinac bere nigar abundantez Yaincuaren zanguac —erran nahi diat Jesus Christorenac— ihiztatu eta guero bere buruco ile ederraz chukhatu bait-zituien. Simon escandalisatu zuian eguintza hunez eta dudatzen abiatu (nahiz orai baino lehen bere obra miraculuxuetaric ezagutzen zuien) harrec berequin mahayan zaucan phestaliar³³¹ hura profeta baino guehiago zela; ez choilqui eguiazco Yainco othe zenez, bainan oraino³³² eya profeta ere zenez, ezic zioyean bere baithan: *Guizon hau profeta ere baliz ezagutu behar liquec emac ume hau bekhatoros famatu bat hiri eta comarca hotan*, < 54 > *eta hola beira laitequec bere buruia hunquitzera ere uztetic*. Salbatzaille³³³ divino hunec —zeinac, berac zioyen bezala, ez justuen bainan bekhatorosen onduan mundurat yina baitzen, ezagutzen bait zituen clarqui bihotzetaco seindimenduetaraino—³³⁴ fite eta laster eman zacoyan Simoni frogantza claro bat ez

³²⁷ Larramendiren hitza, Harrietek jasotzen duena. “Antídoto”, “preservación”, “preservativo”. José Cruz Echeverría gipuzkoarrak (ikus *irasenda*, 52. orr.) nahiz Lizarraga Elkanokoak erabili dute.

³²⁸ Molde alokutiboen arauak ez dira beti zorrotzak: Jesus jende multzo bati mintzo bazaio, modu neutroa espero da. Bestenaz *duc* huts izan liteke, *dut* idatzi gabe; cf. *arinentzac* (55), *hipocric*, (133). Ikus FONOLOGIA.

³²⁹ Grafia kultista. Beste agerraldi guztietan *f*.

³³⁰ *Gonbidatu* da forma neutroa; Elissamburuk badu *komitatu*, OEH-ren arabera.

³³¹ ‘Gonbidatu’, ‘celui qui prend part à un repas’.

³³² Ikus *orainic* (3).

³³³ *Salbatzaille*] *Salbaitzaille*.

³³⁴ Ikus *seindimendu* (42).

choilqui profeta, bainan orainic profeta baino guehichago³³⁵ zela, erraiten zangolaric: *Emac ume huni izan zaizquioc anhez bekhatu barkhatuiac, zeren eguiazco dolu eta urriqui baten onduan, anhez amodio ukhan baitu.* Eta dembora berian, itzultzen³³⁶ zelaric andre aitzinian bekhatoros bezen orai penitent den hunen ganat,³³⁷ erran zacoyan: *Zoaz Yaunarequin, zure bekhatu anhezac barkhatuiac dirade, zeren anhez maithatu duzun.*

BETTIRIÑO: Eta yauna, ez diot³³⁸ nic yaquin nola deitzen zen andre, nescacha, edo emac ume³³⁹ hura? Ezic yauna, zuc hirur izen horiec emaiten daizcotzu. Ala ez da comeni?

CADET: Segurqui, Bettiriño, comeni baita, bai eta probechos ere; ezic nun hazemaren dute < 55 > bekhatore dohacabec eta penitent affigitu eta penatuec hau baino exemplu eder eta imitagarriago bat? Hau deitzen zuian Andre Magdalena, bekhatore bezen penitent hox duna.

BETTIRIÑO: Zer exemplu ederra eta segui gaya, yauna (ez bekhatore³⁴⁰ bezala, bainan bai eguiazco penitent bezala), Andre Magdalena, guziz³⁴¹ egungo nescacha gazte urguluxu eta arinentzat.³⁴²

CADET: Dudaric gabe, Bettiriño. Bainan badaquic zer guertatzen ohi den? Egungo eguneco nescacha dohacabec, Elizaz baino plaza publicuez artha guehiago dutenec, artha hartzen ohi die, mundu falxuaren charma traidorez zerbizatuz, bere buruen gazteria zoro batez seguiarazteco, maitharazteco,³⁴³ eta bertze asco gauza erran nahi ez ditudanen eguiteco, eta eguin arazteco.³⁴⁴ Bainan hoquien oyn urhaxac ez dituc urrunago³⁴⁵ helt-zen; erran nahi diat imitatzen die³⁴⁶ Andre

³³⁵ *OEH*-ren arabera, “Al Norte domina *gehixago* desde el s. XIX; antes de esa época sólo encontramos *gehixago*”. Gure testuarena izan liteke, beraz, aldaera honen lehen agerraldia.

³³⁶ *itzultzen*] itzult zen.

³³⁷ Erlatiboa eskuin: *andre aitzinian bekhatoros bezen orai penitent den [andre] hunen ganat.*

³³⁸ **Iron* aditzaren forma: *ez diot* ‘ez dezaket’. Ikus *ezdiogu* (10) eta bertako oharra.

³³⁹ *emac ume*] ema ume.

³⁴⁰ *bekhatore*] bakhatore.

³⁴¹ *Guziz* “surtout, avant tout, principalement” (H. ap. *OEH*).

³⁴² *arinentzat*] ari-nentzac.

³⁴³ *maitharazteco*] maitharazco.

³⁴⁴ Erlatibo tartekatuak entelega aisetasuna eragozten du: ‘eta erran nahi ez ditudan bertze asco gauzaren eguiteco, eta eguin arazteco’.

³⁴⁵ *urrunago*] urrun nago.

³⁴⁶ Hikako moldea, ‘haiek hura’ (bat. *ditek*).

Magdalena bere bekhatu eta desordretan, bainan³⁴⁷ ez bere < 56 > conbersio edo itzulmendu³⁴⁸ admiragarrian, eta orainic are gutiago bere penitentia famatuian.

BETTIRIÑO: Zeren beha zaudete, nescacha gazte zoruac, itxuiac eta enuchentac?³⁴⁹ Zeren beha zaudete, zuien adinic ederrenian eta demboraric preziosenian? Zer izaren zen Andre Magdalenarentzat, zuiec bezala, edo lotxaz, edo herabez eta guthizia lizunez, utzi balu bere Salbatzaille zerutar hura chercatu gabe ezagutu zuien bezen laster? *Vt cognovit*. Zer izan behar da, beraz, zuietaz?

KADET: Ez haila³⁵⁰ hola samur, Bettiriño; minagriac baino eztiac uli guehiago hatzemaiten³⁵¹ omen dic.³⁵²

BETTIRIÑO: Uz nezazu nore colera justuaren phasatzera, yauna. Hau gaztia zelaric, sendo zelaric, ederra, charmanta, encantadoria zelaric, bere buruiac orai artio hartua eta presumituia bezen orai ahatziric, zazpi debru bere gorphuzian zituenac,³⁵³ mundua, haraguia, errespectu lurtarra, hainbertze adoratzaille bere inguruetaco garhaituric, bere eritasun tristia eta auhengarria ezaguturic, < 57 > medicuaren ondoan dabila, *ut cognovit*, eta hori ezagutu duien bezen laster. Eta zuiec ederrac, brillantac, ayrosac, criquetac, coquetac, charmantac, encantazailiac³⁵⁴ yadanic izanic; orai primadera lilixua histua, uda serenua hoibeldua, urri eztiya ya kharax eta samindua,³⁵⁵ zeren beha zaudete? Urthe luziac iraganic, haraguia urthuric, larrua zimurturic, eta undarrian hezur zorotzac³⁵⁶ aguerturic, zeren beha zaudete? Presuna dohacabiac —diot berriz ere—, behazozuie, zuien desohoretaco, beguien aitzinian duzuien emac umetto huni. *Vides hanc mulierem...*³⁵⁷ Uste duzuie gauzezqui³⁵⁸ Yaincuac eman dautzuiella³⁵⁹ exemplutto hau beguien

³⁴⁷ *bainan*] baina.

³⁴⁸ *Konbersio*-ren sinonimo, beraz. “Figura en SP, sin traducción” (*OEH*).

³⁴⁹ ‘Sinple, ergel’. *Enuxent* aldaera oso ekialdekotzat jotzen ohi da.

³⁵⁰ ‘Ez hadila’. Bada Iparraldean *-ela* konpletiboa ezezko aginterazko perpausetan txertatzen. Ikus *etzitela izit* (3).

³⁵¹ *hatzemaiten*] hatze maiten.

³⁵² *omen dic*] omendic.

³⁵³ ‘Bere gorphuzian zituen zazpi debruiac’.

³⁵⁴ Zazpiko zerrenda.

³⁵⁵ Paralelotasun hirukoitza.

³⁵⁶ Dardarkari bortitza da. Ikus *khareatzera* (7).

³⁵⁷ “Et conversus ad mulierem dixit Simoni: Vides hanc mulierem?” (Luk 7, 44).

³⁵⁸ Ikus *gauzezqui* (21).

³⁵⁹ *dautzuiella*] daut zuiella.

aitzinian? Zoazte beraz, zoazte; ez bada andre curaios hau bezala zuien adinic ederenian, bederen, zuien biziaren undar egun tristetan; ez bada Simonen salara, bederen, itzatuia dagon khurutze dorpe horren oynetara; ez ahoz, bainan bai ichilic beguietaco nigarrez zuien miseriac eta flaquezac ezagaturic zuien < 58 > bekhatuian confesatzera, ezic eztu zuietaz urricalmendu gutiago ukharen, colerazco bezala, misericordiazco Yainco puyant horrec, guziz bekhatorosen onduan mundurat yina denaz gueroz.

CADET: *Voto no va sanes*,³⁶⁰ Bettiriño. Orainchet ikhusten diat, atxein eta plazer haundirequin, hireganic zerbait³⁶¹ atheraren dudala, eta egun batez hire nagusia ohoratuco duiala; beraz, nore nekhe izerdiac abantailosqui empletatuco ditudala.³⁶² Bainan erran ezadac:³⁶³ orainic sei urthetaco adina, eguia erraiteco orainic ez zahar, bainan apenaz³⁶⁴ iracurtzen yaquin, eta latin hoc nundic³⁶⁵ athera dauzquidac:³⁶⁶ *Vt cognovit* eta *Vides hanc mulierem*³⁶⁷... Eguia bada ere³⁶⁸ ez duc *Vides* baizic *Vide hanc mulierem*; bainan dena den bezala...

BETTIRIÑO: Yauna, bertze asco gauza bezala, izquiriatu bazinu Hortzegun³⁶⁹ Sainduiaren aitzineco ortzegun araxian enequin ukhan zinuen solas pena,³⁷⁰ zure paper < 59 > zaharrac fullatuz³⁷¹ eta bisitatu, orhoituren zinen zuhorec³⁷² erakhuxi zinaitala³⁷³ latintto hoc. Yauna, orduco mezaco Ebanyelio magnifico hura arraxian explicatu edo azaldu zinautanian, erran zinuen Jesus sayhex baten gainian etzanic, erromanuen eta juduen usayaren arabera, bazcayten³⁷⁴ ari zelaric Simonen etchian, nola yoan zen emac ume bekhatoros famatu bat Jesus Christoren oynetara

³⁶⁰ Badirudi erramolde hau baiezkoan erabiltzen ohi dela, harriduraren adierazteko: *voto va sanes!*

³⁶¹ *zerbait*] zer bait.

³⁶² *ditudala*] ditu dala.

³⁶³ *erran ezadac*] erran nezadac.

³⁶⁴ Hitz hau arrotza da Iparraldeko euskararen tradizioan (< gazt. *a penas*).

³⁶⁵ *nundic*] nun dic.

³⁶⁶ *dauzquidac*] dauzquiac.

³⁶⁷ *mulierem*] mulieren.

³⁶⁸ *bada ere*] bad ere.

³⁶⁹ Forma harrigarria da, gainera perpaus berean *ortzegun* irakurtzen da klarki.

³⁷⁰ Lekukotasunik gabe.

³⁷¹ Cf. fr. *fouiller* "Creuser pour trouver quelque chose" (TLF).

³⁷² Agerraldi bakarra. *Zihorec* aldaera gailentzen da.

³⁷³ Bat. *zenizkidala*. (cf. *zangola* / *zaingola*). Ohart bedi *-i*-ren balio pluralgileaz (ikus ADITZ MORFOLOGIA).

³⁷⁴ Hutsa izkribuan: *baizcayten*. Cf. *bazcaitera* (53) eta *bazcaiten* (91, 112).

parfun edo ur usain onezco³⁷⁵ batequin. Erran zinuen lehenic gantzatu³⁷⁶ zaingola³⁷⁷ zanguac, eta guero, nigar urhuriz³⁷⁸ ihiztaturic, bere ile ederraz chukhatu bai zaingon. Oraino orduian erran bai nautzun, orhoit³⁷⁹ bazira, nic baino ile ederragua zuiela.

Orainic orhoitzen naiz zuri gauzac funxqui ikhasten ditudala erakhustera emaiteco Judas Iscariotes deitzen zen discipulu edo apostolu bat arranguratu zela, zeren salduric baino³⁸⁰ beharren laguntzen hobequi emplegatua izan zaitequeyen unguentu prezios hura, malaprosquis³⁸¹ < 60 > edo funxic gabe izan zen gastatua. Eguintza noble, yeneros eta bihotzta³⁸² hau eguin zuenian, alchatu zinautan³⁸³ emac ume hau zeruco izar distirantac baino gorago, guziz laudatzen zinuelaric hunen promptasuna,³⁸⁴ erran nahi da zeren bere eritasun auhengarria ezagutu zuien bezen laster, traba guziac garhaituric, abiatu zen hau bakharric senda zezaqueyen medicu puyantaren onduan, eta hemen erran zinuen lehen latin hau: *ut cognovit*, “ezagutu bezen laster”, trompatzen ez baniz.

Orainic erran zinautan Simon escandalisatua guelditu zela, ikhustiaz Jesusec nola errezebitu zuen bekhatoros haundi eta escandalos hau bere oynetan,³⁸⁵ eta Jesusec ezaguturic Simon bide okherraz yoan zela, galdatu ziola: *Simon, gauza bat badiat hiri proposa-zeco. Behin bi aichquidec zor ziteyan guizon pherestu bat, batec bortz ehun libera, eta bertziac berrogoy eta hamar libera. Guizon pherestu hunec ezaguturic ez*

³⁷⁵ Sinonimiaren erabilera didaktikoaren etsenplu argia.

³⁷⁶ Cf. *gantzatui* (13).

³⁷⁷ Bat. *zizkiola*.

³⁷⁸ Cf. *nigar urhuritu* (12).

³⁷⁹ Gramatikalki atributo gisa dago *orhoit*.

³⁸⁰ Originalean *baino* falta da.

³⁸¹ Lekukotu gabea. Urthek *aproproski* “konbeni den bezala, behar den moldean” ematen du (ap. *OEH*).

³⁸² Larramendiren hiztegia, berriz: “*Cordial, bioztarra, biotzekoa*”. Harrietek ere jasotzen du.

³⁸³ *Zinerautan* > *zinautan*. Forma herrikoa, egileak ahozko mintzamoldeekiko duen hurbiltasuna salatzen duena. XX. mendean heltzen da literatur mailara (Corpus Arakatzailaren arabera Larzabalek eta Barbierrek baliatzen dute). Testuan zehar badira *zinaut*-en sei okurrentzia, *zinerautan* (63) behin baizik ez denean agertzen.

³⁸⁴ Nafar-lapurteraren eremuan bada *prontotasun, pruntasan, pronptotasun, pruntarzun* bezalako aldaeren lekukotza; ez, ordea, *promptasun* formarena (fr. < *promptitude*).

³⁸⁵ *bere oynetan*] ber oynetan.

³⁸⁶ **Iron* aditzaren forma dugu hemen: *etziotela* ‘ez zezaketela’. Ohar bedi aditz nagusia aditzoin bezala agertzen dela. Testuan zehar guti dira aditz honen agerraldiak, iraganaldiko forma bakarra hau izanik. Ikus *ezdiogu* (10).

batec ez bertziac etziotela paga,³⁸⁶ bierrri barkhatu zayeyan. Erran < 61 > ezadac³⁸⁷ orai: bi hotaric zoinec du guizon pherestu hau maitiogo? [Simonec ihardexi:] Yauna, bortz ehun libera barkhatuiac izan zaizconac. Arrazoina duc, erran zacoyan Jesusec Simoni. Ebien,³⁸⁸ ikhusten duc emac ume hau? Vide hanc mulierem. Hic ez dautac eman uric zanguen garbitzeco, eta hunec bere nigar tendrez garbitu daizquidac,³⁸⁹ hic ez daizquidac orainic nore zanguac musutu,³⁹⁰ eta hau sala huntan sarthuz gueroztic ez duc musuquetatic³⁹¹ guelditu; Vide hanc mulierem. Hic orainic ez dautac nore buruia olioz gantzatu, eta hunec zanguac eta buruia yadanic gantzatu daizquidac. Beha zoc hi eta hi bezalaco bekhatore ipocrit guziac desohoratzten eta confonditzen dituien emac ume aitzinian bekhatore escandalos bezen orai penitent famatu huni,³⁹² Vide hanc mulierem. Eta yauna, gauza batec bertzia ekhartzen ohi duien bezala, orhoitzen naiz salbatzaille zerutarrac³⁹³ erran ziola Simoni: Emac ume huni anhiz bekhatu barkhatuiac izan zaizquioc, zeren anhitz < 62 > maithatu baitu, multa peccata...

CADET: Gaizqui huha,³⁹⁴ Bettiriño; erran behar duc *Remittuntur ei peccata multa quoniam dilexit multum.*³⁹⁵

BETTIRIÑO: Yauna, utz nezazu accabatzera. Orai baino lehen ahal³⁹⁶ daquizu ez dela latina nic phenxatuia ez asmatuia.³⁹⁷ Bertze alde, hitz choil bat gora bera edo aitzin guibel, ez ahal du mila importa...

³⁸⁷ erran ezadac] erran nezadac.

³⁸⁸ Fr. *et bien* > *ebien*.

³⁸⁹ *daizquidac*] *didaiizquidac*.

³⁹⁰ “Besar, besar repetidamente” (OEH).

³⁹¹ “Besuqueo” (OEH). “Quantité de baisers” (Lhande).

³⁹² Egitura konparatiboak adjektibo gisa funtzionatzen du bere osotasunean, erakusle batek determinatua: *emac ume* [aitzinian bekhatore escandalos bezen orai penitent famatu] *huni*.

³⁹³ *zerutarrac*] *zerutarra*.

³⁹⁴ Forma honetako *h* bikoitza esplikatzeko bi bide dugu: 1) aditz honek har dezakeen barneko *h*-a (cf. *yohan*) beharrik gabe tartekatzea; 2) hastapeneko *h* eskuinera mugitu da (cf. *oha!*, bat. *hoa!*). Cf. *zohan* (22), *zuhan* (33).

³⁹⁵ Luk 7, 47.

³⁹⁶ Hemen *ahal* partikulak ez du potentziala adierazten, eta ez da *dakikezu* modalaren baliokidea ere, eta are gutiago Erdialdeko *al* galderazkoa bezalako zerbait. Gehiago du balio interpelatibo: solaskideak zerbait jakin dezan igurikatzen dugu, eta horrela seinalatzen diogu *ahal daquizu* erranez. Corpus Arakatzailaren emaitzek, “ahal dakizu” sakatuaz, nafar-lapurterara seinalatzen dute: Larregi, Elizanburu, Hiriart-Urruti, Goietxe, Webster, Larzabal eta Lafitte. Larzabalen pasarte honetan ongi preziazten ahal da: ERRETORA: *Zuk, izan duzuia senarrrik, jaun grefieraz bertzerik?* ADELA: *Ba ahal dakizu, errienta zena, gerlan ofizier hil dena, ene senarra zela.* ERRETORA: *Zuk bederen ahal dakizu nola diren Elizako erregelamenduak.* (Hila espos, 1. gertaldia). Erabilera honetan *ahal daquizu* ‘espero dut jakinen duzula’; badu ñabardura polemiko bat.

³⁹⁷ Hemen ezik, *h*-dun formak darabiltza egileak: *hasmatu* (41, 120), *hasmapena* (79), *hasmazaiillac* (83). *Asmequi* (205) formak beste azalbidea du.

CADET: Osoqui trompatzen eta enguenatzen hiz haurra. Testament edo Or-
denu Zaharra eta Berria erran behar dituc han diren bezala, bi arrazoin direla
causa: lehenbizicoric, lettra saindu eta eguiacorren³⁹⁸ hequierri zor zayoten erres-
pectu haundia dela causa; eta bi garrena, zeren guizon itxu eta guezur khoyec³⁹⁹
ez baitiote⁴⁰⁰ correi, eta gutiago arranya, Izpiritu Sainduiaz eguin, erran, eta arran-
yatuiac⁴⁰¹ diren gauza sacratu hoc.

BETTIRIÑO: Yauna, onhesten ditut⁴⁰² zure arrazoinac, bainan zuc ere, oraino
plazer baduzu, ohora nazazu zure arthaz, zeren orainic ez ditut erran daquizadan⁴⁰³
guziac, disimulatzen dituzularic ene behatz-topac.

CADET: Bethico < 63 > ukharen duca, Bettiriño? Mardi,⁴⁰⁴ Andre Magdale-
nac⁴⁰⁵ hi oraico arabera⁴⁰⁶ discipulu fina ukharen hi?⁴⁰⁷

BETTIRIÑO: Yauna, alchatu zinuenian, arrazoinequin, bekhatoren bezala
eguiazco penitenten molde edo modela eder hau, nic galde eguin naut-zun neure
gauzen errotic eta funxex ikhasteco hatz saminarequin, nungua zen Andre Magda-
lena, eta zer ofizio zuien. Eta zuc ihardexi zinerautan⁴⁰⁸ deitzen zela⁴⁰⁹ *Magdate*,
zeren zen Jurdan erriberaren haindico⁴¹⁰ aldeco *Magdala* deitzen zen herrichca ba-

³⁹⁸ Hitz hau ez da neutroa Iparraldeko tradizioan; izan ere *egiakor* ez da Bizkaitik kanpo dokumentatu (*OEH*). Cf. *eguiaxuac* (90).

³⁹⁹ Lekukotu gabea. *OEH*-n bada *gezurkor*.

⁴⁰⁰ **Iro* errodun adizkia potentzialaren adierazteko. Bestenaz errateko: ‘ez baititzaquete correi, eta gutiago arranja’. Osagarri zuzenarekiko komunztaduraren peitu dagoela iduri arren (*ez baiti(r)ote ... gauza sacratu hoc*), uste dugu forma honen esplikabidea ahozko mintzaldiak eragin duen higaduran datzala: *baititirote* > *baitiote* (cf. *baititut* > *baitut*). Ikus *ezdiogu* (10).

⁴⁰¹ *arrayatuiac*] arran yatuiac.

⁴⁰² *ditut*] dituc.

⁴⁰³ Bat. *dakizkidan*.

⁴⁰⁴ Harridura oihu: “*Mardie*, par Dieu” *VocBN* ap. *OEH*.

⁴⁰⁵ *Magdalenac*] Magadalenac.

⁴⁰⁶ Oso bakanak dira *-ren arabera* moldez landako erabilerak. ‘Orain arte bezala’ ulertu behar da.

⁴⁰⁷ Bat. (*hark hi*) *hau*.

⁴⁰⁸ Ikus *zinautan* (60).

⁴⁰⁹ Mendeko perpaua hauetan aditzak ezkerrean emaiten dira, euskarari suposatzen zaion ordena kanonikotik urrun. Egileak fokus edo mintzagaiaren markatzeko duen baliabidea danteke, beharbada hizkera mintzatuaren eraginez: *ihardexi zinerautan deitzen zela Magdate*, [...] *zela guziz famatua* [...]. Tartean den perpaua esplikati-boaren *zeren zen* ordena bezalako gehiago dira testuan. Cf. *zeren diren guziz amarruxuac* (31) eta ikus oharra.

⁴¹⁰ Ikus *haindico* (32).

teco alaba; zela guziz famatua, zeren izaira edo naturalezaren dohain guziac, hitz batez ororen erraiteco, berequin zituela⁴¹¹ —zeren ikhusten dut, yauna, yadanic khechatu⁴¹² zirela—. Erran zinautan, yauna, dembora berian —bainan orai baino pazienza guehiago zinuenian— bere offizioz zela eguiazco modista bezala, moda berri guzien autorra, eta dembora berian perruquertxa;⁴¹³ bazaquitza, beraz, gorphutz baten (burua barnian) mundutar eta encantadore eguiteco < 64 > behar⁴¹⁴ ziren secretu eta moyen guziac. Eta orai accabatzen dut oharpentto hunequin. Niri orduan guehiago erran bazinaut, nic orai, aldiz, guehiago erranen nautzula; ezic yauna, batere secreturic neurezat beyratu gabe oro erran daizquitut.

CADET: Admiratzen ditiat, Bettiriño, hire hartze ona eta yuyamendu goiztiarra. Bainan yaquin izan banu hunen khorda luzian sartzera yohan hintzala,⁴¹⁵ eta elhe chorro⁴¹⁶ hortan hoinbertze^{417, 418} khondaira bazela, ez guintuian hunen urrun yoaren. Hainbertze mintzatu hiz, Bettiriño, nun ez bainiz orai orhoit ere nun guelditu guinen.

BETTIRIÑO: Yauna, ez baduzu bertze sabel minic, ez ukhan hortaz penaric: mende oso bat, erran nahi dut ehun urtheco bat solasian egonic ere, ni bethi orhoituco naiz gure sail⁴¹⁹ hasia nun uzten dugun. Simon farisayuaren etchian guelditu guinen, yauna.

CADET: Eguiazco Messias hunec eman zuenian, beraz, bere urricalmenduzco < 65 > eta graziazco frogantza claro hura, choilqui eguiazco Yainco bati comeni zitayon obra admiragarri bat eguinez —erran nahi diat bekhatore publico eta famatuenen bati bere bekhatu khonda-ezinac barkhatuz—, zioyat, beraz, berriz ere, Bettiriño: eguiazco Yainco zela clarqui erakhustera eman onduan, sala itxu huntaric ilkhiric eta Judea guzia currituric, yo zian berriz eguiazco Yainco eta guizon hau Capharnaure. Eritasun suerte guzien erremediua berequin zabilan⁴²⁰ medicu

⁴¹¹ *zituela*] *zutuela*.

⁴¹² *khechatu*] *khachatu*.

⁴¹³ Genero mozioa duen hitza, beste lekukotasunik gabe. Harrietek *perruker* ematen du, eta Lhandek *perrukier*.

⁴¹⁴ *behar*] *behar behar*. Hostotik hostora iragaiteak eragin du duplografia.

⁴¹⁵ ‘Sartzera zindoazela’.

⁴¹⁶ “Torrent [esp. *chorro*]” (Lhande). Ahoska bedi *xorro*.

⁴¹⁷ *hoinbertze*] *hoinbert*.

⁴¹⁸ Ikus *hoinbertze* (37).

⁴¹⁹ Hemen *sail* ‘cuestión, asunto’.

⁴²⁰ *Ibili* aditzak laguntzaile trantsitiboa onar dezake zenbait lekutan: “*Ibiltzea*, est employé incorrectement comme verbe actif” (H). Hemen *zabilan* ‘zeraman’.

puyant hau huna yin⁴²¹ zela aditu zutenian hainbertze yende bildu zuian, nun Jesus yende ospe haundi huntaz itho edo lehertua, flacaturic bezala, erori baitzen. Berri ustegabeco eta aflichant⁴²² hau aditu zuenian, Ama Biryina bere baitharic atheraric bezala yoan zuian bertze bere adichquide⁴²³ zonbaitequin bere seme maitia ganat. Ama amulchuen hau hara heldu zenian abertitu zitean Jesus; bainan hunec, bere beguiac idequiric eta bere escuiac bere apostoluen ganat itzuliric, erran zayean: *Horra nor diren ene ama eta ahaidiac, Aita Zerucuaeren borondatia < 66 > eguiten dutenac.*

Hemen, Bettiriño, Ama Biryinaren lagunac etzaquiat, bainan biryina guzien primizia, lore, eta zero lurren Erreguina hau etzuian batere estonatu, ustegabezco bezen arraphosta misterioxu huntaz, zeren orai baino lehen bere Semiaren segue-retuen⁴²⁴ phartalier eguina izan zen. Eta guero Jesusec, dembora eta lekhu berian, sendotu zian itxu, mutu, eta debruaz poseytua zen presuna dohacabe bat.

Miraculu mirex-garrien hau eguin zuen bezen laster abiatu zituiian farisayuac yelosiaz eta enbidiaz, eta errabiaz, Jesusen acusatzen, erraiten zutelaric Belzebut debru guzien buruzaguiaren podorez eta berthutez, debruiac casatzen zituiela, eta othoitz-tu zitean dembora berian eguin zezala miraculu bat, hain haundia eta estona-garria, nun erakhux ahal baitzezaqueyen, dudaric den gutiena < 67 > ere gabe, hura zela heyec iduriquitzen⁴²⁵ zuten eguiazco Messias famatu hura. Bainan Jesusec, nahiz guizon hilcor eguina, yadanic ikhusi duian bezala, etzen Yainco izaitetic guelditu; beraz —zeren ezagutzen zuien heyen chede nabarra—, ihardexi zayeyan etzutela ikhusiren Yonas profetaren miraculuia baizin, erran nahi dic haren phiztea eta erresurezione loriosa baizin, zeinec izan behar baitzuien bertze miraculu guzien khoroa, eta ezin ukhatuzco lekhucotasun triomfanta.

Bazcal onduan yoan zuian Jesus Tiberiaseco itxas heguita; bainan zeren yadanic bildu zen eta juntatu —hunec inguruetan usatzen zen bezala— hunen entzuteco guthizia zuen yende mulho haundi bat, beldurez aitzinian bera atopella zezaten, sarthu zuian untchisca batian, eta handic abiatu predicatzen, proposat-zen zaiztelaric parabola edo paretasun batzu, eta hoyen artian, ogui ereinzalliarena, etche

⁴²¹ *yin*] zin.

⁴²² Fr. *affligeant* “qui afflige, provoque le chagrin et l’abattement” (DAF).

⁴²³ Bertze-ren ordena kanbiakorra da testuan. Cf. *bere bertze discipuluequin* (162).

⁴²⁴ Forma anaptiktikoa, *muta cum liquida* taldea desegiteko bokala tartekaturik: *sekeretu* > *sekeretu*, *segeretu*. Guztiarekin, *secretu* eta *secreturic* (64).

⁴²⁵ *iduriquitzen*] iduriquit zen.

guziaren < 68 > arguitzeco bere chandela gandlerian emaiten zuenarena,⁴²⁶ guizon etxayac laborariari ogui hazi garbiaren artian igueraca ezarri zangona, mustarda⁴²⁷ bihi ttipiarena eta undarrian alchagarriarena...

Yende ospe hari proposatu zaingoyan⁴²⁸ parabola edo paretasun hoc, bat ere azaldu gabe; bainan yoan zenian guero etcherat bere apostoluequin, hoyec othoitztu zutelacotz, azaldu zaiztean edo explicatu paretasun admira-garri hoc. Eta guero, orainic proposatu zaiztean berri batzu, hala nola tresor gordiarena, bere onthasun guziac salduric lur perla duna erosi zuienarena, sare itxasuan hedaturic arrain suerte guzietaric hatzeman zuienarena, eta horrelaco bertze asco. Eta guero, arraxian...

BETTIRIÑO: Yauna, barkha zada-zut, bainan nic ez dut yaquin behar, urrunago⁴²⁹ yoan gabe, zer erran nahi duien Salbatzaille zerutar hunec parabola edo paretasun hotaz? Eguia bada ere, ni ez naiz orainic apostolu hautatua, < 69 > bainan Jesus Christoren soldado leyal bezala, nore capitainaren eguintzac lehen baino lehen ikhasi nahi nituque.

CADET: Ez duc guti galde eguiten⁴³⁰ Bettiriño. Bainan, zeren ene-zat erakhaustia bezala hire eguin bidea den ongui eta errotic ikhastia, gostu haundirequin zerbitzaturen hit;⁴³¹ bainan bi orenez, bederen, entzun ezac ichilic.

Yoan zuian, beraz, ogui ereilia bere oguiaren ereitera bere landara, eta ereiten ari zelaric hogui bihi hotaric, pharte bat erori zuian bidiaren gainerat, eta ayreco hegastinac yinic yan zitean. Bertze pharte bat erori zuian, lur baino harri guehiago zen toquiru; bainan, zeren lurrac etzuien zola eta barnatasunic asqui, sorthu zuian bainan guero beruac yitiarequin funxic eguin gabe eyhartu zuian. Bertze pharte bat erori zuian elhorri arthera, eta elhorriac hostatu eta haunditu zirenian itho zitean. Undarrian, bertze pharte bat erori zuian lur onera, eta hoyec ekharri zitean batzuiet ehun, bertzec < 70 > hirur hogoi, eta bertzec hogoi eta hamar. *Zuieci, be-*

⁴²⁶ *zuenarena*] *zuen narena*.

⁴²⁷ Leizarragarengan lekukotua: *Konparatu da zeruetako resuma, mustarda bihi gizon batek harturik bere landan erein duenarekin.* (Mt 13, 31). Bestenaz Haraneder, Hiribarren, Duvoisin, Althabe edo Barbierrek ere lekukotzen dute.

⁴²⁸ Bat. *zizkioan*. Cf. *zaingon* (41) eta irakur bertako oharra.

⁴²⁹ *urrunago*] *urrun-nago*.

⁴³⁰ *galde eguiten*] *galde eguien*.

⁴³¹ Bat. *haut*. Ikus *hit* (33).

raz, beharriac aditzeco eta beguiac ikhusteco dituzuienac, adi nezazuie —zioc salbatzailliac bere apostoluerri eta heyen presunetan guirichtino guzierri— *huna nun den parabola hunen azalmendua*.⁴³²

Guizon batec artharequin aditzen duenian ebanyeliuaren solasa, zeinaren medioz eta moyanez Yaincuac erakhusten baitaucu Zeruco Erresuma dohaxuia, eta guizon hunec bere enxeyuac eguiten baditu, edo enxeyatzen ez denian solas zerutar hunen beiratzera, izpiritu malinua eta herrebesea yiten da, eta khent-zen du hunen bihotzian ereina izan den hazi prezios hura. Eta horra zer erran nahi duien bidian eroriric hegastinec yaten duten haziac.

Ikhara zitezte, hemen hogoi eta hamar urthe luzez menturaz Ebanyelio Sainduia aditu onduan, hastian baino erphelago zireten christauac; zuietaz⁴³³ < 71 > arrangurazten da hazi guzien autorra. Lur baino harri guehiago zen toqui tristera erori zen haziac seinalatzen ditic Yaincuaren hitz sacratuia atxeinequin aditzen eta hartzen dituzten christauac; bainan zeren ez duten bere baithan ez eztitasunezco, ez berthutezco, eta orainic hare⁴³⁴ gutiago caritatezco, hazi zerutar hunec erruac eguin ahal ditzaqueyen zimendu eta zolaric; zeren ez dira fidel ez leyal hazi admira garri huni dembora labur batentzat⁴³⁵ baizin. Elhorrien arterat erori zen hazi harc seinalatzen ditic Yaincoaren hitza adituric, zonbait dembora pochiz beiratzten duten christau flacuac; bainan guero, bere goiti beheitiequin, eta bere onthasunen beiratzeco eta emen-datzeco duten artha eta arrangurarequin, ithotzen eta gauzez bihurtzen⁴³⁶ dituztenac.

Orhoit-zitezte hemen, christau ttipi, haundi, behar, onxa, zahar, gaztiac, zuien burhasuey⁴³⁷ zer guerthatu zayen: larru gorrian sorthu ziren, eta larru gorrian yoan dirade. Zuiet-zat eta ene-zat ez dago suerte hobia. Zertaco, beraz, hoinbertze⁴³⁸

⁴³² ‘Azalpen’. Beste lekukotasunik gabeko hitza.

⁴³³ *zuietaz*] *zuietaz zuietaz*.

⁴³⁴ Markagarria da *h*-dun forma hau. Pentsa genezake hasperenak baduela arrazoin etimologikorik; izan ere, *hare* 3. graduko erakusle baizik ez da, *-n* gabeko genitibo arkaikoa erantsirik. Nolanahi ere den, *are* gailentzen zaio (9 vs. 2). Ikus FONOLOGIA.

⁴³⁵ Destinatiboaren markaren hedakuntza, kasu honetan denborazko balioz (cf. fr. *pour six mois*). Ikus SINTAXIA.

⁴³⁶ *bihurtzen*] *bihurt zen*.

⁴³⁷ Hemen *burhaso* ‘antepasado’.

⁴³⁸ Ikus *hoinbertze* (37).

pena, anxia, hira eta crina⁴³⁹ onthasun pasacorrent-zat?⁴⁴⁰ < 72 > Undarrian, Bettiriño, lur guizen⁴⁴¹ eta onera erori den haziac, zeinac batentzat ekhari izan baititu ehun, sinificatzen ditic ebanyelioco solas preziosa artha eta atenzionerequin, entzunez eta obran emanez seguitzen dutenac; hic eta nic, eta mundu guziac, bertze munduco gauza guziac mezprezaturic eguin eta obratu behar guinquyena, preferablequi ez lotxaz ez herabez behin ere utzi gabe.

BETTIRIÑO: Hunen gauza ederrac eta admiragarriac izan, Yauna, parabola hoc! Eta niri azaldu gabe utzi nahi zinituien?

CADET: Arrazoin duc, Bettiriño, bainan guazin aintzina. Lehenbizico paretasun hunen onduan, ekharri zayean Jesus Christoc bere yendei bigarren bat, yadanic ikhusi duian bezala, erraiten zayelaric: *Zeruco Erresumac iduri du bere landan hazi garbia erein duien laborari bat, zeinari, berac hazi garbia erein onduan, gabaz hau lô zaguelaric, erein baitzacon etxay gaichtuac igaraca hunen hazi garbiaren erdian. Bat eta bertzia burutu zirenian, beraz, joan zazcoyan⁴⁴² bere < 73 > sehiac erraitera laborari huni: “Ez duzu, yauna, ogui garbia erein zure landan? Nundic, edo nola aguertu da, beraz, igaraca erein gabia ogui garbiaren artian?” Nagusiac ihardexi zayeyan sehi hoquierrri: “Ene etxayac erein dic igaraca”. Orduian sehiac erran zacoteyan: “Yauna, nahi baduzu yoanen guirade igaracaren errotic atheratzera”. “Ez —dioc nagusiac, beldurrez igaraca atheratzian oguia athera edo cordoca—,⁴⁴³ uz quizue bat eta bertzia uztail artio, eta uztailian erranen diotet phicazalley lehenic igaraca bilduric, espal eta zohituric errezeco, eta guero ogui garbia phicatzeco”.*

Orobat Jesus Christoc azaldu zayean bere apostoluerri paretasun hau, erraiten zayelaric eguiazco hazi garbia ereiten duen aita familiaco⁴⁴⁴ hura zela guizonaren Semia, Jesus Christo; landa mundu triste hau duc,⁴⁴⁵ hazi garbia, Yaincoaren zerbitzari fidelac eta leyalac dituc, zeinac izaren baitire Zeruco Erresumaco princiac;

⁴³⁹ “Cuidado, preocupación; inquietud” (OEH). *Grina* da forma ohikoa, *krina* Larramendik eta Harrietek emaiten dutelarik. Ohart kolokazioan agertzen dela idazkian gaindi: *hira eta crina* (71, 129, 197).

⁴⁴⁰ Hegoaldeko mintzoetan motibatiboa agertuko luke: *pasakorrengatik*. Destinatioaren markaren hedakuntzaz, ikus oharra 171. orrialdean.

⁴⁴¹ *Lur gizen* ‘lur on, emankor’.

⁴⁴² Bat. *zitzaizkioan*.

⁴⁴³ *Cordoca(tu)* ‘idée de rendre fragile’. Seinala bedi aditzoinaren agerpena (cf. *beldurrez berac ebaxia zuien erresuma hura gal* (19) eta ikus oharra).

⁴⁴⁴ *Pater familias* latinaren kalkoa. Cf. *ama familiaco* (78).

⁴⁴⁵ *landa mundu triste hau duc*] landa da mundu triste hau duc.

igaraca dirade izpiritu gaichtuaren haur esclabo dohacabiac; etxai landa < 74 > garbian igaraca erein duena⁴⁴⁶ duc Debrua; uztailac munduaren fina seinalatzen dic; eta ogui phicazaillac Zeruco aingueruac⁴⁴⁷ dituc, Bettiriño, ezic izquiriatua duc guizonaren Semeac egorrico dituela munduaren accabantzan bere aingeruac, eta bilduco dituzte, eta khenduren haren erresumaco gaichtaqueriaren, haur dohacabe eta escandalaren causa guziac; eta aurthiquico ifernuco su lama ikhara garrietarat, zeinetan ez baita behin ere izaren nigar marasca,⁴⁴⁸ eta hortz carascari baizin. Orduian justuec, nahiz orai zokho ilhunetan dauden, arguituren dute, eguzqui berri batec bezala, bere Aita zerutarraren Erresuma dohaxuiian. Aditzeco beharriac dituenac adi dezala, beraz; ez deus ere eguin su ikhara garrienen haren merechitzeco, ez eta ere deus ere guphidex Zeruco Erresuma dohaxuiaren ardiesteco.

Eta guero, orainic seguidan erran < 75 > zayeyan Jesusec bere apostoluerri Zeruco Erresumac orainic iduri zuielea canpuan guizon batec hazemaiten duien mina balios bat, zeinac berriz berri berritan gordezen⁴⁴⁹ baitu segurquiago beiratzeco, eta zeinetan lasterca phozic baituha bere etchian dituen onthasun guzien saltzera, diamantezco mina balios hunen guero erosteco. Guisa berian, Ebanyelio Sainduco arguien medioz Zeruco Erresuma ezagutzen dutenec, zer nahi den gostaric ere, behar die erosi Erresuma dohaxu hau.

[Jesus Christo:] *Orainic iduri du Zeruco Erresumac perla prezioz-queta⁴⁵⁰ dabilan marchant bat, zeinac bat hazeman duien bezen laster baituha, zer nahi den gostaric hunen erostera. Eros-azuie zuiec ere, beraz, zer nahi den gostaric, fediac edo sinhestiac aguertu daut-zuien Erresuma dohaxuien hau, zeinaren⁴⁵¹ posesionia edo egoquid⁴⁵² ez baitaitaque eros, ez ardiex, obra onequin baizin. Ezic orainic Zeruco Erresumac iduri du itxasuan hedatzen ohi diren sare batzu, zeinec haze-maiten baitituzte arrain khenero⁴⁵³ eta suerte guzietaric, eta zeinac bethe direnian, ekhart-zen baitituzte < 76 > arrainzaillec itxas heguirat; eta zeinetaric arrain onac hautatu eta bere chalupan edo unchiscan emanic, camporat aurthiquitzen⁴⁵⁴ baitituzte arrain deusic balio ez*

⁴⁴⁶ Erlatibo tartekatua: *etxai landa garbian igaraca erein duena*.

⁴⁴⁷ *aingueruac*] angueruac.

⁴⁴⁸ *Nigar marasca* 'torrente de lágrimas'.

⁴⁴⁹ *gordezen*] gorde zen.

⁴⁵⁰ 'Perla preziosen xerka'. Cf. *urqueta* (40) eta ikus bertako oharra.

⁴⁵¹ *zeinaren*] zeinare.

⁴⁵² 'Morada, lugar donde estar'.

⁴⁵³ Gaztelaniaren /x/ hotsa ezin ahoskatuz posible da /k^h/ edo /k/ batera igaraitea; ezaguna da *José* > *Kose*. Cf. *benthakhetan* (129).

⁴⁵⁴ *aurthiquitzen*] aurthitzen.

dutenac.⁴⁵⁵ *Aditu eta endelgatu dituzuie gauza hoc guziac?* Apostoluec ihardexi zacoteyan: *Bai, Yauna*. [Jesus Christo:] *Artha ukhan ezazuie, beraz, zihorec lehenic ongui orhoitzeco, eta guero bertze guzierrri dembora berian erakhusteco; ezic Zeruco Erresumaz ongui yaquinxun direnec iduri dute aita familiaco zuhur eta prudent bat, bere tresorretic gauza zaharrac eta berriac atheratzen dituenta, eta bere haur maitei*⁴⁵⁶ *phartitzen hoyen ahal eta endelgamenduiaren arabera*.

[CADET:] Zer dioc orai, Bettiriño? Ez hiz content oraico alditto huntaco? Ezic iduritzen zautac zerbait⁴⁵⁷ erran eta erakhuxi dayatala oraico phús⁴⁵⁸ huntan.

BETTIRIÑO: Yauna, guziz content naiz. Bizquit artian badut orainic arrangu-ratto bat: hitz eman zinaiztan parabola eder hetaric zombait, mihiaren mocotic phasatu zaizquit-zu?

CADET: Zer dioc, quichquila?

BETTIRIÑO: Yauna, barkha zadazut. Mihiac laster eguin deraut. < 77 > Erran nahi nuien hoinbertze⁴⁵⁹ gauza ederren artian, ez ez daquizulacotz,⁴⁶⁰ bainan ohar gabian eta uste gabez utzi dituzula phasatzera zombait parabola, ez choilqui azaldu gabe, bainan bai orainic achala den gutiena ere hunquitu gabe. Ezic orainic falta dirade, yauna, mustarda hazi ttipiarena eta alchagariarena.

CADET: Zer, eta guziac aldi batez ez choilqui ikhasi, bainan iretxi nahi dituc?

BETTIRIÑO: Yauna, aditzen zaitut⁴⁶¹ eta endelgatzen, erran nahi da... Eguizu, yauna, plazer duzuna; zure borondatia enia da. Capharnaun guelditu guinen gure Salbatzaillia bere apostoluerri bere parabola misterioxiuen azaltzen uzten guinuelaric.

CADET: Hire cortesia eta mintzatzeco linyotasuna⁴⁶² dela causa explicatucio daizquiat, beraz, bi parabola edo paretasun hoc. Erran zayean, beraz, justiziazco

⁴⁵⁵ Erlatibo tartekatua: *arrain deusic balio ez dutenac*.

⁴⁵⁶ *maitei*] matei.

⁴⁵⁷ *zerbait*] zer bait.

⁴⁵⁸ *Phus* 'bulkada' ez da adiera honetan lekukotzen. Cf. *phusako* "poussée" (Lhande).

⁴⁵⁹ Ikus *hoinbertze* (37).

⁴⁶⁰ *ez daquizulacotz*] ezdaqui zulacotz.

⁴⁶¹ *zaitut*] naitut.

⁴⁶² < *lindo* "propre, sans tache". Ikus *lyndo* (4).

eguzqui distirant harc —Jesus Christoc— orainic: *Zeruco Erresumac iduri du mustarda hazia, zeinac hazi guzietan den ttipiena delaric berenaz bertze belhar eltzetar guziac baino gorago < 78 > igaiten eta hain aldaca haundiac ekhartzen*⁴⁶³ *baititu, nun aireco choriac heyen gainian phausatzen baitire.*⁴⁶⁴ Guisa berian, Eliza —zeinac baita Yaincuaren Erresuma—, nahiz hain ñimiñua bere hastapenez eta sortzez, alchaturen da undarrian hain gora, nun bertze erresuma guziac azpian harturen baititu; eta orainic guehiago: hainbertze-taraino hedatuco da, nun mundu guzia hunen ganat yinen baita bere descanchuiaren eta salbamenduiaren onduan. Undarrian, erran zayeyan Zeruco Erresumac iduri zuiela alcha-garria zeinac ama familiaco⁴⁶⁵ batec emaiten baitio⁴⁶⁶ orhiari, eta uzten orhe guzia alchatu artio.

BETTIRIÑO: Eta yauna, Salbatzaille zerutar hau zertaco etzen populu dorpe eta itxu hari edo clarqui mintzat-zen, edo bederen zertaco etzain-gon azaltzen parabola admira-garri hoc bere apostoluerri bezala?

KADET: *Voto va chapiro!*⁴⁶⁷ Zertaco eguiten dautac orai galde impertinent eta atrebitu hau? Uste duc Yaincuac niri zabaldu < 79 > dautala bere segueretuen⁴⁶⁸ bortha itzatu hura? Nic etzaquiatic hic baino guehiago, Ebanyelio Sainduiac erraiten dautana baizic! Jesusec erran ditu gauza hoc guziac paraboletan eta etzen mintzatzen parabolic gabe, eta hori amorecatic⁴⁶⁹ osatuia izan zadin Izipiritu Sainduiac profetaren ahoz erran zuien profezia edo hasmapena:⁴⁷⁰ *Idequiren dut neure ahua parablez, eta erakhuxiren ditut mundua hasiz gueroz gordiac dauden gauzac* (Sep: 17. V: 2.) *Aperiam in parabolis os meum, loquar propositiones ab initio.*⁴⁷¹ Zer dioc orai, Bettiriño, content hiza ala ez?

⁴⁶³ *ekhartzen*] ekhart zen.

⁴⁶⁴ Perpau honetan bi egitura gainjartzen dira: batetik, eta sinplifikatuz: *Zeruco Erresumac iduri du mustarda hazia, zeinac igaiten [baita] eta hain aldaca haundiac ekhartzen baititu*, bes-tetik *hain aldaca haundiac ekhartzen [bat]ditu nun aireco choriac heyen gainian phausatzen baitire.*

⁴⁶⁵ Cf. *aita familiaco* (78).

⁴⁶⁶ *baitio*] batio.

⁴⁶⁷ Haserrearen adierazteko lokuzioa.

⁴⁶⁸ Ikus *segueretuen* (66).

⁴⁶⁹ Gogora *amorecatic* perpau finalen sarrarazteko baliatzen dela. Ikus *amorecatic* (15) eta bertako oharra.

⁴⁷⁰ Hapaxa. Cf. *profezia edo asmequia* (205). Ohart, halaber, *h*-dun forma dela (< *hasmatu*), *hasmazailliac* (83) bezala.

⁴⁷¹ Ps LXXVII.

BETTIRIÑO: Guziz, yauna; satisfactua⁴⁷² naiz. Goazin beraz orai gure sail hasira; Capharnaun guelditu guinen.

CADET: Azaldu zaiztenian⁴⁷³ beraz bere apostolu hautatuerrri paretasun edo parabola mixterioxu⁴⁷⁴ hoc, ilhun nâarrian⁴⁷⁵ Jesus sartu zuian Tiberiadeco itxasuan; bainan, zeren loac harturic, tempesta haundi bat alchaturic, chalupa edo heyen unzychca uhunberat⁴⁷⁶ zohan, bere apostoluec arras ikharaturic iratzazarazi⁴⁷⁷ zitean, erraiten zacotelaric: *Yauna, galduiac guira*; < 80 > *Salba gaitzazu! Domine, salva nos perimus.*⁴⁷⁸ Jesusec mehachatu zitian bere apostolu uzcurrac bere fede ttipiaz eta erphelaz, eta manatu zacoyan itxasuari calmetzeco eta eztizeco, eta hunec istant berian obeditu zian; eta guero handic yoan zuian Gerasaco quarter⁴⁷⁹ batera,⁴⁸⁰ zeinac baitzen Tiberiadeco itxasuaren eguzquia atheratzeco aldian.⁴⁸¹ Han aurkhitu zitian bi demoniuez poseitu, eta bietaric⁴⁸² batec bazian berequin eta bere baithan debruzco legione oso bat —erran nahi diat bi mila— seguric. Presuna dohacabe hau heldu zelaric Jesusen onduan, debruiac pleinitu zitzaiz-quiuyan Jesusi, hunen ahoz dembora yin baino lehen zertaco tormentatzen zituien, eta dembora berian othoitz-tu zitean ez igortzeco ifernuco zolarat,⁴⁸³ bainan bai onhesteco sar-ziten han orduan suertez phasatzen ari zen urde edo zerri mulho hartan; eta Jesusec “bai” erran zayen bezen fite, bi milaco urde mulho hura yoan zuian, ikharagarrico < 81 > haraos⁴⁸⁴ bat eguiten zuielaric, Tiberiadeco itxas zolarat; eta debruz poseitu hoc istant berian bere exai crueletaric libratuac guelditu zituan.

⁴⁷² Grafia kultista, aditzaren beste agerraldietan ez bezala. *Satisfatuia* (122) bat letorke Harrieten hiztegiarekin, eta *satisfatu* (170) aldaerarik hedatuena da.

⁴⁷³ Bat. *zizkienean*.

⁴⁷⁴ *mixterioxu*] mxtorioxu.

⁴⁷⁵ Cf. *ilhun narrian* (32).

⁴⁷⁶ Ikus *uhunberat* (45).

⁴⁷⁷ Faktitibo bikoitza. Badira beste pleonasmu batzuk, markagarriena superlatiboarena.

⁴⁷⁸ Mt 8, 25.

⁴⁷⁹ Grafia etimologikoa da (< fr. *quartier*), ahoskera /ka/ denean. Cf. *qualitatez* (110).

⁴⁸⁰ *batera*] bat era.

⁴⁸¹ “Ekialde” ideiaaren adierazteko lokuzio honen arrazoina didaktikoa baizik ez dateke.

⁴⁸² *bietaric*] bi etaric.

⁴⁸³ *zolarat*] zolarac.

⁴⁸⁴ Eguno grafian *harrabots*. Gogora bedi zein aise erortzen diren bokalarteko *b*, *d* eta *g*. Gogora, halaber, <r> izan daitekeela dardarkari bortitzaren isla grafikoa, <s> grafemak hitz bukaerako sibilante afrikatua idurika dezakeen bezala.

Genasientarrec, estonatu bezen ikharaturic ikhus garri⁴⁸⁵ uste ez⁴⁸⁶ bezen mirex-garri huntaz, eta bere cherrien falta guziz bihotzian zutelacotz, beldurrez bertze calte haundiago bat, othoitz-tu zitean Jesus hequien inguruetaric urrunt-zeco. Orduan phasatu zian beraz Jesusec berriz itxasua, eta sarthu zuian Capharnaun. Hemen Yair, Capharnauc synagogaco buruzagua, yoa zangoyan, hau Capharnaun sarthu zeneco othoitz-tera senda zezola bere alaba baxarra eta hunen esperantza guzien objet choila. Nola Jesus yohan zen⁴⁸⁷ hunen etchera eri hunen sendotzera, bidian odol ichurtzia aspaldian atacatua zen emac ume bat sendotu zuian, Jesusen yantziaren bazter bat choilqui hunquituric. Yair < 82 > yohan zelaric beraz Jesusequin bere etcherat, bere ustez eta nahiz bere alaba maitiaren sendotzera, bidian erran zacoteyan ya haren alaba maitia hil zela; bainan Jesusec consolatatu zian erraiten zangolaric fede fermu baten ukhaiteco. Eta guero, hunen etchian sarthuric, etzian choilqui phiztu alaba hil hau, bainan bai orainic yaten ere hasarazi; ez hil, bainan orainic egundaino eri ere izan ez balitz bezalaco apetitu batequin; eta guero erran zayean nihori ere ez salhatzeco miraculu hau.

Nola Jesus Nazareth bere herrirat zohan, bidian yin zitzaizcoyan bi itxu bichtaren onduan eta seguitu zitean bere etcheraino, eta undarrian ardiexi bere bichta casic dembora berian sendotu zian presuna mutu eta debroz poseitu bat. Nazareth helduric, abiatu zuian predicatzen eta hain ongui eta admira garriqui < 83 > (zena zelacotz), nun mundu guzia estona⁴⁸⁸ bezen surprenituric, abiatu baitzen bat bertziari galdez: *Nor edo zer da hau? Ez da hau gure lagun marachturi⁴⁸⁹ edo Josef zurguñaren Semia? Ez da hunen ama Maria deitzen? Ez dire hunen aneya arrebac gut-artian?*

Jesus athera zuian, Bettiriño, herrichca huntaric, eta ez guehiago bihurtu, erraiten zuielaric profetac edo hasmazailliac⁴⁹⁰ choilqui, ohoreric gabe, bere herrietan edo hirietan zirela. Eta hemendic fite egorri zitian bere apostoluac herri hetara

⁴⁸⁵ Cf. *ikhusgarri* (11).

⁴⁸⁶ Bitxia da negazioaren ordena, erkagai den *uste* eta *bezen* partikula konparatiboaren artean.

⁴⁸⁷ ‘Zihoan’.

⁴⁸⁸ Aditzoina erkaburu gisa, konparazioaren beste elementuak ematen du informazio gramatikala. Cf. *estonatu bezen ikharaturic* (81).

⁴⁸⁹ Ikus *marachturi* (20).

⁴⁹⁰ Cf. *asmatzallea* “adivino”, “agorero” (Lar). *Hiztegi Hirukoitz*-ean PROFETA sarreran *asmequitaria* proposatzen den arren, gure idazleak beste hitz bat aukeratzen du euskal ordain gisa. Erremarka Larramendiren forma *h* batez hornitzen dela: *hasmatu* → *hasmazailliac*. Cf. *hasmapena* (79), baina *asmequi* (205).

Zeruco Erresumaren ethorquiaren⁴⁹¹ predicatzera; pharti-arazi zitian beraz emaiten zayelarić miraculuric espanta garrienen eguitemo podoria eta ahala, eta debecatzen zayelarić berequin eremaitia ez harmarić bere buruien defendatzeco, ez yantziric sanyatzeco, ez zapataric oynetacuen mudatzeco. Dembora berian comeitatu zayeyan guizon edo < 84 > presuna pherestuen etchetan sartzeco, eta handić edozoin⁴⁹² gauza charentzat ez ilkhitzeco, yaten zutelarić, behin ere deus ez ere arranguratu gabe mahayan phausatzen zituzten gauza guziataric. Eta guero, apostolu hoc yoan zirenian bere missione edo egortzaren⁴⁹³ osatzera, Jesusec ere curritu zitian herri hec oro, eguiazco arguiaren arrastuac bazter guzietan, uzten zituelarić berenaz eguiazco arguia eta eguia zen bezala. Eta guero, apostoluac ethorri zaingonian⁴⁹⁴ bere egortzaren heradura osaturic, eguiazco nagusi huni bere nekhe izerdiez khondu emaitera, hunen bere Aita bethicuari esquerrac bihurtu zitzaizcoyan egortza edo missione hunen ondorio urusez.

Egun batez Jesus, ohi bezala, yende ospe haundi batez seguitua zelarić (halaco guisaz nun descanchu phorro⁴⁹⁵ baten < 85 > hartzeco ere heyen ganic escapatu behar baitzuien) Tiberiadeco itxasuaz⁴⁹⁶ bertze alderat phasatu zuian bere apostoluequin, eta han mendi zilho batian gorde. Bainan yende tropa hunec yaquin zuenian lurrez ikhara garrico inguru bat eguiten zuelarić Jesus bere apostoluequin zaguen Bethzaidaco bortu edo desertu haundiaren zolara... Jesusec ikhusi zuenian yende ospe hau bere mendiaren zolan, eta sendoturic aitzinerat ekharri zaizcoten eri guziac, predicatzen abiatu zuian; eta nola araxaldia aphalt-zen ari zen, abisatu zitean bere apostoluec Jesus, ya dembora zela yende ospe haren egortzeco, amorecatic ukhan zezaten dembora hauzo herri hetarat bederen hurbiltzeco. Orduan erran zayean Jesusec: *Emozuie zuyec populu huni jatera*. Bainan guero apostoluec errepliatu zacoteyan: *Nola da, Yauna, possible yende mulho ikhara-garri huni guc jatera < 86 > emaitia?* Orduian galde eguin zayeyan Jesusec apostoluerri eya zer zuten berec afaiteco. [Apostoluec:] *Ez ditugu, Yauna, bortz ogui ophil ttipi eta bi arrain baizic; eta hoc oro deus eztira hunenbertze arimarent-zat*. [Jesusec:] *Jarraraz*

⁴⁹¹ OEH-k ez du adiera hau jasotzen. Testuingurua ikusirik aise entelegatzen da: 'llegada, advenimiento'. Cf. hapax den *ethorquipenari* (204).

⁴⁹² *edozoin*] edo zoin.

⁴⁹³ Lekukotasunik gabeko hitz hau hiru aldiz agertzen da testuan, hirurak orrialde honetan. Batzuetan *missione*-rekin batean, bestetan beregain. Cf. Larramendiren *igortze* 'misi3n'.

⁴⁹⁴ Bat. *zitzaizkionean*. Adizki sinkretikoa, beste testuingurutan NNN moldekoa izaten baita. Markagarria da, halaber, *-i*-ren pluralgile tasuna.

⁴⁹⁵ 'Poxi'. "Il s'emploi comme adjectif avec la signification de *fort petit, ch3tif*" (Harriet ap. OEH).

⁴⁹⁶ *itxasuaz*] itxazuaz.

zazue yende mulho hau guzia sorhopil⁴⁹⁷ eder, ayros, eta pherde charmant huntan. Jarrarazi zitean beraz apostolu hoyec, bere nagusia erran bezala, yende mulho haundi eta ikharagarri hau; eta berenaz eguiazco oguia, yaquia eta yanharía zen yainco guizon hunec, halaco guisaz ase zian yende ospe haundi hau, nun bortz ophil ttipiren eta bi arraincharen undarrez, bethe bai-zituzten hameca zare edo sasqui ttipi, nahiz ase ziren presuna hoc orotara etziren bortz mila baizin.

Yende ospe haundi hau admiratua eta dembora berian estonatuia zelaric hunen miraculu haundi eta claro batez, hunen < 87 > zerbitzu seinlatu eta beneficio hunqui garri batez, bere ezagutzaren eta esquerren frogantza claro baten Jesusi bihurtzeco, erresolitu⁴⁹⁸ zian Jesusen bere erregue hautatzia. Ilhun nabarrac⁴⁹⁹ obligatu zitian hunen apostoluac bere chalupan sartzera, eta Jesusec mendi hartan gueldituric,⁵⁰⁰ gau haren phartheric⁵⁰¹ guehiena othoitz-etan iragan zian. Apostoluac Bethzaidera yoan goguac, zeren gau guzian haize contrariua ukhan zuten borchaz Capharnauc alderat, yoan zituian biharamonian arguitu zuenian.⁵⁰² Uste gaberíc, aurkhitu zitzitean bere buruiac Capharnauc portutic hogoi estadetan⁵⁰³ —erran nahi dic lekhua bat bidetan, ezic zortzi estadec eguiten die milla bat, eta hirur millec lekhua bat—.

Arguitu zitzayenian, beraz, ikhusiric guizon bat itxasuaren gainian heldu zitzayotela, bide zabal sekho batian bezala oinez, estonatu eta ikharatu zituian, ustez zonzabait fantasma edo mamu zen, bainan Jesusec consolatu zitian erranic hura bera zela. Yendone Bettiric, bere izpiritu bizi eta < 88 > fede gartxuiarequin ezagutu onduan haren nagusia zela, erran zacoyan: *Yauna, permeti zadazut⁵⁰⁴ niri ere zu gana oinez yitia.* Jesusec ihardexi zangoyan: *Haugui.*⁵⁰⁵ Orduian, beraz, yauzi

⁴⁹⁷ ‘Zelai, belardi’.

⁴⁹⁸ “Résoudre, *erresolitzea*” Martin Harrieten *Voces Gramaticales*, 417. Bada *erresolbitu* (P. Urte, ap. *OEH*).

⁴⁹⁹ Cf. *ilhun narrian* (32).

⁵⁰⁰ *gueldituric*] *guedituric*.

⁵⁰¹ *phartheric*] *phateric*.

⁵⁰² *arguitu zuenian*] *arguitu zenian arguitu zuenian*.

⁵⁰³ Cf. fr. *estade* “mesure de longueur valant à peu près 180 mètres, chez les Grecs” (*TLF*).

⁵⁰⁴ Forma pleonastikoa, datibo bikoitzekoa: *zadazut*. Zuberera forma hirukotzeraino heldu da: *deitadazut*.

⁵⁰⁵ *Jaugin* aditzaren aginterazko forma, ‘hator’ (aditz honen agertze bakarra testu osoan). Haren eremua Zuberora eta Nafarroa Beherea izanki, jadanik Etxeparerengan lekukotzen da, forma ez jokatu gisara: *Dagoenian jende oro aizinian bildurik / Iauginen da rigoroski sainduieki zerutik* (*LVP*; DC).

eguin zian itxasorat eta yoan fermuqui bide puchca bat; bainan zeren bere aitzian presentatu zangon itxas baga⁵⁰⁶ haundi bat, hunen fedia cordocatu zuiena, uhunberat abiaturic, oyhu eguin zacoyan bere Nagusiari: *Yauna, beira nezazu!* Orduian, Jesusec mehachaturic bere fede flacuaz, escutic hartu zian. Eta guero, zeren bertze apostoluec othoitz-tu zuten, Jesus sarthu zuian hoyen unchiscan, eta hau sarthu zen bezen laster, yaquin gabe ez noiz, ez nola, aurkhitu zituiian Capharnaico portuan begui idec zeratze⁵⁰⁷ batez.

Desertuco yende ospe hau, zeren etzuien ikhusi Jesus bere apostoluequin enbarcat-zen edo unchisca hartan sartzen, < 89 > uste zutelacotz beraz desertuan guelditua zanguela, ibili zuian arrangura haundirequin hunen erregue eguiteco onduan. Bainan guti usteric (eta gutiago phenxaturic) yaquin zuenian hara arri-vatu ziren chalupa batzuietaric heyec han gauzezqui⁵⁰⁸ cherkhatzen zuten Messias famatua itxasuaz bertze aldian zela, yin zituiian fite hau zen lekhura.

Bainan zeren arte huntan Jesus yoan zen Capharnaica, hemen aurkhitu zitean. Eta yende hoyec Jesusi eguin zacoten lehen galdia izan zuian eya nola phasatu zuen itxasua, eta Jesusec ihardexi zayean: *Ene onduan zabilzatezte*⁵⁰⁹ *ez ene miraculuiac direla gauza, bainan bai emana izan zautzuien yanharia dela causa.*⁵¹⁰ Eta dembora berian exortatu zitian chercatzeco behin ere gal ezin daitequeyen yanharia, erraiten zayelari⁵¹¹ hura zela zeruco oguia, heyen burhasuec⁵¹² desertuan yan izan zuten mana < 90 > baino miliunetan hobiago;⁵¹³ eta haren haragui zela eguiazco yanharia; eta haren odola, eguiazco edaria. Solas gogorchco hoyec estonatu zitean populua, eta izan zituiian zombait apostolu Jesus utzi zutenac. Orduian Jesusec galde eguin harequin guelditu ziren apostoluerri eya heyec ere utzi gogo zutenez. Bainan hemen Yendone Bettiric erran zacoyan han orainc guelditu ziren guzien-zat: *Yauna, norat yoanen guira bakharric, zu zirenaz gueroz bethiereco bizitze dohaxuaren guiltza eta Jesus Christo, Yainco biziaren Semea?*

Nola phazco phestac hurbiltzen ari ziren, Jesus preparatu zuian Jerusalemerat yoaiteco. Hemen ez dayat deus ere guehiago erranen, zeren neure nagusiec eta

⁵⁰⁶ 'Olatu, uhin' (cf. fr. *vague*).

⁵⁰⁷ Cf. *zeratzia* (11).

⁵⁰⁸ Ikus *gauzezqui* (21).

⁵⁰⁹ *zabilzatezte*] *zabil zatezte*.

⁵¹⁰ Perpau berean *direla gauza* eta *dela causa*.

⁵¹¹ *zayelari*] *zayealari*.

⁵¹² *burhasuec*] *urhasuec*.

⁵¹³ Ikus *elhurra baino miliunetan churiago* (9).

errientec ez baitautate niri ere deusic erraiten —erran nahi diat laur ebanyelista sainduieci eta eguiaxuec—. ⁵¹⁴ Choilqui < 91 > Yendone Yoanne ebanyelistac erraiten dic bortz oguien emendamendu ⁵¹⁵ edo multiplicazionia eguina izan zela phazco phestac aintzinttuan. ⁵¹⁶

Bihurtu zenian beraz Jesus Jerusalemetic —dudaric gabe bere phazcuac zelebaturic— Judeara, farisayo hipocrit batzu escandalisatu zituian ikhustiac apostoluac bazcaiten bere escuiac ikhuzi gabe. Bainan Jesusec igorri zitian paseatzera, thomba choilqui campoz eder eta hipocrit guzien buruzagui hoc, erreporchatchen zayelaric zeremonia supestizios hoyen artha, leguiaren eguinbide buruzaguienez ⁵¹⁷ orhoitzen ere etzirelaric.

Yoan zenian Jesus Tyr eta Sidonneco alderat, presentatu zangoyan emac ume chananeatar bat, othoitz-ten zuelaric bere alaba eriaeren sendotzeco. Jesusec etzacoyan lehenbizian deus ere ihardexi; bainan, zeren emac ume hau bethi oyhuz zanguen, eta hunen oyhu garrachiec apostoluac incomodatzen zituen, hoyec othoiz-tu zuten Yesus emac ume haren despeitzeco. < 92 > Orduian Jesusec erran zayean: *Ez naiz egorria Israelgo ardi errebelatuen cherkha baizin*. Erran nahi zian, Bettiriño, dohainac eta graziac etzirela pheniziatarrent-zat bezala yentilent-zat.

Yoan zuian beraz Jesus undarrian emac ume hunen etchera, guti lotxaturic eta orainic are gutiago ahalgueturic. Emaztequi hunec aurthiqui zian bere buruia Jesusen oynetara, berri berritan othoitz-ten zuilaric hunen alabaz pietate ukhaiteco; orduian, Jesusec erran zacoyan: *Ez da justu, haurren oguia chakhurrei emaitia. Eguia da, Yauna* —ihardexi zangoyan emac umiac—, *bainan chakhurrec yaten edo milicat-zen ohi dituzte nagusiaren mahaitic eror-zen diren ogui phorrohcac eta mamiac*. Hemen Jesusec admiratu zian hunen fedia eta sinhestia, eta sendatu zacoyan bere alaba.

Eta guero seguitu zian bere bidia, igaiten zelaric Jordan erribera haundiaren surtzara, ⁵¹⁸ eta guero yoan zuian ⁵¹⁹ < 93 > Decapolera, zeinetan sendotu bait-ziz-

⁵¹⁴ Archuk eta Hiribarrenek jasotzen badute ere, forma hau ez da oso errotua Iparraldeko tradizioan. Cf. *eguiacorren* (63).

⁵¹⁵ *Emendatu* ‘handitu, gehitu’ aditzak erranahi berri bat hartzen du lekukotasunik gabeko forma honetan.

⁵¹⁶ *aintzinttuan*] aintzinttuac.

⁵¹⁷ Hemen *buruzagui* adjektibo da: ‘nagusi, printzipal’.

⁵¹⁸ Ikus *surtza* (4).

⁵¹⁹ *zuian*] zuian zuian.

tuien bi presuna, bat gorra,⁵²⁰ eta bertzia mutuia; eta guero igáanic mendi berechi eta sepharatu batera,⁵²¹ han phasatu zitian hirur gau egun. Hoyen onduan, yauxi zuian mendi hartaric eta sendatu zitian anhez eri presentatu zaizcotenac, eta guero eguin zian zazpi ogui ttipitaco eta zonzait arrain ttipizco miraculu hura, laur mila presuna aset-zen zituellaric hotaz, eta guero zazpi sasqui haundi orainic undarrez betheric uzten.

Eta guero, bi garren miraculu haundi hunen onduan, berehala Jesus enbarcatu zuian eta yoan Magedan deitzen zen quarter batetara,⁵²² Jordanen surtzaren inguruetan. Eta nola Jesus zonzait egun hetan han zaguen, yoan zitzazquiyoan⁵²³ farisayotar eta saduzeatarrac, galde eguitera zonzait zeruco marca edo miraculu; bainan Jesus contentatu zuian erraitiaz etzutela guehiago ikhusico Yonas profetaren marcac baizin, *Zeruco miraculuez denaz bezen batian < 94 > balin bazinute*⁵²⁴ *horrenbertze*⁵²⁵ *artha eta arrangura Messiasen ethorpeneco demboraren eta lekhuiaren examinatze*co —zioc Jesu Christoc—, *laster ezagut-zinezaquete profetez marcatua den dembora ya cumplitua dela, eta ni naizela hainbertze desircunde*⁵²⁶ *eta anxiarequin iduriquit-zen zinuten eguiazco Messias hura*. Eta eguia hau erran eta embarcatu zuian, eta yin, Bettiriño, Bethzaidera, zeinetan berehala arguitu bait-zuien itxu bat.

Guero hemendic yin zuian Cæsareara, eta galde eguin zayean bere apostoluerri eya yendec zer zeasaten⁵²⁷ hartaz. Batzuiec:⁵²⁸ *Elias zirela diote*; bertzec: *Jeremias edo Yendone Yoanne Baptista*; eta oroc, undarian: *Profeta haundi bat bederen zirela*. [Jesusec:] *Eta zuiec zer dio-zuie nitaz?* Hemen, bertze guzien artetic, yauziric erran zacoyan Bettiric: *Yauna, guc diogu zu zirela eguiazco Messias, Yesu Christo, Yainco biziaren semea*.

Jesusec hemen anhez laudatu zian Bettiriren sinheste fermua eta garxua; eta ordainez erran zacoyan, guzien artetic berechiric: *Hi haiz harroca, < 95 > eta hire*

⁵²⁰ *gorra*] gogorra.

⁵²¹ *batera*] bat era.

⁵²² *Bat*-en adlatibo mugagabea. Cf. *quarter batera* (80).

⁵²³ *zitzazquiyoan*] zitzazquiyoan.

⁵²⁴ *bazinute*] bazi nute.

⁵²⁵ *horrenbertze*] horren bertze.

⁵²⁶ *desircunde*] desircumde.

⁵²⁷ **Erasan* aditzaren forma trinkoa, '(norbaiten gainean) mintzatu'.

⁵²⁸ *Batzuiec*] Bat zuiec.

gainian fundaturen diat nore Eliza, eta hain izaren duc borthiza eta sendua nun behin ere, ifernuco borthec ezin garhaituren eta gutiago irauliren baitute, eta orainic guebiago: hic lurrian lachaturen dituiian guziac zeruan lachatuac izaren dituc, eta hic guisa berian lurrian estecaturic utziren dituiian guziac, orobat zeruan estecatuauc.

BETTIRIÑO: Barkha zadazut,⁵²⁹ yauna, bainan hunen bertze ichiltasunen onduan idurit-zen zaut nic ere zerbait galda dezadan goitiric⁵³⁰ dembora yin dela. Yauna, enigmaz eta parabolaz mintzo ahal zira, ezic nic seguric ez dut deus endelgatzen: *Hi haiz harroca, eta hi harroca horren gainian fundaturen diat nore Eliza...* Nor lachatu, edo estecatu behar ditu Bettiri harroca hunec?

CADET: Ukhan ezac pazienza pochi bat, haurra, eta emequi emequi guziac ikhusiren eta ikhasiren dituc. Ez hadila⁵³¹ presatuegui eta golaxegui⁵³² izan. Orhoit hiza Salbatzaille Divino hunec Simoni bere izena khenduric < 96 > nola eman zangon Cephas izena? Erran nayan,⁵³³ bada, izen mixteriotxu hura ongui hartzeco, zeren demboran baliaturen hintzan. Orainche guituc han eta hemen, bainan goazin aitzina.

BETTIRIÑO: Yauna, endelgatzen zitut, eta ez dut merechi dudana baizic; bainan bederen oharpentto hunec erakhuxiren daut hemen goitico bidia.

CADET: Attenzione beraz, Bettiriño, zeren anhiz gauza seriosez eta importan-taz⁵³⁴ mintzat-zera goazic. Ikhusi zuienian, beraz, eguiazco Yainco guizon hunec —laster ikhusico duian bezala— ya munduaren erosteco⁵³⁵ terminua hurbil-zen ari zela, eta zeren zuhan synagoga, eguiazco Eliza format-zera zuhanaren figura argalaren casat-zera —erran nahi diat itzal comuna khenduric eguiazco arbolaren landatzera— ikhusten zuielacotz, beraz, eguiazco artzain hunec artzainic gabezco arthalde gaichuac laster errebelat-zen eta galtzen ohi direla.

⁵²⁹ *zadazut*] *zada zut*.

⁵³⁰ *Goitiric* 'jada' (Lapurdikoko baxenafarrera, ap. A).

⁵³¹ Cf. *ez haila* (56) eta ikus *etzitela izit* (3).

⁵³² *Golax* 'gourmand', baina hemen ez janariari lotua, inpazientziaren ideia bati baizik. Cf. fr. *gourmand*, zenbaitetan "qui exprime le désir" (TLF).

⁵³³ Bat. (*nik hiri*) *nian*.

⁵³⁴ Singularreko instrumental hau bitxi da; gehiago espero genuke *anhiz gauza seriosez eta importantez*.

⁵³⁵ *Erosi* 'redimir'.

Bera zerurat heriotzia garhaituric⁵³⁶ bictorios igan < 97 > ondoco, bere lekhuco artzain baten [...] ⁵³⁷ hautat-zia comeni zuten,⁵³⁸ eta justu [hura]⁵³⁹ zela. Hortacotzat,⁵⁴⁰ galde eguin zayean beraz bere apostoluerri, eya heyec zer yuyamendu eguiten zuten hartaz. Yendone Bettiric —yadanic ikhusi duian bezala, bertze guzien buruzagui eta prince bezala, hala nola bere nagusi maitiaren loriaren lekhuco seinalatu bezala eta ez gutiago, egun batez Izpiritu Sainduia mintza-tu behar-zen cadira⁵⁴¹ sacratuaren buruzagui bezala eta yadanic casic hoyen buruzagui bezala— oronzat⁵⁴² instantian ihardexi zian: *Yauna, orainic galde eguiten daucuzu zu nor ziren? Yauna, araphostuia clarua da: arbola bere fruituetaric agueri denaz gueroz, zu zira eguiazco Messias, Yainco gorenaren Semea.*

Ya ikhusten duc, Bettiriño, hunen lekhuco tasun lorios eta erremarca-garri batec merechi zuiela errecompenxa edo ordaintza seinalatu bat. Erran eta eguin, arraintzaille behar edo pobre hunec ez phenxa, ez iduric⁵⁴³ ere zezaqueyen, baino miliunetan haundiago⁵⁴⁴ bat ardietxi zian. Jesus Christoc,⁵⁴⁵ zeinaren hitzac dohainac, eta zeinaren promesac < 98 > obrac eta efectuiac baitire, segurtatu zian bazohala fite eliza baten formatzera, zeinaren buruzagui izpirituar izanen baitzen hura. *Hurusa hiz, Simon Barjona, edo Yonasen semia, ezic orai confesatu eta aithortu ducan eguia ohicoez⁵⁴⁶ horren ezagutza urustasunic haundiena duc; ezic ezagutza edo argui gorenen hau ez duc ez munduaren, ez guizonaren, ez haraguiaren⁵⁴⁷ obra, bainan bai ene Aita Zerutarrena. Orainchet nahi ditiat osatu hiri aitzinian⁵⁴⁸ eman promesac: emaiten dayat izena Bettiri, edo Piarres edo harroca (Petrus). Eta segur nuc izen mixerioxu hunen sentidua edo senxua ohorerequin bethi iduquiren duiala: hi haiz harroca principala, zeinaren gainian fundaturen baitut nore Eliza. Et ego dico tibi:*

⁵³⁶ *garhaituric*] gahairturic.

⁵³⁷ Orriaren ertza falta da.

⁵³⁸ *zuten*] zuzen eta gainean zuten.

⁵³⁹ *hura*] orriaren ertza falta da.

⁵⁴⁰ Cf. *hortacotzat* (5).

⁵⁴¹ Hemen 'cátedra, trono'.

⁵⁴² *oronzat*] oron zat.

⁵⁴³ Hemen *iduriqui*-ren aditzoina dugu, nahiz aditz honek *-i* berezkoa duen. Cf. *iduricpena* (18), aditzoin honetatik abiatu hitz eratorria, eta *idec ez dezaqueyen* (184), tankera bereko aditzoina.

⁵⁴⁴ Ikus *elhurra baino miliunetan churiago* (9).

⁵⁴⁵ *Jesus Christoc*] Jesusec Christoc.

⁵⁴⁶ *ohicoez*] ohico ez.

⁵⁴⁷ *haraguiaren*] haguiaren.

⁵⁴⁸ *Hire aitzinian* ulertu behar da. Hemen *ea* > *ia* bilakabidea bi hitzen artean gertatu da.

tu es Petrus et super te...^{549, 550} *Harri hain sendua, hain azcarra, solidua eta fermua izanen hiz, nun ifernu hasarriaren baga*⁵⁵¹ *urguluxuac eta hantuac,*⁵⁵² *deseparazio-nian hagun argal bihurturic atzerat*⁵⁵³ *yoanen baitire. < 99 > Et portæ inferi non prævalebunt.*⁵⁵⁴

Emaiten daizquiat —zioc orainic Jesus Christoc, bethi bertze guzien artian mintzo delaric Bettiriri— *zeruco gultzac edo gakhuac, bortha heyen idequit-zeco abal eta podoriarequin. Et tibi dabo claves regni cælorum.*⁵⁵⁵ Ohart hadi hemen, Bettiriño, nahiz bertze apostoluac hau bezala present ziren, ez diayec⁵⁵⁶ erraiten *emaiten daizquizuet,*⁵⁵⁷ *zuerri dabo vobis*, bainan bai *Bettiri, hiri, tibi*. *Idequiren dituc bortha hec, bekhatuien barkhamenduia emaiten dayelaric arima ongui dispositu, prebenitu eta preparatuerrri,*⁵⁵⁸ *eta dembora berian ukhaturen duc*⁵⁵⁹ *dohain eta grazia hauc berac disposizione contrariuac dituztenei, eta errefus edo ukhamendu hau izaren duc heyen condemnazonia, ezic hire lurreco sentenziari conformatuco eta adostu- tuco duc justizia zerutarra. Eta ez zuiena, apostoluac, bainan bai hire ahala, Bettiri, hain izaren haundia, hedatuia eta absolutua,*⁵⁶⁰ *nun ene Elizan, hire gainian fundatuian, ez baita izaren ez ttipiric, ez haundiric, ez pobrereric,*⁵⁶¹ *ez aberaxic, ez zaharric, ez gazteric, ez erregueric, ez imperadoreric, ez aphezic, ez fraideric, < 100 >*

⁵⁴⁹ *te...*] laburdua.

⁵⁵⁰ Mt 16, 18.

⁵⁵¹ *Baga* ‘uhin, olatu’ (cf. fr. *vague*), hemen zentzu metaforikoan. Su lamak uhin bortitzen gisara irudikatuak, gero apaltzeko.

⁵⁵² Iparraldeko tradizioko hitza, ‘inflar / gonfler’, idurizko zentzuan ere, hemen bezala: ‘envanecerse / s’enorgueillir’. *Urguluz hanturik eta nehork ezin asezko heinera berak ezartzen gutiziaz [...]* *beterik* (Hiriart-Urruty: *Zezenak Errepublikan*, “Gaizkiak”). Zentzu fisikoz, cf. *hantu* (194).

⁵⁵³ Ezaguna denez, historikoki hitz hau Hegoaldeko euskal herrialdeetako da guztiz, Iparraldean *gibel* espero denean. Nabarmena da, aldi berean, *-rat* adlatiboa erantsi zaiola. *K&B*-ren agerraldi bakana da oso: “Al Norte se encuentran dos ejemplos, en Goyhetche y J. Etchepare, en la forma *atzeko* en ambos” (*OEH*). Bada, gainera, *atzerat egin*, “reculer, rétrograder” Dv (ap. *OEH*).

⁵⁵⁴ Mt 16, 18.

⁵⁵⁵ Mt 16, 18.

⁵⁵⁶ Bat. (*hark haiei*) *ziek*.

⁵⁵⁷ *daizquizuet*] daizqui zuet.

⁵⁵⁸ Datiboarekiko komunztadura falta: *idequiren dituc ... preparatuerrri*. Ohikoa Iparraldeko euskaran.

⁵⁵⁹ Hemen datibo komunztadura ez ezik, objektu pluralarekikoa ere falta da: *ukhaturen duc dohain eta gracia hauc ... dituztenei*. Baina aditza *tuc* ‘dituk’ izatera, perpausa gramatikala litzateke.

⁵⁶⁰ *absolutua*] absolutua.

⁵⁶¹ *pobrereric*] poberic.

*damna-zionezco penaren*⁵⁶² *azpian, hire ospina*⁵⁶³ *justuari sometitu eta suyetatu beharco ez denic.*

BETTIRIÑO: Yauna, hemen banuque galdeño bat zuri eguiteco, bainan zeren ikhusten dudan zure beguietan colera pintatua, mihiaren moco mocotic barnerat egorri dut.

CADET: Ukharen duc orainic dembora frango galde gauzezen⁵⁶⁴ eguiteco, Bettiriño; goazin oraino aitzina. Hautatu zuenian beraz Jesus Christoc Bettiri bere lekhuco-zat, hau zerurat igan ondoco, bertze guzien artian eta present-zian berechiric, manatu zayean guzierri orainic ez erraiteco hura zela munduaren salbatzaillia, eta hainbertze anxia eta desircunderequin, hainbat⁵⁶⁵ mendez eta yendez iduriquia zen eguiazco Messias.

Guero abiatu zayeyan guzierri dembora berian erraiten Jerusalem dembora⁵⁶⁶ laburric artian pairatu behar zituen afruntu, atxecabe, ahalgue, eta bide gabe eta tormentac; eta guero, itzultzen zelaric, baster guzietan bethi seguitzen zuien yende ospari: *Ene ondotic ibili nahi duenac < 101 > bere buruiaz ukhatu behar du, eta bethi bere khurutzia bizcarrian seguitu behar nau; bere bizia beiratu nahi duenac bizia galduren du; eta ene amodiua gatic galduren duienac bethicua ardiexiren du.* Eta eguia haundi eta mixterioxu hoc erran onduan, bertze eguia batzu orobat erran zaiztean: *Eguiaz erraiten dautzuiet badirela hemen hilen ez direnac*⁵⁶⁷ *Yaincuaren Erresuma bere edertasunarequin ikhusi gabe.* Dudaric gabe, Bettiriño, hemen mintzo zuian sei egunen buruien guerthatu behar tzen⁵⁶⁸ transfigurazioniaz.

Hemendic sei egunen buruien, beraz, Jesusec ereman zitian Thaborreco mendi haundirat hirur apostolu, zeinac baitziren Bettiri, Yacobe eta Joannes Zebedesen semiac; eta Jesus gau guzia othoitz-etan egon onduan, aguertu zitzayean bere loriaz yantzia. Hunen arropac elhur mina⁵⁶⁹ baino churiago zirelaric, argui ohicoez⁵⁷⁰ hunec

⁵⁶² Cf. *damnazionezco pena* (51. orr.).

⁵⁶³ *Ozpin* 'tximista'. Ohart bedi *-a* berezkoa duela. *OEH*-ren arabera, "hay ejemplos seguros de *ozpina*, con *-a* constitutiva, en Goyhetche y Barbier".

⁵⁶⁴ Ikus *gauzez* (21) eta haren oharra.

⁵⁶⁵ *hainbat*] hain bat.

⁵⁶⁶ *dembora*] dëbora.

⁵⁶⁷ *direnac*] direna.

⁵⁶⁸ *behar tzen*] behart-zen.

irazartu zitian apostoluac, eta hola izan zituian hil gabe bere nagusiaren < 102 > transfigurazioren edo loriaren lekhuco. Jesusequin aguertu zituian Moyses eta Elias profeta famatuiac, mintzo zirelaric hunec sofritu eta pairatu behar zituien tormenta cruelez. Orduian Bettiric, bere baitharic yauziric bezala, erran zacoyan Jesusi: *Yauna, hau lekhu guziz ona da. Nahi baduzu hemen eguinen ditugu hirur etchola: lehena zuretzat, eta bertze biac Moyses eta Eliasant-zat.*

Arte huntan Moyses eta Elias urthu⁵⁷¹ zituian eta Yesus bakharric⁵⁷² guelditu, apostoluac adituric boz bat erraiten zuena: *Hau da ene seme maitea, eta ene plazer eta complazent-zia guzien objet bakharra; hau entzun ezazue.* Boz ikhara garri hunec beraz, ikharaturic, eroriac zauden; Jesusec yinic alchatu zitian hirur apostolu hautatu hoc, eta manatu zayean deusic ez erraiteco⁵⁷³ miraculu huntaz, hura hilen artetic bictorios phiztu artio. < 103 > Biharamonian yauxi zituian beraz hoc menditic, eta yoan bertze apostoluen onduan, eta aurkhitu zitiztean bertze yende ospe haundi baten artian disputan edo aharran ari zirela escribauequin, zeren ezin sendatu ahal izan zuten guizon mutu, paralitico eta debruaz poseitu bat. Jesus hemen aguertu zen bezen laster, ohorez eta errespetuz,⁵⁷⁴ mundu guzia hunen ganat yoan zuian; eta zeren eri hunen aitac errequeytu zuien, instantian sendotu zian seme hau. Jesus bere apostoluequin etchian sarthu zen bezen laster, galde eguin zacotean apostoluec eya heyec zertaco ezin sendotu ahal izan zuten muthico gazte hura, Jesusec ihardexi zayeyan heyen fede flacu, eta erphela, eta hotza zela causa; eta zeren demonio casta gaichto hura etzen casatzen othoit-zez eta barurez baizin.

Jesus bethi predicatzen ari zuian < 104 > Galilean, Bettiriño, eta ingurune hetan artha haundi bat hartzen zuelaric bere pasioniaz, heriot-ziaz, eta tormenta cruelez aitzinetic bere apostoluen prebenitziac. Bainan hoyec etzitean deus ere aditzen, eta orainic are gutiago endelgatzen, Salbatzaille zerutar hunec erraiten zaizquioten⁵⁷⁵ gauza hotaric contrarat bidetan ere disputan ari zituian hoyen arteco buruzaguitasunaz.

⁵⁶⁹ Naturaren elementuei ere lot dakieke *min* adjektiboa. Azkuec *elhur min* bera jaso zuen: “*Elur mina bezin txuri* (L-côte, BN-baig), tan blanca como la nieve, ... en su extrema blanca” (ap. OEH).

⁵⁷⁰ *ohicoez*] ohico ez.

⁵⁷¹ *Urthu* ‘desagertu (joan)’.

⁵⁷² *bakharric*] bakharraric.

⁵⁷³ *erraiteco*] erraito.

⁵⁷⁴ *errespetuz*] errepetuz.

⁵⁷⁵ *Zaizquioten* bat. *zizkien*, non *-o-* 3. pertsonako datibo marka eta *-te* datiboaren pluralgilea.

Jesus eta Bettiri bertziac baino lehen heldu zituian Capharnaurea, eta hoc huna ziren bezen fite, templearen estatutan⁵⁷⁶ achiqitzeco⁵⁷⁷ diru biltzen ari ziren comisariuac galde eguin zaizcoyan⁵⁷⁸ Bettiriri bere bi dragmac (erran nahi dic hamasei sos eta bi cornado).⁵⁷⁹ Bettiri yoan zuian berehala bere nagusiaren prebenitzera, eta hunec erran zacoyan etzela hura obligatua, Yaincuaren seme bezala, cotiza⁵⁸⁰ haren pagatzera; bainan, zeren baquia zerbait gostaric ere < 105 > hobe zen,⁵⁸¹ eta dembora berian ezten⁵⁸² phozoinduerri occasioneric ez emaiteco, manatu zian bere arraintzaco cañarequin yoan zadin Capharnauro itxas heguita, eta han hazemanen⁵⁸³ zuiela arrain bat, zeinac emanen baitzion bien cotizaren pagamendua. Erran eta eguin: yoan zuian Bettiri bere nagusiaren manuaren osatzera bere escu cañarequin, eta instantian, amua urerat⁵⁸⁴ aurthiqui bezen laster, hazeman zuian arrain eder bat zeinac bere mihiaren gainian baitzuien siclo⁵⁸⁵ edo stater^{586, 587} bat, laur dragma balio zituiena —erran nahi dic hogoy eta hamabi sos eta laur cornado—, eta miraculuzco diru huntaz pagatu zian Bettiric bere nagusiaren eta bere cotiza, edo tributua, edo capitazionia.⁵⁸⁸

⁵⁷⁶ *Estatu* ‘pertsonea edo gauza baten egoera, fisiko nahiz morala’.

⁵⁷⁷ *achiqitzeco*] achitzeco.

⁵⁷⁸ *zaizcoyan*] za^{iz}coyan; non iz erantsia.

⁵⁷⁹ *Kornadu* ‘cornado, moneda’ (cf. gazt. *cornado* < *coronado*).

⁵⁸⁰ Corpus Arakatzailaren arabera, *kotiza* hitza (“tributo”, Larramendiren hiztegian) soilik J. A. Uriarte bizkaitarrak erabili du. *K&B*-n lau aldiz lekukotzen da, beti ere ‘zerga’ adieraz: 104, 105 (2) eta 155. orrialdeetan.

⁵⁸¹ *hobe zen*] hobe zen.

⁵⁸² *Ezten* ‘aguijón /dard de serpent’ maiz erabili da zentzu metaforikoz. Cf. *Bekaiizgoaren ezten pozoinduen hura* (Hiriart-Urruty: *Zezenak Errepublikan*, 99).

⁵⁸³ *hazemanen*] hezemanen.

⁵⁸⁴ *urerat*] urerrec.

⁵⁸⁵ (< Lat. *siclum* < heb. *seqel*) “Moneda antigua de los Hebreos, era de plata, de peso de media onza” (Larramendi). Corpus Arakatzailaren emaitzak: Kardaberaz, Mogel, Uriarte, Duvoisin eta Lardizabal.

⁵⁸⁶ *stater*] stader.

⁵⁸⁷ Cf. fr. *statère* (< lat. berant. *stater*) “monnaie d’argent grecque, valant de deux à quatre drachmes, selon les périodes” (*TLF*). Erka bekie pasarte hau beste egileren lekukotasunei, Leizarragarekin hasirik: *haren aboa irekirik eridenen baituk estatera bat* (Mt 17, 27); Duvoisin: *hari aboa idekirik, estater bat atzemanen diozu* (Mt 17, 26); Polikarpo Iraizoz: *Bere agoa zabal zaiozu ta estater bat arkituko duzu barnean* (*Yesu Kristo gure Yaunaren bizia*, 99). Gure idazleaz apart gaineratekoek forma *e*-dunak baliatu dituzte; horrek latinezko erreferentzia batez pentsatzera ginderamatzake.

⁵⁸⁸ ‘Zerga pertsonako’. Cf. fr. *capitation*, gazt. *capitación*.

Dembora berian heldu zituian bertze apostoluac, eta zeren ukhan-zuten orainic bidian bertze disputa berri bat elgarren arteco buruzaguizaz,⁵⁸⁹ galde eguin ziotean < 106 > bere nagusiari eya nor izaren zen haundienic Zeruco Erresumán. Jesus Christoc, zeren yadanic bazaquitzan hequien bideco solasac, ihardexi zayean undar izanac baizin etzirela lehenduco; eta dembora berian hart-zen zuielaric haur inochent ttipi bat bere escuietan, erran zayean Zeruco Erresuman sartzecotz haur hura bezalacatu behar zirela, eta orainic dembora berian abisatu zitian etzela Yaincuaren sinhexzailletaric⁵⁹⁰ nihor ere, behin ere, mezprezatu behar heyen aingueru gardialec bethi bere Yaincuaren bisaya ikhusten zutenaz gueroz. Eta guero mintzatu zayean bere aneya arreben correitzeco modu, manera eta guisaz, eta hunen gainian Bettiric galde eguin zacoyan eya zonbat aldiz behar zioten⁵⁹¹ bere aneyerri barkhatu, eya zazpi alditaraino. Hemen Jesusec ihardexi zangoyan: *Ez choilqui zazpi alditaraino, bainan < 107 > bai hirur hogoy⁵⁹² eta hamar aldiz zazpitaraino.*

Eta guero ekharri zayean zerbitzari edo mayordomuaren parabola, zeinari bere nagusiac mila talentutaraino⁵⁹³ barkhatu onduan, ez bait-zaizcon barkhatu nahi izatu bere azpico edo méneco zerbitzari bati ehun ere. Orduian bere nagusiac hararazi izan zian zerbitzari gaichto eta esquer gabe hau, eta libratu justiziaren escuietara bere zor osua pagatu artio. Yaincuac ere guisa bera eguinen dic bere aneya arrebei barkhatu nahi ez dituztenei.

Jesusec yohan zelaric⁵⁹⁴ bere bizitzeco undar⁵⁹⁵ urthian Jerusalemera, Mendecoste phesten zelebrat-zera, egorri zitian aitzinian predicatzera bere apostoluac, guero ondotic bera phasatu behar tzen⁵⁹⁶ herrietarat, erreberituric⁵⁹⁷ yadanic aitzinian eman izan zayen manu edo missione bera, eta ahala, podoria eta indarra erien sendotzeco eta debruen casatzeco. < 108 > Egun batez, egorri izan zitian beraz Jesusec bere apostoluetaric zonbait samaritanuen herrichca batera, hequientzat ostatu baten cherkhatzera. Bainan samaritanuec etzi-tiztean errezebitu nahi

⁵⁸⁹ *buruzaguizaz*] buruzanguizaz.

⁵⁹⁰ *sinhexzailletaric*] sinhex zailletaric.

⁵⁹¹ Bat. *zien*. Cf. *zaizcoyan* (104), eta irakur bertako oharra.

⁵⁹² *Hirur hogoi* bezalako formak orokorrak izan dira Iparraldeko tradizioan ere. *OEH*-ren arabera, XVIII. mendearen bukaera artio ez da *hiruretan hogei* dokumentatzen. Ikus *laur hogoy* (114).

⁵⁹³ *Talentu* “Moneda de cuenta de los griegos y de los romanos” (*DRAE*).

⁵⁹⁴ *Yohan zelaric* ‘zihoalarik’. Cf. *yohan zen* (21) eta ikus bertako oharra.

⁵⁹⁵ *undar*] urdar.

⁵⁹⁶ *behar tzen*] behar-tzen.

⁵⁹⁷ *Erreberritu* ‘renovar, repetir’.

izatu apostolu hoc. Orduan, samurturic bezala, Yacobec eta Joannes Zebedesen semec erran ziotean Jesusi herri hura erhausteco⁵⁹⁸ zerutic su bat yauxaraziric. Bainan Yesus content-tatu zuian erraitiaz apostolu supher⁵⁹⁹ hoquierri etzaquitela zer izpiritu khizit-catzen zituen, etzela hura mundura yin guizonen galtzera, baizic salbatzera. Aparenziatz, hoyen zelo gartxua dela causa, izan zituian bi apostolu hoc deithuiac⁶⁰⁰ “Boar-nejes”⁶⁰¹ —erran nahi dic *ortziaren semeac*.

Bethi⁶⁰² Jesus hurbiltzen ari zelaric Yerusalemerat, sarthu zuian Martha eta Maria bi ahizpen etchian, Bethanian, Jerusalemec hirur lecua laurdenen < 109 > bidian. Martha anhiz arrangura⁶⁰³ eta khechamendurequin⁶⁰⁴ abiatu zuian Jesusi bere lagunequin⁶⁰⁵ bazcariaren preparatzen, eta Maria Jesusen oynetan yarriric, tranquilqui Jesusen aditzen. Martha berac dudaric gabe bere lan haundierrri burutziaric ezin eguinez,⁶⁰⁶ adichquide guisa arranguratu zangoyan Jesusi bere ahizparen descanchu huntaz, eta Jesusec ihardexi zangoyan: *Martha, Martha, anhiz gauzaz khechatuia zira; bizquit-artian, munduan ez da bat bakharra baizic necesario denic. Mariaren phartia da segurrena eta necessariuena*.

Eta guero, hemendic atheraric, yoan zuian Jesus bere apostoluequin Olivetaco Mendi behin bethicotz hox dun eta famatuenaren gainera, eta hemen galde eguin ziotean apostoluec:⁶⁰⁷ *Yauna, erakhux ezaguzu edo iguzu,*⁶⁰⁸ *Yendone Yoanne Baptistac bere discipuluerri bezala, zuc ere guri zombait othoitz, eta othoitz-teco forma.* < 110 > Eta Jesusec ihardexi zayean, erraiten zayelaric othoitzic hoberena: Yaunaren othoitz, edo *Pater noster* edo *Gure Aita...* Eta guero mintzatu izan zayeyan othoitz-zaren qualitatez,⁶⁰⁹ indarrez eta podorez; eta guero —zeren Jesusec sendotu

⁵⁹⁸ *Erhautsi* ‘pulverizar, reducir a polvo’.

⁵⁹⁹ *Supher* ‘soberbio’.

⁶⁰⁰ *deithuiac*] dethuiac.

⁶⁰¹ Grekotik βραυνηγεξ. (Mark 3, 17).

⁶⁰² Hemen *bethi* ‘oraino’ (Cf. fr. *toujours* adiera honetan).

⁶⁰³ *arrangura*] arragura.

⁶⁰⁴ *Khexamendu* ‘prontitud, diligencia’.

⁶⁰⁵ *Jesusi bere lagunequin* ‘Jesus eta bere lagunei’. *X-rekin* Y egitura guztiz arkaikoa da, eta aiseago lekukotzen da Mendebaldeko eta Erdialdeko testu zaharretan. Pasarte honetakoa, dena den, are gutiago dokumentatzen den *XY-rekin* moldekkoa da. Ikus SINTAXIA.

⁶⁰⁶ Ikus *burutziaric ezin eguinez* (48) eta oharra.

⁶⁰⁷ *apostoluec*] apostolue.

⁶⁰⁸ **In* aditza: *iguzu* ‘emaguzu’.

⁶⁰⁹ Grafia etimologikoa (< fr. *qualité*). Hona hemen *OEH*-k zer dioen: “Leizarraga, Etcheberri de Ziburu, Haramburu (425), Tartas (*Arima* 95), Mihura (29), Baratciart, Mercy (éste junto con *ka-*) y Etchahun escriben <qualitate>”. Beraz, irakur *kalitatez*. Cf. *quarter* (80), *qualificatzen* (146).

zuien mutu eta debruz poseitu bat— farisayo urgulus hyprocritec acusatu zitean aitzinean, bertze occasione batian bezala, Belzebuh demonio guzien buruzaguiaren berthutez eta podorez casatzen zituela demoniuac. Bainan Jesusec errefutatu,⁶¹⁰ confonditu eta erhaustu zitian burhozaille⁶¹¹ hoc, Bettiriño, erraiten zayelatic etzela posible izan zadin debruiaren erresuma berechia eta phartecatua, eta hala lizatequeyela baldin debruiac yadanic poseitzen dituen gorphutzetatic khen baltza⁶¹² bere menecua eta pecua.

Eta dembora berian abiatu zuian thomba⁶¹³ campos eder bezen barnez igun-garri⁶¹⁴ heyen mehachat-zen, zeren < 111 > berenaz garbitasuna eta saindutasuna zen salbatzalle hura farisayo baten etchian bere escuiac ikhuzi gabe, mahayan yartziaz murmuratu ziren. Nola orainic Jerusalem zanguen Jesus, farisayotar batzuec erran zacoteyan nola Herodesec haren hil-arazteco chede bazuieren. Jesusec, zeinarent-zat ez bait-zen deus ere gorderic, arraphostua eman zangoyan, Bettiriño: *Erran ezozue acheri nabar hari orainic egun eta bihar ere sendatzen ditudala eriac, eta hirur egunen buruian accabatzen ene sail*⁶¹⁵ *penatuia*. Enigma edo coropilo lachgaitz huntaz erran nahi zian etzuiela ya hirur egunen bizia baizin, eta ez Herodesec, ez bertze nihorrec etzuiela guibelatuco, ez eta ere debecatuco, bere sail hasiaren accaazetic⁶¹⁶ eta arras osatzetic.

Denbora⁶¹⁷ berian, salhatu zacotean nola Herodesec nahasticatu zuien bere sacrificiuetan galileatar batzuien odola, Jesusec ihardexi zayean salhatari hoquierri < 112 > etzirela galileatar hec herri eta inguru hetan ziren hoben dun eta faltadun bakharrac; eta guero hoquierri comendatu^{618, 619} eta manatu zayean conber-tit-zeco, eta itzuliric, eguiazco penitentzia⁶²⁰ baten eguiteco, behin bethicotz galt-zeco penaren azpian.

⁶¹¹ *Errefutatu* forma ez da beste inon lekukotzen. Cf. gazt. *refutar* eta fr. *réfuter*.

⁶¹² Ikus *burhozaille* (46).

⁶¹³ Subjunktibozko baldintza, **ezan* aditzaz baliaturik.

⁶¹⁴ Hilobiaren metaforak farisaioei egiten die erreferentzia: kanpotik on, barnetik ustel. Cf. 91. orrialdeko *thomba*.

⁶¹⁵ Gehienetan forma hasperenduna: *higun-garri* (28), *higungari* (204).

⁶¹⁶ Hemen *sail* 'tarea, trabajo'.

⁶¹⁷ Jakina, *accabazetic* ulertu behar da (goraxeago *accabatzen*). Cf. *ilhun nâarrian* (79).

⁶¹⁸ *dembora*] denbora.

⁶¹⁹ *comendatu*] comendutu.

⁶²⁰ Cf. esp. *comendar* "recomendar, encargar" (María Moliner).

⁶²¹ *penitentzia*] pentientzia.

Jerusalemetic guero atheraric Capharnaurea⁶²¹ yin zenian, farisayo baten etchian bazcainen ari zelaric, ekharri ziotean ydropico bat. Farisayuec presentatu zacotean eri hau, maleziaz ikhusteco eya sendotuco othe zuienez —zeren egun hura ebia-coitz famatua zen— irasenda⁶²² urricalmenduxu hunec instantian sendotu zuian, eta dembora berian, heyen chede malinua ezaguturic, galde hau eguin zayean heyen confonditzeco: *Erran ezadazuiet*⁶²³ *egun, fortunaz edo suertez erortzen baliz zuien abere bat zilho batera ebiacoitza delacuan, utz zinezaquete athera* < 113 > *gabe?* Hemen guziac, Bettiriño, ichil eta mutu guelditu zituian. Eta dembora eta lekhu berian erran zayean —ikhusiric phestaliar⁶²⁴ hequien artian bazirela anhitz urguluxu eta banitatexu mahaico lehen herroncan,⁶²⁵ eta toquiac harrapaca har-tzen zituztenac— eman zayean,⁶²⁶ beraz, letzione bat anhitz baliosa. Eta manatu zitian zombait bazcari eman nahi zutenian ez gomitatzeo presuna ikhustate dunic baizin, eta hequierri ordaina bihurt-zezaquetenic baizin, amorecatic justuen phiz-tean errezebi zezaten Yaincua ganic gauza bera.

Galilean ingurica zabilalaric, erakhusten zacoyan bethi eta artharequin hunen ondotic zabilan yende ospe haundiari haren doctrina zatzala⁶²⁷ bacoachac bere ahai-dei, bere conbenientzei eta bere aisetasunei,⁶²⁸ hala nola bere buru⁶²⁹ propiari ukho eguitean, eta hori haren discipulu eta zerbitzari izaitetic guelditzeco penaren az-pian. < 114 > Capharnaurea zenian⁶³⁰ —zeren publicano eta bekhatorsequin ya-ten, edaten, eta solasac eguiten zituen bat ere lotxatu gabe—, farisayo fanfarron urguluxuac hortaz arranguratu eta murmuratu zituian,⁶³¹ Bettiriño. Bainan Sal-batzaille zerutar hunec, zeinarent-zat bethi iragana eta ethorquizuna bardin present baitziren, proposatu zayeyan ehun ardi zituen eta hotaric bat galduric, laur

⁶²¹ *Capharnaurea*] Capharnaurea.

⁶²² Ikus *irasenda* (43) eta haren oharra.

⁶²³ *ezadazuiet*] eza dazuiet.

⁶²⁴ Cf. *phestaliar* (53).

⁶²⁵ ‘Lerro, herrenkada’. Iparraldeko tradizioaren hitza da.

⁶²⁶ *eman zayean*] ~~erran-zayean~~ eman zayean.

⁶²⁷ Hemen *etzan* ‘consistir, residir’: *haren doctrina zatzala ... ukho eguitean*. Cf. *zatzala* (50).

⁶²⁸ *aisetasunei*] ainsetasunei.

⁶²⁹ *buru*] bururu.

⁶³⁰ Adlatibo bati lotua, *izan* aditzak mugimendua adieraz dezake: *Capharnaurea zenian* ‘Kafarnaumerako bidean zenean’ edo. Testuan bildu ditugun etsenpluak mendeko perpaua denborazkoetan dira: *Capharnaurea zenian* (114) eta *etchera denian* (116).

⁶³¹ *zituian*] ziituian.

hogoy⁶³² eta hemeretziac utziric, ardi errebelatu hunen onduan yoanic, hazemanic, bere bizcarrían etcherat ekharriric, eta guero hunen bozcarioz phesta eder bat bere adichquidequin eguin zuien artzainaren parabola.⁶³³ Ezdic deusec ere hobequi erakhesten, Bettiriño, parabola admira-garri hunec baino, Jesus Christoc bekhatorosen conbertitzeco eta itzult-zeco zuien amodio izari gabezcua eta desircunde gartxua. Orainic ekharri zayean haur prodigo edo gastatuaren parabola, zeren biac churi⁶³⁴ berera zuazin.⁶³⁵ < 115 > Guero ukhan zian guthizia...

BETTIRIÑO: Emequitto, emequitto, yauna. Zer, parabola admiragarri eta manifico hoyec, hainbert-ze gauza eder eta abantailos bere baithan zeratzen, eta bat bederen azaldu gabe yoan nahi zaizquit⁶³⁶ aitzina?

KADET: Zoin ausart eta atrebitua hizan, Bettiriño! Apostoluac edo errespetuz, edo ez deus endelgatuz, etzituian atrebitu bere nagusiari galde eguitera parabola hoyen azalmenduan,⁶³⁷ eta possible daya⁶³⁸ hi hec baino atrebituago izaren hitzala?

BETTIRIÑO: Yauna, aditzen dut zer erran nahi duien hescuara⁶³⁹ eder horrec; bainan, zeren sinhesten zitudan Jesus Christo bera mintzo balaut⁶⁴⁰ bezala, apostoluec ez bazuten hunen azalmendua ukhan bertzena bezala —zeren herabez galde

⁶³² OEH-ren arabera *laur hogoi* bezalako formak Leizarragarengandik lekukotzen dira Iparraldeko tradizioan, haien erabilera *lauretan hogoi*-ren alde behehituz doalarik, ia desagertzearaino XX. mendean. Cf. *hirur hogoy* (107).

⁶³³ *Proposatu zayeyan* [...] *artzainaren parabola*. Marka bedi erlatibozko perpaus honen hedadura.

⁶³⁴ *Churi* “Blanc d’une cible. *Xuria iotzea*, atteindre le blanc” (H. apud OEH).

⁶³⁵ Bat. *zihozzen*.

⁶³⁶ *Zaizquit* ‘(zu eni) zatzaizkit’. Ohart bedi, halaber, *nahi* aditza iragangaitza dela.

⁶³⁷ *Azalmenduaz* espero liteke.

⁶³⁸ *Da* + *-a* galderazkoa. Oso forma minoritaria, baina Etxeparerengan lekukotua: *Egundano izan daia ni bai dixatakoric / ni amoriak enu maite nik hura ezin gaizetsi* (“Amore gogorraren despita”). Etxeberri Sarakoak euskal hizkeren bereizteko markatzaile gisa hautatu zuen: *Bada oraino Eskualdunen artean bertze mintzaira diferent bat, zeinetan, mintzo baitira herri batzuetan hitzei letrak berretuz, eta berriz bertze batzuetan letrak ganbiatuz: hala nola Andreia, Buruia, Diruia, ethorri daia? (Eskuararen hatsapenak, 3. galdea).*

Molde honetako formak baliatzen dituztenen artean *dea* nagusitzen da, diferentzia handirekin. Bihoa Hiriart-Urrutyren adibide bat: *Mintzatzeko jakitatea duena mintzatuko da ahalik hobekien, ez dea hala?* (*Zezenak Errepublikan*, “Gure indarrak”).

⁶³⁹ Ikus *hescuaraz* (50).

⁶⁴⁰ *Balaut* ‘balitzait’ (cf. *zaut* ‘zait’). Ez bedi nahas (*hark hura eni*) *balaut* ditransitiboarekin, **eradun* errokoa.

eguiteco utzi zuten—, zure baithatic bederen erran ezadazut⁶⁴¹ zerbait, amorecatic idea zuzen eta justu bat forma dezadan... Ez naiz ahalaz mintzo, zeren nahia asqui baitut.

CADET: Esquerric asco,⁶⁴² Bettiriño. Artharequin entzun ezac, eta zerbait bederen erranen dayat. Zeren, beraz, escribau eta farisayo hoc murmuratu eta arranguratu zitzaizquion < 116 > Jesus Christori, publicano eta bekhatorsequin yaten eta edaten zuiela, hoyen confonditzeco ekharri zayean ardi errebelatuiaren parabola hau:

Nor da zuien artian —zioc— ehun ardi dituen eta hotaric bat erreelatu,⁶⁴³ eta laur hogoi eta hemeretziac⁶⁴⁴ desertuan edo mendian utziric, hunen onduan ez duhana idiren artio, eta aurkhitu onduan, bizcarrian harturic, phozic bere ardi lagunetarat ekhartzen ez duena? Eta guero, etchera denian,⁶⁴⁵ bere auzo eta adichquide guziac comitaturic, erraiten ez dayena: “Bozcariotan sar eta liberti zitezte enequin, ezic ardi errebelatua eta galdua hazeman dut”. Eta ni, zuien ardiac baino balioschago diren ardi batzuien artzaina, eta zeren nore ardi galdu eta errebelatuen artian yaten eta edaten dudan, enbidia eta yelosia duzue? Eguiaz erraiten daut-zuiet: bekhatore convertitu eta penitent bakhar batec zeruian atxein eta bozcario guehiago causatu duuela, eziquetz⁶⁴⁶ laur hogoy < 117 > eta hemeretzi justu penitentzia behar-ezequec.⁶⁴⁷

Nun da emac umia hamar⁶⁴⁸ dragma (edo laur libera) galdu dituen, bere etchian, arguia phizturic, etche guzia azpiaz-gainera irauliric, zokho mokho guziac aurkhitu artio miratzen eta bisitatzen ez dituen? Eta guero, idiren dituenian bere auzo eta adichquide guziac, deithuric heyequin bozcariotan sarzen ez dena, erraiten dayelatic:

⁶⁴¹ Ikus zadazut (88).

⁶⁴² Guk dakigula, Iparraldean lapurtar idazle bakan batzuek baizik ez dute formula hau baliatu: Salvat Monhok XIX. mendean (*Nafar goxoan olerkian*), eta XX.ean Jean Elizalde (*Mandozainaren istorioa*) eta Piarres Larzabalek (*Pertsulari aipatu bat: Txirrita*). Corpus Arakatzaileren arabera, orotara zortzi agerraldi. Gure testuaren lekukotza, beraz, Iparraldeko tradizioiko lehenbiziko *eskerrik asko* izan daiteke, eta gainera baxenafarreran kokatzen den hizkera batean.

⁶⁴³ Idazki osoan abisatzen ahal gara bokalarteko *b* galtzeko joeraz. Goraxeago *errebelatuiaren* irakurri dugu. Cf. *accabatzen / accaatzet* (111).

⁶⁴⁴ *laur hogoi eta hemeretziac*] laur hogoi eta hemeretzia.

⁶⁴⁵ *Izan mugimenduzko adieran*. Cf. *Capharnauna zenian* (114).

⁶⁴⁶ Ikus *eziquetz* (4).

⁶⁴⁷ *Behar-ezequec* irakurri behar da. Cf. *ohicoez* (4), eta irakur bertako oharra.

⁶⁴⁸ *hamar*] harrar.

“*Aleguera gutien, zeren nore yoya preziosa idiren dut*”. *Eta ni ez choilqui zilhar, urbe, eta orainic are gutiago perla, diamanten; bainan bai nore idurira creatu ditudan arima prezios eta maiten onduan ibili, eta zuiec yelos? Eguiaz erraiten daut-zuicet zeru guzia anhiz bozcariatzen dela bekhatore choil baten penitenziaz. Eta estonat-zen eta suprenitzen zarete, paret achalez churiac, thomba choilqui campoz ederrac, zeren bekhatoriac*⁶⁴⁹ < 118 > *itzul-arazten eta conbertit-zen ditudan?*

Eta guero, hipocrit nabar hoquierri hobequi seindi-arazteco,⁶⁵⁰ Yaincuac bekhatoren alderat zuien amodio mugarri⁶⁵¹ gabezcuca, eta hotaric baten conberxiuaz bere baithan seindit-zen zuien atxein haundia, ekharri zayean parabola guzien artian den admiragarrienen hau:⁶⁵²

Behin aita batec bazitian bi seme, zeinetaric gaztenac eta ttipienac erran baizacon bere aitari: *Aita, gure onthasunac phartituric indazu*⁶⁵³ *niri*^{654, 655} *neure phartia*. Aitac phartitu ziotzaiztean,⁶⁵⁶ eta huni eman bere phartia. Hemendic⁶⁵⁷ dembora labur baten buruian athera zuian beraz seme hau, eta yoan urrun, eta guero han guastatu⁶⁵⁸ bere onthasunac debochquerian⁶⁵⁹ eta lohiquerian. Bere onthasunac gastatu zituenian hunec, herri hetan aguertu zuian Betirisans⁶⁶⁰ edo gositya, eta hau ere abiatu zuian hunen ondorio cruelen seinditzen. < 119 > Orduian haur prodigo edo gastazaille hau yarri zuian sehi hango etcheco yaun on batequin, zeinac egorri bait-zuicet bere bordara cherri mulho baten beiratzera. Eta han hain miseria eta calamitate haundian yarri zuian, Bettiriño, haur gastatu hau, nun desi-

⁶⁴⁹ *bekhatoriac*] bekhatoriat.

⁶⁵⁰ Cf. *seinditzen* (13) eta *seindimendu* (42).

⁶⁵¹ “Límite, barrera (fig.); término, ámbito”. “*Iainkoaren abalak eztu mugarririk, la puissance de Dieu est infinie, n’a pas de limite*” (Harriet ap. *OEH*).

⁶⁵² Erlatibo hautsia. Honela generake guk: *Ekarri zaiean guzien artean admiragarrien den parabola hau*. Horretaz landa, superlatibo pleonastikoa: *admiragarrienen*.

⁶⁵³ **In* aditza: *indazu* ‘emadazu’. Cf. *iguzu* (109).

⁶⁵⁴ *niri*] ni.

⁶⁵⁵ Ikus *niri* (164).

⁶⁵⁶ Bat. *zizkiean*. Forma honek pluralgile bikoitza duke: *-tza-* + *-i-*.

⁶⁵⁷ *hemendic*] hemen dic.

⁶⁵⁸ Haur prodigoaren parabola itzultzen den Bourciez bilduman leku bakar batean hatzematzen ahal dugu *guastatu* aldaera: Arberoako Donamartirin. Hona hemen pasartea: *Batçutan hain gose handia zin non yanen baitcitin hauzieda beltcer emaiten diuzten açã hosto eta fruitu guastatu hetaric*. *K&B*-n bi aldiz agertzen da (118 eta 126. orr.), baina *gastatu* gailentzen zaio, bost okurrentziekin.

⁶⁵⁹ ‘Exceso, vicio’.

⁶⁶⁰ Forma hau, kurioski, palatalizatu gabe agertzen zaigu. *Bettiriño* den diskurtsoaren solaskidea, bai eta *Bettiri* apostolua ere, aldi oro azaltzen zaizkigu <tt> digrafoaz.

ratzen bait-zuien bere sabel gosiaren eta huxaren bethetzia zerriec uzten zuten oale⁶⁶¹ undarretic; bainan hau ere etzuian hunent-zat.

Orduian, bere baithan sarthuric, erran izan zian haur bere faltaz malurus zen hunec.⁶⁶² *Zonbat sehi eta muthil ez dira ene aitaren etchian, ogui churia ezin accabatuz uzten dituztenac,*⁶⁶³ *eta ni hemen gosiaz hiltzen ari naiz! Yoan behar naiz harat, eta erraren diot*⁶⁶⁴ *nore aita maitiari: “Ah, aita, bekhatu eguin dut zeruen eta zure contra; ya ez naiz gai, ez digno, deit-nezazun*⁶⁶⁵ *zure seme; trata nezazu beraz soldatian*⁶⁶⁶ *< 120 > sehi horietaric bat bezala”.* Phartitu zuian beraz, Bettiriño, haur hau, eta yin bere aita ganat. Orainic urrun zelaric, bere aita maitiac hasmatu⁶⁶⁷ zian, eta urricalmenduz bihotz aitatar hura erdiratua zelaric, laster eguin zian bere seme galduia gana, beguiac nigarrez lanprotuiac, eta bihotz eri hura, erdiratuia tendrequi besarcatu eta musutu zian. Hemen, seme dohacabe hunec erran zacoyan bere aita maitiari: *Aita, zure eta zeruaren*⁶⁶⁸ *contra hobendun naiz, eta ya ez naiz guehiago gai ez digno zure seme deit-nazazun.* Orduian, aita hunec erran zayean⁶⁶⁹ bere sehierri ekhartzeco lehen baino lehen etchian zen yantziric hoberena, eta seme haren beztitzeco, emaiten zaizcotelaric leheneco⁶⁷⁰ erhaztun bera erhietan eta zapatac zanguetan. *Ekhar ezazue ene arachetan den guizenena eta berehala hil, phesta < 121 > eguin dezagun eta liberti guiten guziac, zeren ene seme maite hila zela uste nuena*⁶⁷¹ *phiztu da; galdua naucana, aguertu zaut.* Eta hasi zituian phesta eguiten eta libertitzen.

Arte huntan, seme guehiena⁶⁷² yin zuian eta etcherat hurbilduche⁶⁷³ zenian, adituric uste gabeco musica baten soinua⁶⁷⁴ eta dantzarien harraoxac,⁶⁷⁵ deithu

⁶⁶¹ Zerrien bazka, ore zikin baten itxura duena (*oale < ogale*).

⁶⁶² Erlatiboa eskuin: *haur bere faltaz malurus zen hunec*.

⁶⁶³ Hutsa, perpausak *dutenac* eskatzen baitu.

⁶⁶⁴ *diot*] *dio*.

⁶⁶⁵ *-t* akabantzadun aditzoina. Ikus *izit* (3).

⁶⁶⁶ *Soldata* ‘sehiari ordaintzen zaion dirua’ hitzak *-a* organikoa galdurik: *soldat-ean > soldatian*.

⁶⁶⁷ Cf. *hasmatu* (41).

⁶⁶⁸ *zeruaren*] *zuruaren*.

⁶⁶⁹ *erran zayean*] ~~*hardexi zangoyan*~~ *erran zayean*.

⁶⁷⁰ *leheneco*] *lehen neco*.

⁶⁷¹ Erlatiboa eskuin: *ene seme maite hila zela uste nuena*.

⁶⁷² “Primogénito, de mayor edad”. *OEH*-k Baigorriko baxenafarreran kokatzen du adiera hau, Zuberoaz apart.

⁶⁷³ *hurbilduche*] *hurbil duche*.

⁶⁷⁴ *soinua*] *seinua*.

⁶⁷⁵ Cf. *haraos* (81).

zian sehietaric bat eta galde eguin eya zer-zen etheco harraox hura. Zerbitzari hunec ihardexi zangoyan: *Zure anea ttipia yin da etcherat, eta zuien aitac hil arazi du arache guizen bat osâagarrî⁶⁷⁶ onian hazemanic*. Eta seme enbidios hau damuturic, zeren aitac eguiten zaizcon phesta hoc, etzuian seme hau etchian sarthu nahi izatu; bainan aitac yoanic othoitz-tu zian sartzeco. Seme hau etchian sarthu bezen⁶⁷⁷ laster, abiatu zangoyan bere aitari arrangurat-zen, erraiten zangolaric: *Hunenbertze dembora < 122 > badu lagunt-zen eta zerbit-zatzen zutudala,⁶⁷⁸ bethi zuc erran eta manatu guziac eguinez, eta ez dautazu orainic egundaino pittica⁶⁷⁹ ez-deus⁶⁸⁰ baten baliua ere eman, nore adichquidequin atxein hart-zeco. Eta zure bertze seme horri, bere onthasun guziac gaichtaguinequin dizipatu eta iretxi⁶⁸¹ onduan, yin den bezen laster, zure arachetan den ederrena eta guizenena hil diozu*. Hemen aitac ihardexi zangoyan bere seme jeloscor huni: *Ene semea, hi bethi enequin hiz, eta hola nic ditudan gauza guziac hiriac dituc*. Bainan hire anearentzat phesta eguin behar guinuen, zeren hila zela uste guinuelaric aguertu baita, eta behin bethicotz goitiric galduia zela phenxatzen guinuelaric ona hazeman baitugu.

[CADET]: Zer dioc orai, Bettiriño, content hiz eta satifatuia?⁶⁸²

BETTIRIÑO: Yauna, parabola hau guziz ederra eta admira-garría izan behar < 123 > da, ez dut dudatzen; bainan hastian bezen⁶⁸³ abant-zu guelditzera noha, eta guziz penarequin, ez badau-tazu azaltzen hunec bere baithan zerratzen⁶⁸⁴ duien gaindadia, ezic guziz ederra izan behar da.

CADET: Zer nahi duc, Bettiriño curiosa, laur evanyelistac baino guehiago izan nadin?⁶⁸⁵ Ezic hoyec etzaucuye deusic erraiten hunen misteriuaz edo gaindadiaz.

⁶⁷⁶ Cf. *osaasunaren* (43) eta *osâasuna* (144, 175).

⁶⁷⁷ *bezen*] zen.

⁶⁷⁸ Ez bada huts, testuak hiru forma agertzen ditu *zaitut* adizkiarendako: *zaitut*, *zitut* eta *zutut*, non azkena biziki Ekialdekoa baita.

⁶⁷⁹ ‘Antxume’ (L eta BN).

⁶⁸⁰ *ezdeus*] ez deus.

⁶⁸¹ *Iretsi* (bat. *irentsi*) aditzak ‘desagerrarazi, kontsumitu’ adiera onar dezake, hemen agitzen den bezala.

⁶⁸² Cf. *satifactua* (79).

⁶⁸³ *Bezen* partikulak, ageriko adjektiborik gabe, kualitate bati ez dagokion konparazione bat adieraz dezake. Perpausaren zentzua, beste molde batez: ‘bainan kasik hastean bezala gelditzera noa’.

⁶⁸⁴ *Ikus zerratzen* (32).

⁶⁸⁵ *nadin*] nahin.

BETTIRIÑO: Yauna, guzia zure nahian datza, yadanic bat ere lausenguric eta laudorioric gabe, erran izan daut-zudan bezala. Nahi izan ezazu eta ni content gueldituren naiz.

CADET: Entzun ezac beraz, haurra, artharequin, eta neure ahal laburraren arbera azalduco dayat Yaincuac bekhatosen alderat duien amodio infinituaren mugarri hau, bi hitz choilez. Parabolaco bere seme prodigua errezebitzen duien aita on hura Yaincuac duc; beraz, erran nahi dic Jaincuac aita guzietan den hoberen bezala errezebit-zen dituela gentilac, crima eta bekhatu suerte guzietan nahiz⁶⁸⁶ phulumpatuia⁶⁸⁷ haur dohacabe eta seme prodigo hau errezebituz, zeren hunec gentil itxuac seinalatzen < 124 > zituen. Eta hori seme zaharrenaren contra, erran nahi diat escribau, eta farisayo urguluxuen eta hipocriten embidia eta yelosiaren contra, zeren seme zaharren hunec escribau eta farisayuac representat,zen⁶⁸⁸ zitian.

Haur dohacabe hau bere aita maitiaren alzotic urrundu zuian, eta yoan herri urruneco⁶⁸⁹ batzuietara, erran nahi dic, San Agustinen⁶⁹⁰ arabera, bere aita maitia ahaztera utzi zuela, egarritu zuian. *Zertaco*⁶⁹¹ —zioc San Ambrosioco— *Zeren eguiazco ithur burutic urrundu*⁶⁹² zen: “*Qui recedit a fonte sitit...*”⁶⁹³ *Pobretu zuian, behartu zuian, errumestu zuian; zertaco? Zeren eguiazco tresorretic urrundu*⁶⁹⁴ zen: “*Qui recedit a thesauro eget...*” *Ephel duc, hoztu duc, hormatu duc; zertaco? Zeren eguiazco zuhurtziatic urrundu*⁶⁹⁵ den: “*Qui recedit a sapientiá, hebetatur*”. *Osoqui lachatu, gaichtaguindu*⁶⁹⁶ eta *corrompitu duc; eta zertaco?*⁶⁹⁷ *Zeren eguiazco berthu-*

⁶⁸⁶ Hemen *nahiz* ‘borondatezki’.

⁶⁸⁷ *Pulumpatu* ‘murgildu’, ‘se plonger’, zentzu metaforikoan ere.

⁶⁸⁸ Birgula bidezko zatiketa. Testuan gaindi oso adibide bakanak hatzeman ditugu; honetaz apart *eguín, bide* (130) eta *bat, zuiéc* (132).

⁶⁸⁹ *urruneco*] urrun neco.

⁶⁹⁰ *San Agustinen*] San Agustinec.

⁶⁹¹ ‘Zergatik’. Ikus *zertaco* (36). Pasarte honetan *zertaco* galderari *zeren* ihardesten zaio, lau aldiz.

⁶⁹² *urrundu*] urrun du.

⁶⁹³ Aipua ekartzen zaigu, zatika iruzkintzeko: “*qui recedit a fonte sitit, qui recedit a thesauro eget, qui recedit a sapientia hebetatur, qui recedit a uirtute dissoluitur*” (Luk 7, 215).

⁶⁹⁴ *urrundu*] urrun du.

⁶⁹⁵ *urrundu*] urrun du.

⁶⁹⁶ *gaichtaguindu*] gaichtaguin du.

⁶⁹⁷ Erretorikaren erabilera markagarria, hiru gradazione hirukoitzekin: *pobretu, behartu, errumestu; ephel, hoztu, hormatu; lachatu, gaichtaguindu, corrompitu*. 3 zifrak, Trinitate Sainduari dagokion heinean, perfektutasuna eta betegintzarrea idurikatzen du; hortakoz, kualitatearen gradu gorena dugu egitura horren gibelean: hiru aldiz hiru.

*tetic urrundu*⁶⁹⁸ den: “*Qui recedit a virtute dissolvitur*”. Undarrian, Bettiriño, haur dohacabe eta bekhatore suerte guziac sobera ongui baizic presentatzen ez dituen hau, bere < 125 > erorico auhengarri, eta miseria, eta calamitate suerte guzien bildumaren seinditzen abiatu duc, gauza guziac ez asquiz, guziez gabetua delaric: *Egere ergo ideo capit, et famem pati, quia nihil prodigo satis eit, voluptati...*⁶⁹⁹

Zer miraculu da, Bettiriño —bethi San Ambrosio haundia mintzo duc—, *zer miraculu da* —zioyat berriz ere— *bertzeren onthasunez bethi gose dena berez ezin ase ahal izaitia?* “*Semper famem patitur sui, qui alimentis perpetuis nescit ad impleri...*”⁷⁰⁰

*Erran eza dazuiet orai, bekhatore famatuiac, ala zuietaz ala haur prodigo hartaz mintzo naizan. Zihorec uzten zaituztet*⁷⁰¹ *yuye. Ez daya eguia, eta ezin ukhatuzcua, zuien lehenbizico urhaxac izan direla, haur dohacabe hau bezala, zuien Aita onaren ganic urruntzia? Eta guero, zuien Aita onaz nahiz edo uste gabez ahatziric, hunen amodio tendriaren erpheltzia? Hunen manamenduerra indiferentziarequin behatzia? Eta guero, malurusac, emequitto emequitto, hau bere onthasun phasacorrez bezala zuiec ere zuien izpiritualeraz gabetzia? Eta undarrian, hau bezala, < 126 > crima suerte guzietan trempatzia?*⁷⁰² *Ikhas ezazuie, beraz, orainic chutic zaudetenac: haur dohacabe hunen gostuz, eguiazco berthutetic urrunzen*⁷⁰³ *dena fite crima suerte guzietan erort-zen ohi dela: Qui recedit a virtute, dissolvitur.*

[KADET]: Bainan haur dohacabe hau, bere onthasunac guastaturic,⁷⁰⁴ guziez gabetua, miseria eta calamitaten bezala bere biziuen esclabo bihurtua; bere erorico auhengarria ezaguturic, eta —nahiz yadanic hainbertze aldiz ofenxatua— aita on bat bazuiela ezaguturic, bere ofizio desohoragarriaz ahalguetua; eta bere etheco aita batec emaiten zangon zorthen onaz —nahiz yadanic bere faltaz galduaz— dolu eta urriquitua; badihac,⁷⁰⁵ Bettiriño, lasterca bere aitaren etchera, segurtatua delaric harrec emanen dacon zortheric malurusenac eta charrenenac, oraicuc baino

⁶⁹⁸ *urrundu*] urrun du.

⁶⁹⁹ Luk 7, 215.

⁷⁰⁰ Luk 7, 215.

⁷⁰¹ *zaituztet*] zaituztec.

⁷⁰² ‘Se tremper, se mouiller’, hemen zentzu metaforikoz.

⁷⁰³ *urrunzen*] urrun zen.

⁷⁰⁴ Ikus *guastatu* (118).

⁷⁰⁵ Bat. *bazoak*.

guehiago balio ukharen duiela; bere faltac eta hobenac aithortzen dituielatic. Ah amodio zuhurra, eta oraico mende dohacabetan ezagutueza,⁷⁰⁶ eta anhiz aita ahal-gue gorritan ezarri behar < 127 > lituqueyen amodiuen amodiua!

Bainan zer guertatzen da, Bettiriño? Aita on hau, ez bere seme herrebesaren hobenac, bainan bai eguiazco aita batec bere semiaren alderat zuien amodiua bere bihotz tendrian, iduriqui ere gabe bere seme zoro hunec bere faltac aithor eta confesa ziotzon,⁷⁰⁷ ikhusi zuien bezen laster, yoan zuian seme maite hunen besarcatzera eta musucatzera, eta eguiazco amodio baten frogantzaric claruenenen⁷⁰⁸ emaitera, bere sortziac eman zacon lehen estola ohorexuaz bestiarazten zuielaric, yadanic ikhusi duian bezala.

Zeren beha zaudete, bekhatore zaharrac? Ez duzuie ikhusten zuien aitzindari⁷⁰⁹ edo precursor hau nola izan den bere aita maitiaz errezebitua? Possible daya ez duzuiela seguituco, bere desordretan bezala, bere prudenzian? Uste duzuie aita amulchuen hunec zuient-zat urricalmendu gutiago ukharen duiela? Zoazte beraz lotxaric gabe, fidanchiarequin guerorat,⁷¹⁰ guelditu gabe —zeren hura ezda guria— zuien eritasun auhengarria ezaguturic, zuien < 128 > flaquezen confesatzera! Seme guehiena, escribau farisayuac⁷¹¹ —erran nahi dut mundua bere adorazaille itxuequin—,⁷¹² embidia eta yelosia ukhana gatic etzituzte⁷¹³ aita hoberen hunec gutiago beztituren etchian duien yantziric ederrenez, bere dohain eta graziez emaiten daut-zuielaric erhaztun brillant eta eguiazco amodiuaeren berme, bahi eta erres⁷¹⁴ hura zuien erhietan, zuierri hobequi sinhex arazteco, phasatuia⁷¹⁵ eguiazco bidian, berant bada berant sarthu zinetelacuan, orainic bere seme alaba bezala maite zaituztela.⁷¹⁶

⁷⁰⁶ *Ezagutuez* ‘ezezagun’. Cf. *ohicoez* (4) eta ikus oharra.

⁷⁰⁷ Bat. *ziezazkion*. Ikus *ziozola* (43).

⁷⁰⁸ *Claruenenen* forma hiperkarakterizatua: jatorriz genitibo den *-en* marka hirukoiztua izan da: batetik, superlatibo jadanik bikoitzaren egiteko; bestetik *Transitive Object Genitivation* delakoak hala baitu manatzen.

⁷⁰⁹ *aitzindari*] aitzindara.

⁷¹⁰ *Zoazte* [...] *guerorat*, ‘allez à l’avenir’.

⁷¹¹ *Seme guehiena, escribau farisayuac*: bokatiboak.

⁷¹² Hau izan liteke ‘X Y-rekin’ sintaxiaren bigarren etsenplua testu honetan: *mundua bere adoratzaille itxuequin* ‘mundua eta bere adoratzaile itsuak’. Cf. *Jesusi bere lagunequin* (109).

⁷¹³ ‘Hark zuek’.

⁷¹⁴ *Erres* ‘Prenda, garantía, *pignus*’ (BN apud Azkue).

⁷¹⁵ *phasatuia*] phasaluiac phasatu.

⁷¹⁶ Sintaxi korapilatsua goiti beheiti, har bedi *etzituzte aita hoberen hunec gutiago beztituren* perpaus menderatzailetzat.

BETTIRIÑO: Jesus Yauna! Haur dohacabe hunec bekhatoren suerte lastimagarria erakhusten badu ongui, estatu tristian dago bekhatore bat?

CADET: Den guttiena, Bettiriño, ezic considera-zac haur prodigo hunen zorthia bere aita maitia utzi baino lehen: nahi zitien⁷¹⁷ guziac bazitian, aitaren sehiez prince bat bezala zerbitzatuia; nahi zuien yan eta edan edo libertitu eta dostatu libro; nahi zuienian yaiqui, nahi zuenian lanian âar;⁷¹⁸ eta fagore, dohain eta < 129 > grazia hoc oro, bethi bere etcheco phartia osua zaucalaric. Bainan bere aita maitiaren ganic urrun den bezen fite, aitzinian hunen⁷¹⁹ benthakhetan⁷²⁰ eta abantailetan bezala, hunen urhax guziac hunen beraren caltetan zituian; eta hola, bere aita maitiaren grazia galduric, bere onthasun guziac chahuturic, miseriaric narda-garrienian fite eta laster erori zuian. Guisa berian, Bettiriño, christau bathi bere aitaren familian dagueno etzacoc deus ere faltat-zen, zeren Yaincuaren grazia eta dohainac dituenac gauza on guziac baititu. Bainan, malurusqui, hunen ganic urrunduz⁷²¹ gueroztic, etzacoc guelditzen bertze primantzaric⁷²² aitzineco estatu charmagarrienaren dolu, pena, urriqui, eta ethorquizunaren beldurra, eta hira eta crina⁷²³ baizic. Orai erran ezadac, Bettiriño, christau on baten ala bekhatore baten suertia diraden hobe...

BETTIRIÑO: Yauna, bat ere dudaric gabe, christau fidel eta justu batena!

CADET: Ez hiz enguenatzen, Bettiriño. Bainan orai orhoit hiz⁷²⁴ nun⁷²⁵ guelditu guinen, ezic hire curiosasunac, edo ongui ikhasteco hatz saminac, ohi bezala urrun ereman guttic, eta orai < 130 > etzaquiat nundic lot nore khondaira⁷²⁶ saindu huni.

⁷¹⁷ *Nahi zituien* behar dateke irakurri, zeren adizki hau ezin bailiteke alokutibo izan.

⁷¹⁸ *Lanean âar* 'lanean ari(tu)'.

⁷¹⁹ *hunen*] hunê.

⁷²⁰ Espainolaren /x/ hots igurzkari belarearen egokitzapena dago hemen (gazt. *ventaja* > *bentakha*). Cf. *khenero* (75).

⁷²¹ *urrunduz*] urrun duz.

⁷²² 'Jarauntsi, herentzia'.

⁷²³ Ikus *hira eta crina* (71).

⁷²⁴ Hemen *orhoit hiz* galderazkoa bezalakoa da. Cf. fr. *Tu te souviens où nous nous étions arrêtés*.

⁷²⁵ *nun*] num.

⁷²⁶ Ikus *khondaira* (24).

BETTIRIÑO: Yauna, yoan baguinite⁷²⁷ pôla⁷²⁸ batetic bertze pôlaraino ere, nic ez nezaque nore sail hasia behin ere gal, yadanic hitz eman daut-zut aitzinian; eta nore hitzari (nahiz oranic haur zar)⁷²⁹ ohore eguin nahi diot: Capharnaun utzi guinuen Jesus, Jerusalemerat yoaiteco chederequin.⁷³⁰

CADET: Yoan zuian beraz Yesus Yerusalemerat, tabernaculaco phestaren zelebraztera. Eta urthe huntan (zeinac baitzen hogoi eta hamabi garrena urthe comuna, eta hogoi eta hamabortz garrena Jesus Christorena, urriaren hamahirurian⁷³¹ zelebraztu zitean, beraz, juduec urthe huntan bere phesta hura), yoan zuian beraz Jesus Christo Jordanen comarca eta inguruac gaindi Jerusalemerat, bidian instruitzen, escolatzen eta arguitzen zituelaric bere apostoluac eta populua munduco onthasun galcorrez eguin behar zuten usayez, divorziuaz, amoinaz, eta escandalaz; eta undarrian, hitz batez, christau fidel eta leyal guisa bizitzeco yaquin behar ziren eguin, bide⁷³² eta obligacione herchiez. Eta guero, hunen ahaide oranic sinheste osua etzutene⁷³³ hunen baithan, solicitatu⁷³⁴ < 131 > zitean yoaiteco lehen baino lehen Jerusalemerat, eta han clarqui bere buruia nor zen erakrusteco, amorecatic —ziotean— mundu guziac ezagut-zezan behin bethicotz nor zen, eta aitzineco piyayetan eguin zituen discipuluoc⁷³⁵ segurta, finga⁷³⁶ eta azcar ziten bere fedian eta sinhestian. Jesusec hemen etzayean arraphostaric⁷³⁷ eman ahaide curios hoquierri; bainan onduan ihardexi zayean, erraiten zayelaric hec joan zitaqueyela, bainan haren tenorra⁷³⁸ eta dembora oranic etzela yina.

Tabernaculaco octava edo zortzia erditan zelaric, Jesus aguertu zuian templuian eta abiatu predicatzen. Juduiac, zaquitelacotz etzuiela hunec ez nihon, ez behin

⁷²⁷ Subjunktibozko baldintza, **edin*-en gainean eratua. Bat. *joan bagintez*.

⁷²⁸ *Pôla* ‘polo, lurburu’. Ohart grafia etimologikoa < fr. *pôle*. Erramoldea ezaguna da frantsesez: “*P. exagér. D’un pôle à l’autre. D’une extrémité à l’autre de la Terre*” (TLF).

⁷²⁹ *Haur tzar* ‘(fr) gamin, ume moko’. OEH-k zenbait adibide jasotzen ditu; ekar dezagun hazpandar batena: *Haur tzar batzuri, onez onean, bi egiaño erranik bezen trankil*. (Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, “Imitorio”).

⁷³⁰ Nabarmentzekoa da mugagabearen erabilera.

⁷³¹ Idazleak bereiz nahiz loturik idazten du, beti ere bi *h* emanez. Badirudi bi *h*-ak ematen dituzten grafiak gailentzen direla Iparraldeko tradizioan (OEH).

⁷³² Birgula bidezko mozketak. Cf. *representat, zen* (124) eta *bat, zuiec* (132).

⁷³³ Erlatibo eskuin: *hunen ahaide oranic sinheste osua etzutene^c hunen baithan*.

⁷³⁴ *solicitatu*] *solicilatu*.

⁷³⁵ Plural hurbilaren erabilera markatua da nafar-lapurteraren eremuan. Cf. *guzioc* (132).

⁷³⁶ *Finka(tu)* aditzaren aldaera lekukotugabea.

⁷³⁷ Honainokoa *arraphostu* hatzeman dugu.

⁷³⁸ Ikus *tenor* (43).

ere estudiatu ez ikhasi, estonatuiaç guelditu zituian hunen doctrina edo yaquintasun admiragarriaz. Eta hemen erran eta declaratu zayean harc predicatzen zuien eta hec arrazoinequin admiratua⁷³⁹ zaizcan⁷⁴⁰ doctrina hura etzela harena, baizic hura egorri zuien Aita Zerutarrarena.

Zeren juduec ikhusten zituzten Jesus baithan asco gauza guizon eta profetei baino yainco bati comeniago zirenac, < 132 > suyet hunen gainian juduac ma-khurtu eta berechi zituian, bat,zuieç⁷⁴¹ ziotean hura zela eguiazco Messias, gu-zioç⁷⁴² hainbertze⁷⁴³ anxia eta desircunderequin iduriquitzen zuten hura, eta bert-zec ezetz, hortacotz preso hartu nahi izan zitean. Bainan Jesus escapatu za-yeen,⁷⁴⁴ zeren etzen orainic tenorra ethorri.

Halere, orainic tabernacliaren undar egunian joan zuian Jesus berriz templura, eta abiatu oyhuca, erraiten zuielaric: *Zuien artian egarriric bada, ethor bedi ene gana eta edan bez,*⁷⁴⁵ *eta haren bihotzetic ilkhiren da ur bizitzeco ithurburu bat.* Solas hoquieç orainic emendatzen zitean, Bettiriño, populuaren arteco indiferentzia edo duda. Bainan aphezec eta escribauç defenditzen zitean galileatarra zela, eta Galileatic etzaitqueyela deus onic athera, eta orainic are gutiago profeta deus balio zuienic. Bainan populua, hainbertze⁷⁴⁶ ikhus garriz eta miraculuz estonatu eta dembora berian hunquitua, ya casic ezin duda ere zazaqueyan⁷⁴⁷ < 133 > guizon hura zela ez choilqui profeta, bainan bai oraino heyec iduriquit-zen zuten Messias famatu.⁷⁴⁸

Arraxa yin zenian, judu hoc yoan zituian bacocho bere etchetarat, bainan Je-susec, Olivetaco Mendiaren gainera iraganic, han phasatu zian gau hau guzia

⁷³⁹ *Admiratuac* behar luke.

⁷⁴⁰ *Eduki* aditzaren forma: *zauzkan > zaizkan*. Uler bedi honela: 'hec arrazoinequin admiratuac zaizcan doctrina' non *hec* osagarri zuzena baita.

⁷⁴¹ Birgula bidezko zatiketa. Cf. *representat,zen* (124) eta *eguin,bide* (130).

⁷⁴² Plural hurbilaren erabilera markatzekoa da. Corpus Arakatzailaren emaitzak *guziok* formarendako honakoak dira: Leizarraga, Haranburu, Argaiñaratz, Pouvreau, Etxeberri Sarakoa, Gazteluzar eta Haraneder eta Lhande. *K&B*-n *guzioc* behin baizic ez da agertzen.

⁷⁴³ *hainbertze*] hain bertze.

⁷⁴⁴ Bat. (*hura haiei hiri*) *zitzaiëan*. Cf. *zitzayen* (14, 39), *zitzayeyan* (16).

⁷⁴⁵ 'Beza'. Hutsa ez bada, bakarra liteke Iparraldeko tradizioan. Heganafarreran *bez* arras ongi lekukotzen da (Corpus Arakatzailaren arabera, Lizarraga eta Beriainengan); orobat *RS*-en.

⁷⁴⁶ *hainbertze*] hain bertze.

⁷⁴⁷ **Ezan* aditzan *a / e* oposaketaren kontra duen forma bakarra, *zezaquen* tankerakoak 10 direnean.

⁷⁴⁸ Kontu egin bedi mugatzailearen faltaz.

othoitz-etan. Biharamonian Jesus yoan zuian berriz templura, eta farisayuec [emac ume bat] ekharri zacoteyan hara, adulterian suprenitu zutela, maleziarequin galde eguiten zacotelaric⁷⁴⁹ eya zer eguin behar zuten emac ume dohacabe hartaz —nahiz hipocrit⁷⁵⁰ hoquieac yadanic bazaquiten heyen legue barbaruaren arabera^{751, 752} harri ukhaldica hila izan behar zen—. Hemen Jesusec etzayean deus ere ihardexi, zeren Yainco bezala heyen chede nabarrac yadanic ezagutzen zituen, bainan abiatu zuian lurrian marra batzuien eguiten, aleguia⁷⁵³ dembora phasa, eta guero, < 134 > heyen ganat⁷⁵⁴ bihurturic, erran zayean: *Ea*,⁷⁵⁵ *zuien artian bekhatu gabe denac eman bezo*⁷⁵⁶ *emac ume malurus huni lehen harri ukhaldia*.

Eta guero abiatu zuian beriz lurrian marra berri batzuien⁷⁵⁷ eguiten. Orduian, Bettiriño, accusazaille hoc —zeren etziren bere buruiez duda gabe sobera fida—⁷⁵⁸ batzu bertzen ondotic yoan zituian ichilic; eta Jesusec, aitzinian bezala, hemen ere bekhatosen onduan yina zela frogantza claro baten emaiteco, erran zacoyan emac ume gaicho huni: *Ez hi*⁷⁵⁹ *nihorc ere condemnatu; ez hit*,⁷⁶⁰ *beraz, nic ere eguinen. Habil, eta beraun*⁷⁶¹ *guehiago bekhaturic eguin*.

Eguintza aitatarrenen hunen onduan, biharamonian Jesus phasat-zen zelaric Jerusalemeco carricac gaindi, ikhusi zian guizon gaicho bat sortzez itxua. Bere apostoluec galde eguin ziotean eya guizon hura < 135 > bere bekhatuac ala bere aita amen bekhatuac zirela causa zen sortzez itxu. *Ez batzuiac, ez bertziac direla causa* —zioc Jesusec—, *baizic miraculu hoyen medioz Yaincuaren obrac izan ditezen aguertuac eta ezagutuac*. Eta guero, dembora berian lurrerat thu eguinic eta bere

⁷⁴⁹ *zacotelaric*] zaotelaric.

⁷⁵⁰ *hipocrit*] hipocric.

⁷⁵¹ *legue barbaruaren arabera*] ~~legue barbaruare~~ leguiaren arabera.

⁷⁵² Soilik kasu honetan berrezarri dugu egileak barratu hitza. Hitz honek, autozentsuratik hurbil baita, idazlearen baloreen gaineko informazioa eskaintzen digu.

⁷⁵³ Ekialdeko tradizioan *alegia* honek balio irreal du. Haren erabileraz: “*Alegia* n’est employé qu’en incise, pour traduire *comme si*, et n’est jamais suivi d’un verbe à mode personnel” (Lafitte 1944: 344).

⁷⁵⁴ *heyen ganat*] heyen ganat heyen ganat. Orrialdeen arteko duplografia.

⁷⁵⁵ *Ea* hau bestetan agertzen den *eya*-tik bereizi behar da, exortatiboa baita.

⁷⁵⁶ Bat. *biezaio*.

⁷⁵⁷ *batzuien*] batzuiyen.

⁷⁵⁸ Aditz honen erabilera atributiboa da. Cf. *orhoit hiza* (95).

⁷⁵⁹ Bat. *hau*. Ikus *hit* (33).

⁷⁶⁰ Bat. *haut*. Ikus *hit* (33).

⁷⁶¹ *Begira* **edun* aditzaren forma higatua: *be(gi)ra-(ed)u*. Zentzua ‘kontu egin ez...’ batetik hurbil dago, eta pragmatikoki agintera negatibo gisa funtziona lezake: ‘ez ezan gehiago bekatuturik egin’. Cf. *Berautzuie trompa, berautzuie enguena!* (36).

ahoco salivaz edo gozuaz⁷⁶² lur puchca hura orhatu eta gurituric,⁷⁶³ pherecatu eta frotatu zangoyan⁷⁶⁴ bere beguiac itxu gaicho huni, manatzen zangolaric Siloeco ithurrira yoaiteco bere beguien eta bisayaren garbitzera. Itxu hau yoan zuian gotic ithurri huntara, eta instantian bichta ardietxi zian. Miraculu hunec, Bettiriño, anhiz hox eguin zian, zeren itxu hau mundu guziaz ezagutua zen.

Biharamonian ereman zitean itxu hau farisayuen ganat, yaquitecotzat⁷⁶⁵ eya nortaz, eta nola izan zen sendotua. Itxu hunec erran zayeyan garbiqui < 136 > izan zela sendotua ebiacoitz famatuan, eta farisayo hoyec debecatu zacotean itxu huni publicoqui erraitia Jesus profeta ere zela, zeren ebiacoitzac profanatzen zituuen —heyen arabera— herien⁷⁶⁶ sendotzen; eta orainic ikhara garrizco crima huntaz hobequi informat-zeco, deithu zitiztean hunen ahaidiac eta yendiac, eta hoyec gauza zen bezala erran zayetean, nahiz erreserbarequin, beldurrez zombait tratamendu gogor errezebi⁷⁶⁷ itxu hoyen phartetic. Bainan, zeren itxu arguitu⁷⁶⁸ hunec⁷⁶⁹ defenditzen zuien eta clarqui erraiten, heyen guzien contra, Jesus guizon haundi eta pherestu bat zela, eta profeta famatu bat, templutic desohoraturic khendu eta casatu zitean.

Biharamonian Jesusec encontratu zian itxu arguitu hau, eta galde eguin zangoyan eya sinhesten zuinez Yaincuaren Semia baithan. Hunec errepliatu zangoyan eta galde eguin ea nor zen⁷⁷⁰ Yaincuaren Seme hura; orduian < 137 > Jesusec ihardetxi zacoyan: *Ni nauc*. Eta orduian hunec, haren zanguetara bere buruia aurthiquiric, adoratu zian. Eta eguintza admira garri hoquien onduan, Jesus itzuli

⁷⁶² Ohart hiru hitz diferent baliatzen direla 'salive' errateko: *ahoco gozo* (forma ohikoa: *ahogozo*), *saliva* eta *thu* (botatzen dena).

⁷⁶³ 'Ablandar(se)'.

⁷⁶⁴ Objektu pluralarekiko komuntadura falta: *zangon* 'zion'; *zaingon* behar luke. Cf. *zaingon* 'zizkion' (41, 59).

⁷⁶⁵ *-tecotzat* helburuzko egituraren agerraldi bakarra. Normalagoa literatur hizkuntzan, euskara mintzatuan izan dukeen presentzia baitezpadakoa da. Ongi dokumentatzen da lapurteran: Etxeberri Ziburukoa, Pouvreau, Etxeberri Sarakoa, Haraneder, Larregi eta Duvoisin (Corpus Arakatzaillearen emaitzak *jakitekotzat* formarendako). Cf. *hortacotzat* (5).

⁷⁶⁶ Orai artio *h-* gabe zeren hitza, berez, hasperen gabea baita. Egile nafar zenbaitek (batez ere Joakin Lizarragak) *heri* emaiten badute beste arrazoinengatik dateke.

⁷⁶⁷ *Beldurrez*-ek du aitzoin hau manatzen. Cf. *beldurrez berac ebaxia zuien erresuma hura gal* (19) eta ikus oharra.

⁷⁶⁸ *Argitu* 'bista berreskuratzea / itsuari bista eman'. Leizarragarengandik lekukotua: *Itsu argituak Krist baithan sinhesten* (Io 9, izenburu).

⁷⁶⁹ *hunec*] hunec hunec.

⁷⁷⁰ *zen*] zer.

zuian Galileara. Bainan etzuian hemen anhez dembora egotu, zeren templuaren dedicazionia edo Judas Machabéez berritua izan zen eguna hurbildua zen (zeinac baitzen urthe huntan abenduaren hama bortzian), eta zeren Jesusec egun⁷⁷¹ haundi hartan templuan izan nahi zuien.

Yohan zelaric,⁷⁷² beraz, Jesus berri berritan Jerusalemerat phesta hunen zelebraztera, iragaiten zelaric Galilea eta Samaria gaindi, hurbil-duce zenian hiri baten ondora, hamar leproxuc oyhu eguin zacotean: *Jesus Yauna, gutaz urricalmendu⁷⁷³ ukhan ezazu!* Jesusec erran zayeyan: *Zoazte zuien buruac aphezzerri erakhustera.* Eta bidian <138> yoan zirelaric guziac sendotu zituian, eta hotaric bat bakharra, samaritano bat, bihurtu zangoyan Jesusi esquerren bihurtzera, zeinari⁷⁷⁴ Jesusec erran baitzion: *Etzirete hamar izan sendotuiac.⁷⁷⁵ Nun dire bertze bederatziac? Habil, hire sinbestiac⁷⁷⁶ sendotu hi.⁷⁷⁷*

Eta guero, templuan zanguelaric⁷⁷⁸ Jesus, farisayo nabarrec galde eguin ziotean ea noiz ethorrigo zen Jaincuaren erresuma. Jesusec ihardetxi zayean etzela yinen manera distirant eta erremarca garri batez, heyec bere gogo-gora⁷⁷⁹ eta urgulusaz uste eta phentxat-zen zuten bezala, orainic behin; bainan yadanic heyen artian zela heyec iduriquit-zen zuten Yaincuaren erresuma dohatxu hura. Eta occasione huntaz baliat-zen zelaric, eman zayean bere apostoluerri escola manifico bat er-netasunaren othoitzaren⁷⁸⁰ iraupenaren < 139 > eta humilitatezco berthute admiragarriaren gainian, ekhartzen zayelaric publicano humilaren eta farisayo urgulusaren parabola admira garri hura; eta guero...

⁷⁷¹ *egun*] ehun.

⁷⁷² Cf. *yohan zen* (24) eta ikus oharra.

⁷⁷³ *urricalmendu*] urricalmedu.

⁷⁷⁴ Erlatibo honen aurrekaria tarteko perpaus baten subjektua da: *hotaric bat bakharra, samaritano bat, bihurtu zangoyan Jesusi esquerren bihurtzera, zeinari Jesusec erran baitzion...* Egungo euskararen sintaxi hau bitxia da, baina ez historikoki. Ekar dezagun Lazarragaren adibide hau: *Silveroc au ençun eguian orduan bere buruari ychi eusan lurrera jausten, çeñagana Silvia joan çidin lasterca.* Erlatiboak Silverori egiten dio erreferentzia, sintaktikoki *bere buruari*-tik (12r) hurbilago legokeen arren.

⁷⁷⁵ *sendotuiac*] sendotuia.

⁷⁷⁶ *sinbestiac*] sinbestia.

⁷⁷⁷ *Hi bat. hau.*

⁷⁷⁸ *zanguelaric*] zanguelari.

⁷⁷⁹ Hitz lekukotu gabea. Cf. *musu-gora* 'urgulos'.

⁷⁸⁰ *othoitzaren*] othoitz aren.

BETTIRIÑO: Emequitto, emequitto, yauna; parabolac horren ederrac izan, eta zuc horren ederqui azaltzen, eta parabola hau utzirik aitzina yoan nahi zaizquit?⁷⁸¹ Othoitz-ten zitut, yauna, bi hitzto-ren bederen erraitia parabola hunen gainian, eta hitz emaiten dautzut zeruian izar den bezent bat parabola guehiago izanic ere,⁷⁸² baquian utziren zitudala.

CADET: Etzaquiat, haurra, hic gauzen ikhasteco duian cocaluch⁷⁸³ edo hatz errabiatu hori nola egonen⁷⁸⁴ hi quitzicatu gabe eta ene beharriac hantu⁷⁸⁵ gabe, parabola baten izena aditu eta iduria ikhusiz gueroz. Bainan, dena den bezala, orainic plazer hau eguinen dayat.

BETTIRIÑO: Yauna, hitz eman daut-zut eta nore < 140 > hitzari ohore eguinen diot.

CADET: Jesusec, beraz, ezaguturic⁷⁸⁶ farisayo urgulus eta hipocrit⁷⁸⁷ hoquien saindutasun echura baino urrunago⁷⁸⁸ etzuhanaz⁷⁸⁹ zeruco izarrac baino gorago igan nahi zutela, ya colpu batez, Luziferren seme legitimo hoyen urgulua azpiaiz gainera iraultzeco, ekharri zayean parabola edo comparazione eder hau:

[Jesusec]: *Behin yoan ziren bi guizon templura, bat farisayua eta bertzia publicana, othoitz eguitera edo erraitera. Farisayua aldariaren oynetara hurbilduric*

⁷⁸¹ Bat. *zatzaizkit*. Ikus *zaizquit* (115) eta haren oharra.

⁷⁸² Pasarte honetan *bezentbat* berdintasunezko konparaziorako baliaturik eta jarraian *gehiago* agertzen da: *zeruian izar den bezent bat parabola guehiago*. Pentsa liteke agramatikala dela, bietako bat —*bezent bat* edo *guehiago*— soberan izanez. Gure ustez, aldiz, perpausa zuzena da, honela interpretatuz: *Zenbat parabola gehiago gelditzen dira?* [Zeruan izar den bezentbat] *parabola gehiago izanic ere...*

⁷⁸³ Fr. *coqueluche* ‘eztul kukurrukoa’, ‘tos ferina’. Idurizko zentzuan “objet d’un engouement contagieux dans un groupe social donné. Synon. *favori, idole* [...] Chose qui suscite de la passion, de l’engouement dans un groupe” (*TLF*).

⁷⁸⁴ Aditz laguntzailearen elipsia da hemen: *Etzaquiat, [...] cocaluch edo hatz errabiatu hori nola egonen [den] hi quitzicatu gabe...*

⁷⁸⁵ Hemen *hantu* aditzaren zentzua saturazio ideiarri lotua da. Ikus *hantua*c (98).

⁷⁸⁶ *ezaguturic*] ezaguturic.

⁷⁸⁷ *hipocrit*] hipocric.

⁷⁸⁸ *urrunago*] urrun nago.

⁷⁸⁹ Erlatiboa eskuin izateak franko zailtzen du pasartearen entelegamendua: *Jesusec ezaguturic [...] hoquien saindutasun echura baino urrunago etzuhanaz zeruco izarrac baino gorago igan nahi zutela...* Bestenaz formulatuz: *Jesusec ezaguturic echura baino urrunago ez zohan* [farisayo urgulus eta hipocrit hoquien] *saindutasunaz* [hipocrit hec] *zeruco izarrac baino gorago igan nahi zutela...*

*abiatu zuian bere othoitzaren guisa huntan eguiten: “Yauna, esquerrac bihurtzen derauz-quit-zut,⁷⁹⁰ zeren ez naizan bertze guizonac bezala ez ohoin, ez injustu, ez lohi, eta orainic are gutiago publicano hau bezala. Astian bi egun barurt-zen ditut, eta neure onthasun guzien dechema osoqui eta justuqui pagat-zen dut”. < 141 > *Eta publicanua, contrarat, urrun atrebitzetic (eta orainic are gutiago ausartatzetic)⁷⁹¹ aldare sacratuaren oynetara, eliza guibelian eta zokho ilhun batian yarria, etzen atrebitzen bere beguien ere zerurat alchatzera, bainan bere bulharrac gogotic yoiten zituielaric, oyhuz zagon: “Ene yauna eta ene Yaincua, ni bekhatoreaz urricalmendu ukhan ezazu: Deus propitius esto mihi peccatori”⁷⁹² Eguiatz erraiten daut-zuie —zioc Jesusec—, hau justificatua bezala, bertzia faltadunagotua yoan zela bere etcherat. Zeren berenaz alchatzen dena erort-zen ohi den bezala, humiliatzen dena alchatzen ohi den.**

[CADET]: Zer erranen dautazuie orai exemplutto huntaz? Egungo egun doha-cabeco christau moducuac,⁷⁹³ zuerri mintzo naiz,⁷⁹⁴ zeren zuien galtziac pena eguiten derautan. Farisayo urgulutxa, ala publicano humila imitatzen othe dituzuie? Ya zuien goitz arratxeco othoitzac, nahiz guehienetan lô gurkhusca^{795, 796} < 142 > edo phuscacache⁷⁹⁷ eguiten ohi dituzuie; Eliza Ama Sainduiac⁷⁹⁸ manatzen dituen barurrac aphurto bat bederen eguitenche⁷⁹⁹ dituzuie; ez duzuie⁸⁰⁰ nihor hiltzen,

⁷⁹⁰ Interesgarria da egileak gidioen bidez egiten dituen analisi morfologikoen ikustea. Kasu bakan honetan hirutan zatikatzen du adizki bat.

⁷⁹¹ Guk dakigula, ez zegoen *atrebitu* - *ausartatu* sinonimoen arteko mailakatzeko baten berririk.

⁷⁹² Luk 18, 13.

⁷⁹³ *Egungo egun* ‘hoy en día’; sintagma osoa ‘chrétiens du malheureux temps actuel’.

⁷⁹⁴ Datiboarekiko komuntadura eza, adiztetik bizik hurbil delarik.

⁷⁹⁵ *gurkhusca*] *gurkhus gurkhusca*.

⁷⁹⁶ Hitz hau Harrietek jaso zuen bere hiztegian, eta haren bidez *OEH*-n sartu da: “LO-GURKUSKA (-*kh*- H (L)). “*Arratseko othoitzza lo gurkhuska egitea*, faire la prière du soir à peu près endormi, en faisant des saluts de tête” Harriet.” Harrietek kasu honetan bere iturria aitortu ez zuen arren, guretzat ez da dudarik *K&B* izkributik atera zuela, beste zenbait sarreratan *Vie de Jésus Manuscrite* deiturapean aipatu zuena. Ikus *perfidia nabarra* (15), *hipocrisia nabarra* (189), *uhunberat* (45) eta *phico saaric* (153).

OEH-k *lo kulhuska*-ren erranahikide gisa ematen badu ere, hitz hau agian lot genezake Lhandek jasotzen duen *gorkhü* sarrerarekin, “ombrage que les animaux recherchent en été, p.ex. les brebis vers midi”. Haren eratorriek -s hartzten dute: *gorkhüstalgi*, *gorkhüstagia*. *Lo gurkhuska* erramoldeak, honela interpretatzea posible bada, otoitzetan eneatzen diren giristino epel horiei erreferentzia egiteko manera kasik groteskoa dateke, aziendekin parekatzen baititu.

⁷⁹⁷ *Phuskaka* ‘petit à petit’.

⁷⁹⁸ *Sainduiac*] *Sainduian*.

⁷⁹⁹ Normala da -*xe* atzizkia partizipioei eranstea, baina ez gerundioei. Dokumentatu gabea.

⁸⁰⁰ *duzuie*] *du zuie*.

eta hola ez duzuie⁸⁰¹ nihor khuxatzen escandalaren phozoin lanyerosaz. Bainan farisayo hunec guehiago eguiten zuien, eta guziequin erremedio eta erisendaric⁸⁰² hoberena phozoinic gaichtuenera itzul arazi du; publicanua sendotu den lekhu berian, eta harma berequin, galdu da, bere buruia hil du. *Dico vobis* —dio Jesus Christoc—, *dico vobis descendit hic justificatus in domum suiam, ab illo* (St Marc 18.14).⁸⁰³

Dugun ikhus⁸⁰⁴ eya ni ala zuiec trompatzen othe guiren. Zonbat aldiz ya etzirete hurbildu⁸⁰⁵ tacha eta mancha guziac khent-zen dituien phutzu lastanera eta piscina mixeriot-xura, erran < 143 > nahi dut penitenziaco tribunal sacratura? Zonbat aldiz ya ez dira izan zuien gorphuz eta arima leproxuac yanhariric berthutosenaz, eta zeru lurrec iduqui ez dezaqueten yaquiric preziosenaz haziac? Bizquit-artian,⁸⁰⁶ nun⁸⁰⁷ dira haragui zerutar eta edari sacratuen hunec (erran nahi dut odol ezin preziatuzco hunec) eguin dituen frutac?⁸⁰⁸ Arbola bere frutuetic agueri eta ezagutzen ohi denaz gueroz, nun dira, diot berriz ere, nore buruco iliac chutituristic, eta odolezco nigarrez nore beguiac lamproturic? Nun dira amodio leyal, galant, tendre eta fidelenen hunen frutac?

BETTIRIÑO: Zertaco zaude, yauna, nigarrez? Bihotza erdiratzen dautazu.

KADET: Une-zac⁸⁰⁹ hemen ichilic, haurra, ezic ez duc hic orainic deusic endelgatzen.

BETTIRIÑO: Yauna, gure⁸¹⁰ hoberena da aitzina yoaitia gure khondaira sainduian, mamu gaitxex-garrienen hoc bere guisa utziric. Orhoit-zite, yauna, Jesus < 144 > templuian utzi guinuela, bere usayaren arabera, apostoluen eta yenden arguitzen, erraiten zayelariac eguiuzco othoitzaren zimendua zela humilitatia.

⁸⁰¹ *duzuie*] du zuie.

⁸⁰² Egileak Larramendiren *irasenda* ‘antídoto, contraveneno’ berrinterpretatzen du *eri + senda* bezala. Cf. *irasenda* (43) eta irakur oharra.

⁸⁰³ Aipamen okerra, zuzena “Lukas 18, 14” baita.

⁸⁰⁴ Subjunktibo zaharra **edun* aditzaren gainean eraikia, baina aditzoinarekin.

⁸⁰⁵ *hurbildu*] hurbil du.

⁸⁰⁶ *Bizquit-artian*] Bitquit-artian.

⁸⁰⁷ *nun*] num.

⁸⁰⁸ *Fruitu*, arbolarena (97) zein sabelekoa (2); *frutu*, arbolarena (143) eta *fruita*, emaitza (143, 172). *Fruitu* espero dugu, *-uu-* grafiak lekukotugabeak izanki.

⁸⁰⁹ Bat. *utz nazak*.

⁸¹⁰ Genitiboaren adiera destinatiboa: ‘guretako, guretzat’. Ikus SINTAXIA.

CADET: Arrazoin duc, Bettiriño. Bere humilitatiac justificatu duien bezala, publicano humil hau, zeinac presentatzen, seinalatzen eta sinificatzen baititu christau bere beharra eta eritasun tristia ezaguturic, humilqui legue berrico putzu edo piscina puyant huntara bere osagarriaren onduan yinen direnac.⁸¹¹ Guisa berian, christau urgulutxu eta bere penitentzia achalezcuez espantu eguitera yiten diren, eta bere osásuna⁸¹² ardiexi beharrian bere gaitz auhengarria emendatzen dutenac⁸¹³ significatzen dituen farisayua urguluac condemnatu zian. Eta hola, eguiazco legarda⁸¹⁴ den⁸¹⁵ phozoinic lanyerosenera itzularazi zian, erran nahi diat salbamendua errezebitu eta ardiexi < 145 > behar zuien templu sacratuian, othoitzezco etchian, bere condemnamendua iretxi zian. Ikhara zitezte hemen, christau ephe-lac, erphilac,⁸¹⁶ eta hotzac; ezic zuietaz mintzo naiz, zuien galtzen ikhustiac odola gazaraziz!

Jesus, beraz, paséetan⁸¹⁷ zaylalaric⁸¹⁸ templuaren bortha aitzinian, juduec inguratu zitean. Eta galde eguin zacotean eya noiz artio dudan achiqui gogo zituen, eta hura balin bazen⁸¹⁹ heyec iduriquit-zen zuten eguiazco Messias hura clarqui erraiteco. Jesusec ihardetxi zayean: *Yadanic erran daut-zuiet anbizetan*⁸²⁰ *ni naizela, bainan ez nautzui*⁸²¹ *sinhexi*.⁸²² *Bertze alde, ene obrec asqui clarqui erraiten eta era-khusten dute ni nor naizen; ene arthaldeco ardiac bazinete sinhex zinezaquete*. Eta *Aita eta ni bat guire*. Orduian, esquer gaitz ikhustate gabe hoyec harriac hartu zitiztean hunen harricatzeco. Orduan Jesusec erran zayean: *Onthasun suerte guziez*

⁸¹¹ Erlatibozko egitura tartekatu biziki luzea: *christau bere beharra eta eritasun tristia eza-guturic, humilqui legue berrico putzu edo piscina puyant huntara bere osagarriaren onduan yinen direnac*.

⁸¹² Ikus *osaasunaren* (43) eta oharra. Cf. *osâagarri* (121).

⁸¹³ Bi erlatibo juntatu, biak beste erlatibo baten barnean: [[*christau urgulutxu eta [bere penitentzia achalezcuez espantu eguitera yiten diren] eta [bere osásuna ardiexi beharrian bere gaitz auhengarria emendatzen duten] ac] significatzen dituen] *farisayua* URGULUAC condemnatu zian. Erranaldi honen perpaua menderatzailea, beraz, hau da: *farisayua urguluac condemnatu zian*; non *urguluac* subjektu baita.*

⁸¹⁴ *Legarda* 'antídoto, preservación'. Ikus *legarda* (52) eta haren oharra.

⁸¹⁵ Eskuinera begira dago *den*: *eguiazco legarda den phozoinic lanyerosenera*...

⁸¹⁶ 'Ahul, flaku'. Cf. *erphel* (28) eta ikus oharra.

⁸¹⁷ *paséetan*] *paséeta*.

⁸¹⁸ Lhandek *paseietan ibili* 'se promener' jasotzen du (H). Izkirioan *paséeta* irakurtzen da, -n gabe; *zaylalaric* 'zebilelarik' formak kutsu gutzit herrikoia du.

⁸¹⁹ *bazen*] *batzen*.

⁸²⁰ *anbizetan*] *anhiz etan*.

⁸²¹ *nautzui*] *naut zuie*.

⁸²² *sinhexi*] *siñhexi*. -n-ren gainean marra horizontal bat dago, baina klarki diferent ñ idazteko baliatzen den diakritikotik (^).

*bethe zaituztet,*⁸²³ *eta orai, errecompentxa zat, harricatu nahi nautzuie?* < 146 > Orduian judu itxu errabiatu hoyec erran zacoteyan: *Etzitugu harricatu nahi ongui eguinac direla causa, baizic zeren izan gabe, yainco zat*⁸²⁴ *zure buruia phasarazi nahi duzun, eta hola zeren burhozaille bat.*⁸²⁵ *Bainan ez daya izquiriatua, eta errana, zuiec ere yainco batzu zirete*⁸²⁶ —Zioc Jesus Christoc— *Yaincuac yaincozat qualificatzen*⁸²⁷ *dituien guizonac yainco badire, nola nic erran dezaquet burhoric, Yaincuaz sailndutua eta egorria banaiz, eta neure buruia Yaincuaren seme eguinez eta erranez?*

Eguia hoquien oroen onduan, orainic hoyec harricatu nahiz, Jesus hemendic escapatu zuian, eta guero yoan Bethabera, Yendone Yoanne Baptista batheyatzen⁸²⁸ ari izan zen lekhura, eta hemen egon zuian abantzu hilabathe bat. Huna yin zitzazcoyan anhiz judu, eta hunen baithan sinhexiric, erraiten zitean Yendone Joanne Baptistac etzuiela eguin bat ere miraculuric, eta hunec anhiz miraculu eguin zuila. Jesus Yordanen bertze aldiand zaguelaric, < 147 > Martha eta Maria Jesusen adichquidec igorri zacotean berria Jesusi nola Lazaro, heyen⁸²⁹ aneya eta haren adichquidea, eri zangon. Orduian Jesusec ihardexi zayean etzela eritasun hura hiltzeco,⁸³⁰ baizic Yaincuaren obren ezagutarazteco eta hedarazteco.

Orainic egon zuian hemen, berri hunen onduan, bi egun guehiago; eta arte huntan Lazaro guizagaichua hil zuian. Orduian, zeren —yadanic behin baino guehiaguetan⁸³¹ ikhusi duian bezala— hunec Yainco zelacotz bazaquit-zan hirur demborac —erran nahi diat iragana, presentecua eta ethorquizuna—, erran zayeyan bere apostoluerri nola Lazaro hilt zen, eta, nahiz bere apostoluec othoitztu zuten ez guehiago yoaiteco Judeara —zeren yuduac hunen hiltzeco cerca zabiltzan—, instant berian bidian yarri zuian, eta Bethamara hurbil-duche zenian aditu zian nola Lazaro hilt zen, eta bazuiela ya laur gau egun ehortzia zela. Marthac, zeren aditu zuien Jesus harat hurbiltzen ari zela, yoan zangoyan bidera, eta erran: *Yauna, ene aneya maitia hilt zen, bainan zu hemen izan bazine etzen segurqui* <148> *hilen.* Jesusec erran zacoyan Marthari: *Phitzturen da, Martha, munduaren*

⁸²³ *zaituztet*] *zaituzte*.

⁸²⁴ *yainco zat*] *yainco zac*.

⁸²⁵ Aditza eliditua: *zeren burhozaille bat [ziren]*.

⁸²⁶ Konpletiboa falta bide da: *ziretela*.

⁸²⁷ Grafia etimologikoa (< fr. *qualifier*). Cf. *qualitatez* (110) eta ikus oharra.

⁸²⁸ *batheyatzen*] *betheyatzen*.

⁸²⁹ *heyen*] *heyê*.

⁸³⁰ *hiltzeco*] *hiltzo*.

⁸³¹ Ikus *guehiaguetan* (35).

accabantzan, azquen yuyamenduian.⁸³² [Martha:] *Bai, Jauna?* Maria, orobat, hemendic⁸³³ istant baten buruian yoan zangoyan, eta bi ahizpa maite hoyen nigar tendrez Jesus hunquitua izan zuian, eta instantian galde eguin zian eya nun zen Lazaro haren adichquidearen thomba, eta idecaraziric, Jesusec oyhu eguin zacoyan: *Lazaro, yaiqui hadi!* Eta hau yadanic usteldua eta usainduia zelaric, istant berian phiztu eta yaiqui zuian.

BETTIRIÑO: Jesus Yauna, hau da miraculu estonagarri eta espantagarria! Ez da niholere possible obra hau izan dadin guizonarena!

CADET: Zertaz estonatzen hiz, Bettiriño? Miraculu da zerulurrac hitz choil batez creatu dituien Yainco guziz ahalxuarentzat, guizon hil eta yadanic usaindu eta usteldu⁸³⁴ baten phiztia? Gauza guziac ezdeusetaric atheratu dituenarent zat, miraculu bat da gauza yadanic denari⁸³⁵ < 149 > forma berri baten emaitia?

BETTIRIÑO: Yauna, aithorzen⁸³⁶ dut —eta orainic comenitzen⁸³⁷ naiz— Yaincuaren zat ez dela miraculu, bainan...

CADET: Asqui duc, Bettiriño! Ezic ikhusten diat miraculu estonagarri hunen eguintzac buruia aphurño bat burchoatu⁸³⁸ dayala. Erran ezadac: ez hiz orhoit Hirurtasuneco bigarren presuna hau guizatua gatic ez dela behin ere Yainco eguiazco izaitetic guelditu? Ez dayat yadanic erran, bietan bie⁸³⁹ laur eguiten duten bezen clarqui,⁸⁴⁰ justiziazco eguzqui airos hunen arrayuac, haragui hilcor baten hodoy lodiez estaliac izana gatic, etzirela bere baithan gutiago eder, distirant eta airos?⁸⁴¹ Zertaz estonatzen haut, beraz? Choilqui estonatu behar hiz juduen itxutasun dorpeaz,

⁸³² *yuyamenduian*] yuyamenduia.

⁸³³ *hemendic*] hemen dic.

⁸³⁴ *usteldu*] ustel du.

⁸³⁵ Erlatiboa eskuin: *gauza yadanic denari*.

⁸³⁶ *aithorzen*] aithor zen.

⁸³⁷ *Comenitu* ‘akort izan, onartu. Cf. fr. *convenir de quelquechose ou convenir que* + *ind.* “reconnaître, admettre quelque chose ou que” (TLF).

⁸³⁸ *Burchoatu* (< *buru zoratu*) “Marear(se), tener (o dar) vértigos, aturdir(se), delirar, (hacer) perder la cabeza. [...] Documentado en autores septentrionales no suletinos desde mediados del s. XIX.” (OEH). Hau izan liteke, beraz, hitzaren lehen lekukotasuna. Aldiz, arras lexikalizatua agertzen da, nahi bada pleonastikoki ere: *buruia aphurño bat burchoatu*.

⁸³⁹ Forma mugagabeak dira: *bi(g)etan bi(g)ec*. Cf. *biga* (39) eta haren oharra.

⁸⁴⁰ Cf. fr. *Cela est clair comme deux et deux font quatre*, gazt. *tan claro como que dos más dos son cuatro*.

⁸⁴¹ Gutiagonasun konparatiboa. Cf. *etzirela bere baithan gutiago arguixuiac* (16).

ikhustiaz miserable hoc nola zerbitzatzen diren eguiazco Messias-zat ezagutarazi behar zitzayen Seinale beraz, hunen hilarazteco chede beltzaren formatzeco. Bainan, zeren Jesusec —zeren guizonez plazer duenian irri eguiten duen— ezaguturic aphezen deliberazione injustua, yoan zuian Ephreineria, eta han egon marchuaren hogoy eta laur, edo *nisan*-en laur artio.

< 150 > Onduan, Jesus bidian yarri zuian yoaiteco Jerusalemara bere undar phazcuen zelebraztera, eta condemnatuia izaitera. Eta erran zayean bere apostoluerrri zer guerthatuico zangon bere undar piyaya hartan, bainan etzitean hoyec deusic endelgatzen. Jerichora hurbildu zenian, itxu batec bista galde eguin zangoyan, bere fede bizia eta sinheste fermua zela causa ardiexi zian. Eta, zeren Jerichon sartzen ari zelaric ikhusi zuien Zaché publicanua arbola baten gainera igana Jesusen ikhusteco, yende ospe haren artian bertzenaz ezin ikhusiz —zeren zen bere estaturaz bertzeac baino anhitz chiquiago—, Jesusec ikhusiric guizon hau arbolaren gainian, erran zacoyan: *Zaché, egun hire etchera heldu nauc.* Zache, berri on eta ohoragarri huntaz photzturic, conbertitu zuian, eta lasterca bere etcherat yoanic, eman zaiztean beharrei eta pobrei bere onthasunac, eta guziz eta particulazqui, heyen ganic ebaxi ahal⁸⁴² zituqueyen guziac. Eta Jesusec, gau egun hura phasaturic Zachen etchian, biharamonian atheratzen zelaric, benedizionez bethe zuien. Etche huntaric eman zayean < 151 > bichta⁸⁴³ bi itxury,⁸⁴⁴ zeinetaric bat deithzen baitzen Bar-timé —edo Timé-en semea—, herri hetan ezagutua.

Jesus heldu zuian Jerusalemara phazco phestac baino zonbait egun lehen, bainan egon zuian camporat aguertu gabe zonbait egun, juduen chede gaichtua zela causa. Undarrian, marchuaren hogoy eta hamarrian (edo *nisan* juduen hilabathia- ren hamarrian), phazco phestac baino bortz egun lehenago, Simon leproxuiaren etchetic ilkhiric, hurbildu zuian Jerusalemara, eta Bethphayeren ondotic egorri zitian bere discipuluetaric biga, manatzen zayelaric han estecatuia aurkhituren ziztuzten bi asto ama ume hec lachaturic, Hura zen toquirat ekhartzeco, amorecatic umiaren gainian, Jerusalemen sarthuric, izan zitezen profeziac osatuac.

Sarthu zuian beraz hola, Bettiriño, hiri huntan, yende ospe ikhara garri batez, eta oyhu marascaz zanguen batez, erraiten zuielaric: *Bizi bedi David Erregueren semea, eta benedictua izan Yaincuaren izenian heldu den Erregue amulchua!* Baster

⁸⁴² *ahal*] ahan.

⁸⁴³ *bichta*] *bishta* autozuzenketa.

⁸⁴⁴ *itxury*] *itxurietz* autozuzenketa.

<152> guzietaric inguratua zelaric, yoan zuian bozcariozco oyhu eta khantu hoquien artian templura, carrica guziac erramuniaz,⁸⁴⁵ eta bertze asco gauzaz berduratuia⁸⁴⁶ zirelaric. Eta templuian hatzemanic marchant eta friperies⁸⁴⁷ batzu heyen alkhi guziac aurthiquiric, casatu zitian templitic ahalgue gorritan templuaren profanazaille⁸⁴⁸ infame hoc; eta guero, sendotu han ziren itxu, mainkhu eta eri guziac. Eta guero, zeren aphezac eta escribauac formalisatu⁸⁴⁹ edo damustatu ziren populuac huni eguin zaizcon phesta admiragarriez, erran zayean populua ichiltzen bazen⁸⁵⁰ harriac mintzaturen zirela. Eta orai guc zelebratzen dugun Erramuco Igandiac phesta lorios hau sinificatzen dic, Bettiriño.

Ilhuntzian athera⁸⁵¹ zuian Jesus hiri dohacabe huntaric eta yoan Bethaniara, eta biharamonian, aste hartian,⁸⁵² marchuaren hogoy eta hamecan (edo *nisan*-en hamecan), nola berriz Jerusalemara zohan, bidian gosetu zuian, eta yoan zuian phico ya hostatua zen < 153 > baten⁸⁵³ azpira phicoqueta.⁸⁵⁴ Bainan —zeren orainic etzuien arbola hunec phico saaric⁸⁵⁵ baizin— madaricatu zian, eta instantian arbola hau eyhartzen abiatu zuian. Eta guero, templuian sarthu zenian, orobat khendu zitian lekhu saindu huntaric marchant quichquila batzu. Buruzaguia eta aphezac hunen galarazteco ocasioniaren onduan zabiltzayan; bainan, zeren hunen saindutasun erremarca garriez, eta solas guziz admira garriez, populu guzia choratua zaucan, etzituian orainic ausartatu hunen hartzera. Ilhun naarrian,⁸⁵⁶ beraz, Jesus itzuli zuian berriz Bethaniara.

⁸⁴⁵ *Erramunia* ‘romero (landarea)’.

⁸⁴⁶ Hemen *OEH*-k proposatzen duen adiera (“répandre, disperser”), Harrieten hiztegitik hartua, ez doa ongi. Testuingurua apainduraren ideia iradokitzen du. Cf. fr. *verdure* “feuillage servant à garnir un bouquet de fleurs, une table, un local” (*TLF*).

⁸⁴⁷ Ikus *friperies* (35) eta oharra.

⁸⁴⁸ *profanazaille*] profazaille.

⁸⁴⁹ Cf. fr. *formaliser (se)* “être personnellement choqué par un manquement aux formes, aux règles” (*TLF*).

⁸⁵⁰ *bazen*] batzen.

⁸⁵¹ *athera*] attera.

⁸⁵² Forma estonagarria. Cf. *Hortz egun* (158)

⁸⁵³ Erlatiboa eskuin: *phico ya hostatua zen baten azpira*.

⁸⁵⁴ ‘Pikuen xerka’. Cf. *urqueta* (40) eta ikus bertako oharra.

⁸⁵⁵ ‘Piku berde’. Forma hau testu honetan baizik ez da kausitu. Harrietek jaso zuen, pasarte hau aipatuz: “Figue verte, non mûre. *Etzuen orainik arbola hunek phiko-sagarrik baizen* (Vie man. de J.C.)” (ap. *OEH*). Ikus *perfidia nabarra* (15), *hipocrisia nabarra* (189), *uhunberat* (45) eta *lô gurkhusca* (141).

⁸⁵⁶ Cf. *ilhun narrian* (32) eta *ilhun nâarrian* (79).

Biharamonian, beraz (zeinac baitzen *nisan*-en hamabia edo aphirilaren lehena), Jesus yohan zelaric⁸⁵⁷ bere ordinariuan Jerusalemera bere apostoluequin, hoyec ikhusi zitean atzo⁸⁵⁸ Jesusec madaricatu zuien phico hura eyhartua, eta erakhuxi zacotean bere nagusiari. Jesus, occasione huntaz baliatzen zelaric, alchatu zayean eguiazco fede edo sinhestiaren < 154 > ahala eta indarra, zeinac Yaincuaren nahiarequin capable baita, mendi haundiac eta osuac bere lekhutic yauzaraziric, bertze lekhu batian phausarazteco.

Egun huntan, beraz, Jesus bere ordinariuan templeuian zanguelaric, aphez buru zaguiac eta senatorrac yoan zangoyan,⁸⁵⁹ eta galde eguin ziotean eya noren autoritatez eguiten zituen gauza hec. Bainan Jesusec instantian ichilarazi zitian urgulus ignorant hoc, galde eguiten zayelaric eya Yendone Yoannen bathayua lurrecua ala zerucua zen. Bainan hoc etzituian ausartatu erraitera, ez bat ez bertzia (zeren bi suren artian ziren); ezic erran eta ihardexi balute “zerucua”, Jesusec erranen zayean “Arrazoinequin, zertaco ez duzuie, beraz, sinhetxi?” Erran balute “lurrecua”, populuac harricatuco zitian, zeren sinhesten zuten Jendone Joanne Baptista profeta haundi bat zela. Ihardexi zacotean, beraz, deusic etzaquitela. [Jesusec]: *Beraz, nic ere ez dautzuiet erraren eya noren ahalez eguiten < 155 > ditudan ikhusten dituzuien gauza hoc.*

Eta guero, itzult-zen zelaric aphez, doctor eta farisayuen ganat, proposatu zaiztean parabola⁸⁶⁰ batzu zeinen objet guzia zelaric⁸⁶¹ erakhustia miserable itxu hoquierri ya heyen Yaincua preparatua zela heyen abandonatzera heyen sinhex gogortasuna dela causa, eta yentil idolatren deitzera bere Eliza haundiaren formatzeco, ez baizuten deusic aditu. Eta hau erran nahi dic bi seme aitac bere mahastirat egorri zituien parabolac,⁸⁶² zeinetaric bat bere aitari hitz emanic yoaiteco ez baitzen yoan, eta bertziac, ezetzez⁸⁶³ erratic, bere aitari yoan baitzen.

⁸⁵⁷ ‘Zihoalarik’. Cf. *yohan zen* (24) eta oharra.

⁸⁵⁸ Ez da deiktiko normala: *bezperan* behar luke. Cf. *hemendic* (157).

⁸⁵⁹ Numero komunztadura eza: *aphez buru zaguiac eta senatorrac yoan zangoyan* [Jesusi]. Badira *-i-dun* forma pluralak; cf. *zaingonian* ‘zitzaizkionean’ (84).

⁸⁶⁰ *parabola*] para.

⁸⁶¹ Erlatibo honen bi elementuen artean tartekatu den guziarekin zentzua ilun bailiteke, honela irakurtzea proposatzen dugu: *zeinen objet guzia [...] ez baizuten deusic aditu.*

⁸⁶² Erlatiboa eskuin: *Eta hau erran nahi dic bi seme aitac bere mahastirat egorri zituien [bi semeen] parabolac.* Izenlagun balioa duen perpauos osagarri hau *-lako* dutenen tankerakoa da: ‘bi seme aitac bere mahastirat egorri zituelako parabolak’.

⁸⁶³ Pleonastikoa: *ezetz + ez.*

Parabola hunen onduan yin zitzaizcoyan herodiatarrac, saduzeatarrac eta fari-sayotarrac anhitz galde amarutxuren⁸⁶⁴ eguitera. Herodiarrec galde eguin zacotean eya pagatu behar ziotenez Cæsarri bere cotiza. Jesusec ihardetxi zayean, erakhusten zayelari Cæsarren figura berequin zuien moneda bat, emaiteco Cæsarri beria, eta Yaincuari orobat. Saduzeatarrec galde eguin ziotean ea zoinena izaren zen bat bertziaren onduan < 156 > bi ahizpa esposatu zituien senharra. Jesusec ihardetxi zayean erresurezione edo berriz phiztu onduan etzirela guizonac escont-zen,⁸⁶⁵ bainan Yaincuaren aingueruac bezala izaren zirela. Farisayuec, guero, galde eguin ziotean ea zoin zen leguian zen manamenduric haundiena. Jesusec ihardetxi zayean: *Yaincuaren gauza guzien gainetic maithatzia; eta bi garrena, lehena iduria, bat bederac bere buruia bezala bere lagun proximuaren maithatzia*. Eta eguia haundi hoquien onduan mehachatu zitian undar hoc, erakhusten zayelari bere ipocrisia beltza eta legue sainduien sararazten zituzten pratica falxuac.

Ilhuntzian, atheratzen zelari Jesus hiri huntaric bere discipuluequin, hoyec oharraraazy⁸⁶⁶ zitean, eta berac templuco edifizio eta edertasunari beha guelditu zituian. Bainan Jesusec, zeinaren bichta hedatzen baitzen hasteric gabe finic ezduqueyen mugarri-taraino, erran zayean < 157 > yinen zela dembora bat, nun templuan ez baitzen gueldituen harria harriaren gainian. Eta hiri dohacabe huntaric igan zirenian Olivetaco Mendiaren gainera, apostoluac, orainic admiratuac zaudelari templu magnifico haren edertasunaz, galde eguin ziotean eya noiz guerthaturen⁸⁶⁷ zen profezia haren osamendua.⁸⁶⁸ Orduian, Jesus abiatu zayean erraiten erromanuec laster formatu behar zuten Jerusalemeco sitio edo zerramenduaz, zeinac guerthatu baitzen hemendic⁸⁶⁹ hogoy⁸⁷⁰ eta hama laur urtheren buruian; eta guero abiatu zayean zerramendu hunen zenbait zirconstantzia particularstatzen, segurtatzen zituelari orduian bizi zen yenerazione esquert gaitz hura etzela iraganen profezia hura osatu gabe. Eta guero, dembora berian, proposatu zaiztean

⁸⁶⁴ 'Engañoso, doloso, astuto'.

⁸⁶⁵ Erranaldiaren zentzuak *ezconduco* edo *ezconduren* behar du.

⁸⁶⁶ Aditz arazleen grafiak ez dira osoki finkatuak. Cf. *ekhararaazi* (179), *ekharraazten* (198), *sinhex-araazten* (203), *abatz-zarazten* (204).

⁸⁶⁷ *guerthaturen*] *guethaturen*.

⁸⁶⁸ 'Cumplimiento / accomplissement'. Lekukotu gabea, hiru agerraldi testuan; Larra mendik *osande* du emaiten. Seinala bedi *osatu* aditza anitzetan baliatzen dela 'accomplir' adierarekin. Ikus *osatuia* (5).

⁸⁶⁹ Ez da deiktiko normala, narratzailea kondairaren denbora eta lekuan kokatzen baitu. Cf. *atzo* (153).

⁸⁷⁰ *hogoy*] *gogoy*.

parabola batzu, zeinen marra⁸⁷¹ eta churia⁸⁷² baitzen heyen irazarriric, adretic, eta bethi erneric iduquitzia.

Egun hartan berian —erran nahi diat < 158 > aphirilaren lehenian, edo *nisa*-ren 12an—, orainic erran zayean bere discipuluherri juduen phazcuac zelebretuac izan behar zirela bi egunen buruian, eta nola izaren zen Yaincuaren Semea bere etxayerri libratua eta khurutzefficatua. Eta yaquin ezac, Bettiriño, egun hartan berian —zeinac baitzen aste asquena edo ezquena—⁸⁷³ aphezec deliberatu zitean zer nahi den gostaric Jesusen hiltzia, Judas Iscariotez, Jesusen tresorriera eta discipulua, obligatzen zelaric hogoy eta hama hirur siclo⁸⁷⁴ (edo berrogoy eta zortzi libera, hamabi sos eta sei cornadotan) bere nagusi hoberenaren saltzera.

BETTIRIÑO: Zer erraiten dautazu, yauna?

CADET: Emequitto, emequitto, Bettiriño; ezic yaquin ezac orainic dolore, tormenta eta sufrimenduzco ixaso kharax hunen heguian baizic ez guirela. Bainan goazin aitzina. Hortz egunian⁸⁷⁵ —aphirilaren bian, edo < 159 > *nisa*-ren hama hirurrian— etzuian goizian, daquigularic⁸⁷⁶ seguric, Jesus Jerusalemerat yauxi; choilqui evanyelistec eta ene guida eta nagusiec erraiten die Jesusec ilhun aintzintuan egorri zituela Bettiri eta Joannes Jerusalemera sala baten preparatzera, hoyec ere elgarrequin undar phazco hoyen zelebretzeco. Eta huna, Bettiriño, Jesus Christoren biziaren accabantza.

BETTIRIÑO: Zer eta, yauna, yadanic accabatu duzuia khondaira eder eta sacratu hau? Ni ez nintzan, bada, orainic eneatzen!⁸⁷⁷

CADET: Zer nahi duc,⁸⁷⁸ Bettiriño? Laur ebanyelista eguiaxuec⁸⁷⁹ etzautaye guehiago erraiten, eta argui hoc galduz gueroz, etzioyat⁸⁸⁰ ilhunbian⁸⁸¹ deus ere onic

⁸⁷¹ 'Marka, seinale'. Ikus *marra* (1).

⁸⁷² 'Jomuga / Blanc d'un cible'. Ikus *churi* (114).

⁸⁷³ Egileak zalantza agertzen du astegun honen izena bi eratan ematean. Egun ere *astezken* ahoskatzen da baxenafarreraren eremuan.

⁸⁷⁴ Ikus *siclo* (105).

⁸⁷⁵ Forma zinez bitxia. 58. orrialdean *Hortzegun* nahiz *ortzegun* agertzen dira. Cf. *aste asquena edo ezquena* (158), *aste hartian* (152).

⁸⁷⁶ *daquigularic*] *daqui gularic*.

⁸⁷⁷ 'Aspertu' (cf. fr. *s'ennuyer*).

⁸⁷⁸ *duc*] *du*.

⁸⁷⁹ "Sincère, franc" (Hiribarren apud Lhande).

⁸⁸⁰ **Iron*-en adizkia 'ez zezakeat'. Ikus *ezdiogu* (10).

⁸⁸¹ *ilhunbian*] *ilhun bian*.

eguin, bainan bizi miraculuzco hunen onduan. Nahi baduc hunen heriua ere ikhasi, gogotic erraren dayat.

BETTIRIÑO: Eta yauna, dudatzen duzuia ez dudala hunen hiltzia eta heriua ere atxein eta plazer haundirequin ikhusi, ikhasi, eta behar bada seguitu < 160 > ere nahi? Ezic yauna, jadanic berac erran duien bezala, hau balin bada eguiazco bidia, arguia, bortha, eta undarrian justiziazco eguzqui ederra, norc edo zerc, hunen arguic baino hobequi, arguituco naute?

CADET: Seindimendu⁸⁸² hoc onac, ederrac, nobliac eta christautarrenac dituc,⁸⁸³ Bettiriño. Bainan hire hitzari ohore eguinen dioc?⁸⁸⁴

BETTIRIÑO: Yauna, bizian eta hilian.

CADET: Goazin, beraz, aitzina.

< 161 >

Jesus Christoren heriuz eta pasione dolorosaz

Ikhusiric beraz Jesus Christoc dembora hurbilduia zela, igorri zitian bere discipuluetaric biga (Jendone Bettiri eta Joannes) Jerusalemera —zeren nahi zituen, juduen phascuen bictima izan baino lehen, bere discipuluequin phascuac⁸⁸⁵ eguin— emaiten zayelaric den amodioric bihotztar, gartxu eta leyalenaren marca bat, eta heyequin guri⁸⁸⁶ bere buruia janhari. *Zoazte beraz* —zioc bere bi apostolu hautatuerri— *Jerusalemerat, eta hirian sartzian errecontratuco baitu-zuie guizon bat pegar bat urequin etcherat dohana. Segui zazuie eta erran, ene phartez, bere etchian duien sala eder huru*⁸⁸⁷ *emaiteco, zuiequin han eguin ditzadan nore undar phascuac.*

Erran eta eguin: Jesusec erran zayen bezala, aurkhitu zitean guizon hura bere pegara buruian; eta escatu ziotenian, erakhuxi zayean eta eman sala eder hura, gauza behar ziren guziez⁸⁸⁸ garnitua. Bat ere beraz demboraric galdu gabe, abiatu

⁸⁸² Cf. *seindimendu* (42).

⁸⁸³ *dituc*] ditut.

⁸⁸⁴ *dioc*] diot.

⁸⁸⁵ *phascuac*] phascuen phascuac.

⁸⁸⁶ [X-rekin Y 'X eta Y'] sintaxi arkaikoa. Hemen *heyequin guri* 'heyeyi eta guri'. Cf. *Jesusi bere lagunequin* (109). Ikus SINTAXIA.

⁸⁸⁷ TO-Gen ez da indarrean perpau honetan: *sala eder haren emaiteco* espero liteke.

⁸⁸⁸ Erlatiboa eskuin: *gauza behar ziren [gauza] guziez garnitua.*

zituian bi apostolu hoc phazco bildocharen jateco, tresna eta apailuen⁸⁸⁹ yuntanzen. Yin zucan,⁸⁹⁰ beraz, Jesus ilhun naárrian < 162 > bere bertze discipuluequin sala eder huntara, eta, afal tenorra⁸⁹¹ yin zenian, jarri zituian ilhargui erdiaren figura zuien mahai batian: nagusia mahai buruian, zuzen zen bezala; eta Yendone Bettiri, hunen escuneco⁸⁹² aldian; eta guero bacocho bere herroncan, seguidan, erromanuen usayaren arabera.

BETTIRIÑO: Eta yauna, zer jan zuten afari hartan?

KADET: Mervellez⁸⁹³ jan baitzuten!⁸⁹⁴ Jadaníc erran dayat, curiosa, niri deusic ez galde eguítecto! Eta ichilic istant bat ez hauque?⁸⁹⁵ Bazituian hirur janhari suerte, edo hobequi erraítecto hirur afari, afari hartan: lehen bizicua, Moisesen leguiaren arabera, phazco bildocha; bi garrena, ordinariua edo ohicua; eta hirur garrena, guzia divinua edo yaincozcua. Egon haquit ichilic, eta oro azalduren daizquiat. Yan zitean beraz lehenic, juduen leguiaren arabera, phazco bildocha; eta hunen jaten ari zirelaric erakhuxi zayean bere discipuluerri, hil baino lehen, hoquiequin phazco hunen eguítecto zuien amodio gartxua eta desircunde zinezcua, segurtatzen zituielaric⁸⁹⁶ haren bizi hilcorrian heyequin eguinen zuien azquen afaria hurache zela; eta hemendic aitzina, choilqui erregalatuco⁸⁹⁷ edo dohainduco zituela bere < 163 > adichquide guisa, jastarazten zayelaric heyerri, eta guero heyen presunetan bere zerbitzari fidelei, bertze yaqui ongui⁸⁹⁸ diferent bat, orai artio aingueruec eta arima dohatxuiec yastatu dutena, eta choilqui Zeruco Erresuman daguena; eta dembora berian erakhusten zayelaric hequier, eta guri, eta mundu guziari, erre-

⁸⁸⁹ *Aparailu* ‘Aparejo / appareil’.

⁸⁹⁰ Orai artio zuian.

⁸⁹¹ Ikus *tenor* (43).

⁸⁹² *Eskun* aldaera Harrietek eta Azkuek emaiten dute. Gutí dira lekukotza ziuurak: “Hay *eskun* en Harizmendi, Tartas y *Charlemagne*” (OEH).

⁸⁹³ Cf. fr. *à merveille* ‘très bien, excellentment’.

⁸⁹⁴ Hemen *bait-* aurizkiaren erabilera menderakuntzaz landakoa, OEH-ren hitzetan “co-mo refuerzo de la afirmación en oración no subordinada” edo harridurazko erranalditan.

⁸⁹⁵ *Hauque* ‘hagoke’ forma markatuak ñabardura modalak adierazten ahal ditu, bereziki potentziala, geroaldia edo ziurgabetasuna.

⁸⁹⁶ ‘Segurtatu, konbentzitu (norbait zerbaitetaz)’. Perpaus honetan Jesusek bere diszipuluak segurtatzen ditu azken afaria *dela*. Galdera egitekotan instrumentala baliatuko genuke: *zertaz segurtatu?*

⁸⁹⁷ ‘Deleitar(se) / (se) délecter’. Iparraldeko tradizioan Oihenartengan baizik ez da dokumentatu. Cf. fr. *se régaler*, esp. *regalar(se)*.

⁸⁹⁸ Hemen *ongui* adjektiboaren mailakatzaille gisa baliatzen da, gure ustez erdararen eraginez. Cf. fr. *un autre aliment bien différent*.

suma dohaxuenen haren irrazteco⁸⁹⁹ zuien desircunde zinezco, eta amodio gartxuen batec haren errainac erretzen eta chiphiltzen⁹⁰⁰ zituela.

Beraz, hitz amurus hoc erran eta lehen afaria accabatu zutenian —oy Bettiriño, hauche duc gauza estonagarria eta ikhusgarria!—,⁹⁰¹ Salbatzaille Zerutar hura yayiqui-ten duc mahaitic, eta bere arropac utziric —zeren trabatzen zuten—, hala nola oyhal churi bat dabantail⁹⁰² harturic, untzi batian ur garbia harturic, abiatzen duc bere apostoluerri zanguen ikhuzten. Eguia erraiteco, costuma eta usaya zuian, juduen artian, mahayan yarri baino lehen oynen ikhuzteco, eta guziz phazcuac eguiten zituztenian; bainan ez duc izan egundaino zangoric hunen escu linyo⁹⁰³ lastan eta garbiez garbituric. Nahi izan zian salbatzaille zerutar hunec hunen discipuluac izan ziten garbi, zeren⁹⁰⁴ oraino egundaino ez emana, ez hartua < 164 > izan etzen yanhari prezios eta sacratu batez afalaraztera bait zuhan beriac, eta heyerri, eta heyen presunetan guri erakhustera emaiteco, dembora berian, eya zonbat garbitasunequin hurbildu behar guiren banquet edo bazcari ezohico^{905, 906} bezen garbi, lastan, eta sacratu hartara —erran nahi diat comunionera—.

BETTIRIÑO: Eta zer zen, yauna, afari extraordinario hura?

CADET: Bertzelaco, muthilla? Ez dayat yadanic erran niri^{907, 908} ez orainic deusic galde eguiteco?!

BETTIRIÑO: Arrazoin zuzenena duzu, jauna, eta barkha zadazut; mihiac laster eguin deraut.

⁸⁹⁹ 'Irabazteco', jakina.

⁹⁰⁰ Zizpildu, txipildu 'kiskali'.

⁹⁰¹ Hemen *ikhusgarri* adjektiboa da. Ikus *ikhusgarri* (11).

⁹⁰² Dabantal "tablier de femme, d'enfant" (H ap. Lhande); dabantail aldaera *Eskoliersa gaztea* kantant lekukotzen da: *tonaturik geldi ez dadin / zure dabantail xuria*.

⁹⁰³ *Lindo* > *linddo*. Ikus *lyndo* (4).

⁹⁰⁴ *zeren*] zen.

⁹⁰⁵ *ezohico*] ez ohico.

⁹⁰⁶ Egileak *ohicoez* baliatzen du. Ikus *ohicoez* (4) eta oharra.

⁹⁰⁷ *niri*] nihi.

⁹⁰⁸ Testuak bi maneratan ematen digu singularreko lehen pertsonaren datiboa, *niri* ohikoaz apart: *ni* (118, 165, 181) eta *nih*. Kontu grafiko hutsa da, zeinaren pean bokalarteko *r* ahularen erortzea baitatza (*niri* > *nii*, horregatik zenbaitetan *ni* ageri da), eta egileak *h* bat txertatzen du formak zerbait galdu duelako konszient baita. Kasu honetan hutsak balira bezala jokatu dugu, idazleak berak maizen baliatzen duen *niri* forma berrezarria.

CADET: Bainan zer zauc ikhus-garri huntaz, haurra? Nun zirete, zeru lurrac, eta guziz aingueru zerafin zerutarrac?⁹⁰⁹ Erreguen erregue bezala, yaunen yauna, esclabo aphil bati choilqui comeni zitzayon eguintzan. Eta ez choilqui bere discipulu maiten, bainan orainic munduan duien etxairic haundienaren oynetan yarria, erran nahi diat Judas infame, abarazios, traidore haren oynen garbitzen. Oy zer ikhusgarri estonagarria!

BETTIRIÑO: Yauna, ez da bada orai ere proochuric,⁹¹⁰ barkhatu⁹¹¹ behar derautazu.⁹¹² Yaunen yaun harc < 165 > bere apostoluerri oynac garbitu nahia gatic, hoyec, milaca esquerrac emanic, etzirela gauza hoyen zango xaxuac, escusatu⁹¹³ behar ziren?⁹¹⁴

CADET: Hortaz denaz bezen batian,⁹¹⁵ Bettiriño, ez badaquic ere, Yendone Bettiric,⁹¹⁶ zeinaren ganic abiatu baitzen eguintza guziz humil hunen eguiten, erran zacoyan bere bizitasunarequin: *Zer, Yauna, zuc niri*^{917, 918} *zanguac garbi?*⁹¹⁹ *Zuc, nagusiatic, discipulu undarrari? Zu, ene yauna, eta ni zure creatura ezdeusari*⁹²⁰ *bere zango indignuac garbi? Ez dut behin ere onhexico.*⁹²¹ Bainan salbatzaille zerutar harc erran zacoyan humilitatezco eguintza hura zela gaindadi edo misterio baten osamendua eta harc orainic endelgatzen etzuiena, bainan arras onxa endelgatuco zuiela Izpiritu Sainduiaren arguic eta dohainec mundua arguitu onduan, eta yaquiten zuenian humiltasunaren merechimendu ezin khondatuzcua, eta ezagu-

⁹⁰⁹ *Guziz* mailakatzaille zein paraberbial izan liteke hemen. Cf. *guziz egungo nescacha gazte urguluxu eta arinentzat* (55).

⁹¹⁰ *Ez da probetxurik* "Locution très usuelle signifiant: il n'y a pas à espérer quoi que ce soit, à hésiter, à délibérer, à choisir" (Harriet ap. *OEH*). *Proochu* aldaera baxenafarreran kokatzen da.

⁹¹¹ *barkhatu*] bakhartu.

⁹¹² *derautazu*] deraut azu.

⁹¹³ *Escusatu* 'excusarse de, evitar'.

⁹¹⁴ Perpaua, beste molde batez: *hoyec [...] hoyen zango xaxuac etzirela gauza, escusatu behar ziren?*

⁹¹⁵ *Denaz bezenbatean* 'por lo que se refiere a, en lo referente a, sobre, acerca de...'. Josu Pikabeak lapurterazkotzat jotzen duen erramolde hau ordezkaturia izanen zatekeen *den bezenbatean* baxenafarraz, ia desagertu artio XIX. mendean (1993: 92).

⁹¹⁶ *Bettiric*] Bettiri.

⁹¹⁷ *niri*] ni.

⁹¹⁸ Ikus *niri* (164).

⁹¹⁹ *garbi*] garbi garbi.

⁹²⁰ *ezdeusari*] ez deusari.

⁹²¹ *onhexico*] onthexico.

tzen⁹²² zuenian istantian⁹²³ heyerri emaitera yohan tzen^{924, 925} yanthorontze⁹²⁶ edo banquet sacratuen harc zonbat garbitasun grinaitzen⁹²⁷ zuen.

< 166 > Hoyequin guziequin ere, Bettiric orainic etzian utzi nahi Yainco haundi hura bere zanguen garbitzera, ez ikhusi nahiz berenaz haunditasuna dena eta bere nagusi maitia hainbertze taraino jauxia. Bainan, zeren Jesus Christoc erran zacon (eta mehachurequin) ez bazuen bere zanguen garbitzera uzten etzela guehiago haren discipulu izaren, eta haren adichquidetasun, dohain eta fabore guziez buluziric utziren zuela, orduian ihardetxi zangoyan Jendone Bettiric: *Ez choilqui, yauna, zanguac; bainan zure adichquidetasuna galdu baino lehen, besuac eta buruia ere.*

Garbitu zituenian, beraz, yaun haundi harc bere discipuluen zanguac, bere arropac harturic, eta erraiten zayelaric: *Zuieci orai garbiac zirete, bainan ez oro. Yarri zuian berriz mahayan, eta erran zayean: Ikhusi duzue zer eguin dudan zuiequin? Deitzen naut-zuie nagusia eta jauna, eta arrazoinequin, zeren halache nauc. Ikhas ezazuie, beraz, orai ene ganic, zuieci ere zerbitzariac eta discipuluac, < 167 > eta zuien ondotic yinen diren guzieci; ikhas ezazuie —zioac berriz ere— humilitatiaren etxerzatzen,⁹²⁸ zeren ni, zuien jauna eta nagusia, yautxi banaiz zuerri zanguen garbitzeraino, zuieci batzuieci bertzequin eguin beharco duzuie arrazoin guehiagorequin eguintza bera; ezic sehiac ez dituc nagusiac baino guehiago, ez eta ere apostoluac egorri ditueno baino guehiago urus, hau yaquinic eta sinhexiric obran emaiten⁹²⁹ dutena.*

Eguin zuenian beraz Salbatzaille zerutarrac⁹³⁰ bi garren afaria (edo ohicua), zeinaren egutian eman bait zaizten bere apostoluerri —eta heyen presunetan guri— conseilu salbagarri hec. Arranyatu zian hirur garren afari bat, guzia yaincozcuca eta mixteriotxua, zeinetan eman baitzayen bere discipuluerri egundaino munduan izan eta mahayan yarri zen yaquiric preziosena, eta zeinaren etchurapen eta figura

⁹²² *Ezagutu*-ren erranahi kanonikoan: ‘jakin’.

⁹²³ *istantian*] intantian.

⁹²⁴ *yohan tzen*] yohantzen.

⁹²⁵ Gogora bedi *yohan tzen* ‘zihoan’: *heyerri emaitera yohan tzen yanthorontzea* ‘le banquet qu’il allait lui offrir’.

⁹²⁶ Forma hibridoa < *jan* + *otorontze*.

⁹²⁷ Larramendiren hitza, “exigir”. Orain arteko lekukotasun bakarra Iztueta gipuzkoarra-rena zen: *Erri beraren sakabanatasunak ez grinaitzen ta ez zillegitzen du suertez ere* (1824).

⁹²⁸ *Etserzatu, exersatu, etserzatu...* ‘ejercer’.

⁹²⁹ Obratan eman “exécuter, obratan ematea” (Ht ap. *OEH*).

⁹³⁰ *zerutarrac*] zerutar.

argalac izan baitziren ordu artio eguinac izan ziren phazco guziac —erran nahi diat eman zayela bere apostoluerri bere gorphutz sacratua yanhari eta bere odol preziosa edari—.

< 168 > BETTIRIÑO: Jesus, aita! Yauna, zer erraiten dautazu? Biziric zaguelaric, eta orainic guelditzen zelaric, bere gorphutza yanhari eta bere odol preziosa edari?

CADET: Bai, haur maitia, bai; costuma zuian dembora hartan emaiteco mahayan ogui bat alisa,⁹³¹ edo alchagarric gabe eguina —zeinac deitzen ohi baitzuten azima—, eta aita familiacuac phartitzen^{932, 933} zuian zonbat ere presuna baitziren⁹³⁴ mahayan edo familia guzian eta hainbertze phusquetan, eta emaiten onduan bakhochari beria. Guisa berian eguin zian salbaitzaille zerutar hunec, eta orainic an-hitz guehiago, ezic hartu zian bere saindu eta sacratuetan ogui azimo hura, eta bere Aita bethicuari esquerrac eman onduan, hala nola benedicaturic, eman zayean apostoluerri bakhochari bere pharte tocatzen zitzayona,⁹³⁵ erraiten zayelaric: *Har zazue eta jan ezazue, ezic hauche ene gorphutza da; emaiten deraut-zuiet, zerbittza nadin dembora berian yan-hari eta bictima. Orai ofreitzen eta abrlitzen⁹³⁶ dut zuientzat nore bizia ogui pochi hunen etchuraren < 169 > azpian, bainan dembora laburric artian eguinen dut sacrificio odolezco bat, guizon diren eta izanen ere diren guzientzat.*^{937, 938}

Bainan, zeren zen orainic costuma edo usantza aita familiacuac mahayan ziren presuna guzien artian ogui azimo hura pharti⁹³⁹ eta oroc, bakhochac bere herroncan,⁹⁴⁰ erromanuen arabera, copa edo edan untzi⁹⁴¹ batetic edateco, eta zeren Jesus

⁹³¹ 'Pain fait de pâte non levée' (H. ap. *OEH*).

⁹³² *phartitzen*] phartzen.

⁹³³ *Partitu* 'partekatu / zatikatu'. Cf. *phartitu* (118).

⁹³⁴ Egitura korrelatiboa, 'tanto ... como': *aita familiacuac phartitzen zuian zonbat ere presuna baitziren [...] eta hainbertze phusquetan.*

⁹³⁵ Erlatiboa eskuin: *bakhochari bere pharte tocatzen zitzayona.*

⁹³⁶ *Abrildu* 'inmolar'. Cf. *abrilarazi* (19) eta irakur oharra.

⁹³⁷ *guzientzat*] guzient zat.

⁹³⁸ Erlatiboa eskuin: *guizon diren eta izanen ere diren [guizon] guzientzat.*

⁹³⁹ Hemen *pharti* aditzoina da subjunktibozko zentzuaren seinale, laguntzailea eliditua baita.

⁹⁴⁰ Cf. *herronca* (113).

⁹⁴¹ Hitz hau egilearen irakurgaiez mintzo lekiguke: "Al Norte esta palabra se usa relativamente poco, y se encuentra únicamente *edanuntzi* en el evangelio de Haraneder-Harriet y en Inchauspe" (*OEH*).

zerutar hunec etzuien batere zeremoniaric osatu gabe utzi nahi, hartu zian beraz copa edo khaliza bat arnuarequin, eta orobat⁹⁴² benedicaturic, eman zayean bere discipuluerri, erraiten zayelaric:⁹⁴³ *Har ezazuie eta edan khaliza huntaric, zeren den guzia ene odol propia da, zeinaren medioz eguiten baitut guizonarequin unione berri bat, zeinequin zerbitzaturen baitzaut ordenuzat heriuan borthan*⁹⁴⁴ *naizelacotz. Orainchet emaiten daut-zuet khaliza edo copa huntan, arnuaren echuraren azpian, laster khurutze dorpe baten gainian, mundu guziaren aitzinian, zuien eta guizon guzien salbamendutan ichuria izaren den odola; eta zuien obligatzeco nitaz eta ene pasione dolorosaz orhoitzera, emaiten dautzuiet orai podoria, indarra, eta autoritatia; eta dembora berian, ordenatzen daut-zuiet zuyec ere eguin < 170 > dezazuien*⁹⁴⁵ *sacrifizio bera, zuien eta mundu guziarentzat*⁹⁴⁶ *dudan amodiuaeren ezagunmendutan*⁹⁴⁷ *eta ene heriuaeren orhoitzapenetan.*

Bett[itrño]: Beraz holetan,⁹⁴⁸ yauna, zuiec yaun aphezec⁹⁴⁹ sacrificio bera eguiten duzuie?

CADET: Hauche⁹⁵⁰ duc, haur zorua! Ez hauque⁹⁵¹ istant bat ichilic? Bai, sacrificio bera eguiten diguc,⁹⁵² demboran ikhusico duian bezala. Bainan baineta⁹⁵³ edo diferentzia hunequin: Jesus Christorena izan duc odol ichurizcua edo cruenta, eta guria odol ichuriric gabia, zeren eguiazco yainco guizon harc behin choilqui bere odol preziosa ichuriric, Aita bethicuaren justizia ofenxatuia osoqui ordaindu,⁹⁵⁴ osatu eta satisfatu⁹⁵⁵ baitu. Bainan erran ezadac, choru: galde eguin beharrenac galdatu gabe uzten dituc? Zer zauc amodio pare gabezco huntaz? Norc

⁹⁴² *orobat*] oro bat.

⁹⁴³ *zayelaric*] zajelaric.

⁹⁴⁴ *borthan*] bortha.

⁹⁴⁵ *dezazuien*] deza zuien.

⁹⁴⁶ Genitibo destinatibo 'zuientzat'. Bestenaz pentsa daiteke *-tzat* hondarkiak sintagma osoa hartzen duela bere menpe, genitibo marka izenkiari berezkoago eta hurbilago zaionean: [*zuien eta mundu guziaren*] *tzat*.

⁹⁴⁷ *Ezagunmendu, ezagumentu* 'reconocimiento, gratitud'. Hegoaldeko testuetan baizik ez da lekukotzen.

⁹⁴⁸ *Holetan* "Así, así pues, por consiguiente" (*OEH*).

⁹⁴⁹ Hemen bermatzen da Cadet apez dela.

⁹⁵⁰ *Hauche*] hauch.

⁹⁵¹ Cf. *Eta ichilic istant bat ez hauque?* (162) eta oharra.

⁹⁵² Bat. *diagu*. Cf. *diguc* (33) eta ikus oharra.

⁹⁵³ Hapaxa, horren formarik hurbilena Hiribarrenek du emaiten: "*bainat différent, divers*" (ap. Lhande, zeinak galdera ikur batez markatzen baitu).

⁹⁵⁴ *justizia ofenxatuia osoqui ordaindu*] justizia ~~osoqui~~ ofenxatuia osoqui ordaindu.

⁹⁵⁵ Cf. *satisfactua* (79).

egun daino ikhusi eta hare⁹⁵⁶ gutiago aditu du, ez aita amec bere umeri,⁹⁵⁷ eta oraino gutiago adichquidec bere adichquide zinenerri ere bere gorphuza yanhari eta bere odola edari emanic? Bizquit-artian, pellicano⁹⁵⁸ amulchuen hunec eman dic ez choilqui bere apostolu hautatuerrri, bainan orainic munduan ahal zuqueyen etxairic cruelenari; < 171 > oh amodio paregabia, eta choilqui eguiazco Yainco guizon baten daco gay eta dignua!

BETTIRIÑO: Yauna, menturaz samurtuco zaizquit, bainan yauna, halere ez nauque,⁹⁵⁹ ez, zuri galde bakhar hau eguin gabe: nor edo zer zen Judas hura? Ezic ikhusten dut, yauna, zure mintzatzeco maneratic zonbait guizon gaichto izan behar zela...

KADET: Eguia duc, Bettiriño; hain zuian guizon gaichtua, nun batzuec erran nahi die bere aita hilic baratze bathian yoan zangola Salbazaille zerutar huni, eya errezebitu nahi zuienez⁹⁶⁰ bere discipuluen artian; eta —zeren jadanic erran daia-tan bezala, Salbatzaille⁹⁶¹ divino hau ez justuen, bainan bekhatosen onduan yina zen mundu triste huntara— errezebitu zuela, eta orainic eguin bere thesorero⁹⁶² edo molxero.⁹⁶³

Bainan abaraziosac diruarentzat⁹⁶⁴ comuzqui eguin ez dezaqueyenic ez den bezala —zeren jadanic zaquien juduac haren etxai cruelac eta errabiatuac haren on-

⁹⁵⁶ Ikus *hare* (71).

⁹⁵⁷ Ez bada hutsa (agerraldi bakarra baita), *-eri* dateke datibo pluralaren laugarren aukera, besteak *-ei*, *-er* eta *-erri* dira (ikus “Deklinabidea”, IZENAREN MORFOLOGIA atalean).

⁹⁵⁸ Sinbolo kristikoa: “Le pélican est le symbole de l’amour paternel, la fable voulant qu’il s’ouvre la poitrine avec son bec pour nourrir ses petits de son sang; c’est la raison pour laquelle l’iconographie chrétienne en a fait un symbole du Christ” (*TLF*). Euskal tradizioan ere dokumentatzen dugu: *O pelikano bihotzez Iesus maitatzekoa!* (Etxeberri Ziburukoa: *Elizara erabiltzeko liburua*, IV. araldea); *O amudio, o Jongoiko! O Pelikano saindua!* (Gazteluzar: *Egia katholicak*, “Penitentzia Saindua: Konfesionea”).

⁹⁵⁹ Hemen *ez nauque* ahalerazko baliorekin, ‘ez dut egoiten ahal’.

⁹⁶⁰ *zuienez*] zuien nez.

⁹⁶¹ *Salbatzaille*] Sabatzaille.

⁹⁶² Forma hau markatua da Iparraldeko tradizioan. Cf. *tresor* (68), *tresorriera* (158).

⁹⁶³ ‘Diruzain’ (Urt II 426 eta V 397, ap. *OEH*).

⁹⁶⁴ Bada Iparraldeko tradizioan kasu destinatiboaren markaren hedatzeko joera bat, frantsesaren eraginez. Horrela, *-(r)entzat* markak beste balioak har ditzake, hala nola motibatibo edo prolatiboarena. Motibatiboaren kasuan ordezkatzeko bat gertatu da, XVIII. mendean has eta XIX. arako osatua zatekeena (Pikabea 1993: 158). Bada gure testuan adibide gehiagorik: *ardit batentzat mila guezur erranic* (175). Beste erabilera batzuentzat ikus *dembora labor batentzat* (71) eta *ichiltasuna mezpertzio batentzat hartzen die* (191).

duan zabiltzala, eta hazemaitiaz anhitz plazer eta atxein ukharen zutela—, badihac beraz mamu nardagarri hau —Izcriptura Sainduian errana zen bezala Salbatzailiaren mahai berian jaten zutenetari⁹⁶⁵ bat haren contra alchaturen zela—; badihac, orai artaino choilqui Salbatzailiari amoinazat emaiten zaizcoten diruietari⁹⁶⁶ hamar garrena edo dechema ebasten ohi zangon ohoin abarazios hau —San Augustin haundiac dioyen bezala, < 172 > Debruiac arras poseitua, comunione indigno haren fruuta kharaxa—; badi-hac, eta halaco guisaz nun Debruiac ere ezin gueldiarazi baitzuien, ezic batzui⁹⁶⁷ erran nahi die Debruiac, beldurturic guizon miraculuzco haren heriotzetic zerbait malur haundi ethor,⁹⁶⁶ guibelatu⁹⁶⁷ nahi⁹⁶⁸ izan zuiela. Badihac —bainan helas⁹⁶⁹ zertara, Bettiriño, nahiz borondatezqui gure bekhatuez cargetua, eta gutiago zeru lurren Creatzaille etzen—⁹⁷⁰ Salbatzaille zerrutar haren traitzera. Eta helas hori noiz! Hau bere discipulu tristatuen consolatzeten, ondoco persecuzionen contra prebenitzen, eta guziz baquezco eta caritatezco amodio elgardun⁹⁷¹ hoyen baithan sorrarazten eta fingatzen hari zen demboran.

Oh lurra, oh lurra! Ez hiz hire Creatzailiaren fagore alchatzen? Idequiriric, urraturic, arroilduric; ez duc⁹⁷² mamu ifernutar hau biziric iretxico?⁹⁷³ Ez bihotza, ez; ya bictima balios hunen abrlitzeco dembora tristia ethorri duc! Iduri dic ya izaira⁹⁷⁴ guzia hunen contra alchatu dela, zeren borondatezqui bere Aita bethicuari bere buruia sacrificiotan ofreitu dion. Badihac beraz Judas Iscariotez, ohoin abarazios hura, judu odolguiro⁹⁷⁵ hetara haren esclabo izan baliz bezala, yaunen yaun eta nagusien nagusi hunen saltzera, erraiten dayelari⁹⁷⁶ eya zonbat eman nahi dactoten, eta bere nagusia edo Jesus Nazarengua⁹⁷⁶ nun < 173 > erakhuxiric emanen zayela. Eta, zeren judu itxu eta cruel hoyec etzuten bertzeric nahi eta chercatzen,

⁹⁶⁵ *zutenetari*] zuienetari.

⁹⁶⁶ *Beldurturic ... ethor [zedin]*. Cf. *beldurrez berac ebaxia zuien erresuma hura gal* (19) eta ikus oharra.

⁹⁶⁷ ‘Reculer’.

⁹⁶⁸ *nabi*] nahin.

⁹⁶⁹ Desplazer, min edo auhena adierazten duen interjekzioa (< fr. *hélas*).

⁹⁷⁰ *Nahiz* kontzesiboaren menpekoa.

⁹⁷¹ ‘Recíproco, mutuo’ (Larramendi).

⁹⁷² Lurrari toka.

⁹⁷³ Iduri hau *topos* bat da erlijionezko literaturan: *Noulaz lurra ezta ideki içan hain monstre orrible baten biciric iresteco?* (*Othoitce eta Cantica Espiritualac. Çubero Herrico*, 20); *Batzuetan lurra arrailatu du gaixtaginen bizirik iresteko* (Baraziart: *Giristinoki bizitzeko eta hiltzeko moldea*, “Meditazionea infernuaz”).

⁹⁷⁴ ‘Natura, unibertsoa’, ‘Realidad, existencia’ (Larramendi).

⁹⁷⁵ ‘Cruel’, ‘feroz’, ‘fiero’, ‘sanguinario’ (Lar).

⁹⁷⁶ Ikus *nazarentar* (33).

baizic bere escu odol gosen⁹⁷⁷ bictima garbienen hunen odolian trempatzia,⁹⁷⁸ hitz emaiten dacoye hogoi eta hamar diru phezetan —erran nahi dic hamalaur libera eta zombait cornado, orduco moneda aphurto bat goiti beheiti—, eta guero Judasec eman zayean seinalia han⁹⁷⁹ nor ere besarcatuco baitzuien eta hura zaitequeyela heyec hainbertze dembora hartan chercatzen, eta heyen erregue bere buruia eguiten zuyen opeator⁹⁸⁰ famatu hura, ongui hatzemaiteco eta segurqui achiquitzeco.

Badazic⁹⁸¹ beraz, Bettiriño, traidore infame hau aitzinian, soldado compaynia bat harturic goernadoriaren guardiatic, ofiziale mulho bat guidari, eta heyequin escribau, farisayo, juye eta aphez nagusien muthilac juntaturic; batzu laternequin,⁹⁸² bertziac torchequin; hala nola hoc espatequin, hec maquilequin harmatuac zirelaric. Bada-zic beraz enbidia beltzenena⁹⁸³ muitzaille⁹⁸⁴ eta obraric admiragarrienac arrazoin, instantian hequientzat eta mundu guziarent,⁹⁸⁵ bere discipulu maiterri undar adiuva erranic, lurra odol izerdi batez busti duien haren ohoin gaichtaguin haundi bat izan balíz bezala, Olivetaco⁹⁸⁶ Baratzian preso hartzera. Hurbildu⁹⁸⁷ direnian beraz baratze doloros hartara, abiatzen < 174 > duc Judas traidore hura aitzinian, eta bere nagusia ikhusi duienian erraiten dioc: *Agur nagusia*, eta besarcaten dic, amorecatic yadanic seinalia eman izan zayen bezala, ezagut zezaten hura eta bera zela Jesus Nazarengua.

Ikhusac, Bettiriño, abariziuac zer eguin araz ez dezaqueyen!⁹⁸⁸ Orainic bere nagusi ezagutzen duielaric, nagusi guisa tratatzen duielaric, eta agurt-zen, bere abara-

⁹⁷⁷ Orai artio *odol egarri*.

⁹⁷⁸ Bestenaz adieraziz: *ez zuten bertzeric chercatzen, baizic bere escu odol gosen trempatzia bictima garbienen hunen odolian*.

⁹⁷⁹ *han*] har.

⁹⁸⁰ *Opeator* < fr. *opérateur* “charlatan qui vende drogues dans les places publiques. Marchand d’orviétan, charlatan”, XIX. mende artio. Hau da, ‘bere burua errege aurkezten duen engainatzailea’ (Jesus).

⁹⁸¹ *Badazic* bat. *bazoazak*.

⁹⁸² *Laterna* ‘linterna’ (Dv. ap. *OEH*).

⁹⁸³ Superlatibo pleonastikoa.

⁹⁸⁴ *Mugitzaille* ‘Movedor, incitador’ (H. ap. *OEH*).

⁹⁸⁵ Iduri luke genitiboaren gainean eransten den destinatiboaren atzizkiak bi elementuetan agintzen duela; ‘hequientzat eta mundu guziarentzat’. Ohart bedi *-t* akabantzaz: *guziarent*. Cf. *zuien eta mundu guziarentzat* (170) eta ikus oharra.

⁹⁸⁶ *Olivetaco*] Elivetaco.

⁹⁸⁷ *Hurbildu*] Hurbil du.

⁹⁸⁸ Negazio espletiboa. Cf. esp. *qué no puede provocar la avaricia*.

zio bethi gosiari satisfatzen dic. Ez duc dudaric traizione infame hau etzela Salbazzaille zerutar haren tormentaric ttipiena, bainan den bezala ere, guizontasunari baxharic casic imposible dena, errezebitzen dic Salbazzaille zerutar harc ez bere etxay bat, eta gutiago gaizqui⁹⁸⁹ nahi zangon sujet dohacabe⁹⁹⁰ bat bezala, bainan bai bere adichquide uste gabez⁹⁹¹ exaitu bati bezala, ezic erraiten dioc: *Zertara hel-du zira huna, adichquidea?* Ya iduri liquec⁹⁹² errezebitze (edo hobequi erraiteco Jesusen amodiaren undar seinale hau) asqui behar zela Judas cruel hunen bihotzaren ez choilqui hunquitzeo, bainan orainic erdiratzeco, alzeiruzcua izanic ere, bainan ez, comuzqui abarazioserri guerthatzen zayena: gauac egun eguinic, < 175 > bere osâasuna⁹⁹³ galduric, bere ohoriaz buluziric; ardit batentzat⁹⁹⁴ mila guezur erranic, debruijerri bere arima salduric, bethi bere idola diruzco hunen onduan dabilzac. Guisa berian, mamu narda garri soryes⁹⁹⁵ hunec pôt baten moyenez zeru lurren Yaincua salduric, bere nagusi maitia etxai odol egarriener libraturic, ya bere eguintzac accabatu balitu bezala; bere nagusi maitiaren hitz amuruxuer khasu guti eguinic, yoan zuian bere hogoy eta hamahirur diru phezen onduan, nahiz guti proochurequin. Onduan dolutu zangon.

Bainan Bettiriño, zer dezaque⁹⁹⁶ guizonen amarruac eta deseinu nabarrec, nahiz indarrarequin, Yainco guziz ahaxu baten contra? Nahiz traidore falxu hunec pôt egundaino munduan izan den esquer-gaitz eta ingratenen batez⁹⁹⁷ erakhuxi dayen, yadanic ez die ezagutzen zoin zen. Necesario izan zucan, beraz, Salbazzaille divino edo zerutar harc —edo hobequi erraiteco bildoch amulchuen harc— otxo errabiatu hoquierri bere buruia salha zezan.⁹⁹⁸ Hortacotzat presentatzen duc ez bildoch amulchu bezala, bainan bai juye soberano bezala, nahiz otxo odol gose hoc guti

⁹⁸⁹ *gaizqui*] gazqui.

⁹⁹⁰ *dohacabe*] doha cabe.

⁹⁹¹ *Uste cabe* nahiz *uzte gabe*. Bidenabar, marka bedi beste hitzetan, loturik, *cabe* idazten duela, seinale lexikalizazio prozesua burutua zela: *dohacabe* (6...), *atxecabe* (100, 194).

⁹⁹² *iduri liquec*] iduriliquec.

⁹⁹³ Ikus *osaasunaren* (43) eta oharra. Cf. *osâagarri* (121).

⁹⁹⁴ Destinatiboaren adiera motibatiboa. Cf. *abaraziosac diruarentzat comuzqui eguin ez dezaqueyenic ez den bezala* (171) eta ikus oharra.

⁹⁹⁵ *Sordies, sorjes* (< gask *sordeix*). “Il se dit d’une personne, d’une chose désagréable, insupportable, difficile” (H. ap. *OEH*).

⁹⁹⁶ **Ezan* aditzaren erabilera trinko, nagusi bezala. Ohar bedi numero komunztadura egin gabe; *dezaquete* behar luke.

⁹⁹⁷ Erlatiboa eskuin: *pôt egundaino munduan izan den [pôt] esquer-gaitz eta ingratenen batez*.

⁹⁹⁸ Datibo komunztadura eza. Bada *zezola* (81), *ziozola* (43) & *ziotzon* (127), baina ez pluraleko 3. pertsonaren datiboarekiko konkordantzia duen **ezan*-en formarik.

proochatuco diren, eta heyen indarra⁹⁹⁹ meziprezaturic, erraiten dayec: *Noren onduan zabil zatezte*¹⁰⁰⁰ *Zer cherkhat-zen duzuie?* < 176 > Hoyec ihardexi zacoteyan: *Jesus Nazarengua!* Orduian hunec erran zayean: *Ni naiz*. Eta hitz bakhar hau aho sacratu hartaric ilkhi zen bezen laster, ozpina¹⁰⁰¹ colpu¹⁰⁰² ikharagarri bat izan baliz bezala, guziac erort-zen¹⁰⁰³ dituc lurrera; ya nahasiac, nun ziren, zer ziren, zertan zabil-tzan ere casic etzaquitean.

Yaqui¹⁰⁰⁴ zirenian beraz malurus hoc, erorico uzte¹⁰⁰⁵ gabe bezen ikhara-garri huntaz estonatuiaic, suprenituiac, izituiac eta harrituiac,¹⁰⁰⁶ dudaric gabe etzituian berriz menturatuco Salbatzaille zerutar hunen hunquit-zera ere. Bainan bildoch amulchu hau, zeinaren odol garbia baitzabilan hunen zain sacratuetan guizonen erospeneco obra haundienaren osatzeco, berriz beraz otxo ikhustate gabe hoyen aitzinera presentaturic, erran zayean Jesusec: *Noren onduan zabilzatezte*¹⁰⁰⁷ *Jesus Nazarentarraren*¹⁰⁰⁸ —ziotec—. [Jesusec:] *Ez daut-zuiet yadanic erran ni naizela? Bainan beraut-zuie*¹⁰⁰⁹ *edo hobequi erraiteco debecatzen daut-zuiet, Jainco guziz puyant bezala, hunqui deza-zuien den gutiena ere ene discipuluetaric, amorecatic osa dadin Aita bethicuari eman*¹⁰¹⁰ *izan den promes sacratua: “Beretzat < 177 > hartu zituenetaric edo hautatu, bat ere ez du galdu”*.

Bainan Bettiriño, zer den itxutasuna eta hunen ondorioac! Zoin diren soryesac, judu esquer gabe hoc! Bere esturdimendu edo uzte gabetasun hartaric errebenitu¹⁰¹¹ zirenian, adonatu beharrian guizon hura —zeinaren autoritate puyantena eta amulchutasunic engaya garriena ikhusi eta phoroatu baitzituzten—¹⁰¹² lotzen

⁹⁹⁹ *indarra*] indarraz.

¹⁰⁰⁰ Forma pleonastikoa (bat. *zabilzate*).

¹⁰⁰¹ Ikus *hire ozpina* (100).

¹⁰⁰² *Kolpe, kolpu* indar naturalekin erabil daiteke: *haize kolpe, itsas kolpe, eguzki kolpe* etab. Sail horretakoa da *ozpina kolpu*.

¹⁰⁰³ *erort-zen*] errort-zen.

¹⁰⁰⁴ ‘Jaiki’.

¹⁰⁰⁵ Hiperzuzenketa, beharbada. Cf. *ezcritura* (27). Guztiarekin, *uste* grafiak 22 agerraldi du.

¹⁰⁰⁶ Gradazio laukoitza.

¹⁰⁰⁷ *zabilzatezte*] zabil zatezte.

¹⁰⁰⁸ Ez da *noren onduan* galtoari ihardesten, *noren-i* baizik.

¹⁰⁰⁹ *Berautzuie hunqui*. Pasarte honetan susmatzen ahal da egituraren kutsu herrikoia: *edo hobequi erraiteco debecatzen daut-zuiet, [...] hunqui deza-zuien...* Cf. *berautzuie trompa, berautzuie enguena!* (36).

¹⁰¹⁰ *eman*] ema.

¹⁰¹¹ Cf. fr. *revenir* “retrouver ses esprits après une émotion violente” (TLF).

¹⁰¹² *baitzituzten*] baitzi tuzten.

zaizcoc otxo errabiatu bat bildoch amulchu bati bezala, eta estecaturic ohoin gaichtaguin bat bezala, eta precozione¹⁰¹³ haundirequin garrotatzen¹⁰¹⁴ die, bel-durrez escapa.¹⁰¹⁵ Discipuluac, bere baitharic yauziric bezala, eta ikhususiric bere nagusi maitiaz gabetzera yohan zirela, abiatzen dituc bere nagusiaren defendatzen, erraiten dacotelaric: *Yauna, nahi duzu espatetan gure escuiac eman ditzagun zure defendatzeco?* Bainan Bettiric, zeren zen guziz fina eta bizia, nagusiaren arraphostuia iduriqui gabe, bere espata bere maynatic¹⁰¹⁶ atheraric phicatzen dioc beharri bat Malco aphez haundiaren muthilari.

BETTIRIÑO: Yauna, onxa eguin zuien Bettiric; nic ez choil beharria, bainan orainic buruia, besuac eta zanguac ere ebaquico naizten!

< 178 > CADET: Bizquit-artian, Bettiriño, Salbazaille zerutar harc etzian onhexi eguintza hau, ezic erran zayean bere discipuluerrri, eta guziz Bettiri supherrari,¹⁰¹⁷ emaiteco ezpatac bere baynen barnian, etzela orduian dembora defendatzeco, baizic sofritzeco; eta etzuiela harc ez ezpata, ez soldado beharic, nahi bazuieren bere buruia defendatu, erraiten zayelaric dembora berian erran comun edo atzioma hau: nor ere autoritate propiaz eta mendequiozco¹⁰¹⁸ izpiritu batez harmez zerbitzatuco baitzen, goiz edo berant harma berez galduia izaren zela. Eta dembora berian, hurbiltzen zelaric Malcos-en ondora, ezartzen dioc¹⁰¹⁹ bere beharri phicatu bere lekhuian, eta istant berian sendotzen dic.

Iduri liquec miraculu miragarri bezen claro hau asqui behar zela biltzarre errabiatu eta furios haren bere baithan sarrarazteco; bainan ez, bere errabimenduac halaco guisaz itxutu ditic, nun bere endelgamenduaz ya gabetuac dituc, eta hoyen bihotz cruelac isthil¹⁰²⁰ bihurtuac; eta hola, bere beguien aitzinian duten justiziazco eguzquiaren erreynuac etzaztec zerbitzaten, isthilaren guisa, guehiago gogortzeco

¹⁰¹³ *precozione*] precozionen.

¹⁰¹⁴ “Lier fortement” Harriet apud *OEH. Kriminel bat bezala estekatü eta garrotatü baitzütten* (Laneufvilleren katixima, 43).

¹⁰¹⁵ Cf. *beldurrez berac ebaxia zuien erresuma hura gal* (19) eta ikus oharra.

¹⁰¹⁶ *Baina > maina*. Gogora bedi anitzetan /b/ eta /m/ hots ezpainkarien arteko muga lautotua izan dela (cf. *minagria*).

¹⁰¹⁷ “Soberbio, magnífico” (*OEH*). Corpus Arakatzaillearen emaitzak: Mihura, Camussarry, Duvoisin eta Webster.

¹⁰¹⁸ *Mendekio* ‘venganza’.

¹⁰¹⁹ *dioc*] diot.

¹⁰²⁰ ‘Lohi’, ‘fango, lodo’, zikinkeria eta lizunkeria ere idurikatzen du. Faltsukeriari ere lotzen zaio: *Ixtila bezen falsua, ustela*. Hiriart-Urruty ap. *OEH*).

eta itxutzeco baizic. < 179 > Baderamaye beraz Yaincuaren Semia, eta zeru lurren Creatzaillia, eta Jaun soberanua, gaichtaguin bat izan baliz bezala estecatuiac, eta nahiz¹⁰²¹ bere escuiac estecatuiac, bere eta bere discipuluen beiratzeco ya capable izan ez baliz bezala. Baderamaye bidian oyhu garrachi, irhinzinaca, alegueraqui, bere buruiac laudat-zen zituztelaric izigarrico bictoria bat irabazi balute bezala. Baderamaye lehenic Anas Cayfas-en aita-guinharrebaren etchera, zeinac urthe hartan prezisoqui baizen aphez-haundi, eta zeinac yadanic erran baitzuien populu guziaren salbatzeco comeni zela hila izan zadin guizon bat. Anasec, ez bat ere Cayfas baino hobiac, anhitz atxein hartu zian ikhustiaz ezin khondataquiró¹⁰²² hastio¹⁰²³ zuien guizon hura¹⁰²⁴ hartuia eta estecatuiac, eta zeren zaquien Cayfasec ere anhitz atxein hartuco zuiera, egortzen dioc berehala Jesus, zagon bezala estecatuiac eta garrotatuiac, amorecatic etxamina eta hiltzera condemna zezan.

Yaquin zuenian beraz Cayfasec Jesus haren etcherat heldu zela, berehala ekharraazi¹⁰²⁵ zitian bere etchera aphez escribau eta populuco zaharrac, zeinac guziac anhitz alegueratu baitziren guizon miraculuzco hunen preso < 180 > ikhustiaz. Bere etchera heldu zangonian beraz Jesus zerutar hau, abiatzen zaizcoc aphez haundiac examinatzen, ederrenac canpuan, malezia golkhuan, justizia escrupulosena etchuran,¹⁰²⁶ galde eguiten zacotelaric eya haren discipuluac zer yende suerte eta mota ziren, eta nola bizi ziren, eta hunen beraren bizia ere zer zen, eta bere discipuluerri guziz zer erakhusten zayen. Eta hauche zuian, Bettiriño, ichilquiró acusatzia Salbatzaille zerutar hunen: esanguia¹⁰²⁷ edo maxima gaichto caltecor batzu erein zituela, eta hola, hau seguitzen zuten guizon chinpliac eta discipulu choruac gaichtaguin eta conziencia gabezco yende mota batzu zirela.

Bainan Jesus Christoc, nahiz afruntu eta inyurio hoyen bictima bere nahiz eguina —zeren etzen yadanic, ikhusi duian bezala, gutiago Yainco—, ezagutzen

¹⁰²¹ Ez da kontzesiboa: ‘nahirik’.

¹⁰²² -kiro atzizkia, adberbioen eratzeko: *khondataquiró* (179), *ichilquiró* (180), *aguertuquiró* (187).

¹⁰²³ ‘Herra’, ‘higuintza’.

¹⁰²⁴ Gramatikatik begiratuac, erlatibo honen zentzua anbiguo da, *guizon hura* ez baita *hastio zuiena*, Anasec harenganako hastio duela bazik.

¹⁰²⁵ Aditz arazleen egongaiztasun grafikoa. Cf. *oharraraazy* (156), *ekharraazten* (198), *sinhex-araazteco* (203), *ahatz-zarazten* (204).

¹⁰²⁶ *etchuran*] ~~echuran~~ etchuran.

¹⁰²⁷ “Adagio, axioma” (Larramendi). Ohart bedi -a organiko duela, *Hiztegi Hirukoitz*-ean ez bezala. Abisa, halaber, egileak *esan* erroa errespetatu duela, bere hizkerara moldatu gabe. Cf. *gueiruditu* (186), *loiquille* (205).

zituuelacotz beraz ez choilqui campuac, bainan orainic bihotzetaco phenxamen-
duric gordetaraino, ihardetxi ziotean beraz hipocrit¹⁰²⁸ ifame hoquierri etzirela
haren biltzarriac¹⁰²⁹ gordezcuac, ez secretac, ez eta ere gabazcuac; < 181 > eta haren
maximac, gaindadiac eta mixteriuac nihorec endelga etzizaqueyenac; contrarat,
bethi mundu guziaren aitzinian eta publicoqui mintzatu zela, eta urrun ilhunbe-
taric, bere doctrina edo irakhastea lekhuric clarenenetan,¹⁰³⁰ heyen templu eta si-
nagoguetan erakhuxi izan zuela.

Eta onduan, orainic erran zacoyan aphez haundi huni: *Balin bahu niri*^{1031, 1032}
*zerbait hoben bisayala*¹⁰³³ *emaiteco, ene biltzarriac gabazcuac izanic, edo zerbait*
*gauza gaichto erakhuxiric, ez hindaque*¹⁰³⁴ *guphidaz egon; orduian nore buruia de-*
*defendatu edo debecatui*¹⁰³⁵ *beharco niquec, neure buruiac arranguratzen*¹⁰³⁶ *naizalaric.*
Bainan guziac contrarat guerthatu direnaz gueroz, zertaco examinatzen nauc berenaz
hunen claro, publico, eta orainic hihorec yadanic daquit-zazquian^{1037, 1038} *gauzez?*
Eta menturaz ez badaquit-zac ere zer diraden ene doctrina eta maximac, galde
*eguintz-quic ni behin baino guehiagueta*¹⁰³⁹ *aditu nautenei, zeinac ez baitira gutiac,*
eta heyec erranen daye arrazoinequin zer erakhuxi diotedan, eta zer ikhasi duten.

Etzuian possible, Bettiriño, Salbatzaille zerutar harc emaitia arraphosta bat zu-
zenago eta < 182 > justuiago bere inozentziaren causaren gainian. Bizquit artian,
nahi duc yaquin zer, ez segurqui merechitu, bainan ukhan duien? Haren modes-
tiac beharri ondoco ahalgue correnen bat ukhan zian errecompentxa-zat, zeinac
eman baitzacon saryant¹⁰⁴⁰ edo ucher¹⁰⁴¹ indigno batec, erraiten zanguelaric, hain-

¹⁰²⁸ *hipocrit*] hipocric.

¹⁰²⁹ *biltzarriac*] biltzarria.

¹⁰³⁰ Superlatibo pleonastikoa, *clar-en-en-etan*.

¹⁰³¹ *niri*] ni.

¹⁰³² Ikus *niri* (164).

¹⁰³³ Ikus *Yudeala* (19).

¹⁰³⁴ Bat. *hintzateke* nahiz *hinteke*, behenafarreraz *izan* eta **edin* berdin jokaten baitira
NOR saileko alegialdian: *nindake, hindake, litake*... Cf. *Banaki koplán, josta nindake gogotik,*
aldizkatuz murdeeta urde (Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*).

¹⁰³⁵ *Defendatu edo debecatui*: bi aditz hauek erranahikide izan daitezke soilik ‘prohibir’
adieran, eta ez, hemen bezala, ‘defender’ gisa.

¹⁰³⁶ *arranguratzen*] arrangutzatzen.

¹⁰³⁷ *daquit-zazquian*] datquit-zazquian.

¹⁰³⁸ Bat. (*hik haiek*) *dakizkian*. Objektuaren pluralgile bikoitza du *daquitazquian* formak;
besteetan *-za-* baizik ez da ageri: *bazaquitzan* (106), *badaquitzac* (181), etab.

¹⁰³⁹ Ikus *guehiagueta* (35).

¹⁰⁴⁰ *Saryant* ‘alguacil, oficial de justicia’

¹⁰⁴¹ “Ujier, empleado subalterno de algunos tribunales” (*OEH*).

bertze errespecturequin Salbatzaille zerutar hura mintzatu onduan aphez nagusiari, zerbaitetan¹⁰⁴² hux eguin balaco¹⁰⁴³ bezala, eya hala mintzatu behar zangonez apez haundiari. Eta beharri ondocua ez choilqui escu hutkez, bainan justiziaren asquen¹⁰⁴⁴ ministro bezala escuietan zuien zigarro¹⁰⁴⁵ edo zaharo¹⁰⁴⁶ batez, erran nahi dic, Bettiriño, desohoria desohoriaren gainian: erromanuen artian esclabuac choilqui yoiten zituzten tresna¹⁰⁴⁷ batez zaflaco bat eman zangola.

[BETTIRIÑO]: Ah Jesus zerutarra! Posible daya zeruan aingueru zerafinez ikharan laudatua, ohoratua eta adoratua zinen¹⁰⁴⁸ demboran, izaren zinen¹⁰⁴⁹ ez choilqui erromano ohoretxu bat bezala ere, bainan esclabo < 183 > aphal desohora garri bat bezala tratatua?

Bai, Bettiriño; nahiz Salbatzaille zerutar hunec etzuien deseatzen sofritzia baizin —zeren bere nahiz eta libertate osuarequin bere buruia, seme maite eta leyal bezala, bere Aitari sacrificiotan ofreitu zangon—, halere, afronto¹⁰⁵⁰ hau hain izan zuian haundia eta beltza, nun bildox amulchu hau arranguratu baitzen, eta erran baitzayen, hainbertze eztitasunequin nola zuhurt-ziarequin, eya zertaco hala uspelcatzen¹⁰⁵¹ zuien: gaizqui mintzo bazen, erakhusteco zertan; eta ongui mintzo bazen, zer arrazoin zuien.

¹⁰⁴² *zerbaitetan*] zer baitetan.

¹⁰⁴³ **Eradun*-en forma, bat. *balio*. Baxenafarreraren eremukotzat jo dezakegu, besteak beste honako egileek baliatzen dutelakotz: Etxamendi *Bordel* (Luzaide), Moulier *Oxobi* (Bidarra), J. Etxepare (Jatsu).

¹⁰⁴⁴ Cf. *aste asquena* (158).

¹⁰⁴⁵ Lekukotu gabea. Ez da hutsa, aitzinago ere ber zentzuaz kausituko baitugu *zigarro* hau: *bere escuietaco zigarruez yoiten zutelaric* (194). Gehiago espero liteke *zigor edo zaharo*; euskararen corpusean hiru adibide kausitzen dugu non *zigor* eta *zaharo* sinonimotzat hartzen baitira, hirurak behenafarreraren eremukoak: Hazparneko Léon (*zigorra eta zaharoa baizik ez ditut hartze* (*Imitazionea*, 52. kap.)); Garaziko Barbier (*zigorraz, zaharoaz jo, ala thu egin, bardinera zoan* (*Supazter xokoan*, 9)) eta, batez ere, Isturitzeko Joannatéguy (*Manucak eman zuen berehala manua, fundi eta xehaka zetzatela guziak, azote eta zigor edo zaharo ukhaldika* (*San Benoaten bizitzea*, 14)). Esplikabide gisa, *zigarro* hau *zigor* hitzarekin lotzekoa dateke, beharbada *zigorra* > *zigarro* metatesiaren bidez.

¹⁰⁴⁶ “Vara / verge” (*OEH*).

¹⁰⁴⁷ *tresna*] *trena*.

¹⁰⁴⁸ *zinen*] *ziren*.

¹⁰⁴⁹ *zinen*] *ziren*.

¹⁰⁵⁰ Aldaera lekukotugabea (cf. *afrontu*).

¹⁰⁵¹ “Causer ou recevoir des meurtrissures en plusieurs endroits du corps”, Harriet ap. *OEH*.

Ya ikhusi duc, Bettiriño, lehen etxamina etzela zerbitzatu judu esquergaitz, odol gose, carrotuxu¹⁰⁵² hoquier bere confusione, eta gaichtaguin bat bezala garrotatua zaucaten inozent garbi hunen¹⁰⁵³ ohoretan eta abantailetan baizic. Bainan, zeren catamotz¹⁰⁵⁴ cruel hoyec zer nahi den gostaric bictima garbi, linyo, lastan eta cristal¹⁰⁵⁵ hunen¹⁰⁵⁶ odolian bere escu zikhinac trempatu nahi zituzten, bertze moyan bat harturic —edo, hobequi erraiteco, hunen eguia haundieri senxu falxu bat emanic—, orhoitzen dituc beraz Salbazaille < 184 > zerutar hunec bere erakhastiaren gainian eman izan zayen errephostaz.

Yaquitia comeni duc asqui zutela hura aditu zutenei galde eguitia eya haren doctrina zer zen; zer eguiten dute, beraz, zerbait atzequia edo arrazoinaren echuraren bederen ukhaiteco? Zeren —yadanic erran dayatan bezala— zer nahi den gostaric hil nahi zuten, cherkhatzen ditie¹⁰⁵⁷ beraz bi lekhuco falxu diruiaren borchaz —eta zeren ezten, erran comuna den bezala, gakho hunec idec ez dezaqueyen bortharic asqui¹⁰⁵⁸ borthitizic—;¹⁰⁵⁹ eta hola, anhitz nekhatu gabe, hatzemaiten ditie bi lekhuco traidore infame hoc. Bainan, zeren etzaieten eman debriaren discipulu hoquierri demboraric asqui elgarren artian adosteco, bildoch amulchu hunen contra zerbitzatu ustian eta nahian, bere buruien eta autoritate gabezco yuyen confusionetan zerbitzatu zituian, ezic etzituian ados ez bere artian, ez frogatu nahi zuten gauzaren gainian, ez leguiaren, ez justiziaren phonduietan.

Bainan undarrian erakharrarazten¹⁰⁶⁰ ditie bertze < 185 > bi lekhuco, lehenbizico bi hoc tonto eta bano bezen —etchurapenez bederen— adretac eta amarutxuac, zeinac bieco, boz batez, erran eta declaratu baitzuten aditu zutela Jesus zelaco hura erraiten, heyen templuaz mintzo zelaric, azpiaz gainera iraulico zuela templu hura, bainan guero, hirur garren egunian, berri berritan berriz¹⁰⁶¹ errestablituco eta eguinen.

Eguia duc, Bettiriño; Salbazaille zerutar harc erran zian, ez hequien templu magnifico hartaz mintzo zelaric, bainan bai bere gorphuz sacratuaz, hau: *Eta pho-*

¹⁰⁵² Hapaxa. Ez dugu ele honen aztarnarik hatzeman.

¹⁰⁵³ *hunen*] hunen hunen.

¹⁰⁵⁴ Ikus *catamotz* (17).

¹⁰⁵⁵ Ikus *nescacha chrystal* (4).

¹⁰⁵⁶ *hunen*] huen.

¹⁰⁵⁷ Hikako moldea, 'haiek haiek' (bat. *ditiztek*).

¹⁰⁵⁸ *asqui*] azqui.

¹⁰⁵⁹ *borthitizic*] borthitiz.

¹⁰⁶⁰ Aditz faktitibo hiperkarakterizatua edo pleonastikoa: *erakharrarazten*.

¹⁰⁶¹ Cf. *berriz berri berritan* (20, 75).

*rrochca zazue templu hau, bainan nic, nore autoritate propiz eta ahalez, hirur garren egunian berriz eguinen diat. Gaizqui, beraz, edo hobequi erraiteco hunen senxu ona falxuturic accusatzen die; bainan den bezala¹⁰⁶² ere, oranic ez die hoyen lekhucotasunec deus ere balio, zeren orainic ez dituc¹⁰⁶³ accort; ezic lehenac ziyoyan aditu zuiela, Jerusalemeco templu magnificuaz mintzo zelaric: *Nic guizonez eguina den templu hau azpiaz gainera irauliric hautxico diat, eta nihoren laguntzaric gabe hirur egun choilez bertze bat eguinen. Eta bi garrenac zioyan choilqui aditu zuiela: Nic haux zezaqueyat Yaunaren templuia, eta eguin bertze bat hirur egun choilez. < 186 > Ikhusten duc, Bettiriño, zoin ados diren lekhuco hoc?**

Bizquit-artian, Caifas aphez haundi Jesusen etxai odol gose hunec, lekhuco infame, falxu, sabel zuri¹⁰⁶⁴ hoyen falxaqueria ezaguturic, mehachaturic, eta merechitu zuten bezala, guphidexi¹⁰⁶⁵ gabe garrazqui castigaturic, erraiten dioc oraino Jesusi, aire urguluxu eta autoritatezco batequin, eguiazco lekhuco batzu izan balire bezala: *Ez duc arraphostaric bat ere emaiteco hire accusazaille hoquien contra?*

Bainan Salbatzaille divino hau, hemen ere, orainic ichilic egon zuian, hiri eta niri eta mundu guziari erakhustera emaiteco zoin discret izan behar guiren solasetan, choilqui galde neseariuerri arraphostuien¹⁰⁶⁶ emaitiaz contentatzen guirelaric, ema char¹⁰⁶⁷ batzuien guisa ttar ttar, solas molas gauzezetan¹⁰⁶⁸ egon gabe. Iklusiric beraz Cayfas gaitxegarri hunec, merechi zuien bezala, mehatchaturic baino Salbatzailliarren ichiltasun huntaz mesprezatuia guelditzen zela, harturic beraz etchura serios, eta autoritatezco aire gueiruditu¹⁰⁶⁹ bat, erraiten dioc: *Othoitzten hit, Yainco biziaren*

¹⁰⁶² *den bezala*] dem bezala.

¹⁰⁶³ *dituc*] ditut.

¹⁰⁶⁴ Euskaraz zenbaitek *sabel zuri* erraten diote iruzurkeriatan dabilenari. Hitzak badu arrabots historikoa: *Urthubiarrak ziren deitzen sabel-zuri; / Senpertarren izena berritz sabelgorri. / Mila sei ehun eta berroita hamekan, / Urthubiak Senpere ezarri estekan* (Hiribarren, *Es-kaldunac*, 1853).

Cf. *sabel zuri nabar, amarutxu, hipocrit hunec* (189), non eremu semantikoa argi gelditzen baita.

¹⁰⁶⁵ *guphidexi*] guphitdexi.

¹⁰⁶⁶ *arraphostuien*] arrasphostuien.

¹⁰⁶⁷ ‘Mujerzuela’. “Mauvaise femme” (H. ap. *OEH*).

¹⁰⁶⁸ *solas molas gauzezetan*] solas molasetan gauzezetan.

¹⁰⁶⁹ “Afectado” (Larramendi). Hitz hau ez da, guk dakigula, beste inon lekukotu. Ohart bedi gure egileak ez duela Larramendiren forma egokitu: ez *h*-ari doakionean, ez eta erroari berari ere, *irudi* bakarra baita testuan; bestenez *guehiduritu* igurika genezake. Cf. *esanguia* (180) eta *loiguille* (205).

phartez eta < 187 > hari zor diyoyan omenagez, erran diezadayan¹⁰⁷⁰ eguia, eya hi hizanez eguiazco Mesias eta gure Yainco haundiaren semea.

Orai artio ichilic¹⁰⁷¹ egon duc, Bettiriño, Salbatzaille hau; bainan hemen aditu duenian Yaincuaren izen adora garría, zeinarentzat bethi baitzuien donegarriric¹⁰⁷² edo errespecturic haundiena, eta zeren aphez haundien presunentzat, heyen ministerio sacratua zela causa, orainic errespectu haundi bat ekhart-zen zuien —nahiz berenez gaichtaguin batzu ziren—, ihardesten dioc beraz: *Bai, ni nauc hic dioyan hura*. Etzauc iduritzen, Bettiriño, asqui clarqui eta agueriqui erran ziola hura zela eguiazco Mesias, hainbertze patriarkhen desircunde garxuaren, eta profeta sainduyenen promes ederren osamenduia? Hurachet zela, nahiz probezaren¹⁰⁷³ ilhunbe tristen azpian estalia, diamantezco mina edo meatzea baliosenen hura! Erran nahi diat Yainco bizi eta puyantenaren Seme maitea.

Bertz-alde, nahiz guezurari ezin hurbilduzco eta eguiatic ezin urrunduzco Salbatzaille zerutar hunec erran zayen, asqui aguertuquiró, < 188 > hura zela Messias, yadanic aditu duian bezala. Eta zeren mundura yinna zen ez justuen, bainan bai bekhatoren onduan (berac erran zuien bezala), eta zeren anhez pena zuien itxu dohacabe hoyen galtziaz, orainic eguiten dic undar effort bat, ez merechi zuten bezala juye garatz eta ezin doblatuzco bezala, bainan bai aita on amulchu eta urricalmendutxu bezala, erraiten dayelaric: *ez banau-zuie sinhetxi nahi egun zuien Salbatzaille bezala ezcozco beharri¹⁰⁷⁴ horiec idequiric, eta beguietaco borondatezco banda¹⁰⁷⁵ horiec khenduric; ikhusten nauzuenian zerutic yausten, loriaz bethia, eta nore Aitaren escuneco aldian yarria dagon semiari choilqui zayon mayestatiaz bestiua, borchaz sinhexico nau zuie yuye justu, garatz eta ezin doblatuzco bezala.*

Etzauc iduritzen, Bettiriño, hitz hoc asqui behar zirela Cayfas infame huni ikharaturic, odola bere zaynetan gatzarazteco?¹⁰⁷⁶ < 189 > Bizquit-artian, contrarat atxein hartu zian, zeren den eguiaric haundienena eta clarenena, den phozoinic

¹⁰⁷⁰ Ikus *ziozola* (43).

¹⁰⁷¹ *ichilic*] *ihilic*.

¹⁰⁷² Cf. *donecarria* “venerable” (Larramendi). Hemen *donegarri* izenki gisa da emana, ‘veneración’ adieraziz; gogora bedi *-garri* atzizkiak izenkiak ere sor ditzakeela. Cf. *ikhusgarri* (11, 18, 81, 164).

¹⁰⁷³ *OEH*, *pobreza* hitzaren gainean: “Documentado en textos meridionales, sobre todo de léxico poco cuidado. La forma *probeza* sólo la emplea Capanaga”.

¹⁰⁷⁴ *Ezko* ‘cerumen’; cf. “*Beharrietako ezkoa*” (SP ap. *OEH*).

¹⁰⁷⁵ ‘Banda / bandage’. Cf. *bandatzen* (193).

¹⁰⁷⁶ *gatzarazteco*] *gatzarazco*.

lanyerosenera itzul araziric,¹⁰⁷⁷ haurkhitu zuien arrazoin etchurapenezco bat hunen hilarazteco.

Zer eguiten du, beraz, sabel zuri nabar, amarutxu, hipocrit hunec, erho bat burutic yauziric izan baliz bezala? Abiatzen duc bere soineco yantzien phorrocetzen, bere barnian zuien hipocrisia nabarra edo atxeguin¹⁰⁷⁸ beltza¹⁰⁷⁹ desencusatzen edo disimulatzen zuielaric, bere lagun enuchent hec bere alde itzul arazteco, eta abiatzen duc oyhuca, Salbatzaille zerutar hunec, eguiaz mintzatuz, bere buruia Yainco zela erranic burho haundi bat eguin balu bezala! Zeren onduan gabiltza^{1080, 1081} frogantza eta lekhucoqueta¹⁰⁸² guizon hunen condemnatzeco? Ez duzuie ikhusten berac bere buruia condemnatu duela, bere buruia eguiazco Yaincuaren seme eguinez? Zer iduritzen zaut-zuie? Zer behar dugu guehiago hunen condemnatzeco? < 190 > Etzuian guehiago behar den gaichtaqueriaric zuzen contraquenaren,¹⁰⁸³ eta¹⁰⁸⁴ injustiziaric beltzenenaren obratzeco, yadanic prevenituac, disposatuia, preparatuia eta desogobituia¹⁰⁸⁵ edo determinatuia ziren cañale^{1086, 1087} hequientzat; eta hola, guti phenxaturic, eta orainic gutiago dudaturic, guziec boz batez oyhu eguin zitean: *Jesusec hiltzia merechi du! Deus est mortis!*

Huna beraz, Bettiriño, nun dugun sainduien sainduia, erreguen erreguia, pu-yantzia, autoritate, podore, indar eta ahal guzien ithurburua; ez guizonez, bainan bai aingueru zerafinez nagusi bezala obedituia, erregue bezala gortheatuia, yainco

¹⁰⁷⁷ *itzul araziric*] itzul alaziric.

¹⁰⁷⁸ Bokalarteko gaxiki duen formaren okurrentzia bakarra. Gainerateko guztietan *atxein* (17 agerraldi).

¹⁰⁷⁹ Cf. *zer perfidia nabarra, zer hypocrisia beltza!* (15) eta ikus oharra.

¹⁰⁸⁰ *gabiltza*] *gabiltz*.

¹⁰⁸¹ Zuzendu dugu izkribuan irakurtzen den *gabiltz* harrigarria, ez baita holakorik bizkaieratik kanpo, eta are gutiago Lapurdin. Cf. *zabiltzala* (171) eta *zabilzatezte* (89, 176).

¹⁰⁸² 'Lekukoen xerka'. Cf. *urqueta* (40) eta ikus bertako oharra.

¹⁰⁸³ *Zuzen-kontrako* "injuste" (Lhande). Hazparden lekukotua: *Herri bateko gizon guziec nahi ukanikan ere Jainko-legea bazterrerat eman, zuzen kontrako legea litake; indar gabeko legea.* (Hiriart-Urruty: *Mintzaira*, "Nahi ez dutenentzat").

¹⁰⁸⁴ *eta*] et.

¹⁰⁸⁵ *Desegobitu* "Determinar, lo que está indiferente" (Larramendi).

¹⁰⁸⁶ *cañale*] *yecañale*.

¹⁰⁸⁷ Cf. fr. *chiennaille* > *canaille* "ramassis de gens méprisables ou considérés comme tels" edo, norbanakoaz, "individu malhonnête et sans scrupules". (*TLF*). Grafia iluna da, autozuzenketa bat dela medio. *Canaille* bezalako zerbait espero liteke, baina palatalizazioa ezkerrea mugitu da.

bezala ohoratuia, laudatuia, maithatuia, eta ikhara daldaretan adoratuia, herioric cruelennero eta desohoragarrienera condemnatuia: *Deus est mortis*.¹⁰⁸⁸

Eta noiz? Bat ere eta den gutiena ere hobenic gabe, mundu guziaren,¹⁰⁸⁹ eta guziz¹⁰⁹⁰ itxu triste, sorhayo,¹⁰⁹¹ soryes hoquierri <191> bere beguiac arguituric, hoyen salbatzeco bere effort guziac eguiten dituen demboran! Eta nun, Bettiriño? Justiziaren buruzagui eta aphez haundiaren (Cayfasen) etchian eta tribunalian! Oy zer suerthe tristia, zori auhengarria, tranze gaitza eta lanze infamia! Mintza ala ichil dadin, bethi hobendun¹⁰⁹² duc catamotz¹⁰⁹³ errabiatu hoquien beguietan: ichiltasuna mezpretzio batentzat¹⁰⁹⁴ hartzen die; eta mintzo bada, nahi bezen eguia haundiac eta claruac erranic ere, burhotzaille bezala accusatzen die! Oh notha gabeco bictima garbia, eta bildoch tendre eta amulchuen! Tormentazco egun cruel hunen urratzia hunen kharatxa denian, zer izan behar da eguberdia?

BETTIRIÑO: Yauna, barkha zadatzut, eta dembora berian othoitz eta errequeyzen zaitut ez aitzinago yoaiteco, ezic nahiago dut tragedia bihotz erdiragarri hau aditu eta ikhasi baino, yaquin-ezic adoratu!

CADET: Ez, Bettiriño; zeren comeni da Jesusen bizia bezala heriua ere yaquin dezayan; amorecatic hic eta mundu guziac yaquin dezan, Yaun zerutar hunec gure favore eta < 192 > abantailetan¹⁰⁹⁵ eguin dituen urhax penosac eta nekhe izerdiac ongui ezaguturic, zor diotzagun¹⁰⁹⁶ eta, merechi dituen bezala, gure ahalez esque-

¹⁰⁸⁸ Hau da, erretorikaren aldetik, pasarterik aberatsenetako bat. Zerrenda eta gradazioen bidez heltzen da klimaxeraino (*herioric cruelennero eta desohoragarrienera condemnatuia*); ondoren kadentzia gisa baliatzen da latinozko *Deus est mortis*.

¹⁰⁸⁹ Genitiboan dateke objektua: *mundu guziaren, eta [...]* hoyen salbatzeco.

¹⁰⁹⁰ Cf. *guziz egungo nescacha gazte urguluxu eta arinentzat* (55).

¹⁰⁹¹ 'Legendun', baina baita "traidor, de malas intenciones" (*VocBN* ap. *OEH*).

¹⁰⁹² *hobendun*] hoben dun.

¹⁰⁹³ Ikus *catamotz* (17).

¹⁰⁹⁴ Hemen *-(r)entzat* markak prolatiboaren balioa bereganatu du (cf. fr. *prendre pour*). Pikabeak (1993: 152) XIX. mendean kokatzen du erabilera honen hedakuntza. Bada beste etxenplu bat: *lacho ezachola batentzat phasatuco hiz!* (192). Ikus, halaber, *abaraziosac diruarentzat comuzqui eguin ez dezaqueyenic ez den bezala* (171).

¹⁰⁹⁵ *abantailetan*] abantaille abantailetan.

¹⁰⁹⁶ *Zor diotzagun* da *jaquin*-en objektua: *mundu guziac jaquin dezan [...]* zor diotzagun. Orduan zergatik ez ote du konpletiboaren itxura hartzen (*diotzagula*)? Gure ustez *amorecatic* sarrazten dituen bi perpaus finalek *-n* gisako joskera eskatzen dute: *jaquin dezan [...]* *eta esquerrac bihur diotzagun*; beharbada egileak horregatik idazten du *diotzagun diotzagula* behar lukeanean.

rrac bihur diotzagun.¹⁰⁹⁷ Bertz-alde, eguiazco soldado batec bere capitain edo buruzagiaren eguintzez curiosic artha hart-zen duien bezala, hic, Jesus Christoren eguiazco soldado fidel eta leyal bezala, hic ere guisa berian artha hartu behar duc, heure nagusiaren biziaz bezala, haren beraren heriuaz ere billaquieitzen¹⁰⁹⁸ edo chehequi iformatzen hiz-alaric; bertzela, lacho ezachola¹⁰⁹⁹ batentzat¹¹⁰⁰ phasatuco hiz! Orainic guehiago: ez duc deusetan ere hobequiago ezaguturen judu itxu, do-hacabe, traidore hoquien baiathan baino, Yaun Gorenen eta aita amulchuenen hunen escuietatic urrunduc diren hilcorrac¹¹⁰¹ zertaco ez diren capable.¹¹⁰² Go-azin beraz orai aitzina, oharpen labur hunen onduan.

Caifas soryes hunec urratu zituenian beraz bere yantziac, zeinac < 193 > baitzen juduen artian indiñazionezco froga bat, eta erran eya zer frogantza behar zuten guehiago berenaz, inozentzia eta garbitasuna bera zen bictima lyndo¹¹⁰³ haren condenatzeco. Uzten dic beraz Caifasec soldado eta muthil nescato, edo hobequi erraiteco otxo odol gose eta errabiatu heyen astapar crueletara. Eta hoc yadanic hiltzera condenatuia zen guizon indigno bati bezala lotzen zaizcoc, batzu thu khe-rruca¹¹⁰⁴ bere bisayara, erakhustera emaiteco nola ohoratzen zuten zeruan ikhara daldaretan aingueru zerafinez adoratua den presuna majestuosen hura; bertzec beguiac bandatzen¹¹⁰⁵ eta beharri ondococa bisaya uzpelcatzen,¹¹⁰⁶ oraico guehiago trufatzeco, eta hartaz irri eta farra guehiago eguiteco, profeta guezurti eta mesias

¹⁰⁹⁷ *Diotzagu* ‘dizkiogu’ ongi dokumentatzen da lapurteran. Corpus Arakatzaillearen ar-bera, soilik Hiribarrenek eskeintzen du subjunktiboaren adibide argi bat: *Eman diotzagun bizkarrean Heretiko, Xizmatiko, Judu, Pagano eta sinheste-gaben trufa eta hirriak* (*Euskaraz egia*, xix). Pasarte honetan bi aldiz ageri da, baina ez dira berdinak: nonbait *io eta *ezan laguntzaileen arteko nahastekamendua gertatu dateke, emaitza sinkretiko batekin: *dietzogun* (bat. *diezazkiogun*) > *diotzagun*. Erremarka bedi lehen aldian zor *edun dugula, eta bigarreanean aditzoina baliatu dela, *ezan-ek eskatzen duen bezala.

¹⁰⁹⁸ *Billaquindu, billaquindetu* “Averiguar”, “escudriñar” (Lar.).

¹⁰⁹⁹ *ezachola*] ez achola.

¹¹⁰⁰ Destinatioaren marka balio prolatiboarekin. Cf. *ichiltasuna mezpretzio batentzat hartzen die* (191). Ikus, halaber, *abaraziosac diruarentzat comuzqui eguin ez dezaqueyenic ez den bezala* (171).

¹¹⁰¹ *Hilkor* ‘mortal, que causa la muerte’.

¹¹⁰² Sintaxi korapilatsua. Perpaua sinplifikatuz: *ez duc hobequiago ezaguturen hoquien bai-athan baino, aitaren escuietatic urrunduc diren hilcorrac zertaco ez diren capable*.

¹¹⁰³ Ikus *lyndo* (4).

¹¹⁰⁴ *Kherru* ‘flema’, ‘crachat’.

¹¹⁰⁵ Hemen *bandatu* ‘banda batez estali’. Cf. fr. *bander* “couvrir, entourer, lier ou serrec avec une bande” (TLF). Cf. *beguietaco borondatezco banda horiec* (188).

¹¹⁰⁶ Hiperzuzenketa, bestenaz <s> grafiaz agertzen da: *uspelcatzen* (183), *uspelez* (194). Cf. *ezcritura* (27).

faltxu deitzen zutelaric, eta oyhuca erraiten: *Christo edo hizana hizela, phent-xa zac eya norc yoiten huien!* Justiziaren ministruec, insolentzia eta legue guzien con-traco inyurio hoc debecatu beharrian, orobat eguiten zioteyan < 194 > bere es-cuietaco zigarruez¹¹⁰⁷ yoiten zutelaric.

Hitz batez, Bettiriño, hemen izan zuian Salbatzaille zerutar hunen presuna atxecabe, inyurio, bidegabe, desohore eta ahalgue suerte guzietz sunxituia; eta bi-saya christal,¹¹⁰⁸ linyo,¹¹⁰⁹ lastan, garbi, distirant hura thu kheruz histua; eta gor-phuz sacratu, eta Izpiritu¹¹¹⁰ Sainduiaren obra admira-garri hura, uspelez hantua¹¹¹¹ eta beztua. Dudaric gabe, Bettiriño, Caifasen sala aitzinian Jesusec pai-ratu zituen trufa eta mofa hoc izari gabezcuca izan behar zituian, eta orainic gue-hiago gau oso batian!

Bainan bizquit-artian,¹¹¹² Salbatzaille zerutar hunec orainic bazian, bere biho-ztian, pena bat hoc oro baino saminagua, zeinac baitzen Yendone Bettiri bere dis-cipulu maite. Eta orainic memento bat baizic etzuiela, ez choilqui harequin hil beharic ere etzuiela utzico solas ederrac, bainan orainic bere ezpata nagusiaren manuric gabe bere bainatic atheraric defendatu¹¹¹³ nahi izan zuien < 195 > haren eroricua. Ikhusac hemen, Bettiriño, eta ikhas zer ez dezaqueyen eguin amodiuz eta belduraz khechatuia eta herchitua den bihotz batec.

Bettiri sarthu zuian Caifasen etchian —zeren, nahiz ez anhitz, halere zerbait adichquidetasun¹¹¹⁴ bazuieren— anhitz hotz eguiten zuien istant bat berotzera, eta haren nagusi orai artaino maitiaren¹¹¹⁵ causa edo eguitecua zertan gueldituren tzen ikhustera. Idurituric beraz Caifasen berteruari¹¹¹⁶ —zeinac baitzen emac ume esdeus bat— arotza zela, eta suiaren argui choilarequin ezin ongui ezagutuz, hur-biltzen zacoc eta erraiten: *Eta zu etzira Galileo edo Jesus Nazarentar delaco hunen discipulua? Bederen yende enguenazaille edo opeator hunequin bizi izatu zira? Galde hunec hain*¹¹¹⁷ hunen izpiritua trublatu, nahasi, eta ikharatu zian, nun hain Yainco

¹¹⁰⁷ Ikus *zigarro* (182).

¹¹⁰⁸ Ikus *nescacha christal* (4).

¹¹⁰⁹ Ikus *lyndo* (4).

¹¹¹⁰ *Izpiritu*] izpiru.

¹¹¹¹ *Hantu* aditzaren lehen adiera, fisikoa: ‘hinchar / enfler’. Cf. *hantuac* (98) eta *hantu* (139).

¹¹¹² *bizquit-artian*] bitzquit-artian.

¹¹¹³ Hemen *defendatu* ‘eragotzi’ (cf. fr. *défendre* ‘empêcher’).

¹¹¹⁴ *adichquidetasun*] adichquide tasun.

¹¹¹⁵ *maitiaren*] maitaren.

¹¹¹⁶ Forma lekukotugabea. Cf. *bereter*.

¹¹¹⁷ Ohart *hain*-en lekua: *hain hunen izpiritua trublatu zian*.

haundi eta nagusi onaren ahaztia asqui etzen, orainic guehiago erran baitzuien: etzela haren discipuluia, eta orainic guehiago, etzuiela ezagutzen ere, eta hola, etzaquiela ez nortaz, ez zertaz mintzo ziren ere.

< 196 > Istant berian guerthatu zuian Salbatzaille divino harc erran zuiena. Yaquitia comeni duc: nahiz haren hitz eta promesac hain ederrac ziren, hiruretan,¹¹¹⁸ oylarrac cucurucu yo gabe, mundu guziaren aitzinian, ez choilqui aithortu edo confesatu, bainan orainic hainbertze berthute eta curayequin defendatu nahi zuien nagusi hoberen hartaz ukho eguinen zuiela; eta erran eta eguin, hitzez hitz holache guerthatu zuian. Oranic bere apostasia desohoragarriari yuramenturic traidorena juntatzen zangolaric —eta hoc oro emac ume ezdeus¹¹¹⁹ baten boz flacuac lotxaturic—, oren baten ingurua baizic etzuian egon Bettiri itxumendu auhengarri huntan, zeren bere nagusi maitiac —nahiz instantian etzuela egundaino ezagutu ere erran zuien—, discipulu aitzinian curayos bezen orai herabe hau begui colpu¹¹²⁰ choil batez bere baithan < 197 > sarraraziric, etche ifernutar hartaric ilkhiaraziric, nihar¹¹²¹ urhuritan¹¹²² abiarazi zian.

Huna nun dugun beraz hemen, Bettiriño, gure buruac ongui erakhusten modela eder eta mirail justu bat. Bekhatu eguin zian, bainan ezagutu duen bezen laster, nihar abundantena lekhuco erakhuxi dic; zonbat dolu, pena, hira, crina¹¹²³ eta urriqui zuien bere nagusi maitia ofenxatu eta bidegabeturic, eya beraz hic, eta nic ere, eta mundu guziac ere, hala eguin behar diguc; ez hitz eta promesez, ez, bainan bai hunec bezala, nigarrez; hau bere bide okherretan seguitzeco malurra ukhan badugu. *Secutus es peccantem sequere penitentem.*¹¹²⁴

¹¹¹⁸ *hiruretan*] hirur etan.

¹¹¹⁹ *ezdeus*] ez deus.

¹¹²⁰ ‘Ojeada / coup d’œil’. Ikus *colpu* (43).

¹¹²¹ *OEH*-ren arabera “La forma general al Sur es *negar* y al Norte *nigar*... Si no se trata de una errata, hay *niharra* en Etxeberri Zibirukoa”. Ikus FONOLOGIA.

¹¹²² Cf. *nigar urhuritu* (12).

¹¹²³ Ikus *hira eta crina* (71).

¹¹²⁴ Axularrek ere aipu hau ekartzen du: “Qui secutus es peccantem, sequere poenitentem (*In vita Sancti Ambrosii*). Baldin oraiño koan iarraiki bagatzaizte sainduei bekhatu egitean, iarraiki behar gataizte halaber bekhatuen utztean, eta behin utziz gero, ez berriz hetara bihurtzean. Fineraino eta finean perseberatzen duena, izanen da salbatua eta ongi zortheatua”. (*Gero*, V, 306).

Bettiri, beraz, nigarretan zaguelaric bere faltez eta zoramenduez, eguna yin zen bezen laster, eguiten die soryes¹¹²⁵ heyec biltzarre bat, eta ekharraazten¹¹²⁶ < 198 > Salbatzaille zerutar hura Caifasec bezala examinatzeo harat. Bainan etzayeyan Jesussec hemen eman Caifasen echian edo yaureguian eman zaizten arraphosta berac baizin, bainan aitzinean zezaqueyen¹¹²⁷ bezala miniztatzen¹¹²⁸ edo mehachatzen zituellaric bere malezia eta hypocrisia nabarraz, erraiten zayelaric heyec eguin zaizcoten galden gainian —yaquitia comeni duc—, eya hura zenez Christo heyen erregue zelaco hura; hunec ezagutzen zuielacotz etzirela injustiziaren ministro gayen hoc estatutan¹¹²⁹ ez hunen ezhoben edo inozenziaren ezagutzeco, ez eta ere esclabo zagonaren libratzeo. Khasuric eguin gabe, merechi zuten bezala, utzi zitian.

Bainan —zeren judu itxu cruel hoyec bere injustiziari arrazoinaren < 199 > etchurapen argal bat bederen eman nahi zioten, bictima hoben gabe hau abrildu baino lehen eta justuaren odol garbian bere escu odolkhoyac trempatu baino lehen— ereman zitean, Jerusalemeco carricac gaindi, Pontio Pilatus erromanuen phartez Judean manatzen zuien haren ganat,¹¹³⁰ amorecatic hunec, bertze arrazoinic batere gabe, baizic catamotz¹¹³¹ hoquierri atxein eguiteco, hiltzera condemna zezan.

Zer humiliacionia, Bettiriño, orainic laur egun choil baizic etzuiela juduen erregue bezala, hainbertze berdura eta ohore eta phesten artian iragan zituen carrica heyen beren¹¹³² egungo egunian, gaichtaguin bat bezala garrotatuia phasatzia! Bai, Bettiriño, humiliacione hau hain izan zuian desohoragarria Jesus zerutar huentzat, nun Judas gaichtaguinac berac ikhusi zuenian hainbertze yende osperen artian bere nagusia Cayfasen etchian hiltzera condemnatuia, undar sententziaren¹¹³³ onduan Pilatusen etcherat zeramatela, < 200 > ezin pairatu ukhan¹¹³⁴ ahal

¹¹²⁵ *soryes*] soyes.

¹¹²⁶ Aditz arazleen grafia ez da osoki finkatua. Cf. *oharraraazy* (156), *ekhararaazi* (179), *sinhex-araazten* (203), *ahatz-zarazteco* (204).

¹¹²⁷ *Ezan aditz trinko bezala: *zezaqueyen bezala* ‘ahal zuen bezala’.

¹¹²⁸ “Reprehender” (Larramendi). Cf. *miniztatu edo rephenditu ere zuen gogorkiro* (Iztueta, *Gipuzkoako dantzak*, 2. zatia).

¹¹²⁹ Hemen *estatu* ‘egoera moral, disposizioa’.

¹¹³⁰ *haren ganat*] haren ganac.

¹¹³¹ Ikus *catamotz* (17).

¹¹³² Perpaua sinplifikatuz: *Zer humiliacionia* [...] *carrica heyen beren* [...] *phasatzia!*

¹¹³³ *sententziaren*] sententziaren.

¹¹³⁴ *Ukhan* aspektua adierazteko, adibide bakarra testu osoan. Hazparneko egungo hizkeran horrela baliatzen da *ukan* (Epelde 2003: 325). Ezaugarria, beraz, hedatuz joan da.

zian estatu desohore garrien hura haren bihotz harroca erdiratu gabe; ezic ikhusi izan zuenian bere nagusia, hura zela causa, aphez, maestro, doctore edo bildoch amulchuena, lehoin aztar zorotz eta odol egarri heyen bictima bihurtua, bere crima eta bekhatu haundiaz segurqui bainan orainic halere barkhagarriaz, dolu, urriqui eta penetan yarriric yoan zuian aphez nagusi eta zaharrer bere hogoy eta hamar diru pheza zikhinen bihurtzera, oyhuz zaguelaric justuaren odola traitu eta gaizqui¹¹³⁵ saldu zuyela.

Bainan nahiz yadanic, echuraz bederen, iduri zuyen bere falta ezagutzen zuuela, etzian aphez nagusietaric bertze arraphostaric aditu, baizic heyec asqui pagatu zutela gaichtaguin hura, eta hunec gaizqui eguin bazuyen hoyec etzutela hobenic, eta hola hunec berac ihardetxi beharco < 201 > zuuela. Orduian Yudas athera zuian, bere diruac —edo egundaino munduan izan den eta izaren ere den gauzaric baliosenaren prezia eta dirua— templan aurthiquiric. Huna artaino, Bettiriño, Judasen urhaxac gaichtoco hoberenac dituc, eta gaizquia behin eguinez gueroztic, zerbait ere guisaz laudagarriac ere.

Bainan templu malurus hartaric ilkhi zen bezen laster, guertatu zacoyan miserable dohacabe huni ordenariuan edo comuzqui bekhatore guzierrri guertatzen ohi zayena. Yaquitia comeni duc: Debruac hirritatzen, khizitcatzen, tentatzen eta tiriitatzen¹¹³⁶ duyenian bekhatore zoro bat bekhatu baten eguitera, mamu infame, yelos, inbidios hunen lehen urhatxa duc ausiqui nahi duien bictima zoruaren loac harraraztia: *Sopit, quos inficit*. Eta bekhatuaren itxusitasun, zikhinqueria eta nar-daqueriac, bere ahalaz gordetzia, edo achinchu¹¹³⁷ kharatxaren echurapenez bederen, ezti bihurtzia. Erran nahi diat bekhatuaren < 202 > haunditasuna eta ondorio dohacabeac gorderic, choilqui bekhatuaren plazer phasacor eta higunaren, choilqui beguien aitzinian ezartzia.

Exemplutto batez hobequi endelgarazico dayat. Nola ere arranzaille habil eta experimentatu batec arraina hatzeman nahi duyenian urian amua ezartzen ohi baitu adrequi, ongui chorochturic, eta zoinbait arrainec maite duten phazcaz edo yanhariz estaliric —zeren¹¹³⁸ amu hau bakharric utziric ez bailio¹¹³⁹ deus ere hatzeman—, orduan arrain gaichuac, uztez phazca hura bakharra den, lotzen zaizcoc phazca hari

¹¹³⁵ *gaizqui*] gaiqui.

¹¹³⁶ *Tarritatu, tirritatu* ‘irritar(se), enojar(se)’; ‘provocar, excitar’ (A. apud *OEH*).

¹¹³⁷ ‘Ajenjo, *Artemisia absinthium*’. ‘Zizari belharra’.

¹¹³⁸ *zeren*] zeren zeren.

¹¹³⁹ **Iron*-en adizkia, ‘bailezake’. Ikus *ezdiogu* (10).

eta han behin bethicotz lothuac eta galduac guelditzen, guisa berian eguiten dic izpiritu gaitex-garri eta malino harc —erran nahi diat Debruac— gu bere sare eta amu enguenosetan error-arazteco:¹¹⁴⁰ zer ere baitugu maitenenic,¹¹⁴¹ edo zertara ere baiquiria ekharrienic, eta hartarat < 203 > khitzitcatzen eta hizatzen gutic, campoz gocho bezen barnez kharax den hamu lanyeros bat hedatzen daucularic...

Hori dela causa —zeren zaquien Yudas malurus hau anhitz ekharria zela dirura, beraz anhitz abaraziosa zela— amu lanyeros eta mundu guzia azpiaz gainera iraulia daucan hauche hedatu zacoyan, erakhusten edo sinhex-araazten¹¹⁴² zangolaric haren nagusi zelaco hura guizon simple bat zela, eta hogoi eta hamar diru phezec harentzat guehiago balio zuquetela. Etzuyan anhitz penatu izpiritu malino hau Judasen amu lanyeros huntan eror-araazten, ezic Elizaco aita batec erraiten zaucuc Judas ohoina zela eta Jesus Christo bere nagusiari ya hamar-garrena bethi ebasten zangola: *Fur, et latro erat*.

Ya abaraziuaren esclabo, itxu hunec bere escu lohiac inozenciaren odol balios eta precios huntan trempatuz gueroz, orai artaino casic deusic etzela Judasen crima hau erakhusten zangon Debru berac, hain < 204 > haundi eta beltz erakhuxi zangoyan bekhatuaren esclavo maluruz eta miserable huni, nun Judas, deseparacionian sarthuric, eta bere diru malurusa¹¹⁴³ templuian aurthiquiric, bere burua urkhatu baitzuien. Judu itxu eta cruelac, diru huntaz gucz imbarrazatuia, eta orainic are guehiago Judasen doluiac eta urriquiaz, berriz capito¹¹⁴⁴ edo biltzarre bat eguin ziteyan, eta boz batez deliberatu, arrotzentzat hilerry eguiteco lur pochi bat erosi behar zutela. Eta holachet eguin ere ziteyan, Bettiriño; bere uztez, eguintza injustu eta abominagarry¹¹⁴⁵ bere prezio zikhinarequin, lur pochi hartan ehortzitic ethorquipenari¹¹⁴⁶ ahatz-zarazteco.¹¹⁴⁷

¹¹⁴⁰ Perpaus luze hau sinplifikatuz: *Nola ere arranzaille batec amua ezartzen obi baitu adre-qui, orduan arrain gaichuac lotzen zaizcoc phazca hari eta lothuac eta galduac guelditzen, guisa berian eguiten dic Debruac gu bere sare enguenosetan error-arazteco.*

¹¹⁴¹ *maitenenic*] *matenenic*.

¹¹⁴² Aditz arazleen grafia egongaitza. Cf. *oharraraazy* (156), *ekhararaazi* (179), *ekharrazten* (198), *ahatz-zarazteco* (204).

¹¹⁴³ *malurusa*] *malusa*.

¹¹⁴⁴ “Assamblée” (Martin Harrieten *Voces Gramaticales*).

¹¹⁴⁵ Artikulua edo beste determinatzaile bat falta dela iduri luke.

¹¹⁴⁶ Hapax, ‘etorrera’. Cf. *ethorquia* (83), ‘advenimiento’, adiera honekin lekukotu gabea.

¹¹⁴⁷ Aditz arazleen arazo grafikoen beste erakusgarri. Cf. *oharraraazy* (156), *ekhararaazi* (179), *ekharrazten* (198), *sinhex-araazten* (203).

Bainan Bettiriño, ah hilcorren urhaxac zoin diren itxuiac eta okherrac Yaincua-
ren deseinuequin! Judu itxu hoyec, atzione higungari hunen estaltzeco gorderic,
ehortzirik ahatz-zarazteco hartzen dituzten moyen berac hoyec,¹¹⁴⁸ nahi eta ez,
mundu guziari atzione infamenen hunen erakhusteco baliatzen zaiztec. < 205 >
Ezic egungo egunian ere, lur hura deitzen duc Haceldama, erran nahi dic *odolezco*
lurra, eta hemen osatuia izan duc Zachariasen asmequia¹¹⁴⁹ edo profezia, zeinac
populu judeatarra representatzen¹¹⁵⁰ zuyelatic, erran baitzuien hainbertze ehun
urthe aitzinetic: *errezebitu ditu hogoi eta hamar diru pheza, guizon ezin asqui aprezia*
*garri baten preciua, zoinec yaunaren ordenez erosi*¹¹⁵¹ *baitzuien funtz loiguille*¹¹⁵² *bat*.

Arte huntan heltzen duc beraz Jesus ahalgue gorritan, eramana Jerusalemeco
carriquetan gobernadoriaren yaureguira, gaichtaguin bat bezala estecatua eta ga-
rrotatuia.

[BUKAERA]¹¹⁵³

¹¹⁴⁸ Ordena bitxia: *moyen hoyec berac* espero genuke.

¹¹⁴⁹ < *Asmegi* “profecía, etorkizuneren *asmequia*, *profezia*” (Larramendi). Gure iduriko, egileak
Hiztegi Hirukoitz-era jo du, lotura etimologikoaz ohartu gabe, bestela *h* batez hornitzen luke
jesuitaren proposamena. Cf. *asmatzalle* (Lar.) > *hasmazaillic* (83); *hasmatu* > *hasmapena* (79).

¹¹⁵⁰ *representatzen*] *reprentatzen*.

¹¹⁵¹ Hemen, ziurrenera, *erosi* ‘sobornar / soudoyer’.

¹¹⁵² “Alfaharero” (Larramendi). Ohart bedi egileak ez duela hitz hau bere hizkerara egokitu
(*lohiguille*). Cf. *esanguia* (180), *gueiruditu* (186).

¹¹⁵³ Izkribua hementxe finitzen da; bistan denez bukatu gabea da.

